—Eta ez baten bakarrik, iru edo lau aldiz be bai. Lenengo Ameriketako abertzaliak, bera bizi zan etxia erosia (Enbeitafak Usparitxa'n maizter baitira) ta berari emoteko asmuz, diru-pilloa zuzendu eben; baserri-jauziak, baña, ez eban etxanuntza saldu nai izan. Geroagogafenean, geixotu ta lanerako gauza ez, ta etenbarik bertsoz ta itzaldiz abefi-zear ibilli bear, diru-batze bat osotu zan abertzalien artian. 1923'gko zezellaren 22'an, Kirikiño'k; "Enbeita, osasunaz aspaldijetan egon ez afen, abertzaliiek iñora deitutene eutsoenian, apal-apal da bape atxaki barik juaten zan, eta bere oleski ta itzaldijekaz euzkeldun abertzaleei (baita erdel-dunei be) poz andija emoten eutsen, eta Jel-azija oparo erein eta zabaldute-eban. Gixajua, urteko igande ta jayegun geyenetan bere etxetik kanpora ixaten zan, aberrijaren aldezko lanetan ezetzik emoten ez ekijalako. Jel-Batza'ko agintarien esanera beti gertu ara edo ona juateko: Lan andi oftatik berak ez eukan irabazterik, lan oftatik ez eban etxeratzen bere sendijantzako laguntasunik. Ondiño txafago: lan aberkoi eder ortatik okefa etorkon Enbeita'ri, piperpote aldeko miña-jabe ta lantegi-jabiak (geyenak Bizkaya'n) "boikot" andija egin eutsoelako. Berak lanotzarak saltzen zituan leku gustieta, piperpotiek guda gogofa egiten eutsoen, eta berezija galdu-azo. Gofiak daukoz ikusita Enbeita gixajuak onetan! Iraoko urte batzuetan osasunian jausi da ta naikua kili-kolo dabil. Eztau indafik otzaragiñan lan egiteko, zegaz bixi izan be eztau, ta etxe-bete ume... ta olan aurkitzen dalarik, bertan bera lagako dogu Enbeita lako oleskaria, Enbeita lako abertzalia, Enbeita lako gixona? Ez, eztogu lagakol Bakotxak apurtxa bat ipiñi ezkero, danor artian igafi barik zuzenduko dautsogu danok ainbeste maite dogun Enbeita'ri, berak biar daun beste bere gexuari aurre-emoteko ta bere ume-pillua aufera atara al ixateko. Ofegaitik gure Jelbatz-nausijek ontzat artu eben Enbeitaren aldezko arpide (suskriziiro) bat emoteko asmua, ta Arpide-Batzorde bat ixentauta dago, ta beronek oftako arpide-ofijak egin ditu ta bialdu alde gustijetara, U. B. B. ta Jel-batzokietara, ofi ofeetan bakotxak zenbat emongo daun iru-illegibetoro adirazo dagijan." Geroago be egin ziran antzeko diru-batzeak, Enbeita'ri laguntzeko.

1926'gko irallaren 19'an, igande illuntzean, zoritzar batek lau-ofitan jafi eban Usparitxa: Kepa'fen ama, gorenengo zurmaillan uts eginda, malarik malla, be-beraño jausi zan, gorputz gustia mallatuaz; eta jauskeran, ezkefecho eskuturra ausi ta eskumakoa be zauri-zauri egiñik geratu yakon. Baltza, benetan! Alan be garai onetan dakusgu amak noraño maite eban Kepa. Danak sayatu ziran noski amari arduraz laguntzen, baña Kepa'ren eskuak ba-eban alako gozotasun biguña. Amak beti esan oi eban: "Gure

Pedro datofela, apur bat erain daistan; berak daki ondoen nundik eta zelan oratu biar daustan." Eta Kepa'k zirkintxu bat eragin ezkerro, len erostaka ba-eragoyon be, alai ta ifipartsu geratzen zan. Kepa'k,ostera, ao-gozo: "Ondo ipiñi zaitut,ama?" —"Bai,Pedro, zeruan ipiñi nok! ..." Andik egun batzuetara, irallaren 23'an, il zan santu antzean, 77 urte ebalarik. Aita,bafiz, 1928'gko Urrillaren 8'an il zan, Tomas Urutxurtu apaiza-gandik azken-ikurtonak artuta.

—Zenbat seme-alaba izan ebezan?

—Zortzi. Gaur ezkonduta bizi dira; Bizenta ta Efupin Sardui, 1931-XII-26'an, Urkiola'n ezkondu ziran; Balendin eta Kalare (Ealo) Ander Deunaren egunez, 1935'an, Urkiola'n; Edurne (Miren Edurne Arantza) ta Maxi Egileor, Muxika-Ariatza'n, 1942-IX-8'an; Imanol ta Eli Etxandia Urkiola'n, 1943-X-15'an; Sabin ta Boni Martitegi Urkiola'n, 1943-XI-27'an; Itziar ta Jazinto Zabala Urkiola'n, 1943-XI-27'an; Miren Begoña (Begoña'ko Miren paparelan) ta Kepa Ajuria Ariatza'n, 1944-I-15'an. Deunoro izenekoa iru urtegaz il zan. Baita Miren Begoña be Ariatza'n il zan, 38 urtegaz; emakume osoa, ainbat neke-min jasana, ainbat egun zurbil ta mingoztasun artua. Zoil Atxufa jaunaren eskuetatik artu ebazan azken-ikurtonak, txit zerukoi ta eraspentsu.

Urretxindorraren eriotza

Azken-guda aufetxuan, ots, 1936'gko garagarrillaren 12'n, Laguardia'ra aldatu zan; ez ostera geixorik egoalako, amabosta igaroteko asmuz baño. Ta bertan zala gudea sortu. Au tarteko, antxe geratu zan, etxe ta senditik ufunduta, 1937,gafen atzeneraño. An, ia urtero egonaldiak egiten eba-zalako, erabat ezaguna zan, eta adizkide askok agurtu ta maite eben; gefa sortu zanean, ofaitiño, Laguardia aldean euzkeldun legez gizarteko adeitasun ta agufak oro ukatu ei eutsoezan; berak, o.stera, lenago lez txeratsu ta biotz-bsra danak agurturik, apurka-apurka, gaur batek biarbik, bafiro be agurtzen eta rraitekor begiratzen asi ei yakozañ; eta azkenez, Don *Pedro* deitzeraño ekafi ei ebazan angoak, Aldikada aretan Biaizteri'n gertatu ziran apaiz Gelasi ta Nikasi Larrea'k, Kepa'ren seme-alabei esaten ei eutsoen: "Zuek ez dozue zeuon aita ezagutzen; basefi bateko ikasi-bako olako jakintsmuk ez dogu ikusi."

Etxetik alde egozan gustiei safi idazteko oitura eukon. Baita berak, kanpotik zanean, axolaz ta biotz-samur idatzi be. Idazkietan erakutsi daroagu nor garean; Kepa beti agiri yaku edozeñi bizia ta gafa erantsi nayean; etzan aren seta asaferakoa, samur eztitsu baizen.

Biaizteri'n egiñak ditu olerki eder batzuk. Errimiñak jota bizi zan

deritxonean gizonki dautor su ofen miña:

Maite zaitudan jayotetxeoi,
Zugandik urbil bixi naz!
Ni besarkatu ez nadin, baña,
Or neure sendi laztanaz,
Ate zabal bat bitarte jarri
Dauste margorik baltzenaz...
Ezin ikusi, ezin laztandu!
Tamalez ilgo ete naz?

Zure baiirik ez dakart iñok.
Zeugana ezin neu juan!
Ene begiok negar-ituri,
Au gogoratu orduan!
Gure izarrok tinkorik daukez,
Ez ekarri, ez eruan...
Itsua eta gor ba'nengo ke lez,
Emen bizi naz "linbuan" . . . !

—Noz itzuli zan etxera?

—Gera amaitzean. Eiioxoa aldea betiko itxi ta biurtu zan, biotzez maite ebazan emazte ta seme-alabak barne-su biziz besarkaturik. Egia esan, oneitatik lau-bost espetxe ta gudari ziran, etxetit urrin; aita on arek, baña, ez eban iñortxorentzat txafik ez asaferik.

Laguardia'tik etxeratu ondoren, bere loba Bitoren eban lagun, au Uspitxa'n bizi bait-zan. Kimu bafia ekusan, eta kimu bafi lez zaintzen eban Kepa'k; ganera, oso Jainkozale genduan Kepa ta beronek gertatu eban lobatxua lenengo Jaunarlzerako. Eta egun andi ofi yagokon jaiera ta ospez egiteko, traje bafia estrenau eban Kepa'k. Ofen zergaitikoa itantu eutsoenean, onela erantzun ei eban berak: "Gaur besteko egunik ete? Josu-Biotz-eguna ta lenengoko Jaunartzia doguz gaur."

—Garai ontako olerki ta bertsorik?

—Esatekorik ez. Miñetan egoan, antza, Txindofaren bafena, ta abesteko giro egokirik ez. Ez dazaugu garai atako kantarik. Bafi gitxi edo bapez. Biaizteri'tik, olerkitxu batzuk, eskutitz batzuk, besterik ez. Etxera ostean be aintzat artzekorik ez eban idatzit: nonori zorionak eta olako batzuk, berak eskuz idatzita bialduak, bai; edo idazkiren batzuk itz-lauz, zein euzkeraz zein erderaz: besterik ez.

Naiz-ta adu txafaren erpape bizi, etzebillen buru-makur ta mutxin. Emazte ta seme-alabakanako maite-sua ba-eban, ausaz indartsu, bere biotz-zokoan. Seme-alabok ezkonduta eukozen, eta Simeon zafaren antzera, *Nunc dimittis, Domine* abesteko eragozpen barik aurkitzen. zan. Oria emen il baño ille bi lenago Yufetik, bere alaba Edurne ezkonduta egoan lekutik egiñiko kartan zer diñoskun: "Yurre'tik Urkiola'ra, 1942'gko Ufila 17. Goiria Inunzia'tar Benedite'ri. Ene biotzeko emazte on maite ori,

agur: Usparitxa-Jauregi'ko Txindor kumatxarentzat,. . Sebastiana anderia on eta zintzuak eta bere seme Maxi gustioen begikoak,maitekiro gerturiko abijatxo txukun onetan irugafen eguna ondo be onto ta pozez be pozez daruadalarik . . . gaur, larunbata gaberako J.1., txokotxura iango naz. Emen, gure Edurne, poz-pozik bixi dala ikusten dot. Eta Edurne'gaz Olabafi'ko sendi gustija be pozik aurkitzen dala. Eta onek pozez gañezka ipinten dau nire biotza. Jaunak onetsi bedi sendi Jaungoikozko au. Eta zeu, zelan aurkitzen zara,ba,or zeure Urkiola zorioneko ofetan? Ondo? Baietz uste dot. Olantxerik gurako al dau,ba, gustioen Aita Goikuak. Ortik nasai-nasai, patxaraz, ezeren ardura barik ibilli zaitez,arima ta gorputz . . . sendo-sendo eginda biurtu zaitezen ama-suñok. Andoni Deunaren onespenak zeuekin dozuezalarik, ofantza igaroteko aldi ja etofiko yakun bitartian . . . emen be zeuok ekafiriko Deun Andoni-usain gozotan bixi gaitezen. Entzun, Bedite: Atzo, Maxi, geure suin maitagarri onegaz, Afatiña geyena arakatu dot. Zeanuri'ra be ixan giñan; an aizkide asko ikertu ta maitekiro alkar besarkato be bai. Emen, bafiz, zu ikusteko dagon gafamura noaañokoa dan etzenduke siñistu be egingo. Zure lengo senide zafak be emen daukozuz, Leonor, eta abar eta abar. Olabafikuak, barriz, zetan esan bez,a;laba, suin,Sebastiana eta enparau,sendi kistar-eredu aunek zu emen ikustiaz poz andija artuko dabela. Kisto Bakaldun Gurena'ren bezpera gaberako itxaroten zaituez, ba: eta, orduxerarte, neuk be agurtzen zaitut. Ufepin geuriari, gorantzi andiiak eta zeuk artu egixu egiz maite zaituan zeure senar onen biotza." Zelako biotz ederra Urrezkoa darakusgu,nunbait,eskutiz maitekor onetan.

—Noz itzali yakun?

—Ondo gazte zan ondiño; baña Goiko Jaun onak, umotua idoro,antza, ta betiko atseden ditzikofera aldatu auskun, gitxien uste genduanean. Goiz baten ondo-ezak jota ogeraturik, osalariak konturatu orduko lan andijkak egin ebazan geixuak aren gorputz aulean. Bilbora eruan eben, Guimon jaunaren gexotetxera, baña berandu zan orduko. Guimon'ek, ikusi-alan, Kepa'ren alabai onela; "Zuen aita gaizki dago, oso gaizki; Eleizakuak eginda ezpa-dago, ibili arin." Egin-egiñpan be, bere adizkide begiko Agustin Isusi apaiza an aurkitzen zan; eta,bien begiak poz-ñirñir, lagun min onek emon eutsozan azken-sakramentuak. Ondpren, etxera ekafi eben ilteko. Eta, naigabe aundiak izan afen, gizon areri ezin eikeon igafi gexorik ba'egoan be. Etxian egin ebazan egunetan, efi osoa ta ufiñeko jakitun ziran adizkide ta ez adizkide gustiak, uureundik gora ikertu eben. Danentzat eukan aolkuren bat, danentzat zer-esanen bat. Bere emazteari maitasun bizia erakutsi eutson batez be azken-gexoaldian: "—Bedite, ene maite —iñotson—, damutu zara iñoz nigaz ezkontzia?" "—Ez, senarra." "Ezta neu be! Jafaitu zuk Jainko-bidetik." Eta bere seme Sabin'en ezkongei orduan zan Boni'ri: "—Zu ixango zara etxe onetan sartuko zarian andria; emen oitura onak izan dira beti,ta auferantzian

oe ba-dakit zuk olantxe zamauKo dozuna. Eta lagun zar bati: «Gauza andijk ikusteko biarrian ekin dautsagu; baña orain ni ba-noa zerura; zuekbiar bada i k i k dozuez." 1942'gk bnduaren 12'n il zan gure gozoz.

—Eta lur emotean?

—Laguntza andija. Naita egun illunez ta ilbarria ezagun ta adizkide guztietaratio eldu ez, aldra galanta izan zan aren il-ondarrai Muxika'ko efi-iltegiraño lagundu eutsoenak. Gogora emen Lizardi:

Biotzean min dut, min etsia,
nagar ixilla darion miiia ...

Euzkel abeslaririk bikañena gau etengean sartu. Ainbat kanta aberkoi jaulkitako eztafia ixillera betiko. Ezta afitzekoa "begioi malko ixill ba'darie dardarka".

Usparitxa'tik, ufin, Elizalde'tik ur-ur, aldatz-goran, or Muxika'ko illeria, ortu santua. "Zuek orain zariena len izan giñan gu, eta laster zarie gu orain garena" adierazten dausku illobi apal arek. Eta tartian, beste edozein legez, antxe datza Euzkadi'ko Ufetxindofa izan zana. Lau oñeko zuloa, lurra gain, bedar batzuk,autsa. Bizi zalarik, alde gustietan, benetako kristautasun bizia erakutsi bai eban: Kristo'ren Gurutzia ezaUgafi.

Zer geyako? Gain bere olerki samur, *Gokaxuaren cleya* deritzona, ari-dardar, intziriz:

Ene adizkidiok,
Otoi egin nigaiti,
Oben-zoia Jainkuak
Dagiguntzat azketsi.

Oarkizunak

Bilduma au zelan egiñña dan. — Irureun ta ogeta amazortzi poesiko bilduma azi au osotzean, nundik nora ibilli garean jakin-miñez zaukadaz ziur asko, irakurle, ta berezko iski ori asetu nai deutzut,

Gure Enbeita'k, garai aretako aldizkari ta egunerokoetan, euzkel-atalen bat ebenetan beintzat, idatzi eban; batez be "Euzkadi"-n "Ibaizabal"-en, "Aberri"-n eta "Euzkerea"-n. Ba-ziran beste antzeko batzuk be. Oneitatik jaso doguz ia geienak. Gero, ondiño be etxean daukiezan aren esku-idatzi ta paper zafak arakatu doguz, onela egiñik olerki-txorta eder au.

Dan-danak ete dagoz bilduma ontan? Baietz ezin esan. Oso ugaria genduanez, erbesteko aldizkarietan, batez be Ameriketakoetan agertzen ziran iñoi zkaaren lanak. Oneik guztiok ete dagoz bilduma onetan?

Billa ibilli arren ez dot aurkitu diploma batez saritua izan eban bat. Etxekoak diñonez, gelako orman esegita eukon guda aufetik sari-oroi-galu ori, Baztan'go uyolari egin eutsonagaitik lortua aurki. Alak al, ez dot eskuratu olerkitxo ori; lofatza bai, ostera. Ona zer diñon "Euskal-Esna-lea"-k (1914, garagarrilla), 147 gn. ofialdean:

"Izneurti-batzaldia.

Abadie jaunak asi zituan euskal jaiak aufera eramateko izendatua dagon batzafeak, agertu erazi ditu amtengo izneurtuen batzaldkako gogoan eduki bear diran arauak.

Ona emen:

1. 1914'ko batzaldia Iholdi-urian egingo da, uri artako zaindari-jaiak izango egunetan.
2. Izneurtuen gaia au izango da: *1913'ko ufolak Euskalerian (Baztan eta Nive-ibarretan)*.
3. Izneurtu oek bidaldo dira Batzafaren etxera (*Bayonne, rue Bourgneuf, 69*), datofen dagonillaren 15 baño lenago.
4. Irurogei lefor-gora eztitzte izan bear izneurtuak."

Ontatik auxe atera daigueu: 1) Iholdi'n olerti-sariketa; 2) gaia: 1913'ko uyolak; 3) olerki txikia. Berton Enbeita saritua, sari ofen ezau-gafia —oso panpox— etxe-an eukan da. Mugaz onunzko aldizkarietan etzan argitara emon olerki ori. "Eskualdunak" bear bada?

Ikuturik? — Irar-uts agirikoen batzuk zuzentzeako bai, bestelan ez. Berak idatzi ebazan lez doaz. Iñoi argita'atuta bestera aeertu afen, berak era batera idazten eban beti: "Euzkadi"-ren euzkel-ataleko zuzendariak, Kirikiño'k eta Orixe'k batez be, ofazketaren batzuk egin eutsoezan, euzkel ordez euskel, *maitiaren* orde maitea ta olanguak. Guk beraren idazkeran itxi doguz danak.

Doñuak. — Eraskin antzera doazan kanta-doñuak, Kepa'k auf ezean era-bill iñi oi ebazanak dira: batzuk jatorrak, bere-bereak; beste batzuk euzkel-kanta zafetatik arturiko doñuak ditugu, osoan edo zerbait aldatuta, Xen-pelar'ek eta egiten ebenez.

Guda aurretik, Aita Gotzon karmeldafak, Kepa'k berak kanta-ala jasota, zortzi-amar bat doñu, beintzat, *Karmengo Argia'n* eta *Ekin* en argitaldu ebazan. Gaiñerakoak, Aita Daniel Garmendia Karmeldarrak, Balen-din Enbeita Kepa'ren semeak abesturik, artu ta atonduak dira.

Ia bertso-mueta gustiak dabe euren kanta-doñua. 32 gustiz.

Aita Onaindia

ABERKOYAK

Gure oleskariaren saillik ederrena ba-leiteke aberkoi sailla izatea. Enparauak lez,gustiz bikain eta txukun egiñak ditu;mamiñez sakon eta azalez eder. Azalari gagokiozala, neufian eta amaitzerakoan arek ez eban iñoz utsik jauki; aituan gustietatik —irureun eta ogetamafetik gora— arlo ofetan ez dot uste amar uts dabezanik; eta eurak, geienen bat, irar-utsak izango.

Aberkoyok kutunenak ebazalako, ardura andiz ondu ebazan. Gañera, aren olerkiak,era askotakoak izan afen,beti eben joera bardiña;abefizelaira. Txoriak be ofela egin oi dau. Biotzean eban nimbait,ondo sartu ta sustraitu, orren grīna ta lera bizia.

Gure inguruko elertian diran abefi-kantarik ederrenak irakufiak ditut; eta zulantza barik autortu neinke, areik eta gurearenak lefoz lefo ipiñi ezkero, gureak obeto ta zaintsuago egiñak dirala: suaren gar bizi joriak bai dario gure oleskari aberkoyari. "Il zan Abefija biztuteko", "Itxasertzian", "Dollorkeriak... itxi", "Abesti abertzalia", "Ai ze ederra", "Abefijaren ziñopea", "Beste ames bat", zazpi oneik, esaterako, gorengoa ditugu bai goyargiz bai egituraz.

Ahapaldi bikañak aukeratzera ezkero, danak sallean aldatu bearko neukez, Ona bat, alan be, edefen artean edefa; Gernika'ko zugatzaren azpi'ko batzar aberkoyak dakaz gogora.

Zugatz deun baten azpian oi zan
Asaben Batzar-tokija,
Eii bakotxak eukirik antxe
Beren aldunen aulkija;
An eiten ziran lagi gustiak,
An artu erabagia
Ondoan zelan zainduko eben
Euren euzkeldun Erija.

Euzkel gauza gustijak, txirul-ots gozoan, jaso nai ebazan; gure mendi, itxaso ta ibar; gure zugatz, abere ta txori, gure jakitun, eleiz-gizon, kirol-zale ta itxastar guren. Eta gustia alegi, ipuin, irudikizun eta antzeko olerkitsuz. Edefaren sena eroyan bafuan itsatsia, ta ba-ekian gauzen alderdi bikaña zelan azaldu ta aitzera emon. Erlea lorez lore ibilli oi da eztigai billa; gure ole-skaria be Euzkadi'ko zelai ta bafuti

gartuenak idatzi euskuzan.

Geure asaba zarren odola
Daukagun arte zanetan,
Agertu daigun euzkeldun antza
Geure arazo danetan;
Euzkera zarra egarriz ito
Ez dein legorte onetan,
Egafi ori ase dayogun
Maite ba'dogu benetan,

Eta onelaxe beste gustijak.

GURENDA-EGUNA

Deun Ander eguna guxenda-eguna dala esaten dogu. Ta euzko-a-bertzaliok, gurenda-egun au, bereziko ospatu daruagu. Gaur, ba, Ordoño, espainiar bakaldun ordezkari arrua, beren gudaroste ikaragafiagaz, bizkaitafak erail, menperatu ta emengo jaun ta agintari ixateko ustez, etofi zana; gure asaba kementsuak, Arrigorriaga'ko guda-zelayan, Ordoño ta beren gudaroste gustija bifindu ta mugatik arantza jaurti eben gurendarute-ufena dogu, Gurenda-eguna.

Gure asaba kementsuak, afotz ondatzalliarene zufu-mufurik susmetan ebeneko euren guda-santzo bidez alkarturik, ernai ta kementsu zirala, itxaroten eutsen euzko-mugan; eta, ona eltzen ziranaz batera... "il edo garaitu". Afotz ankefak ez eben kukufukurik egiten.

Afigofiaga'n zan
Ondatu Ordoño;
Garalle-endia, baña,
Bixi da ondiño.

Asaba zafen lofatzai jarraituki, Sabin aundiak rrakatsiriko Jel-bidez ziar, bai-guaz geu be, aufera ta aufera, gurendarik gurenda. Afotzari agiñak erakutsiten ikasi dogu; Sabin geuriaren Jel-gudarostia geruago ta indartsuago dua, eta elbururaño elduko dan arte ezta geratuko. Azillan 5'ekua ta 19'ekua gurenda afigofijak ixan doguz; gure areyo maltzufafk, baña, ondiño bixirik dirala etxaku aitzu biar, len baño be su geyagogaz gudaldi gurenerako ondo gertetako lan eta lan egiten jafaitu baño.

Azilla'ko gurenda oneik ospatutia ondo da. Eta Deun Ander egunian, gure asabak lortu eben gurendeagaz batera ospatu daiguzan. Geure poz-alditxu oneikaz asazkatzu ondoren, baña:

Gurenda gurenera
Eldu gadixantzat,
Gertu daiguzan, gertu
Gogo ta bijotzak.

Bijotzian kemenet,
Buruban zentzuna,
Goguan Goi-argidun
Jeltzaletasuna.

Iru baldintza oneik
Geukin diralarik,
Gurenda geuria da...
Ezpairik bagarikl

{Euzkadi, 1933-XI-30}

AMES GOGUANGARRI BAT

Euzko bidezkundian ixanda Lourdes'en
Bertako ingumak ikusi nituzen.

Miren'en maitasunak eruan ninduan,
Orditik ona ez dot besterik goguan.

Egunez oroimenan, gabez amesetan,
Zoraturik lez nabil Miren'en gauzeten.

Bart afatsian, bariz, ze ames ein neban
Ointxe idatzi biot aitzu eztakidan;

Jel-izparrangi baten gero iragarri,
Euzkoak jakin daijen ames onen bafi.

Bestetan lez ogera juanda gabian
Ta bertan erdi-lotan jafi nintzanian,
Abesti on bat neban entzun durundi-

[jan:
Aingeruena zala berak zirudijan!

Aupa gusti-gustijok! aupa, jo aurrera!
Guazen laster-lasterka danok Lourdes'
[era.

Leyora urten njntzan entzunaz batian,
Ta efomesak nekusan bidiak betian.

Gixonak eta andrak, mutil eta neska,
Danak pozez beterik Miren'i abeska.

Abesti gozo arek ain poztu ninduan,
Ta gertau nintzan neu be juteko bein-
[guan.

Esan neban jafirik eurari begira:
"Bañan ainbeste.euzkeldun, nundik batu
[dira?"

Gitxienez nekusan ogei anei notin
Bulafan gain Miren'en irudi deunakin,
Jaupari aldra andi bat gustien erdijan,
Eun da iru ikufin aufeko alderdijan.

Ai, a'zan egun eder gozo ezlitsua,
Edoi argi-argijaz ipar axetsua!

Loraz beterik ziran landa ta zelayak,
Zugatzik-zugatz, bafiz, abeska txorijak;

Txorijan abestijak eta lora usañak
Geituaz eroyezan geure atsegiañak.

Onelan erdu giñan oñez Lourdes'era,
Ta danak arriturik, an geuri begira.

Neu be danari adi nengola pozafen,
Beste bidezkunde bat ofa nun datofen...

Zazpi mille arabar, zortzi mille napar,
Pozez beterik danak, maitaturik alkari.

Besuak gurutzau-ta nenguan geldirik,
Zein ikufin ekafen ikusi gurarik.

Ikusi neutsenian euzko ikufiña,
Geuk eruan genduzan lakoxe bardiña,
Didar bat egin neban agua betian:
"Danok anayak gara, ta poztu gaitian."

Euren zuzentzalea zan Aita Lakuntza,
Jaungoikozko euzkeldun abertzale utza.

Onidadez beterik, biotzik onenaz,
Iruña'ko Gotzain jaunaren baimenaz, . . .

Alkarturik giñala, une atan bertan,
Beste notin akba bat ofa nun dakustan:

Zubero, Laburditar Gipuzkoafakin
Gustijen arte ziran amar mile notin;

Gustijok alkarturik zin esan genduan
Ilarte jafaitzeko anaya moduan.

Orok eiten genduan alkafaz euzkera,
Geure guraso zintzo asaben izkera.

Befogeta amabost milla euzkeldun al-
[kafaz

Batu giñan Lourdes'en zifiismen bategaz.
Lakuntza danen aufez, bestiak ondo-

[ren,
Miren'gana juan giñan gustijok pozafen.

BelaunbiJcota giñan an danok batera,
Sorkundez Garbijari otoi egitera.

Besuak gurutzauta, burua makurrik,
An gengozan otoika ezin asperturik;

Luzaro an egonda orok elixara
Juan giñan, autortu ta Jauna artzera.

Andik lengo tokira bafiro atzera,
Miren'en itufiko ura edatera.

Luzaro ekin geuntsan edan eta edan,
Baña ondiñō bere gexau gura geban:

Jafirik itufian aufez belaunbiko,
Nai genduan uragaz donetsi betiko.

Pozafen gengozala une atan bertan
Mirarizko itufi eztitsu aretan,

Didar bat entzun geban atseginingafija:
"Gora Jaungoikuagaz euzko-abefija."

Etofi neugaz danok, euzkotar anayak,
Ikusi gaizan Miren Sorkundez Garbijak.

Mun eginiñ oñetan jafi belaunbiko
Gogorik oneñagaz otoi egiteko;

Zin esan emen euzkotar bakotxak;
"Gu Euzkadi'rentzako, Euzkadi Jaunan-

[tzat."

Didar ta itzaldiak zurtz egin gendu-
[zan,

Iñok ezautu barik zeñek egiña zan.

Mun egin geuntsan bada Gurutza deu-
[nari,

Illarte aldezteko Jauna ta Euzkadi,

Luziper'en sariak bifindurik oso
Miren'egaz Euzkadi nai gendula jaso.

Jaupaldi nagosija ospatzeko bertan
Jaupari ta lekaide gertaurik egozan.

Apaitzak mai donian, lekaidiak bardin,
Jaupa deuna esaten asi ziran arin.

Gi b i
Euren ganian beste ainbeste aingeru.
Auzpezturik gengozan danok belaun-
Josu ta Miren'eri otoi egiteko. [biko]
Glorio in excelsis, in excelsis Deo
Gotzonak abes-abeska asi ziran gero.
An ziran abestijak! an ziran soñuakl
An argi, kedats, lurrun an usain gozuakl
Jaupa deuna onelan amaitu ondoren,
"Deun Iñaki" abestu genduan pozarren.
Abeska gengozala dan-danok, atsegin
Nekusan Deun Iñaki, Deun Mikel ta
[Sabin]
Miren lagun ebela; irurak pozarren
Aurkitutenean zirala iragarten eben.
Ixildu giñanian une txiki baten
Ofa Sabin'ek neuri nun deitutenean
daus-
[ten;
Jeltzale itz-neurlari Enbeita'tar Kepa,
Erdu, zeugaz puskaten egon nai dot-eta.
Au entzun nebanian, atsegintsu arin,
Laztandu giñan alkar Kepa eta Sabin;
Ta diraust: "—Eingo zeunke, Kepa,
[neure esana?"
"—Bai, Sabin; agindu zeuk nigaz guro-
[zuna."
"—Abestuxuz, ba, ointxe itz neurtu
Betetako Miren ta nire gurarijak." [bafijak,
"—Benetan nai bozue nik abestutia,
Bertatik eingok pozik al dotan gustia."

Miren eta Sabin'en naya egitiafen
Asi nintzan abeska onelan, pozafen:
 "Auxe dala bai bafuko poza!
 Au bai atsegin andija,
 Dakustanian euzkotar utsez
 Batzar ain maitagafija!
 Igaz ein gendun bidezkunde bat,
 Arutnen beste bat bafija;
 Geruago ta sutsuau dua
 Zinistez euzko sendija,
 Bijotz osuaz maitatu nairik
 Lourdes'ko Miren garbija.
 Eskar andijk emoten nua
 Joso ta beren Amari,
 Eskafak baita amargarren Pi
 Efoma'ko Aita Deunari.
 Eskefik asko bidezkunde au
 Onetsi dauskuenari,
 Ospe andiko goratasun bat
 Onen asmatzaleari.

d

Erlejiñuaz Euzkadi. . .

"Etofi gara danok alkafaz
Maite garala benetan,
Auzpaztu eta mun egitera
Mu'en'i beren ofetan,
Dirautsogula: "Lagun zakiguz
Gure premiña danetan,
Eta ezkaizuz afen, ba, itxi
Etsayen atzamafetan,
Jafaitu daigun zeugaz Euzkadi'n
Lagi zuzenak gordetan."
Gure bijotzak samurtu yakuz
Txadon ofetan goxian,
Autortu eta Jaunartu dogu
Danok alkarren pozian,
Gure asaba euzkotar zafak
Egin oi eben antzian.
Ekandu onak jabon bioguz
Bixi garian artian,
Gu Euzkadi'ntzat eta Euzkadi
Jauna'ntzat ixan gaitian.
Bizkaya, Araba, Giputz ta Napar,
Zubero eta Laburdi,
Sei neba-afebaz sendi bakafa
Bera ama da Euzkadi.
Len azke zana lurperatzeko
Ezafi eutsen buztafi.
Itxartu garan euzkotar danok
Lagun egiñik alkarrí,
Miren'en bidez azke jarteko
Asmo bat dogu ekafi.
Jabozuz, Miren, Laburditafak,
Zuberotar da Napafak;
Jabon egixuz Gipuzkoafakin
Arabar ta Bizkaitafak,
Danok garan lez sendi bateko
Neba-afeba maitakofak.
Jabon egizu erlejiruña
Kendurik etsai zantafak;
Jabon egizuz Euzkel-Efia,
Jaungoa ta Lagi Zafa.
Donokijan ta ludijan zaran
Ama danetan onena,
Garbitasunan ispilua ta
Onoidadetan gorena;
Jakituriaz daukozu, bafiz,
Azken bagako almena.
Zu Benartetxu Zubiruz'ari
Aitz-zillo ortatik urtena,
Zu euzkeldunen maitalarija,
Zeu geure itxaropena

Zara euzkeldun bitartekua,
 Josu'ren ta geure Ama:
 Naibagetsuen atsegia Zeu,
 Osakilerik onena;
 Zeuk dakizu, bai, osatzen ondo
 GeLxo luziaz dauana.
 Uste osuaz augaitik gatoz
 Euzkel-Erritik Zeugana,
 Otoiaka, afen, ba osatu daizun
 Ama Euzkadi laztana.
 Agur, Josu'ren ta geure Ama
 Eta Zaindari bakafo;
 Agur, zeruko eguzki eder,
 Agur, goxeko ixafa:
 Goi-beyetako Bakalduna ta
 Gure jabola Zeu zaral
 Birurtuxu, ba, Euzkel-Efia
 Lenau zan lez ixatera,
 Jaungoikuantzat ixan gaitezan
 Geu Euzkadi'gaz batera."

Pozaren pozez nintzala zoratu biafik,
 Loak iges eginda jarten naz itxafik.
 Agur, nire atsegin Agur... agur, nire
 [pozak!
 Amesagaz batera danok juan dozak!
 Baña itxaropenak jafaitzen daust niri
 Ur emongotsagule ames eder oni.

(*Euzkadi*, 1913-11-11)

IL ZAN ABEFLIJA BIZTUTEKO

Adiñik gustiz edefenian,
 Ogeta amazortzigafen
 Urtian il zan Sukafiesta'n.
 Euzkadi gaizkatziazen?
 Nor dala, baña, olan il zana?
 Aita Sabin, euzkotafen
 Irakaslia, etsai gustiak
 Jarten zirala pozafen.

Amaika urte gaur dira bete,
 Gustiok gomutau gaizan
 Euzkadi'rentzat eztala beintzat
 Egun baltzagorik izan,
 Bere semerik argitsubena
 Eta zintzua benetan,
 Erijotzian korañiak jo
 Ebala Sukafiesta'n.

Aren gorpuba il-otziturik
 Ebala luferatuten,
 Itxirik beren Ama Euzkadi
 Negar samiñez urtutene,
 Baita euzkotar jeltzale zurtzak
 Giñiala geratutene,
 Gomuta ofek geruau geyau
 Ginduala naigabetzen.

Bera zan euzko-abertzalien
 Irakaslarri zuzena,
 Ta Euzkadi'ren gatzak ain ondo
 EZagutu zitubena;
 Baita be berau osatuteko
 Zorun-biderik onena
 Berak irasi eban ain ondo
 Alderdi euzkotafena.

Alpefikua ixa ete da
 Ain gogoz egin eban?
 Ez ete da, ba, zori gaiztotik
 Gure Abefi laztana
 Aldatuko bein, jaritxiteko
 Bixikera berberana?
 Ama, betiko ete zara ba
 Jopu ixateko zarana?

Adizkidiak asko eukoza
 Ta galdu zituban berez;
 Diruak urtu, galdu osasun,
 Bixija emon Jel-aldez.
 Danak alpefik ein ete dauz, ba,
 Etsayak uste dabien lez?
 Ez, alpefik ez! On egin danak
 Jauna'n sarijak oi dabez.

Abefijaren berbizkundia
 Ikusten asitorduan,
 Jauna'k ziautsan Sabin'i: "Erdu,
 Jarteko neure onduan."
 Egija da-ta, Euzko zintzuak
 Tamal andija genduan,
 Ain gaste zala egin biafez
 Beti-betiko eruan.

Bañia, nok daki nai-ta-ezkua
 Ba'zan bere erijotzia,
 Erijotzatik azkatuteko
 Geure Abefi maitia?
 Abefi-aldez opa eutsan lez
 Beren ixate gustia,
 Egun atantxe bete ba'yakon
 Ixentauriko epia?

Gixonan aldez Koskotegijan
Josu Gurutzian il zan;
Euzkadi'n aldez, Aren antzera,
Sabin be Sukarrieta'n:
Abeii-aldez opa eutsona
Beren ludiko bixitzan,
Azilla'n ogei eta bostian
Jaunari ordaindu eutsan.

Atsekabiak gure aknenak
Ipiñi dauskuz lotuta,
Ama Euzkadi daukogulako
Motzen azpijken aulduta.
Serae ustelak, barriz, lo dagoz
Ezaueria galdua.
Ta orain, zeñek itxartuko dauz,
Irakaslia il da-ta?

Baña, il-oge-buruan dakust
Gotzon bat geure pozgafi,
Zarden ta zutik ain adoretsu
Abefijaren zaindari:
Itxokun gustiz argijaz diño,
Eldurik ikufiñari,
Sabin il dala, baña Jel-aldez
Jafaituteko berari.

Ikusiten dot euzkotar oste
Andija bertan batzaurik,
Ta gurutzadun Jel-ikufiñaz,
Gotzonagandik arturik,
Ain adoretsu duala aufera
Negar gustijk itxirik,
Itxokunak bultz eginda zuzen
Maitetasunez beterik,

Baita be dakust Jel-ikufiira
Jasorik mendi ganian,
Belaunbikotu dirala danak
Gurutza deunan aufian.
Otoi eginda, dana axetara
Zabal jari dabienan,
Didar ein dabe; "Gora Euzkadi!"
Osperik andijenian.

Dida'r oneri erantzun dautse
Aitz, efekafo ta ibai,
Mendi, efeka, itufitxuak
Ta beste geyagok be bai.
"Gora Jainkua ta Lagi-Zarra!"
Didar egin dabe alai,
Aberrijaren berbizkundia
Lenbailen dabelako nai.

Euzko-Gastedi zintza, bafiz,
Euzkadi gaizkatziaiti
Gau eta egun lanian dabil;
Ori edozeñek daki.
Arana-Goiri'k itxartu eban
Euzko-semia lotati,
Ta Abefijaren berbizkundia
Dator bere erijotzati.

(Euzkadi, 1914-XI-25)

BILBAO'KO "EUZKO-GASTEDIJA"-RI

Bizkayak dauko uri eder bat,
—Bilbao da bere ixena—,
Saftan neure arazueta
Pozik juaten naizena;
Bidebafiena txaidian dago
Batzoki gastedijena,
Euzkotar gaste gordin edefak
Pozik alkartzen direna.

Lendakariajaukie bafiz
Jakitun, zintzo ta zufa:
Beste bat iñor zintzuau dala
Esango ba'neu, guzufa!
Beren esanak eiteko gertu
Gastiak noz-nai, nun-gura,
Olan jaristen dabela eurok
Jel-entzat ainbat onura,

Pelotarijak gorenenguak;
Ostikolari onenak,
Areriyuan aufian safi
Bildufa sartzen dabenak;
Idazlarijak ain ospetsubak,
Alantxe lagi-gi.vonak,
Ama Euzkadi aldeztuteko
Edono gerto dauzanak.

On urte batzuk geure ele maite
"Euzkera" ez ekijenak,
Gaur dagoz ondo itz, idatzi eta
Irakufiten dabenak;
Buruz argijkak, bijotzez onak,
Ibilten ankaz onenak,
Ije aratu dabez euzkeldun
Efi ta mendi geyenak.

"Mendigoxaliak
lendakari dauke
Atxuri ospetsuba,
gure neke-neke."

g
Okela, ardau ta opilak,
Txuntxun soñuan uju ta ikoti,
Or doyaz gure mutilak,
Zabaltzen uri, ba.sefi, mendi
Euzkerazko ingofijak.

Nozbait ikusten dabezanian
Bidian *piper-potia*,
Batzuk bafuba utsa daukenak,
Bestatzuk erdi betiak,
Ezafi dautsen zikintasuna
Afotzaien koipiak
Garbituteko, ingofitxuak
Damotsez gure gastiak.

Ingofi asko zabaltzen dabez
Baso-efi ta txaidian,
Asko alpefik eruan be bai
Ego-axiak aidjan.
Ofaitik a.asko ixaten dira
Zer dan ikusi gurian,
Ta irakurteko artu ta jarten
Dabe begijen aufian.

Ta bijotzak zart egiten dautse
Irakurten dabentz;
Lenenguaz be asetu ezin,
An duaz bigarrenian;
Ekin da ekin sartutene yake
Buru ta bijotz erdian.
Ofa gastien bitartez zenbat
Jeltzaletutene dirian.

Maite ditubez guraso zafak,
Maite asaben lagijak,
Uri, basefi, etxetxu zuri,
Zelai, muru ta mendijak;
Maite baratzak, itxaso zabal,
Itufi eta ibayak;
Maite lenauko ekandu onak,
Jantza ta jolas garbijak.

Maitetasun au egikerakaz
Gure gaste txit argijak
Agertzen dabe; ikus nai daunak
Zabal ipiñi begijak.
Eurrak dira, ba, makil-dantzari,
Eurak bai abeslarijak;
Bañaa ez gero naizelakuak,
Ezpada goragafijak.

p
Gauza txar danen sustrayak,
Erkin, indarge ipintekua
Neska-mutillik erdijkak,
Ezpada txuntxun, makil-dantzari,
Aufesku ta itz neurlirijak.

Pozez beterik eurai begira
Ikusten dauzan gustiak
Damotsiela on-etoia,
Ganera txalo andijkak.
Egin, gastiak, auferantza be
O'elako jai-aldejaka,
Lengo zoruna jadetsi dayan
Lenbaitlen Euzkel-Efijak.

{*Euzkadi*, 1913-VIII-10)

MUXIKA'KO TXORIJA

Sasijak sortzen dira
solo edefetan
ne kazari alpefak
ba'dabiltz euretan,
gauza onari bafiz
itzi ez ernetan.
Irudi auxe dogu
Euzkadi onetan.

Batzuk dira zurijak,
beste batzuk baltzak,
danok be alkafenak
bai-daukiez antzak;
ganetik lorak eder,
azpitik arantzak,
ikaratu legikee
ingo aldakuntzak.

Karlista ta liberal
lenau alkar ilten
odol-efeka artian
zirean ibilten;
masoyak zirala-ta
eutsien ekiten,
ta oin bijak alkarri
dautse lagun eiten.

Euzkelefiko geure
Foru zafen aldez
ebiltzezalakuan,

egunez ta gabez
amaikatxu euzkeldun
atzipetu dabez:
baztarak ondatzen da
ibili diradez.

España baño Euzkadi
millaka urte giño
zarrau dalaik, umetzat
daukie ondiño;
nik eztot ikusi ba
orain arteraño
alaba zarragorik
beren ama baño.

Gixonak eztau biav
itz onik ukatu,
guzufe esan baño len
ixilik geratu,
ekandu txafak itzi
ta onai oratu.
Euzkeldun maite ori,
zaitez gogoratu,
aulan egiten dala
Euzkadi goratu.

Euzkotar ixañ gaizan
biotz, gogo ta adin;
itzez abertzaliak,
eikerakaz bardin,
ixañ zan legez gure
irakasle Sabin,
nai bogu zoriona
jaritxi Euzkadi'n.

/EuzkacU, 1915-V-30)

"EUZKO-GASTEDIJA"

Aupa! euzkotar orok itxartu!
Didar ein, gora jagita.
Nor da jauntxuboi, gure ele maite
Oni eiteko afika?
Alpefik dabiltz euzkera ilteko
Ordez erdera jafta.
Ori laketu baño... lenau il,
Daukogu erabagita.

Euzko-Gastedi gurgafi ori,
Jagiko zara osuan;
Geu be zeuekaz bat-eingo gara
Uri, txaide naiz basuan,

Didar eiteko, *Gora Euzkera!*

Geure amaren besuan
Ikasi gendun ele kutun au
Bego yagokon lekuān.

Geuri gebendu euzkeraz eiten,
Erdera biar dala-ta?
Au Jaketziaz eingo genduke
Astakeri bat galanta.
Or konpon zeuek *lengua armoniosa'z*
Guri bakian laga-ta;
Euzkeriaz geuk agindukogu,
Geuretzat egiña da-ta.

Jainkuak diño: "Zeuria zaindu,
Itxi bestenai bakian."
Beraz, erderia erabil beye
Beraí yagokon tokian.
Baña... guk ugatz gozue edanaz
Amaren laztan artian
Ikasi gendun euzkera be bai,
Euzko-Abefi, maitian.

Eguzkijaren argitasunak
Ortzetik zabal jatsirik,
Lufeko gauza orok jarten dauz
Osasunagaz jantzirik;
Eguzkijaren argija baga
Ezek eztaun lez bixirik,
Gure euzkera zar maite barik be
Etza euzkotar efirik.

Beingo batian usteltzen dan lez
Gogo bagako gorputza,
Euzkadi bardin ilgo litzake,
Euzkeria ilgo ba'litzta.
Atzefitafok bakije ondo
Nun dagon gaitz ofen giltza;
Baña eztabe au jaritxiko,
Alper-alperrik dabiltza.

Ene Abefi edestitsuboi,
Esku onetan zabilz, bai;
Zeure sendiko Judas batzuek,
Zeu erail nai zaitubenai
Lagun egiñik, zeure gogua
Espian dabe sartu nai.
Baña Sabin'en gudaroziak...
Jeurt! eraingo dautse danai.

Jayoten diran ume gustiai
Ezafi euzkel-ixenak;
Dakigun orok itz-ein euzkeraz,
Ikasi eztakijenak,

Euzkeraz erabil danak.
 Orra etsayok uxatuteko
 Diran izkilluik onenak.

Gora Euzkadi, Euzko-Gastedi,
 Euzkera ta euzkeldunak!
 Zar eta gaste, nausi ta txiki,
 Onetsi zaizela Jaunak;
 Zorun danakaz dopaltzubedaz
 Uda, negu, gau t'egunak.
 Euzkeraz itz-ein beti Euzkadi'n,
 Euzkeraz artu-emonak,
 Jakin dagijen gu nor garian
 Queipo ta beren lagunak.
 Bakixue, ba, zer einbiogun.
 Agur, aizkide kutunak!

(*Euzkadi*, 1916-11-14)

Ene Abefi maite laztana,
 Garbi, samur ta ona zarana:
 Bijotz, gogo ta neu nazan dana
 Jauna'ntzako ta zeuretzat, Ama.

Zeuk argiratu
 Ta zeuk azi,
 Alikatu ta
 Ondo jantzi.

Eta ganera Jaun-Goikuaren
 Uzkurtza ondo irakatsi.
 Jauna'k zaizala
 Zeu onetsi:
 Euzkeraz nai dot
 Au idatzia.

Ene Abefi bijotzekua,
 Nik zu aitzuta zelan itxi?

(*Euzko-Deya*, 1916, 8 zenb.)

MENDIKO ALAITASUNA

Mendi ganetik ikusten dira
 Zugazti, landa, zelayak,
 Basetxe zuri, baratzaz eder,
 Efekak eta ibayak.
 Mendijan dagoz eguzki argi
 Ta etxe osasungarrijak,
 Birijk garbi erabilteko
 Iñun baño be obijak.

Txorijak euren abes edebez
 Baso ta mendi, goi ta be,
 Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,
 Ardi ta bildots baita be,
 Euren afan ta txilin-soñuan
 Ofua, ifintz, bee ta bee...
 Ludijan danik eresi-soñu
 Edefena sortzen dabe.

Iñora baño len agertzen da
 Eguzkija be mendira;
 Txori-abesti eztitsubenak
 Mendijan entzuten dira.
 Euzkera zafa mendijan dago,
 Jaungoikuari begira.
 Mendijan dagon alaitasunaz,
 Mendi-mutillok, nun dira?
 (*Euzko-Deya*, 1916, 7 zenb.)

Iñun ezta entzuterik
 ixan dala beste efirik
 Ama Euzkadi baxen edefik,
 txiki ez andirik;
 baña lokafiz josita
 itxi eben au jausita,
 azur gustijak ausita,
 seme okefak juanik
 amordiari laztanka,
 eurena ilten itxita.

Sabin maite, ain gurgafi,
 zorionez zan etofi
 ikaspidiak emoten guri,
 ez-jakin askori
 zer egin biar genduban
 gogoz udan ta neguban,
 bijotzan bafu, bafuban,
 osatu arte Amari
 osagafiok eruan,
 azkatu arte beinguan.

(*Euzko-Deya*, 1916, 12 zenb.)

ZER NAI DOK GEYAGO?

Ene txori polit ori,
 Zeri adi ago

Ez abesteko kayolan
Alai ta geyago?
Zer gura ta axe duala
Beti baldin ba'ago,
Zentzun bako mizke orrek,
Zer nai dojc geyago. . . ?

Beste txorijok basuan
Pozez zoratute
Yabiltzak txiro-liroka,
Ezin aspertute.
"—Ai, neu be, oreik lez, azke
Baldin ba'nengoke. . .
Gustiz alai ta pozik
Abestuko neukel"

(Euzko-Deya, 1916, 30 zenb.)

BERBIZKUNDIA
*(Aizkibel'dar Bingen, neurre adizkide
maitiari)*

Euzkadi gusti-gustija bere
Abenda, ele, ekandu eta
Jolas baketsu eder orokin
Bai-zan gogo aldenduta;
Etzan ezegaz gomutau be eiten,
Gustija eukan aitztua;
Aurkitutenean zan bere bixitza
Odei baltzez estalduta.

Abefijaren etsayen aurka
Gurendaz ainbat gudatan
Buruba jaso eban Efi au
Bere edestiaz aitzu zan;
Lotan eguan, eta lo-zofo
Negargafijan benetan:
Illuntasuna baño besterik
Ez eban ingurubetan.

Arek zugazti eder arteko
Basetxe zuri egoki,
Aldika baten ixan ziranak
Erkabaen bixi-toki,
Irudijela sendi ta etxe
Aingeruakin Donoki,
Afotzagaz bat-eginda loitzen
Zirian alde oroti.

Goiko Jauna'ren ixen deuna be
Euzko-abendaren elez

Mintzatu biar ebenak, afotz
Izkuntzan gaztelafak lez,
Asaben ele gozo ezti au
Baztarturik itzi bafez,
Ta afotzarena erabilte-eben,
Amea itzirik negafez.

Euzkadi gustiz gaxo eguan,
Eta bere seme galdu
Dan-danak pozik entzuten eben
Amarren ainbat alaru;
Euzkel-Errijan areriyuak
Au gura eben eraildu,
Eta seraiak Ama onegaz
Etziran eiten gogaldu.

Il-alarua. . . ! Euzko-efija
Tamalez ilten eguan.
Au nai ta nai ez il biafian
Aurkitutenean zan orduan,
Ifintzi-oyu zoli-zolija
Ingru entzun genduan,
Euzko ortze ilunan argi bixi bat
Agerchten zala beinguan.

Zer jazoten da? . . . Ifintzi ofek
Nundik eta nora urten dau?
Euzko-Abefi au ilten egon,
Semiak aitzurik berau,
Ta azken-alaru estutik seme
Aitzukofentzako birau
Itzal gofotoz beteikoren bat
Amufuz bota ete dau?

Ez olakorik, ez! Entzun daigun
Gogoz, ifintzi-didafa
Geutzako da-ta; "Gora Jainkua
Eta gora Lagi-Zafa."
Didar zolija benetan bai-da
Ikur onetsi edefa,
Euzko zintzuen guramen bixi,
Zuzen-bideko ixafa.

Nor dala baño jaurti dabena
Didar ori ain indartsu,
Mendi, aitz, afo, zelai ta danak
Gogoz dautsela erantzua?
Ikusi daigun. . . Gixon deun bat da,
Jakutun, azkar, bulartsu,
Ama azkatzeko anayei deika;
"Itxartu zaitez, itxartu."

Anai gustijai, itxartu daizan
Efi, aran, mendi, baso,

Bere Ama Aberri gaxo
Au il baño len, onen Edesti
Anayezi jakin-erazo,
Euzkadi dala, ta ez besterik,
Euzko-semien guraso.

Gixon senduak, ezezagaitik be
Iñoz etzala bildurtzen,
Karramarren ibillerarik
Ez eban onek ezautzen;
Beti aufera, Jauna'n eskafez,
Ama gaxoai laguntzen:
Au zorundurik, Úrtzi Deunari
Bigurtu egin nai eutsen.

Onexen didar ifintzijagaz
Euzkadi'k dar-dar ein eban;
Euzko-Abefi onek bixija
Ondiñokarren bai-eban.
Illeñ lotatik itxartu zan ta
Jafi osatzeko eran,
Seme zintzuen laguntasunaz
Jarteko lengo aukeran.

Garbitzen asi ziran odejak
Ta agertzen ortze argija...
Euzko-semiak une atantxe
Ekusen Sabin andija,
Beraz ebala iru margodun
Ikufin alaigafija,
Bertan agiri zala idatzirik
Ifintzi-oyu zolija.

Itxas-gizonak ixar argijai
Adi egoten oi dira,
Bera artezkaitzat dala juteko
Ainbat ondoen efira;
Alan jafi zan euzkotafa be
Sabin andijai begira,
Bere ikufiñaz eltzeko zuzen
Euzko zorijonen kaira.

Euzko-Abefi au itxartu dau
Sabin'en erijotziak.
Mendi ganetan entzuten dira
Pozezko ereserkiak;
Aixiak dabil durundi ori
Bizkortzen baztar gustiak,
Agertu dayan arpegi eder
Azkatasun eguzkiak.

Abefi-aldez eiteko danak
Itxarturik dira jarri;

Or dabil euzko-gastedi,
Gura dabela Euzkera jaso
Ta Azkatasuna ekafi.
Jauna ta Lagi-Zafa'ren suak
Borbixi dau ba Euzkadi.

(*Euzkadi*, 1915-XI-24)

BAKOTXAK BERIA MAITE

Euzkereari egin dayogun
biar dan lako afera,
dalako geure zorun gustijen
etorkixuna berbera,
geure gogua, geure arnasa,
goi-erdia eta susteza;
ganera Jauna'k egiña da-ta,
maite biogu euzkera.

Zer dira gure itufitxuak,
ibai, efeka ta itxaso,
basefi-etxe zuri baketsu,
ibar zelai mendi baso?
Eztira beste gauzaik ezpada
Uzkurtz jagolak... arako
gure asaba onak euzkeraz
ugutzau ebezalako.

Uzkurtz-aldeko gudalburua
Euzkera iyan da beti,
afotz-obenik igaro ez dein
euzko-mendijen ganeti.
Areyo deungak ezetsi afen
sarritan lau aldettati,
ondiñokafen bixirik dago...
Jainkuak daki zegaiti.

Gudalburua galdu ezkerro,
gudaroztiak zer egin?
Arerioak laster oi dautse
guda-lefua ebagi.
Augaitik eutsin biar dautsogu
gogotik Euzkereari,
jakinik nortzuk direan gure
umien irakaslari.

(*Euzkadi*, 1916-VIII-13)

EUZKOTAR AGIJENTZAT

Gauza txafen jatofi
Afokerija dozu;
Nagikerija, bafiz,
Ustelaren lenguus.
Senitarte ofetan
Bixi nai ez ba'dozu,
Umiari euzkeraz
Irakatsi eyozi.

Euzkotafak ixanik
Baldin zeure umiak,
Jafaitu ba'dagije
Euzkerarik bagiak,
Geyau ein dautzulako
Nagikeri deungiak,
Zelan onetsiko zauz
Gure Jaun ta Jabiak?

Etxian naiz kalian,
Nai-nun ta edonoz,
Euzkeraren aldez
Lan ein biogu gogoz.
Euzkel-ikastoleak
Umientzat or dagoz;
Bertara bialtzeko
Gu biartuta gagoz.

Orain zabaldu diran
Ikastetxietara
Zeure seme euzkeldunak
Euzkeraz ikastera
Bidaldu gura ezta
Geratzen ba'zara...
Belarrimotzak baño
Askoz txafigo zara.

(*Euzko-Deya*, 1917, 44 zenb.)

JANTZI DAIGUN EUZKERA

Odeyak illun itzalak dagoz,
Ekatxa dator efira.
Ama zar batek tamalez diño,
Jafirik oni begira:
"Ene galdua, semiok nigaz
Gomutetan ezpa-diral"
Oñazez beren begi apalak
Itufi bigurtzen dira.

Lo txafa kendu eta itxarturik
Ikusi daigun bakotxak:
Ortzea baltzik, mendijk zuri,
Euzkera zafa erdi-billoxik
Dardagan darabil otzak.
Au ikusirik, ez laguntzeko
Nun dira euzko-bijotzak?

Zer balijo dau zuri, baltz, gofi
Edo nabar ixiatiak,
Baldin ezpa-dau zer ikusirik
Ofaz Euzkera maitiak?
Alde batera itxirik, bada,
Politika ta nastiak,
Euzkereari danok zabaldu
Biar dautsoguz atiak.

Erdi-billoxik ba'dago bere
Jantzi biogu Euzkera,
Erabilteko Euzkadi'n txukun
Alde batetik bestera.
Jauna'k geuretzat emon euskun-ta,
Euzkeldun onak ba'gara,
Guazen jantzi ta indartuteko
Biar daunaz laguntzera.

(*Euzko-Deya*, 1917, 45 zenb.)

BIDALDUI

Ofa negu dollorak nausi egin danian
Zein bezuza edefa jafi dauskun ganian:
Edurtzak ixoztuta mendi, baso ta nai-
[ñun,

Lurmenaren apufik eztala ikusten ifiun.
Au ikusi dabentzian txori-aldrak aneika,
Orobak asi dira eguzkijari deika:
"Zatoz, eguzki ori, edur onen ganera,
Urtu ta bidaltzeko itxaso zabalera.
Txorijak biar dabe goyan ta beyan azke,
Negu dolorran janzki gogor ori kendute."
Geuk be deitu dayogun txori ofen

[antzeria:

"Zatoz, eguzki ori, Euzkelefi maitera;
Zikinkeri gustijak erdereaz batera
Igafi barik sartu yakuz geure artera...
Erdalkari zikiñak bidaldu erbestera,
Geugaz bixi daitezan Euzkadi ta

[Euzkera.

(*Euzko-Deya*, 1917, 43 zenb.).

Euzkerazkuak Euzkadi'n
Biarak doguz euzko-sendija
Argitzeko gogo ta adin,
Euzko-abesti, dantza ta kirol
Danakaz zaletu dedin.
Txindijaz, baña urri dabiltz-ta,
Gaur ezin dogu au egin.

Baña Bilbao'n Gastedija'ko
Gure "Euzkeltzale-Bazkuna"-k,
Enzkerearen aldez edozer
Pozik egin nai dauskunak,
Ikastetxe ta irakaslakaz
Gaur daukoguzan utsunak
On-bidetzeko artu dauz orain
Asmorik aberkoyenak.

Bat-ein euzkotar guraso danak,
Geure sendija zenbatu,
Zenbat ikasle doguzan zigur
Etxe-abixenak artu,
Eta gustijok aburu batez
Ikastetxeetan eskatu
Onei euzkeraz irakastia . . .
Ta zer . . . ba'daye . . . ukatu?

Eztozula nai gure umiai
Irakastia euzkera?
Agur . . . Ba-guaz irakatsiko
Dautsien etxe batera.
Itz geyau barik egin ezkero
Umiak andik atera,
Bigurtu leikez irakasliok
Euzkeraz irakastera.

Maitetasunak dau batasuna,
Batasunak dau indara;
Iñozko geyen daukogu, bafiz,
Indar orixen biafa.
Batu gaizan, ba, guraso danok
Euzkotar onak ba'gara,
Gure sendijk ikasi dayan
Geuk gura dogun erara.

(*Euzko-Deya*, 1916, 17 zenb.)

Negafez dago baratza;
Beren raaitia galdu daulako
Erribituriik biotza.
Ixil zaitez, txuntxun-txistua;
Baña ori, zer dala-ta?
Ixildu eta negar eixue,
Urretxiñola il da-tal

Illobi gustiz eder bat egin
Dautsie madaripien;
Txivibiri ta erliak duaz
Baltzik bidiak betien . . .
Ofiz ta loraz jantziko dabe
Aizkide danen artien,
Eta zozuak abestuko dau
Il-otoi edo "Requien".

Gura dabenak eriotzian
Loraz jantzia izan dedin,
Bixitan . . . Jauna'ren lagι deunak
Diñona biar dau egin,
Egipen onak dira loriak,
Jainko-maitasun . . . atsegin.
EZ aitzu iñoz, euzko-semia,
Zer ein biogun Euzkadi'n.

(*Euzko-Deya*, 1917, 35 zenb.)

JAGI TA ZATOZ!

Jagi zaiz jagi, Sabin gurgafi,
Abefi-seme gurena!
Jagi zaiz jagi, Euzkadi aldez
Ziñopa egin ziñana!
Jagi ta zatoz, eta ikusixu,
Jel-irakasle zuzena,
Zenbat ikasle bafi daukozun
Amabost urterik ona.

Len lo-zofoan bixi ziranak
Orain daukozuz itxafik,
Alpeferijan len ziranak be
Nagitasunik bagarik.
Zure areyo len ziran asko
Datoz besoak zabalik,
Euzko-Abefi-azkatasuna
Lenbailen lortu gurari.

Euzko gastijak erein dituez
 Or-emen ainbat Jel-azi,
 Uste baño be lur obiauan
 Geyenak zirala jausi.
 Landarok datoñ mardul ta mizke,
 Laster dira eurok nausí;
 Onein gerizpen sasi-sendijkak
 Makal biarko dau bixi...
(Euzko-Deya, 1918, 64, zenb.)

DEUN MIKEL ETA EUZKERA

Eguzkijak bultz einda jaurti dau
 Gau itzal kopotilluna;
 Ozkarbi dago, itxaso bare,
 Ipar-aixetsu biguna
 Goyan ta beyan, lior ta itxaso,
 Dana da edertasuna,
 Ospatzeko gaur Deun-Mikel geure
 Zaindarijaren eguna.

Aintza goyeten Mikel deunari,
 Aintza Donoki ta ludi;
 Zure ezpatia dala nagusi,
 Ezagutua ixan bedi.
 Luzbel ta beren lagunen aurka,
 Zeugaz gura dogu jagi;
 Jagon gaizuz, ba, Kistar gustijok,
 Jagon egixu Euzkadi.

Ezpata zofotz ori arturik,
 Deun Mikel agurgarrija,
 Etor zakiguz kentzeko emen
 Daukogun erdelkerija;
 Berai yagokon tokijan iafi
 Daigun Euzkera garbija.
 Bestela, zelan esango dogu
 Au dala Euzkelerrija?

Urietatik bidaldu eben
 Euzkerea basefira;
 Uri-ondoko basefitik be
 Bultz-a-bultzaka mendira...
 Lotsaz, bildufeñ, berantz jasteko
 Aspaldi antxe bixi da...
 "Zatoz, Euzkera, zeure tokira"
 Noz entzungo daun begira.

Aralar mendi-gain oftatik
 Esayozu, ba, zeuk esan:

"Zuaz, Euzkera, zeure tokira,
 Semiak artu zayezan;
 Deika daukozuz... lagundukotzut...
 Ez eixu bildufik ixan;
 Uri, basefi, lior ta itxaso,
 Gura dot bixi zaitezan",
 Entzun, ba, entzun, euzkotar orok,
 Batez bere gurasoak;
 Entzun, ba, ondo zer dirauskun gaur
 Deun Mikel Aralar'koak:
 "Or Ikastetxe, zeuen umiei
 Euzkera irakastekoak.
 Bidaldu, bida, dan-danok ara,
 Onetsi zaizen Jainkoak."

Gure Jainkua Euzkereagaz
 Gurtu ta poztuko dozu.
 Zein zori ona umiei olan
 Irakasten ba dautzeseu!
 Onu edefok aitzuta emen
 Iñor ez bedi geratu.
 Aupa, mutillo! ekin, ba, gogor
 Euzkera'n aldez jo ta sul...

(Euzkadi, 1917-IX-30.)

IXATE BARRI BAT

Ofiiaik oritu ta
 Zimeldu loriak;
 Txorijak mututurik...
 Ilun-itxal goyak...
 Len alai ziranak, oin
 Daukez naigabiak.
 Uferatzen yatorku
 Ixate bafi bat.

Bai al daki, u zein dan
 Kisto'ren legia?
 Bestena itxi ta zaindu
 Bakotxak beria.
 Indafez kendu daunak
 Besten Abefia,
 Zigur dauko bere gain
 Jauna'n aserría,

Nausijak jausten duaz,
 Txikijak jagiten,
 Au jazoko zala nok
 Esan aldi baten?

Afop

Asi dira igarten
Gaitz dala Jainkuari
Geyaurik egiten.

Orrijak oritu ta
Zimeldu loriak;
Txorijak mututurik,
Illun-itxal goyak,
Gripe'k jo dau *etsoyn*.
Zain, ba, jeltzaliak,
Euzkadi'ri lortzeko
Ixate bafi bat.

(*Euzkadi*, 1918-XI-6.)

Gaur jazoten dana . . . ,
Ta biurtu begijok
Jaun Goikuagana.

Ta euzko-deun orok be
Zeugaz diriala,
Afen, Jauna'ri otoi
Egin beriala!

Ze otoi eingozuen?
Ori zeuk ondoen
Jakingozu, Efi au . . .
Ikusi ondoren.

Beintzat ez aztu euzko
Anai-maitasuna
Amari biurtzeko
Egizko osasuna.

Jainko-maitasuna,
Oben-gofotua,
Zeuk bixi zifianian
Zenduan lakua.

"Gu Euzkadi'rentzat,
Euzkadi Jauna'rentzat"
Goguan ditugula
Gaur zerofen itzak,

Otoi dagigu gogor
Jauna'ren aufian,
Zeure emeretzigafen
Illurteurrenian.

(*Euzkadi*, 1922-XI-25.)

OTOI

Emeretzi urtez
Egunez ta gabez
Safi otoi ein dogu,
Sabin, zure aldez.

Jauna'k euki zaizantzat
Beraz donokian,
Kistar ereduentzat
Eindako tokian.

Uste osuan gagoz
Goyan zagozala,
Euzko-deunak inguru
Zeugaz dozuzala.

Gure oldozmen oneik
Egiak da'dira,
Begiratuizu, Sabin,
Ortik Euzkadi'ra.

Geure asaba zafen odola
Daukagun arte zanetan,
Agertu daigun euzkeldun antza
Geure arazo danetan;
Euzkera zafa egafiz ito
Ez dein legorte onetan,
Egafi ori ase dayogun
Maite ba'dogu benetan.

Itzak bakafik indarge dira
Egipenak ziñaldari,
Nor zelako dan bere egipenak
Erakusten dabe argi.

EUZKERA MAITAGARRIA

liuzkeldun batek Euzkelerrian
Bera erderaz ba-dabil,
Alperrik esan "soy vascongado",
Erdeldun utsa da ori.

Ikasi daigun erdera, prantzes,
Naiz ingelesan elia;
Ikaste ori ontzat daukagu,
Baña lenengo geuria.
Izkuntza danak gurgafi dira,
Aurtortu nai dot egia;
Geuretzat, baña, gurgafiena
Euzkera maitagafia.

(*Euzkadi*, 1916-IX-1;

ITXAS-ERTZIAN

Itufi eta efekatxuak
Jasteira beko ibaira;
Ibaya dua oneik artuta
Itxaso zabal andira...
Onegaz topo egin dabe-ta,
Ertzian geratzten dira,
Goratxuago ixil-ixilik
Daun Ziñopea'n begira.

Aixe-bolada batek artu dauz
Baratzetako loriak,
Gaudi gustija betian duaz
Usainduagaz goi-beiak
Itxas-ertzera eltzen dira ta...
Isten dautsoe aixiak:
Baztartxu atan daun Ziñopea'i
Opaltzen. yakoz gustiak.

Txori-aldreak aneika egaz
Or duaz abafotsian,
Aixe zabalan arin-arinka
Bata bestien atzian;
Iraduz junik, baña, oneik be
Ofa or itxas-ertzian
Geratzen dira baztartxu atan
Daun Ziñopea'n aufian.

Euzkotar gaste sendo zinduak
Bidiak betian duaz...
"Itxarkundia" didar dagije,
Baña zelako goguaz!
—Zer jazoten da? Nora zuaze?
—Itxas-ertzerantz, arduraz;
Jel-Ziñopea'i bijotz-opaltzen
Sukafiesta'r guaz.

Ziñopearen gorpu-estalki
Arlosa zabal apala
Uste dot, zutik, afantzezki gaur
Biurturik dakustala,
Begi zabalez goruntz begira
Euzko-Deun audi bezala,
Abefiaren bake-zoruna
Jauna'i eskatzen dautsala.

Gaste zintzoen gogo zinduak
Bizkortu dituz zafak be,
Dirautsiela: "Oker-bidetik
Ibilli gara oñarte;
Gaurtik aufera, baña, zuekin
Jafaitu gura genduke,
Ta ointxe gatoz Jel-Ziñopea'i
Oben-azketzaren eske."

Ofa or, Sabin, zeure gastiok,
Ofa or zar damutuak...
Txori-loreak, efeka, itufi,
Legor eta itxasuk,
Amalaugafen urte-ufenian
Bialdurik Jaungoikuak,
Gurenda-ikurtzat dakartzuela
Burestun zorunezko bat.

Asi umetxu koskofetatik
Ta aitite zafetaraño
Zure gomuta eztaun bat bere
Ez dot aurkitu ondiño;
Lenau nekezik deitzeutzunak be
Gaur bijotz-bijotzez diño
Euzkadi'k seme gurgafiaurik
Eztaula ixan ondiño.

Gora gastiokl Gora zarrok, bel...
Gurtu Josu'ren Bijotza,
Beren ondora erun daulako
Sabin- Abefi-Ziñopa.
Itxarkundia bai-datorkigu...
(Euzkari, 1934-V-29)

EUZKERAZ IRAKATSI

Euzkeraz eztakien
Euzkel-ixendunak,
Dirudije tamalez
Min bako afanak.

Jazokun oneik, bai,
Safitxu dakusguz.
Eta, zegaitik ori?
—Gurasoen efuz.

Urijetan umiei
Euzkera irakasten,
Usle dan baxen efez
Eztala ixaten?, . . .

Ori egija dala
Esan legi nun-nai;
Baña egiz nai daunak.
Eingo daula be bai.

(Euzkadi, 1934-VI-24)

EUPI! IRUÑA'RA DANOKI

Gu Iruña'ratzerik etsayak eztau nai . . .
Areriyuak ez, baña . . . guk jelzaliok, bai.
Maitasunak garuaz danok Iruña'ra,
Etsayen eragozpen ofeik gora-bera.

Abefi-Eguna ordez Euzkadi-Egunal
Ixen-aldatze ori gutzat ezaguna.
Naiz deitu Euzko-Efi, naiz Euzkal-EHja,
Bardin ulertzen dira . . . Ama ta sendija.

Euzko-Abefi bakar Euzkadi bikaña
Eta seme-alabak maite daben Araa
Zoriondutiafen, ein darua lana.
Jelkidok maite dogu . . . etsayak ez baña.

Amaren zorionak maitasunez poztu . . .
Eta maitasun au, nok jeltzalio ostu?
Alper biurtukoira etsai oro lapur . . .
Iskilluz alkarturik . . . ari aiz, . . . makur.

Ziur galduko dabe dollar-osasuna . . .
Guri ostu baño len dogun maitasuna.
Iruña'ra ba danok, aurrez zar ta gaste,
Areyo danak . . . dantzan . . . iminteko

[beste.]

Omen-agur gozuaz laztandu Kanpion,
Pozez napar biotza indartu dakion.
Nabafa Jeltzaletu arterao beintzat . . .
Beraz Euzkadi azke ikusi dayantzat.

Gora Nabarra! Gora Euzkadi!
Jel-bidez, gora bijotziV!
Nun-nai geurekin itz egin bedi
Euzkera geure izkuntzak.

(Euzkadi, 1935-VI-29)

LAUGAftEN EUZKADI-EGUNA (Gure Kanpion jaunari)

Ortzia garden dala,
Eguzkijak diz-diz,
Egunaren atiak
Zabal-zabal dagiz.
Ixadia dan eder
Uda-egun argizl
Euzkadi-Egunian
Edefena, bafiz.

Euzkadi-Eguna gaur,
Au edertasuna!
Nun-nai abots gozozko
Euzkel-oyartzuna.
Jaun-Goikua . . . Euzkadi.
Kanpion . . . Iruña . . .
Geure napar gurgafi
Sabin'en laguna.

Batzuk or duaz oñez,
Oyu eta ifintzi;
Bestatzuk txifingutsez,
Belbillez ta bultziz.
Maita.sunezko pozez
Eskubak igurtziz,
Iruña-bide oro
Beterik bidatziz.

Bidaso'z andikuak
Iruña'ra duaz;
Emendikuok bere
Iruña'ra guaz.
Oldozmen batek... danok
Araxe garuaz,
Alkar besarkatzeko
Maitasun beruaz.

Txorijak txiroliro
Dagije basuan,
Euzko-goguak abes
Eresi gozuan.
Bijotzak Iruña'ra
Garuaz osuan,
An danok gozartzeko
Amaren altzuan.

Donoki-leyuak be
Gaur zabalik dira;
Pantzeska Deun napai
Antxe agiri da,
Alde gustijetatik
Deuna'ren errira
Duazan euzkotarrai
Poz-pozez begira.

Euzko-deunen onduan
Agiri da Sabin...
Urtzi'ren geznarijak
Eguai eragin
Eta Iruña'ranta
Duaz arin-arin,
Goi-eskafez Nabafa
Jeltzaletu dedin.

Gora Nabafa maite,
Geure anai zafa.
Amaren itxopena
Egiten zeu z-ara.
Zu abertzale zintzo
Biurtzen ba'zara,
Etsai-estuntzak laster
Duakez lexara,
Todosi'renak jausi
Zirean antzera.

Ezagutu daigun, ba,
Danok geure Ama,
Eta emon ziñezko
Eesarkada bana.
Jel-bidez zintzo-zintzo
Egin daigun lana,
Zoriiondu dedintzat
Euzkadi laztana.

Ortzia garden dala,
Eguzkijak diz-diz,
Egunaren atiak
Zabal-zabal dagiz.
Ixadia dan eder
Uda-egun argiz!
Gurenda-egunian...
Edefena, bafiz.

(*Euzkadi*, 1935-VI-30)

AGUR, SABIN!

Agur bai agur, Sabin maite oi!...
"—Zelako agurra, baña?
Erail zinduben Jel-areyuen
Agufa lako bardia?..."
—Ez, geure Sabin; agur au dozu
Abenda-odol gordiña,
Jel-maitasunen suz goriturik
Bijotz-yunguran egiña.

Ogetamabi urte dira, ba,
Il zala zure gorputza;
Atzo ba'litz lez bardin, baña,
Euzko-goguan zabilta.
Beste jaun andi asko be il ziran...
Nun da gaur euren gomuta?
Aitzu zirian!... Zeu, baña, ilezkor,
Urtzi'k olantxe gura-ta.

Azken-atseden-tokitzat autu
Zenduan Sukafeta;
Ija gixaldi-erdiko lotan
Zure soin ila or datza.
Bixirik dozun goguak, baña,
Euzko-Abenda-bijotza
Jel-odol garbiz berpizten dafai.
Auxe, bai, Sabin-alatzta!

Ekaitz ankerdun gau baltz ondoren
Agertuko da eguna,
Zuzutz-eguzki dizditzaliak
Argi egingo dauskuna.
Kistar-usañik dabenak beintzat
Autor biarko dauna:
Arana Sabin abandotafa...
Sukafeta'ko Deuna!

Agur bai agur, Sabin maite ori!...
"—Zelako agurra, baña?

Erali zinduben Jel-areyuen
Agufa lako bardiña? . . ." .
—Ez, geure Sabin; agur au dozu
Abenda-odol gordiña,
Jel-maitasunen suz goruturik
Bijotz-yunguran egiña.

{Euzkadi, 1935-XII-3)

VIVA ESPAÑA!

Viva España! didarka dagoz,
neuk bere *viva!* dirautsat,
gofotorikan eztagolako
nigandik España'rentzat.

Katolikuok jakin dagigun
zer diñon goiko Juezak:
"Besten gauzari bakian itxi,
zaindu beria bakoitzak."

Augaitik, vival diñot barriz be,
ixan bei España'rentzat;
baita be diñot: "Gora Euzkadi!",
geuria da-ta, geuretzat.

(*Oñati'ko mitin batean*)

SEI SEMIAK

Ebro'z emendik lau anai gara, Bidaso'z
[andik beste bi:

Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar, Zubero
[eta Lapurdi.
Bidasoa'ren alde banetan Endaya ta On
[darrabi;
Efeka (y) andi orren ganian zubi bat
[biogu jarri;
Anayok alkar besarkatzeko, geu joan,
[eurak etorri,
Laztah emonaz Amari,
Sei semiokaz azke-zoruntu bizi dedm-
[tzat Euzkadi.

EUZKERA MAITE

Maiteak maite dauna
Maitatzen dau nun-nai. . .
Egizko euzkotarrak
Enzkera be bai.

ANKAK BURUAREN GAIN

"Euzkadi", zeugaz zer igaro da? Zer da
[jazoten yatzuna?
Goizero beti zentozen arin, gustiz alai ta
[txukuna,
Egun askotan etzara agertu; au atsekabe
[astuna!
Barriro diñot, zek erain dautzu ofenbes-
[teko utsuna?. . .
Ankak buruai agindu nayak, ene adizkide
[kutuna.
(1937)

UZKURTZAZKUAK

m

Gurasuen ardura da seme-alaben irakaskizuna. Itzez ta egitez, azi ta ezi oi dira, oneik. Ortaz diñogu: zelako gurasuak alako seme-alabak. Zer ikusi, axe ikasi. Beraz, biarrezkua ikasbide ona.

Enbeita'tafak ez eben egundo ikasbide txafik ikusi; bai, alderantziz, ekandu ta oitura zinduen lufun eztia arnaStu. Auxegaitik, gure Kepa, gazte ta zar, beti azaldu yakun ekandu oneko ta egizko Jainko-zale. Aren idaz-lanetan ez dozu idoroko badaezpadako itzik, ez esaerarik. Zan ta gun genduan kistar, eta arek ez eban ezagutzen gordinkeririk, ez iñoren-tzako gofoto edo ezin-ikusirik.

Ezta, etzan miñez soilkki kristiñau: bera ta enparau guztiak zintzoyeran ziran Usparitxa'n, ez eguzkia nora zapia arakoak. Jai ta astegun, Goiko Jaunari eskatzen yakon an Jan-bitarterako laguntasuna.

Usparitxa-Jauregi, gañera, eleiz txikia zala esan zeikean; 1921'ko azilaren 14'an, afatsaldeko lauretan, Josu-jaureskundia egin zan; atarte zabala apain egoan, ereiñotz ta lora zuri-gofizko ustaiz. Belaustegi'tar Pantzeska jaunak onetsi eban irudia, ta Kepa'k ondoren aren opalbena, "Uso txuria errazu" eresi-soñuz ilz neurtu goriak abestuz. Afezkero, otoiuzkak egin eta erabagiak artu, Josu Bakaldunaren aufean beti.

Urteko jayak andikiro ospatzen ziran; baita gaur be. Gabon-aldeko poz-atsegina, bafiz, esan-eziña. Sail ontako olerkiak irakufiaz konturakuko zara norañokua zan aren Gabon zorion-poza. Baña Endeiza'tar Anastasi jaunari, 1942'gko Urtarrillaren 12'an, Gazteiz'era egíñiko idatzian argi be argi diñotsot berak: "Igazi dan urteko Gabon-jayak, zorionez ospatu doguz, sendi osua alkafekin. Ona emen gure urteko Gabon: Gabon afatsaldian, gizonezkuok mukur-su ederra egiten dogu. Nire emaztiak, alik eta aparirik garbi ta gozoonetarikua, baita ugarija be, gertetan dausku. Aparija gertu danian. . . maya zapi garbi, aspil ta abar, gertugertu imiñi ondoren, emazte ta sendi, danak kandela bana ixetu ta, neu aufetik nazala, goiko gelara igoten gara; an Josu Biotz-Deun-Irudi jaurestuaren aufian belaunbikotu ta otoi labufa egin ondoren, nik artzen dot Josu deuna ta beste gustiak nire ta Josu'ren jafai, "Kisto gure Errege" abestuaz, beko eskatzian aufez gerturiko tokiratzen dogu. Emen imiñi ta beriala belaunbikotmik, Agurtza deuna gure asaba zintzuak oi eben eraz. Au amaitu ta zuzenian, mayan inguraturik. . . au onetsi ta beriala, apari gozuarri gogotsu ekin. Apari-bitartian ixaten da emen zer-esana

ugari. Gabon-abesti zafak, "daigun da daigun", "Marijesiek" eta abar eta abar. Emengo abestu biarra.. ! Azken-alderako, anai-arteko ta aita-seme arteko "bertso"-aldi luzetxuak be... tira, polito bakotxa!. .. Ama-ren aparijklak be goralbenik asko ixan dau aurten be. Au, urte gustirako bafez nasaitu zala uste dot. Nozik nozera, Josu gure maiburu-Lendakari Deunari begiratzen neutsan, eta... Bere aurpegi alayan ikusten nebala uste neban, gure alaitasuna Berak be ontzat emoten ebala. Gabeko 12'ak ingururarte iraun darua gure Gabon-aparijklak. Orduan eskaratzeratu gendun eran, neu aufetik eta bestiak nire ondoren, abesti ta abar, Bere goiko tokiratzen dogu gure etxeko Bakaldun Gurena. Emen otoi-aldi laburtxu bat. *Gabon*, eta danak lotara, ufengo goxian Josu'gaz barauste-ko." Ontarako otoi-oleskitxuak erabilli oi ebazan. Ona bat:

Josu laztan, gozo, majtale nagusi,
Zeure Biotz, donian gura dot bixi.
Zeu zara, ba, nive pozezko bixitzta,
Zeuri damotzut nik neure biotza,
Zeuri, ene Josu, nire biotza.

EUZKO GASTEDIA ETA SORTZEZ GARBIKO AMA

Bilbao'ko Euzko-Gastedija irasi zala, neu abertzaletu nintzan beste urte dira. Au dala-ta, Gastedi onen gomutia betiko josita geratu zan nire gogo-bijotzetan. Euzko-Gastedija arek, egizko Zaindari bat gura eban, eta Sortzez Garbiko Ama Neskuza autu eban bere Zaindaritzat. Ama guren oni euren gogo-bijotzak opaldu, ondoren asi eben euren ibilgundia, Jel-bide-ziar, elbururaño zuzen jafaitzeko asmo sendoz. Lenengo eraldu eben gudaroztia txiki, baña kementsuba zan: Mendigoxale-aldrat begi-kua, afezkeroko mendigoxale gustijen eredu.

Igande goxa ona zan. Eta elexan kistar-biarkunak arduraz bete ondoren, alai ta kementsu gerturik:

Eskuban makilea,
Lepuan pardela
Eta Jel-maitasuna
Barruan ebela,

Gure mendigoxale-aldrat azkafa ibilten asten zan, uri txiki basefietatik ziar mendijetaraño; igoten ziran bide, etxe, enparantza ta abar, Jel-azi garbiya itzez ta egitez ereiten ebela. Eurak egiten ebezan itzaldijak, abesaldijak eta jolas-aldijak; gustijak, baña, zentzun onez. .. "ardau-sunda" barik, eta maketo-antzak barik.

Mendi-txaunoak eta en-elexak ikertzeko, barriz, mangutsik eta barik, kistar arauz, txartesak jantzita, itzal andiz.. , barruratzen ziran, Jel-aldez otoi egiteko Aunek bai mendigoxale-eredubak. ..!

G or jarten ebezan ikusle ta entzulerik geyenak; eta Gastediaren lan aberkoyak zirala bide, oker-bidetatik ebiltzan euzkotar asko Jel-bideratu.

Euzko-Gastedijak era askotariko gudarijak ixan dauz, eta dauz; gusti-jak, baña, Jel-gudari azarrijak.

Urtero, Sortzez Garbiko Ama Zaindarijaren omenez, jai ederrak gertau ixan dabez. Urtian baño urtian ospatsuaguak gertau ixan ba'dituez be, baña, aurtenguak orain arteko gustijen azkafi dira, ziñez. Aurten, ba, Zaindari gurena autu ebenetik 25'gafen urteurrenara dala-ta, Zaindarijaren bidez lortu ixan doguzan gurenda-e.skafak egin guraz, Euzko-Gastedija-kuakin Emakume A. Batza'kuak, Euzko-Gastetxu-Batza'kuak, gaste-zarrak, zar-gastiak, danok batera!, aundikiro omendu gura dogu Josu'ren eta gure Ama Neskutz Zaindaria, biotz-biotzez abesten dautsogularik:

Ze u zara, Miren Ne.skutz Garbijoi,
Ama danetan onena,
Garbitasunen antzikufa ta
Egimenetan gorena:
Altasunian daukozu, bafiz,
Azken bagako almena.
Ze u Zubiru'tar Bernartetxu'ri
Arkaitz-leyotik urtena...
Ze u euzkeldunen bitartekua,
Ze u gure itxaropena.

(*Euzkadi*, 1933-XII-10)

. Poztasun andia
Bizkaya'n ipintiaz
Patrona baiia,
Doyak eta birtute
Danen jatoiia.
Orain dogu Bizkaya'n
Zeruko gloria,
Zein dan Jesus'en Ama
Birjifia Maria.

Goiazen Begoña'ra
Euzkeldun antzien,
Bizkai.'ko Patronaren
Sarieki artzien.
Beren maitetasunaz
Ba'gara eltzien,
Gure Amak ez gaitu
Itxiko utsien.
Ta era eder oni
Ez itxi galtzien.

Bizi bedi Bizkaya
Ta bere lagunak,
Bizi bedi Patrona
Eta euskaldunak.
Pozik igaro geinkez
Gau eta egunak,
Itxaroten guretzat
Zaindari ain onak
Bialduko deuskuzan
Zoriontasunak.

Asko dira Euskera
Galtzen dabizanak;
Ez dabe jaritxiko,
Alper dabiz danak.
Zeru altuko Jesus
Maitearen Amak,
Bizkai.'ko Patronatzat
Aututa dauanak,
Zainduko dauz Bizkaya
Eta Euskaldunak.

(Ibaizabal, 1903)

AGUR, URTEZARA!

Agur, Urtezara!
Zuaz lotara;
Sasoya da-ta, zuaz atsedendutera.

Goyetan aintza,
Bee ontan gentza...
Gora Euzkera eta Jo.su'ren Biotza!

MAYATZEKO LORAK

Eztogu bixi gura
Zugaz apartian;
Bildur gara, bai bildur,
Galdu ez gaitian.
Etsai deungakaz batian
Sartu ez gaizan lurpian,
Gorde gaizuz
Zeure mantupian.

Mayatzeko il
Dontsu onetan
Dei eiten dausku
Mariak:
"Egizko biotz
Lora-txortakin
Erdue, pekatarijak.
Goazen, bada,
Ama onari
Betetara guraria,
Itxaroteko
Zeruan gero
Amai bagako saria.

Jaungoikuak
Gorde zaizala,
Miren Sorkundez
Garbia,
Onoidadezko
Lora gustijen
Baratza miragarrija:
Zeugana gatoz
Mesede billa,
Zeruko Andra Marija!

Agur, Josu'ren ta gure Ama,
Eta Zaindari bakarra!
Agur, zeruko eguzki eder,
Agur, goizeko Izafa!
Goi-beyetako Efegiña ta
Gure Jabola Zeu zara:
Zugana gatoz mesede billa,
Zeruko Andra Marija.

SABIN ARIMAGAITIK

Ez-jakiñak argitzen
Euzkadi maitera
Maisu bat etorri zan
Euzkotar artera:
Beti zintzo-zintzoa
Beren egikera,
Ziñopa bat egiñik
Eldu zan iltera.

Euzkotar seme zintzo
Gustiok batian,
Geure Maisu zanagaz
Gomutau gaitian:
Zenbat erakutsi on
Euzkotar artian
Zabaldu euskun beren
Bixitza danian!

Baña, o Sabin maite,
Maisu jakintsua!
Eldu yatzun ordu bat
Zeruban autua
Ludijari eiteko
Agur betikua.

Azil deritxon illan
Ogeta bostian;
Iñoz baño geyago
Gomutau gaitian:
Jaunari eskatzeo
Gustijon artian,
Euki dayan betiko
Atseden betian.

Sabin, zure ikasleok
Babiguz indarrak,
Egiten erakutsi
Zeuskuzan biarrak.
Zefen nai dogu ihan
Zintzo euzkotafak,
Maiteturik Jauna ta
Lengo Lagi zafak.

(*Patria*, 1905-XI)

AMA BEGOÑAKUARI
(*Bertso barriyak bizkaitar batek jarriak*)

Bertso polit batzuek nai neukez atera,
Baña duintasunik ez askoren antzera;

Mesede billa nua Zeruko *atera*,
Kristau gustijen Ama Mariaz batera.

Sortu giñan bizkor ezer-ezetatik,
Baña geixotu giñan utz-egin batetik:
Sugeari jaramon Eba'k egiñaitik,
Gu aldendu genduzan Zeruko bidetik.

Sugeak eukan guzur edo erejiya,
Galdu nairik Eba ta bere jatofiya,
Baita bere urrengo jarraipen gustiya;
Au da, liburuetañt daukagun egiya.

Jaunak zirautsan suge inpernutafari:
"Zer ein deutsazu Eba lelengo Amari?
Guzufaz erain afen pekatu oneri,
Beste batek burua ausikotzu zeuri."

Jaunak beste Ama bat ein eban argitu,
Zefen bitartez giñan gustijok garbitu:
Eba'k galdu genduzan, Mariya'k aurkitu,
Sugeari egifiaz burua zatituz.

Mille urte ta geyau igaroak dira,
Maria agertu zala Bizkai'ko efira,
Begoña'ko Artagan edo artadira,
Iñok egundo aintzat ez eukan tokira.

Jaunak bialdu eban bere graziyakin,
Begoña'ko efira maitetasunakin,
Bizkaya'n ixateko gozotasunakin,
Asuntziyoko izar eta jantziyakin.

Nundik eta ez zelan iñok etzekiyan,
Zeruko Ama an zelan aurkitu zeikiyan;
Baña gogoratu zan gustien artian,
Etorriko zala gu galdu ezkeitian.

Agertu zan ta geyau Begoria'n dau beti;
Iñor galdu ez dedin Bizkai'ko lufeti,
Mesediak ugari Jaunaren aufeti
Ekarten dauskuzala gu ez galtziaiti.

Mariya'k egin ditu ainbeste mirari
Biyotzetikan Bera maite dabenari;
Itxasoetan lari ibil direnari,
Orlako mesediak ein deutsez ugari.

Ez dau mirari gitxi ein itxasoetan
Ama Begoña'koak ontzi galduetan:
Bera deitu deutsanik estutasunetan,
Ez dau bakafik itxi azken orduetan.

Untzitikan jausirik bein Andres Maidana,
Ordu biyan uraren barruan on zana,
Untziya amar leguan aurrera juana,
Zan Mariya'n bitartez alkantzau ebana.

Gregorio Zoparta, barriz, bost orduan
Sarturik pelota artzen karobi beruan,
Gizoneri zirautesn bila asitorduan:
"Kontuz ibilli, zerren bixirik naguan."

Naiz dala itxasoz ta naiz dala leofez,
Izaten gara beti amaren biafez:
Gu ikusi ezkerro berari didafez,
Guri laguntzen dator zeruko indafez.

Ama Begoña'koak dau ainbat meritu:
Zenbat mirari berak egin ete ditul
Mutuai itz eragin, itsuak argitu...
Zenbatu ezin beste Berak egin ditu!

Adoredun ipiñi adore bakuak;
Zenbateri zuzendu berna okertuak!
Eta zenbat osatu geixo txafekuak!
Peste edo kolera eta orlakuak.

Uraz iya itoan ta suaz efetzen,
Ziranak zenbat Amak zituan libratzen
Bein bere ez dau Mariya'k iñor itxi gal-
[tzen,
Biotz onagaz ba'da Berangana eltzen.

Zenbat esker, mesede maitetasunagaz
Eiñ ete dauz, gomutau gaitian Bera-
[gazl
Zordun aurkitzen giñan Ama ain onagaz,
Ipinteko Begoña'n koroi edefagaz.

Eun da amazazpi txingar brilantedune-
[tan,
Eta ogeta zortzi txingar artañetan,
Ta larogeta amasei txikizkotietan,
Ta zenbat nai txikigaz adornaturikan,

Mariya'ri ipiñi eutsen burestuna,
Zidafezkua bera, gañe oriduna,
Beraren ixeneko Agife'k emona.
Ai, ze ospatsua zan orduko eguna!

Larogeta amazortzi mila laurleko
Eta bosteun ganera baliyoa dauko:
Agife'k emon eban, jakiñik norako,
Bizkaitafen Zaindari danen bururako.

Eleizia bete zan, baita inguruak;
Dana estaltzen eben kristiñau buruak,
Auzpezturik Amari eiten efequak,
Beragan ipiñita uste seguruak.

Aberats ta ezeuki, andi ta txikiak,
Ugazaba ta otsein, zar eta gastiak,
Eleiz-buru nausi ta efomes maitiak,
Berean aufian ziran auzpeztu gustiak.

Aita Santu zan Leon Amairugafena,
Onetako baimena bialdu ebana:
Koroiaz ipinteko Begoña'ko Ama,
Berak zaindu egian Euzkal-efi dana.

Begoña'n safi ftxan dira efomesak
Betetan Mariya'ri eindako promesak...
Amufaturik ona, ikusi nai-ezak,
Suge deungak bialdu dituz Satanasak.

Igezko ufiyaren amaikagafena,
Bilbo'ra suge deungak agertu zirana,
Zapaltzeko ustian Begoña'ko Ama,
Oker jazo ez ba'litz euren uste dana.

Alpefik egin eben eurak alegiña,
Efomesari kentzen Jesus'en dotriña;
Mariya nai ikusi, bai eta Begoña:
Dana jadetsi eben, kosta yaken baña,

Jesus'ek autu eben Mariya Amatzat,
Baita dau eskiñirik munduko danen-
[tzat;
Gustiyen goitik, bafiz, gaur bizkaitafen-
[tzat,
Ipiñi dabelako euren Zaindaritzat.

Biotzian sartu yat poztasun andiya,
Bizkaya'n ipintiaz Zaindari bafiya,
Doyak eta birtute danen jatofiya,
Zein dan Jesus'en Ama, Birjiña Mariya.

Guazen Begoña'ra euzkeldun antzian,
Bizkai'ko Patronaren sariyak artzian;
Bere maitetasunaz ba'gara eltzian,
Gure Amak ezkaitu itxiko utsian.

Bixi bedi Mariya, baita euzkeldunak!
Bixi bedi Bizkaya ta beren lagunak!
Onez igarorikan munduko egunak,
Danok izan gaitian zeruan zorunak,

(1906, *Gemika'n*, *Egufola'ren irarkolan*)

Zer da Jesus'ek autu ebana

Edo bere naiz egiaña?

Elorrio'ko erri maitean

Bizkaitarren atsegiaña,

Bertan egoan onoidadezko

Baratza edo jardiña,

Argitu zana usain gozozko

Zeruko lorean miña.

Au zan lora bat argitu zana

Askoren atsegigarri,

Beti oi zana zeruko iruntz

Gozozkoaren egafi,

Emon dagion onoidadezko

Indar sendo bat berari,

Zeren mingotzak gozotzen naiban

Ixan ludian gudari.

,uan Isidro Befiotxo ta

Monika Arizti'n baratzan

Lora au sorturik argitorea

Jauna'k gurata alan zan,

Maite ebena beren zaintzaillak

Asieran ta gorantzan,

Bardin ufian ein ufiñeko

Aldakuntz edo mudantzan.

Mila zortziereun oeita zazpinn

Zezeillan amalaukua,

Egun bera zan Elotio'ko

Efian Jauna'k autua

Onezko lora bat ipinteko,

Bertan argitaratua

Ixango zana beti-betiko

Zeruan aukeratua.

Goizalderako izafak legez

Oibar berak argi egin;

Pozik zeruko gozotasun au

Ludian zabaldu dedin,

Aingeru baten antzera baita

Jesus maitatzen allegin.

Aingeru lora au, zein zan ezpada

Befiotxo'tar Balendin?

Bizkayan jayo, Logroño'n apaiz,

Gero Okaña aldatu,

Done Domingo'n Anaitegiko

Jantziaz einda guratu.

Berba muetak ikasi zitun,

Jakindurian goratu.

Etzan Jesus'en nayan ziñopa

Ein arteraño geratu.

Okaña'n onda, Kadiz'tik jiran,

Manila'ra zan eldua,

Ango nausien baimenaz gero

Tonkin'era bialdua.

An ibili zan artzain bat legez

Maitez biotz-zabaldua,

Jesus'egana biortu naixik

Ango siñismen galdua.

Basamortuan zelan ci diran

Ibilten artzain zintoak,

Batzuk zaindu ta bestetzuk batzen

Jan ez daiozan otsoak,

Alan eukazan Tonkin'tafakaz

Balendin Berriotxoak,

Txafak ondu ta onak zaintzeko

Gurari biotzeakoak.

Zabal oi diran lorarik lora

Erliaik oïñez ta aidian

Ibilten dira, batzen dabenz

Ezti eiteko abian:

Alan ibil zan Tonkintar gaizto

Odol-zalien artian,

Zabal ebizan arimak batzen

Jaunaz gozatu daitian.

Ze putz gozoa egin oi daben

Udako ipar aixiak!

Baña eztabe ontzat artzien

Gozotasun au guztiak.

Ilun-zaliak argien kaltez

Oi dabez indar luziak,

Bada Tonkin'en igaro zitun

Onen irudi bixiak.

Luditarrakaz len izan afen

Esetsiz inguratua,

Gaur bakez dago beti-betiko

Zeruan aukeratua,

Atsedenian Jauna'k emonda

Ufezko jafi-lekua

Euskal-zaindari, ziñopa dontsu,

Done zorioneakua.

Len zuretzako ziran nekiak,

Len bero lar eta otzak,

Len gose-egafi etenbagiak

Eta esetsi zofotzak.

g
Ezpadar zure biotzak,
Zaukezanian goi-beietako
Deunak zorionekotzat?

Garagarriaren amalaurako
Zeru gustia dau barez;
Aingeru danak zeuri begira
"Bizkai'ko done"! didarrez.
Mai donetuan zu ikusteko
Danok pozaren indafez
Aurkitzen gara, gagozalako
Bizkaia'n zure biafez.

O Bizkaitarren zaindari zera
Done atsegíñezkua!
Zure mendian gaozan danoi
Emon eiguzu eskua,
Daukagulako arerioen
Esetsiz bixi estua,
Galdurik ija bizkaitafentzat
Jauna'k autuko lekua.

Agur gozo bat egiten dautzut,
Maitez, danen ixenian.
Aintzat artuizu nire eskintza au
Zuganako naizenian.
Nai dogu bixi Jesus ta Amaren
Eta zure esanian,
Zeure antzera or sartu gaizan
Luditik goazienan.

/Aberry, 1906-VII-14)

GOGOANGARRIZKO ABESTIJA

Gustija al daiken Jauna'k,
Goi ta be eta danian,
Gauza danak egin zitnn
Asi zan unian:
Aingeruak goyetan,
Donoki donian,
Bera maitatuteko
Betiko iraunian.

Luziper ipiñiban
Aingeruen nausi;
Baña afotzen zalako
Andi-ustez asi,
Jaungoikoen aginduz
Zerutik igesi

Ziran bera jausi.

Aingeruen nagusi
Ixango zan goyan,
Utsik egin ezpaleu
Emon eutsan doyan.
Bardin Adan ongo zan
Pozezko lurrian,
Jafaitu ba'leu Jaunen
Aginduben beyan.

Atsegíñezko ortuan
Adan'en aukera
Aldatua zan une
Batetik bestera.
Eguna biurtu zan
Gaua ixatera;
Ilundu zan bidia
Zeruko atera.

Jaunaren agindua
Ausijaz batera,
Jausi zan gizatasun
Dana illunpera;
Naigabe au eldu zan
Millakaz urtera.
Jesus etofa arte
Gu gaizkatutera.

Galduta giñianok
Gaizkatu gaitezan
Jesus'ek gurari ain,
Andijak eukezan.
Beragaz gure zofak
Ludiko bixitzan
Artzeko, Miren'egan
Aragiz jantzi zan.

Miren'en sabelian
Jaunaren Semia,
Aragijaz jantzirik
Jaungoiko Umia
Bslen'en jayoteko
Eldu zan unia;
Illuna argitu eban
Eguzki donia.

Ixanik donoki ta
Lufeko Bakaldun,
Aska baten biloxik
Ofa nun daukagun;
Astoa ta idja
Daukox beren lagun:

Jesus'en maitasuna
Gogoratu daigun.

Goyezan kistar onak,
Goazen Belen'era,
Billoxik aurkitzen dan
Jesus'en aurrera.
Belaun-bikotu gaiten
Elduaz batera,
Etorri yakulako
Gu gaizkatutera.

Zetan etofi zara
Zu, Jesus maitia?
—Jaingua ta gixonaz
Egiten bakia!
—Zer gura dozu, bada,
Oin guk egitia?
—Zeuen bijotz osoaz
Neu maitatutia!

Maite zaitugu, bada,
Bijotzen erditik;
Maite zaitugu raaite
Beste danen goitik.
Gertu gauz egiteko
Al douna Zugaitik,
Agur einda juteko
Ludi onetatik.

"Iñorenai geldi it, i,
Zaindu norperia,
Olan bete nai dogu
Jainkoen legia.
Olan eitezauntentzat
Dot erabagia;
Eztau beti iknsiko
Nire arpegial!"

Poztu gaitualako
Jesus'en Jayotzak,
Eskintzen dautznguz gaur
Gustijon bijotzak:
Gu Euzkadi'rentzako,
Euzkadi Zeuretzat
Ixan dein gura dogu
Jeltzaliok beintzat.

(*Aberrija*, 1908-XID

LUZI ZABALA'REN OMENEZ

Ezin kendu dot atsekabe bat
Bijotz bafuan dedana,
Neure aizkide Luzi Zabala
Iltiaz artu nebana:
Abertzale bat Euskal-efija
Asko maitatzen ebana,
Luditik jun da, Jaunak esanik:
"Erdu betiko Neugana",

Alde batetik naigabetu naz
Neure laguna iltiaz,
Baña bestetik atsedendu naz
Beren agufa eitzia.
Ludiko gauza danok itxirik
Jaunaren borondatiaz,
Autoritu eta bake onian
Jafi zan Goiko Aitziaz.

Orain euzkotar danok gomutau
Gaiten Zabala roaitiaz,
"Aita gure" bat gitxienian
Esanik bijotz betiaz;
Otoi dayogun Jaungoikuari
Onoidadezko nekiaz,
Aurkitu dedin ludi goyetan
Amaibagako bakiaz.

{*Aberri*, 1908-11)

EUZKEL-IXENAK DIRALA-TA

Zertzuk eztabez esan,
Zer ez iragafi
Elixan ta kanpuan,
Uri ta baserri;
Euzkoak Elexaren
Arerio jarri
Dirala esan dabe
Askok eta sarri.

Baña, zer egin dogu
Eleixaren kaltez?
Egijari jafaitu,
Beste gauzik bapez,
Euzkeva jagoleko
Garbi-garbi artez,
Jauna'k geure izkeratzat
Itxi euskuna lez.

Benetan maitatu,
Euzkel-ixenak bere
Genduzan e.skatu.
Eskari au ez eben
Danak ontzat artu.
Zetako, ba, gixonak
Egija ukatu?

Jauna ta Lagizarra
Euzko ikurriña;
Beraz dau gurutza ta
Kisto'ren dotriña.
Aunegaz lortukogu
Geure atsegíñा,
Ixateko Asabak
Zivan lez antxiña.

Kisto'ren ordekuua
Efoma'n daukogu:
Orok aren esana
Egin biar dogu.
Arek eztau iñor be
Iñoz atzipetu,
Dalako bixi garan
Kistar danon buru.

Josu'ren idatzijan
Dago idatzita:
Doipuruak dotriñan
Utsik ezin leika;
Epayak emoten dauz
Geldika-geldika,
Egija zeñena dan
Ondo igafita.

Eskafak Amargafen
Pi Aita Deunari,
Dautson maitasunaitik
Euzkel-efijari.
Gora uzkurtz donia!
Geugaz bixi bedi,
Euzkeldun jagoteko
Jauna'ntzat Euzkadi.

(1911-XII-25)

ARERITUAK
(*Kandida Uruburu-Uribarri ta Apraizen ugutza dala-ta*)

Arerijuak eskuman doguz, arevuak
[ezkefian,

[aurrian.
Jo ta su dabiltz katolikuen ixena kendu
[gurian;
Baña gu sendo, Jaungua lagun, areyo
[danen erdian.
BilduHk bage jafaitzen dogu Sabin
[Arana'n bidian,
Gure umiai euzkel-ixenak ezarten
[Euzkel-efijan,
Gura dogula bixi eta il Jaunguaz Lagi
[zafian,
Itxirik Jauna'k ezautu dayan kistafak
[nortzuk garian.

{Euzkadi, 1913-X-13)

ARTZAIN BARIJA

Negu ankefak oi dauzan legez
Lora gustijk igertu,
Mendijk gofi, zugatzak biloiz,
Txorijak mutu bigurtu;
Ta Udabafijak lorak berbiztu,
Txori ta danak alaitu;
Geu be olantxe atsekabian
Ondoren pozak jo gaitu.

Europa'tiko negarfafizko
Gudako izpafai begira,
Tamalez safi nire begijak
Itufi bigurtzen dira;
Baña gaur pozik begiratzen dot
Jelkiden izpafingira,
Naigabe danak aiztuta nire
Bijotza pozex jafi da.

Dakust antzezki ain gurgafija,
Baita be izpafik onena:
Aita barri bat. Artzain bafija,
Ludiko kistar danena,
Goteunak deitu daula emonik
Doipurutzako baimena,
Amaboskafen Bedita beren
Ixentzat artu dabena,

Au izpar eder, au nire poza!
Au bai nire atsegíñा,
Dakustanian amargafen Pi
Doatsubaren ordaña!
Ume zurtz giñan, ta bai-genduan
Aita on baten premiña.

Zorijontsuba ixan daila, ba,
Kistar ororen Artzañal

Izpar alayak irakurrita
Eskuban daukat "Euzkadi",
Doipuruaren antzezkijari
Begiratzen adi-adl.
Laztan eraonik bular ganian
Daukan gurutza deunari,
Opaldu dautsot euzko-abenda
Doibatza'n aldez gudari.

Artzain deunaren irudijaren

Aurian otoika nago,
Opautsedala txiro ez-jakin
Onen bijotz eta gogo,
Ardi galdua gagozan legez
Gaur iñoz baño geyago,
Txabolaratu gaizan otsnak
Ondatu baño lenago.

(*Euzkadi*, 1913-IX-7)

KARMEL-EGUNEZ LAftA'KO LEKARETXIAN

Seme on batek amaren jaya
ospatzen daben orduan
alaitasunik andienagaz
bere amaren onduan,
atsegin danak oi dauzan legez
bijotzan barru-barruan,
Karmelez Larra'n Miren Amagaz
neu be olantxe nenguan.

Neure briotza poztu yatan bal
Ama'ri begiratutal
An zan illargi, zeruko ixar
edefez inguratuta:
aufe-alidian, egal, goi ta be,
lorategi biurtuta.
Gusti oneikin goraltzen eben
gotzonak Miren ne, skutza.

Jaupaldi eder asi zanian,
Donoki neban ikuslen;
beste aldetik gotzon-eresi
ta abes gozuak entzuten.
Itufi oneikin neure briotza
ur gozoz asetu eusten;
ofa betiko zorionduta,
geyau ezpa-yat legortzen.

Txonitz-aldi ja egiten bere
Aba Apolinar asi zan;
ain ederto ze, ba-zirudijan
Deun Simon bera ete zan.
Neure gogoko almen gustijkak
beran jafita neukozen . . .
Onoidade ain goralkarrjak,
Ai, zeñek euki leikezan!

Euzkera garbiz egiten eban
Karmel'go Ama goratu,
esanik bere Kutuna barik
ez deila iñor geratu;
berak daukezan onoidadiak
euskuzan argitaratu.
Ai, baña zelan! Gustiz ederto.
Goralben danak biaitu.

Goxian legez artsaldian be
txadona bete-beterik,
toki aretan etzan ikusten
edertasuna besterik.
Aba Polentzi'k itz egin euskun
euzkeraz maite-maiterik.
Ezaun da oneik eztabela nai
ele kutun au galtzerik.

Itzaldiiaren ondorenik an
ibilgun deuna egin zan,
Karmeldar Miren irudijagaz
beste uvtetako gisan;
baita Doipuru-onespenagaz
onetsi orok elexan,
euzkeldun zintzo kistar otzanak
auferantz be ixan gaizan.

Agur, karmeldar, Miren'en seme
on jakitun otzaneri,
lekarretxeko Aba nagusi
ta bere menbekoeri!
Aba Apolinar eta Polentzi,
txonizlari ain gurgafi,
obendi onek opa dautznbez
Jauna'n zorunak ugari.

(*Euzkadi*, 1915-VII-21) •M

MIREN EDURNE JAYAK OKA'N (*Dagonilla*, 5'an)

Esango dau norbaitek, nun dau baña
[Oka?
Ara; esango yatzu; ez jarri ain loka.

Iru mendi biribil andiren erdijan
Dago antzoki eder baten irudijan.
Ereka eder batek, gurturik gautegun,
Itxasorantz duala egiten dautso mun;
Basabide, bitxabal, eta burdinbide,
Poz-pozik daukoz beti onduan begire.
Txadon txiki bat dago ain eder apaña,
Elgezabal Basili jaun onak egiña;
Miren Edurne dago txadontxu orretan,
Kistarrik galdu ez dein beti arduretan:
Bere inguru gustija izarrez beterik,
Donoki bat divudi eta ez besterik;
Berauna goralbenez urtian-urtian
Jayak egiten dira illonen bostian.

Zelako jayak, baña?... Zer?... Nov
[dau itaunka?

Tira, ez lav estutu, esango yatzu-ta.
Amar ta erdijetan Jaupa nagusija,
Canto gregoriano daula eresija;
Zugadi'tar Eusebi jaupavi azkavak
Jaupa ovtan dagitsoz Jauna'vi opayak,
Eskuma-ezkefetan laguntzat dauzala
Avabiotofe ta Mavkuevkiaga.
Oyanguven'tav Kepa'k beve ikastolako
Gotzon txikitxuekaz, zoli ta ederto,
Abestuko dau Jaupa, gertaurik dago-ta,
Elgezabal Gillelma'k avmonium jota.
Txonitzaldi edefa, euzkotaven elez,
Ozkoz jaunak eingo dau, berak dakiian
(lez.)

Eleizkixun eder au amaitzen danian,
Txadon-aurreko zelai eder zabalian,
Agura ta mutilak, oituvea dan lez,
Aufesku bi edo ivu gogoz eingo dabez;
Ija... lau ogeikogaz. Oin be ovetako,
Aguetan onena Kalbo errortako.
Arratsaldian, barriz, illundu artian,
Euzko-jolas garbijak betiko antzian.
Elgezabal Basili'k, pozik eta gogoz,
Txalo edefak safi Kalbo'ri jo dautsoz.

Nor edo zein da, baña, ofenbeste bidar
Aitatzan dozun jaunoi?... Eztogu
[iaikin biar?

—Bai; Oka'n jayoa da; emendik gastetan
Bilbo'va juan zana, ogija topetan;
Ikasi eban gustiz ondo ijeltsevu...
Jaunai eskafak, baita edozen bat divu
Ivabazteko beti euki dituz evak,
Amaikatxu etxe edev apaindu dauz
[bevak.

Bilbo n bape diranak ezagutzen dabe,
Gixon azkav ta ona itzez ta egitez,
Afokeririk bafiz, nun zanekorik bez;
Sendia jakintsua azkar ona dauko,
Maitetasun sutsuaz Euzkeva'ganako;
Seme bat, barriz, Bilbo'n ziñegotzi
[ixana,

Abertzale zintzua Elgezabal Kosma:
Basilik ain dau maite bere olo-lurre,
Miren Edurne baita euzkera samufe.

Ez itandu iñok be nivi zev diñotan,
Ondo begitu baño zer egin daun
[Oka'n;

Etxe batzuk evosi bevak be bat egin,
Euzkel-ikastola emen jafi dedin,
Goyan bixilekua, beyan ikastola,
Ikasleentzako toki edefa daukola.
Ivakasle jafi dan jaupavi gastia
Oyanguven'tav Kepa, gitxi lakoxia.
Egun ovo jaupea onek dau egiten,
Gevo dautse umiei gogoz ivakasteu:
Ivakatsi be, bañan... asko ta edevto,
Gaztelar askok baño bost bidar obeto.
Euzkel ikastola ta egunero jaupa
Okan daukoz Basili jaunak ordainduta.
Eta zenbat olako mesede, ixilik,
Inguruetañ egin ete dauz Basili'k?
Gustijk esateko eztaukot astirik;
Ganera Kivikiño'k, safitan, lekurik
Eztau eukiten azke: ta ori dala-ta,
Amaitzan nua, gaurko naikua dua-ta.

Jauna'k ordaintzen ditu beti on-egiñak,
Donokian emonaz zorun-atsegiañak.
Emen osasuna ta gero zorun-aintza,
Opa dautzuz, Basili, Enbeitata
[Kepa'k.

(Euzkadi, 1916-VIII-4)

AINTZA MIREN SORKUNDE GARBI-GARBIARI!

Ufezko ate Donokikuak
Zabalik daukoz gaur gure Jainkuak,
Irukoitz Deunak an egin daben
Alatz andija ospatziafen
Jainko-Alaba,
Goteun-Emazte, Josu'ren Ama,
Beti garbirik ixango dana.

M.

g g
Ixango dana goi-bein jabe,
Miren Donia,
Ausirik Txarren suge deungia,
Gu gaizkatzeko Eniakumia.

Itzik ez dago, nik dakidanez,
Miren goraltzeko biar dan legez,
Edertasunen edertasuna,
Jakiturien oxin sakona,
Ixar argija,
Bidegetuen zuzenbidia,
Ontasunian ezin obia.

Ezin topau lei bitartekorik
Sorkundez garbija baño oberik,
Onexen bian gure asabak
Eten ebezan euren batzarrak:
Euzko-Gastedi
Bilbokuak oin eiten dau ori,
Miren dabela beren zaindari.

Ben-benaz euren zaindariaven
Sorkun-egun deuna ospatziafen,
Gastedijako baziakide gaste,
Aizkide, lagun, sendi, emazte,
Danak batera
Duaz autortu ta jaunartzera,
Gure asaba zafen antzera.

Aintza goyetan! Edonun aintza,
Sorkunde garbiko Miren Neskutza!
Zeure laguntzaz Euzko-Gastedi
Ofek gaizkatu nai dau Euzkadi,
Baltz, ori, gofi,
Etsai gustiak kenduta garbi.
Aupa, mutillak! Ori, dok, ori!

(*Euzkadi*, 1916-XII-8)

g , y g g ,
"Napartarra" ta "Euzkel-Laguntza";
Gustioi Josu'k zorion utsa
Beren Jayotzan
Bemoizuela eskatu neutsan.
Bayetz diño, ta... poztu gaitezan.

Euzkel-ixendun
Umeen guraso,
Euzkotar orok, bijotzak jaso
Artzeko onespen zoruntuena
Josu'k Belen'dik dagitzuena,
Eskar oneko
Abertzaliak zarielako,
Izan zaitezeñ Donokirako.

(*Euzkadi*, 1916-XII-24)

KEN ETA JAGON

Ene Sandroke zoriontsua,
Zuaz Aralar mendira;
Deun Mikel'agaz jafi zaiz andik
Lau aldetara begira.
Euzkerearen etsai gaitzoak
Andik agiriko dira,
Zenbat ixufi, napafi ta abar,
Sartu dan Euzkel-efira.
Euzkerearen etsai gustijak
Lagun egindik alkafi,
Iñun direan gexo-muetak
Berari dautsez ekafi.
Ene Sandrnke, otoi dagitzut
Ken ixurri ta naparri...
Ken eta jagon, Euzkelefira
Geyau ez deizan etofi.

(*Euzkadi*, 1916-VIII-16)

ZORIONAKI

Gabon-eguna
Gozo biguna,
Urte bafi alai zorionduna,
Jelkide lagun, aizkide maite,
Euzkel-idazle zar eta gaste,
Gustioentzat
Josu maitiai eskatzen dautsat
Zuben lan eder danen saritzat.

MIREN EDURNE'RI (*Oka'ko jayetan*)

Doñua: Goiko mendian
edura. dago ...

Gaurko eguna, kistar maiteok,
Egun gomutagarrija.
Alde batetik garbitasuna,
Bestetik zikinkerija,

Ondaturik daula esan lei
Gaur ludirik erdija . . .
Erruki zadiz, gugaz efuki,
Miren Edurne garbija.

Miren'en bidez egin dayogun
Jainkoari eskaria,
Semia'gandik jaritxi dayan
Ama'k biar dan gustija.
Zeugan jarten dogu, ba, danok
Itxaropen andija:
Znk gaizkatuko gozuzala gu
Ta geugaz Euzkalerrija.

Deabru baltza,
zeten ator ona,
atzera ua
Luziper'engana;
guk etxuau biar
ire laguntasunik,
ta alde egik emendik.
Miren Edurne
da gure lagune.

Alpefik abil, ba,
gu sarian sartzeko;
ezkaituk sartuko.
Miren Edurne
da gure lagune.
Jaungoikan Ama .
lagun euki ezkero,
bildufik eztago.
Miren Edurne
da gure lagune.

Deabru baltza,
zeten ator ona . . .

{Euzkadi, 1917,11-26}

USTE BAKO ERIOTZA
Zugatz ain
gastia,
eder loraz betia,
igali ain gurgafi
emoten eban ori
etzan ain
gasterik
galduko zan usterik.

Baratza
batian,
toki ain egokian
aurkitutene zanian,
sasoirik onenian,

etzan ain
gasterik
galduko zan usterik.

Pozezko
loriaz
ta ufezko igaliaz
beterik zan zugatza,
indartsu, aberatsu,
etzan ain
gasterik
galduko zan usterik.

Bat-baten
dau bota,
afak sustafan iota . . .
Usteltzen da lorea;
baña bein be ez ufea:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Ni lako
ez-jakin
askok oi dautso ekin.
Baña banakatxnak
oi dira jakintsuak:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Itz utsak
alperrik . . .
ilten dira bakafik.
Egipen onak, bafiz,
iñoz il barik dabiz:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Ainbeste
olerki
eder, sakon, egoki
zituan itufija,
gure itxopen aundija:
berauxe
ziñan ba
zu, Eltzo'tar Joseba.

Joseba
il dala!
Ai, au gure tamala!
Ezkutau da luditik,
Jaunak daki zegaitik.

Or goyan
Zulc, Josu,
zoruna emoyozu.

Euzkotar
gustiak,
zarrak eta gastiak,
biotzez ta kemenaz:
otoi bana esanaz:
"Or goyan
Zuk, Josu,
Zeuretzako gordeizu."

(*Euzkadi*, 1916-XI-24)

MAYATZIAN AMARI

Mayatzeko il dontsu onetan
Dei eiten dausku Mariak;
"Egizko biotz-lora txortakin
Erdue, pekatariak."
Guazen, bada, Ama onari
Betetara gurariak,
Cero zeruan ixan daiguzan
Amai bageko sariak.

Zeruan eta lurrian zara
Ama benetan onena,
Garbitasunen ispilla ta
Onoidadetan gorena;
Jakituria dauko zu, bafiz,
Azken bngako almena,
Zeu zara gure bitartekua,
Zu gnre itxaropena.

ESKAfTEZ GATOZ

Eskar andiak damotsaguz gaur
Josu ta beren Amari.
Agur, Sorkundez garbiko Ama!
Zakiguz gure Zaindari,
Ditugulako ingurueta
Etsai gaiztoak ugari;
Emon eiguzu zeure esku ori
Igasiteko eurari,
Gustiion arte goratu daigun
Erlejīnuaaz Euzkadi.

(1916-XII-24)

ESKALIAK

Gaur basefiko etxetxu zuri
Atarte zabaldunetan,
Deun Agate'ren sari edefak
Emon dauskubez danetan.

Au ez diñogu erdi-olgetan,
Bai, baña, bena-benetan;
Ez degu, bafiz, gutxiagoren
Usterik etxe onetan.

Osasunez ta zorion utsez
Zeubek naibeste urtean,
Euzko-bizitza... nai dizutegu
Geure Abefi maitean.

Zuben sakelak arkitu bediz
Beterik ufe-zidafez;
Zuben biotzak, xamur-xamurki,
Maitasunaren indarrez.

Beartsu diran lagun urkoen
Efukiz bete-beteak...
Zuben laguntzaz poztu ditezen
Euzko-langille maiteak.

Euzko-langillek eta Ikastolak
Beartsu direalako,
Zuben emaitzen billa gatoz ba,
Geuk ara... eruateko.

Agate Deunak lortukoizute
Ordañez zorun osoa,
Eta guk orajn eskar ugariz,
Biotzez, agur gozoa!

DEUN AGATJAK

Gahon etxeko nausi ta txiki,
Zar eta gaste batera.
Alkate jaunen baimenaz gatoz
Zueri agur eitera,
Lenauko zafen antzera
Ba-gatoz zeuen etxera,
Santa Ageda'ren goraz be aintzak
Euzkeraz abestutera.

Eibar'en dagoz gauza edefak,
Oso ederki egíñak:

Izkillu-olak, gixon audiak,
Mutil indartsu gordiñak,
Andra eder ta bikañak,
Neskatxa polit apañak,
Udaberriko lili ta lorak
Diran lakoxe berdiñak.

Illarteraño Jaungoiko-zale
Garbi-garbia izan zan;
Orbandu gura ez ebalako,
Bulafak ebai eutsezan,
Ziñopa eginda il zan;
Orain dago zeruetan.
Beren antzeko garbi-zaliak
Gu ere izan gaitezan.

Eibar euzkeldun efi maitiau
Ospetsua da benetan;
Bertoko seme jator zintzuak
Daukoguz goyen munduan,
Pelotarien artian
Migel dogu gallurian:
Pozez beterik ikusten dogu
Mutil au geure efian.

Zorioneko izango al da
Etxe au beti-betiko;
Bixi garian arte gustian
Dogu goguan eukiko,
Maitagafia dalako.
Belatu egin orduko,
Agur! eginik amaitzen goyaz.
Beste batera juateko.

AGATE DEUNAREN ABESTIAK (Aulesti'n abestuak)

{Aulestia'ko} mutil. gastiak
Emen gatoz abeslarri,
Geure bijotzak opaldu nairik
Efi ontalco danari,
Maitasunen ezaugafi,
Gofotorik ez iñori,
Zorun-bixitza eskatuagaz
Geure Agate deunari.

Bijotz andiko gure (Aulesti);
Nun beste bat zu langorik!
Ondiñokafen ez dogu ixan
Sari bageko aterik.
Zar eta gaste baturik

Gabitzaz pozez beterik;
Etxe onetan bere ez dogu
Gitxiagoren usterik.

Maite daiguzan Euzkel-Erriko
Uri, basefi, mendiak . . -
Maite asaben euzkera zarra,
Maite oitura garbiak;
Onetarako bidiak
Lengo zarrak ibiliak
Arturik gatoz gustiok, gaur be,
Alaitzen adizkidiak.

Gaur basefiko etxetxu zuri
Etarte zabaldunetan,
Santa Ageda'n sari edefak
Emon dau.skuez danetan;
Au ez diñpgu olgetan,
Ezpabe zigur benetan;
Ez dogu, bafiz, gitxiagoren
Usterik etxe onetan.

NEGU BALTZIAN

Negu baltzian gagozalarik
Udabarrija dirudi . . .
Etxe ontako anderañua
Aingeru-loren irudi.

Ain lore bikain maitagafijak
Jainkuak zaituez egin.
Oitura onen usain gozua
Zabaltzen dabe Euzkadi'n.

Euzko-baratzan sortu ziñien
Lirio zoragafijak,
Zuei begira dabiz aspaldi
Gaste zintzoen. begijak. -.

Zuen artian ixan bedi, ba,
Dana Jel-maitasun utsa,
Agate Deunak lortu daizuen
Zorioneko bixitza..

ZORUN-BIDIA

Bakotxari beria,
Jaungoiko-legia.

Josu maite dabenak
Maite dau geidia.
Maitasuna egizko
Zorion-bidea . . .
Beste bide gustiak
Guzur utsak dira.

"Noz arte, baña, emen?...
Jauna'k bakafik daki.
Ene senidiok, ba,
Erruki zaiz; efuki,
Ene adizkidiok;
Otoi egin nigaiti,
Oben-zor au Jainkuak
Dagidantzat azketsi."

URTEBETIA
(*Elgezabal'dar Telespor'en illotoizketetan*)

Ezerezetik sortuta legez
Agetzen gara ludira,
Igarri barik emengo egun
Labufak juan oi dira.
Erijotzia zain dago, bafiz,
Gofotoz guri begira,
Usteik gitxiен dogun unian
Itxirik emen lurbira,
Eruateko txitik be ein barik . . .
Irabazi dan tokira.

Gitxi lakoxe gixon arteza
Izan ziñana bizitzan,
Gaur urtebete, Jauna'k deituta,
Ludijai agur egin zeuntsan.
Emazte, sendi ta lagun onak
Maite zinduzen benetan;
Maitasun orren ezaugarritzat
Biotz-biotzez gaur bertan,
Urte-urrenako illotoizketak
Ofa, ba, zeure gormutan,
Jauna'ri otoi dagitsogula
Gorde zaizala goyeten.

(Euzkadi, 1917-VII-15)

Gotzon-aldreak goitik
Bakotxari dirausku:
"Gokaxuaren deira
Iñor-iñor bez gortu;
Gaur orren aldiya da,
Bijar zeuria dozu.
Zeuk dabiltzun neufijak
Zeu be neur tuko zaitu."

Zetako jayo giñan
Kiskaltzen gau ta egun
Dagozan gokaxuai
Ez egiteko lagun? . . .
Guraso, senidiak,
Aizkide ta ezagun,
Il diranen gogaldez
Orok otoi-ein daigun.

(Euzkadi, 1917-XI-2)

AGUR, MIREN GARBIJA!
TABOIXU EUZKELERRRIA!

Ortzean eztago ixafik,
Ez baratzean lorarik,
Miren, Zu baxen edefik.
Sortu ta jayo, bixi ta il
Ziñean orban bagarik,
Jainkoak gurarik:
Ezin leiteke amarik
Izan Zu baño obarik.

Buruan ixafak amabi
Ta oñazpijan illargi
Jarten dautsoez Miren'i.
Edertasunen edertasuna,
Zorun gustijen itufi
Zarian Ama on ofi,
Geuk be loriak ugari
Gura dautzuguz ekafi.

Argi gustijen argia,
Lore gustijen loria,

GOKAXUAREN DEYA

"Lufa zan nire soña
Ilkofa ixanda beti
Nik alde neutsonian
Lufak eban iruntsi;
Oin Garbitoki-sutan
Irikiten naz bixi,
Sutzar au nok amatau
Eztodalako euki.

Jakiturijen oxin sakona,
Ona baño be obia,
Eskar gustijen jibia
Zarian Miren garbia,
Jaboixu Euzkelerrja!

(*Euzko-Deya*, 1918, 52 zenb.)

(*Aita Eulogi Susaeta'ren lenengozko mezaz*)

BATZAR BAT

1) *Okerra kendu*

Iturri eta errekatxuak
Jasten diran lez ibaira,
Euzkotar Udal-ordezkarrijak
Bizkai-uri nagusira
Euzkadi-aldez erabagi bat
Artzera batuko dira.
Erabagioi zein ixango dan?
Ez egon bera begira.

Danen eretxiz artuko dabe
Erabagi bat bakarra:
Oin irurogei ta emeretzi
Urteko lagi zantafa
Ausi, apurtu ta bifindurik,
Bota eragin sutara,
Eta lagi txar ofen lekuau
Beste au jari ontara:

2) *Zuzena jarri*

"Euzkelefijak aginduko dau
Berai yagokon gauzeten."
"Euzkelefijak aginduko dau . . .
Berai yagokon gauzeten,"
"Euzkelerrjak aginduko dau
Berai yagokon gauzeten."
Lagi zuzena, lagi zuzena,
Lagi zuzena benetan.

Gora Deun Mikel Aralar'kua
Ta Miren Sortzez Garbiia!
Gora euzkotar Udal gustijak,
Gora Euzko-Gastedija!
Aupa, mutillak! Ken asafioik
Danok bat . . . danok anaya.
Estuntza barik. antzia zan lez,
Gora gure Euzkelefija!

(*Euzkadi*, 1918-XII-15)

Gaur donokija zeugaz daukozu,
Aingeru gustijak alai,
Agurka Josu'k eskubide ain
Gurgafiz jantzi dabenai,
Goi-beietako Bakaldun Deuna
Zeugaz dabela gurtu nai.
Neuk be poz-pozik euzko-eredu,
Aba on zoli zintzua!
Agur dagitsat, gotzon orokin
Zorunak opaldu be bai.

Josu laztana maiteko dozu
Gauza gustien ganeti,
Euzkadi be bai bijotz-bijotzez
Euzkeldun zaran aldeti, . . ,
Egunoroko zure otoitzak
P,oztuko dabe Donoki.
Gotzonak lagun izango dozuz
Bixi zaitezan egoki,
Eruateko zure egin-biar
Gustijak bide oneti.

(*Euzkadi*, 1918-XII-27)

BAKOTXARI BERIA

"Gitxi itz-ein, asko entzun,
Iñoz bez asarratu",
Egokijena ei da
Ixateko zoruntsu.

Baña "gustieie entzun,
Ziñestu gura dana,
Ta biar dana egin" . . .
Ezta ixango txarrena.

Au olan ein biafa
Euzkotar askok dauke,
Etsai deungen esanik
Ez ziñestzeko bape.

Guzur ta malmuzkeriz
Atzipetuta euki
Gura gaitualako
Etsai deungiak beti.

España'ren umia
Dala Euzkelerrija
Esateuskube gogor...
Ai, ze guzur andijal

Espafia jayo baño
Millak urte lenago,
Euzkadi emen zala
Edestijan bai dago.

Entzun biarko dogu
Geyago be ondiño:
"Alabia zarrago
Beren umea baño!"

Bafia papertzar ofer)
Guzurtijaren aurka
Jel-alderdijk beste
Izpafingi bat dauka!

"Euzkadi" deritxona,
Eder ta jakituna,
Etsayen asmo deungak
Bifinduten dituna.

Or dabil gure etsaya
Prakak artu eziñik,
Esaten ezin daula
Euzkadi'gaz gauzonik.

"Guzurra sartu ezin,
Zemayagaz gaiztotu,
Eta berotzen ba'da...
Euzkotafa nok batu?"

Ezkara guzur-zale,
Eztogu nai azufik...
Euzkadi geure ama
Nai dogu oso-osorik.

Ez al dakixu zein dan
Jainkoaren, legia?
"Bakotxari beria...
Bakotxari beria."

Geure au bigurtutene
Eztauskuzun artian,
Eztozu iñoz iñun
Lorik eingoa bakian.

(Euzkadi, 1919-I-12)

EUZKEL-IXENAK (Morga'n)

Lekerika'k ziraustan; "Nik amafetik
[lau...
Onenbeste daukanik Muxika'n ete daud?
—Bai, Anbortsi; zu baño geitxuau naz
[nerau;
Nik zazpitik bost ditut, bat zuk baño
[geyau;
Txistik egin ba'daizu, laster dozu,
[ordau!

(Euzkadi, 1919-VIII-10)

GURE BAJCALDUNA
(Uspitxa-Jauri'n Josu-imdia jartian)
Doñua: Uso txuria, efazu... .

Txiro ta itzalik giñian
Argirik ez geunkanian,
Argi gustijen argija bera
Gaur dago, baña, gurian...
Gurtu daiguntzat, auzpaztu gaizan ba,
Argi Deunaren aufian,
Argi Deunaren aufian.

Josu, aztxu "Golgota",
Oben-garbayaz nago-ta.
Ene guraso, emazte, sendi,
Arima eta biotza
Gaur dopalzudaz zeuretzat betiko,
Zeure-Zeuriak dira-ta,
Zeure-Zeuriak dira-ta.

Zu gure Aitia,
Zorun-eskafez betia...
Gauza gustien gain gurtzeko Zeu
Eta Euzkadi maitia,
Etxe txiro au egiz ixan deilla
"Nazaret"-eko etxia,
"Nazaret"-eko etxia.

(Euzkadi, 1921-X-6)

EUZKO ARTEAN

Euzko artean
baukodaz ainbat
jelkide lagun
ongilla;

maite orokin
aspaldi nago
zorkilla.

Zoretan nago,
txirorik nago,
baña ogasun
Aitea
Belen urira
datorkigu gaur
Josu, txiroen
maitea.

Alorodunai
opaldu neutson
osarik neure
biotza;
ordez dasketsot
beraoizuela
zuei betiko
zoruntza.

Josu Umetxuen
Jayokundeko
Gabon-jai ezti
alayak
biotz-biotzez
dopaltzuedaz,
ene jelkide
anayak.

(*Euzkadi*, 1921-XII-24)

Itz eingo dau ta zain egon:
Ez dodalako euzko anaiei
Gauza oberik zer emon;
Maite-maiteak zaituet eta
Josu'ri eskatu neutron
Beti Jel-aldez... bemoizuela
Osasun eta zorion.

(*Euzkadi*, 1922-XII-24)

ESKERIK ASKO

Neure ama on maite zanaren
Eriotzia dala-ta,
Niganatu da tamal-agurdun
Idazki pillo galanta.
Gustie banan erantzuteko
Asko-askoak dira-ta,
"Euzkadi"-n bidez darantzutuet;
"Danoi eskerrak aneika."

Nik uste neban beste iñok baño
Maitiago nebala ama...
Baña beste bat agertu yako
Askoz maitiau ebana.
Bere-berea eban, ta Berak
Eruan daust Beraganai!
Egin bedi, ba, orain ta beti,
Urtzi Deunak nai daunana.

(*Euzkadi*, 1926-X-6)

ZOKIONAK

Urrutizkiñik bereziena
Daukot Jaun Batek emona,
Ludiko alde gustietara
Efez itz-ein daikedana,
Euzko aniaezi zorun opazko
Agufik maitekofena
Gabon jayetan bialduteko
Tramankulurik onena.

Onen Jaube da Jaube bakafa,
Jaube Gurgafi on utsa,
Belen Uriar abere askan
Daguan Ume billosa,
Gustia Aldaben gure Gaizkille
Josu Jaun Goiko Bildotsa.
—Eta urrutizkin berezi ori?
—Josu'k emoustan biotza.

Ludijak arin ibilli nai dau
Arrapalada utsian,
Egaizkiñez ta belbillez ta abar,
Alde gustiak betian,
Jainko-bidetik oñez duana
Utzirik zori latzian.
Ai, baña danak ikusten dira
Geldirotzen aldatzian!

Arnas-estuka be bai safitan,
Ofiezkuaren antzian;
Onek darakus bixi garala
Eragozpenen azpian,
Ta alperrik dala guk jafaitzia
Atsegir utsen atzian;
Zorun osorik ez dagolako
Donokiratu artian.

(*Euzkadi*, 1926-V-19)

LUDI ZOROA

DEUNOROTXO ZERUAN

Nun baña nun eskutau zara,
Ene semetxo laztana?
Neurri barik nire biotza
Pozez betetan zeustana!
Nok baña nok eruan zaitu
Etxeko geure maiteena!
Zer baña zer jazoten yatzu
Ez etortzeko nigana!

—Ez estutu, ene aitatxo,
Ez eizu egin negafik;
Goiko Aitaz nago Zeruan
Betiko aintzaz beterik.
Laztanduko zaitin ondiño;
Ez galdu, ba, itxaropenik;
Donokira zatozarian,
Bidera urtengo dautzut nik.

—Goiko Aitak emona ziñan,
Ta nik opea Berari.
Beraz goyan ba'zagoz orain
Izten nua negafari;
Zuzen utsa dan Urtzi Deunak
Ezer oker ezin legi.
Aintza Jaunai! Goyan ta beyan
Bere naya egin bedi.

(*Jesus'en Biotzaren Deya*, 1923, 379 of.

BELEN URIAN

Belen urian agertu yaku
Josu Jaungoiko-Umia,
Irudiz txiro, baña izatez
Aberats amai bagia,
Bakaldun guren Alguztidun
Zeru ta lufen Jaubia.
Berau gurtu ta otoi eiteko
Eldu naz Belen urira;
Gosez diranak asetuteko
Berau da Gotzon-Ogia,
Egafiz diran guzaintzako
Berau Zorun-Itufia.

Gexo ta txiro diranentzako
Osasuna ta Ufia,
Biotz garbidun ongillentzako
Sari guren Saria...
Josu on ofek entzun afen, ba,

Dagitzudan eskaria!
Biotz garbidun ongillak asko
Euzko-abendan bai-dira.
Saritzu eurak eta eurokin
Zorundu Euzkel-Efia,
Egunen baten izan dedintzat
Osuan Zeure-Zeuria!!

(*Euzkadi*, 1928-Xn-2.5)

GOIKO BIDGETIK

(*Landajuela Pillipa txauneskindariari*)

Bizi laguntzat gazte polit bat,
Maiteko zaitun maitena,
Nun aurkituko ete zeukian
Darabilzu oldozmena;
Bakez ta pozez bizitzekotan,
Au ei da zeure naimena...
Berau lortzeko jakin nai zeunke
Zein baldintza dan onena.

Goiko bidetik aurkituten da
Garbayen jolas-tokia,
Ekandunezko baratz-erdian
Soñulari onen aulkia.
Toki aretan aututene bozu
Maitelco zaitun maitia,
Berakin izan zeinke bizitzta
Bakez ta pozez betia.

(*Euzkadi*, 1928-XII-29)

KURUTZIA ETA EUZKERIA

Gure asabak gaurko egunez
Afogofia'n Ordoño
Betu ta jaurti eben indafez
Mugatik bestalderaño;
"Or konpon zeuek, guk ez dou ba nai,
Geuria bakafik baño;
Zuek zeuenaz, ta gu geuriatz."
Edestiak alan diño.

"Jakin egizu nogaz zabiltzan,
Jakin egizu, afotza,
Biguna eta gogofa dala
Euzkotafaren biotza.
Gurenda-ikurtzat ipinten dogu
Gaur Deun Ander'en Kurutza.

Au zapaldo daben edonok
Artuko dau eriotza."

Arek ziran, bai, abertzaliak!
Arexek, bai, kistar onak!
Gurendearren ikurtzat mugan
Kurutza jarri ebenak!
Onegaz beti betu ebezan
Areyorik gogorrenak:
Ikasbirdia bai-dauko emen
Ikasi gura dabenak.

Aupa, mutilak! Itxartu, jagi!
Guazen danok gudara!
Lenauko gure asabak legez
Benetakuak ba-gara,
Suizkilluakaz alkar ilteko?
Ez, olakorik ez!... Ara:
Gure izkilluak izango dira
Kurutzia ta Euzkera.

Kurutziagaz bifindukoguz
Diabruaren sariak,
Euzkeriagaz gure artian
Dabiltzan erdalkeriak.
Jel-bidez zuzen jafaitu ba-dai
Gastedi maitagafiak,
Egizko buru-jaubetasuna
Laster dau Euzkel-Erriak.

Aupa, mutilak! diñot bafiro.
Gora, batez be gastiak!
Kurutzia ta Euzkeriagaz
Aratu egal gustiak,
Garbituteko bein ta betiko
Euzkelefiko nastiak.
Garaille urten daigun, beturik
Etsayen gudaroziak.
(Euzkadi, 1930-XI-30)

GABON!

Urtiak daun egunik
Ospetsuena,
Euzkelerrian beintzat,
Gabon eguna:
Oldozmenez beterik
Jarten gaituna,
Zorioneko Gabon,
Gabon kutuna!

Vlangutsik, dinbi-danba,
Aizkorotsian,
Mukur txikitzen gogor
Dabiz, ertzian.
Montofak eiten dabez
Eskaratzian,
Afari-gertetako
Gaur afatsian.

Sukaldiak berorik
Goruntza keia,
Tellatutik ortzirantz
Pozkiro doia,
Goitafai esan nairik;
Gabon alaia
Ospatzeko bai-dabil
Etxekandria.

Serae-alabak batoz
Jayotetxera...
Gurasoak urtetan
Dautse atera,
Besarkatzen dirala
Kistar antzera,
Gabon ospatuteko
Danak batera.

Aspaldi kanpotik zan
Senar maitia
Noz elduko zain dago
Bere emaztia.
Eldu da, ta kaxk, kaxk, kaxk
Jo dau atia,
Ospatuteko Gabon
Pozez betia.

Entzuten dira soñu
Pozkarizkuak,
Dunbadak, oyu, zantzu
Eta txistuak...
Mayan jaki, edaki
Gustaitikuak,
Gabon ospatuteko
Gertaurikuak.

Biztoki biko etxe
Zabal batian
Sendi bi bixi dira
Bake-bakian:
Alde baten aberats
Bat, ta bestian
Umedun alarguna
Ezerezian.

Umetxuak amari
Esaten dautse;
"Etxe onian bauke
Nai zenbat gauze;
Diñue: *Gabon bonbon,*
Ase ta hete.
Areik dana ganezka...
Gu, barriz, gose."

"—Ene kutuntxuok, gaur
Ez ein negafik...
Etzarie lotuko
Ezer bagarik.
Ez dauku bixigurik,
Ez oriorik;
Baña taluak j'anguz
Bero-berorik.

"Lenengo, baña, goruntz
Jaso biotzak,
Zeruratu daitezan
Gure otoitzak:
Belen'erantz begira
Otoi bakoitzak,
Onetsi gaizan andik
Josu on utsak."

Belen-aurrian... gogoz,
Ama ta ume,
Belaunbiko, Agurtza
Otoizten dabe,
Sendi Deunaren aintzaz,
Gokaxo-alde,
Kistar zintzoen eraz
Nagirik bage.

Otoi bemak egin
Ondorenian,
Zutundu eta bira
Ein dabenian,
Mutiko bat dakuse
Aldamenian...
Ta otzara betia
Mayan ganian.

Mutikuak dirautso
Alargunari:
"Josu'ren izenian
Amatxok neurri
Emon daust bezuzadun
Otzara ori,
Danok egin daizuen
Gabon-afari."

Mutikuai dirautso,
Samur, maitetsu:
"Amatxori millesker...
Esan eiozu."
Ta beren ume-zurtzei
Egiñik mosu,
Diño; "Errukitu da
Gurekin Josul
Poztu, ba, enetxuok,
Poztu bai poztu!"

Urtiak daun egunik
Ospatsuena,
Euzkelefian beintzat,
Gabon eguna,
Oldozmenez beterik
Jarten gaituna...
Zorioneko Gabon,
Gabon kutuna!

(*Euzkadi*, 1930-XII-21)

ZORIONAK

Osasun bakez,
Pozez erdian...
Gabon-aldi eta Urte Bafian,
Bizi zaitezen, jelkide, lagun,
Ene ongille, anai euzkaldun
Biotzekoak,
Belen Uritik Josu Aurtxoak
Bemoizuela zorun oso bat...
Olantxe dopaltzue Enbeita'tar Kepa'k.

(*Enzkadi*, 1930-XII-24)

ZORUN-OPEA
(*Bere seme Balendini, 21'gr. urteurrenian*)

Negu ondoren udea dabil,
Gauaren jafai eguna...
Orriñan egun-senti edefa
Berez da gozo biguna,
Maitasunezko biotz garbiak
Pozez betetan dituna.
Argi gurena goyetan dago,
Be ontan barriz illuna.
Illunak dakar ituna...
Beko gauzai lar begiratziaz
Galdu eztaigun zentzuna;

Begiak goruntz jaso daiguzan,
Goyan daulako Zoruna.
(*Euzkadi*, 1927-V-22)

AGUR, SABIN!
(*Bere semea*)

Dei egin dautzue-ta,
Gaur zoaz gudari,
Itxasoz ibilteko,
Seme maite ori!

Etxeko geure poza
Zeu ziñian, baña,
Zeugaz daruaskuzu
Gure atsegíñia.

Gauzak datozen eran
Artu biar dira...
Zoiáz, ta bixi beti
Urtzi'ri begira.

Euzkelduna zarala
Ez iñoz be aztu;
Zuzen jokatu eta
Txarakin ez nastu.

Oitura on garbiak,
Itzez ta egitez,
Goikoak nai dauzala
Gogoratu zaitez.

Algustidunak beren
Lagi-jagolari
Aldioro damotsez
Eskarrak ugari.

Izan nai ba'dozu, ba,
Zorionekua,
Zintzo jarraitu beti,
Ene semetxua!

Osasunez juan ta
Zorunez etorri...
Olantxe dopaltzugu,
Sabin maite ofi.

(*Euzkadi*, 1928-1-17)

LENENGO JAUNARTZE-EGUNIAN
(*Neure loba Enbeitatar Joseba Imanoltxuri*)

Poz-atsegíñez dagoz zerauk,
Pozarren lior, itxaso...
Alaitasunez beterik dagoz
Senidek eta guraso;
Gotzonak, bafiz, gura zaituez
Donokiragiño jaso:
Goi-beietako Jaunai ostatu
Gaur emon dautsozulako.

Josu-Biotzak umiak nai dauz,
Josu'k maite dauz umiak.
"Betoz umiak Nigana", diño
Geure Jaun eta Jaubiak;
Gura dauz biotz samur eztitsu
Gafaztasunik bagiak.
Zoakioz, ba, galdu etaizaian
Txefen, Ludi ta Aragiak.

"Neuriak dira uri-basefi,
Zelayak eta mendiak,
Lior-itxaso, afain-abere
Ta beste gauza guztiak.
Guzti oneikin jabetukoira
Kistar on, biotz garbiak.
Eskatu Neuri zer gurozuen,
Umetxu maitagafiak."

"Gose ba'zara, eskatu Neuri;
Neu naz, ba, Gotzon-Ogia.
Egafi dana betor Neugana,
Neu naz ur gozo, garbia.
Gexo ba'zagoz, ez bildur izan,
Nerau naz osagafia.
Eskatu eta emongotzuet
Biar dozuen guztia."

—Agur, Josu-Gorputza,
Gotzon-Ogi Deuna,
Zeure Biotz Donian
Maite be maite nozuna.

"Zatoz, Joseba Imanol,
Neure Biotzera,
Zeure Jaun eta Jaubiaz
Zoriondutera..."

Orain, gero eta beti,
Zorun ugariak
Opa dautuz biotzez
Zure osabiak.

(*Euzkadi*, 1928-III-21)

ZORIONEKO BIKOITZA
(*Sardui'tar Toma'ri, ezkontz-egunez*)

Euskaldun ziran gure aitonak,
Euskaldunak gurasoak,
Zu ta ni ere, Jaunai eskairak,
 Biot euskaldun osoak.
Orra or gure uri, basefi,
 Zelai, mendi ta basoak,
Ezker-eskuma besarkatzen
 Dituala Bidasoak,
Itxasorantz diojalarik
 Emanaz laztan gozoak.

Begira ondo, ene maitea,
 Bidaso alde biyeri,
Etxe txuriak, lugintza aberats,
 Landa zabalak orlegi;
Or-emen olak, saloste ta abar,
 Ederrak eta ugari.
Zugaztietan txoriak pozez
 Abeska txiroliroli...
Bidasoaren ibar aldeak
 Zeru txiki bat dirudi.

Alde batetik Ondarrabi ta
 Beste aldetik Endaya;
Bata langille azkar trebia,
 Bestia zintzo alaya:
Berdin gabeko eder bikañak,
 Biot elkarren anaya.
Euron biotzak kistar usaindun,
 Ezti gozozkuak dira.
Ai, ze zoruntsu geran gu biok,
 Irun'dik ofei begira!

Aitabitxik:

Pozaren pozez, gañez egiñik,
 Dakust gaur zure biotza.
Zu olerkari zariala gaur...
 Ene mutillak, au poza!
Jaunak zuekin egin dayantza
 Zorioneko bikoitz,
Goiko bidetik zuzen jafaitu
 Gogor egiñik otoitza:

aeti zeuekin dozuezala
Euskereta eta Uzkurtza.

(*Euzkadi*, 1929-VII-27)

ZORAGARRIZKO UMIA!

Belen-urian agertu yaku
Zoragafizko Umia!
Bakaldun guren Algustiduna,
Zeru ta lurren Jaubia.

Maitasunezko Begi zabalez
Begira dago danari,
Bezuza oro emon gurarik
Egia maite daunari.

Nire ongillak diran ezkero
Egia maitati utzak,
Emon ba euroi, Esku zabalez,
Jainkozko Zeure bezuzak.

Biotz osoa damotzudala,
Ume ain zoragafia!
Otoi dagitzut, afen gaizkatu
Daizula Euskal-Erria!

(*Euzkadi*, 1929-XII-25)

GABON-ABESTIAK
(*Uspitxa'n urtero abesten diranak*)

Daigun ta daigun
Kanteu ta dantzan,
Sein eder onen
 Etoferan.
Gustijok geunkan
Gabonen poza,
Ikusiteko
Sein au jayota.

Baso onduan
Botella motza,
Espentziatan
Jose arotza.

Baña, noz?...
Gaur Jesus'ian
 Ondo gagoz!

Jeremias'ek diño,
Alan Isaias'ek ,

Jayoko dala Jesus
Diño Mikas'ek

Au entzun ebanian
Txomin dendarijak,
Arturik zofoztuta
Bere artazijk,
Josi biar eutsala
Soñeko osua,
Burutik biatzera
Estaldutekua!

(*Euzkadi*, 1931-XII-24)

GURUTZ-BIDIA
(*Josu'ren Neke-uniak*)

LENENGO NEKE-UNIA
Josu Pilatus'ek epaitu ehanekua

Josu laztana oratu dabe,
Arritu zaitez, Kistafa!
Arbillan lotu, zuzitu dautse
Zigorkadakaz bizkafa.
Arantz-ustaya buruban daula
Jaungoiko-Seme bakafa,
Pillatu zori gaiztoko arek
Emon dau erijotzara.

GOGARTIA

Aundikerizko
Epaitegian
Jafirik dago
Pillatu arro deungia,
Eta gaizkille
Aundi bat legez
Bere aufian
Josu Jaungoiko-Semia.
Iguingafizko
Obendi anker
Azpi-suge bat
Bakaulkian afoturik,
Eta Deun oro . .
Jainko Ber-bera
Aren aufian
Apal-apalki makufik.
Ludi gustijai
On-egin baño
Beste gauzarik
Iñoz egin eztabena,

Epaitu dabe
K b
Untzez josteko.
Begira zer dan obena!

Geure Aita Goikua, Agur Miren
eta Aintza

Ene Josu maitia,
Oben egin dot eta nitzaz errukija

BIGAREN NEKE-UNIA
*Josu'ri Kurutza sorhaldaratu
eutsoenekua*

Ludijan diran oben orokaz
Jantzirik dagon Kurutza,
Bere sorbaldan aferazorik,
Darue Josu on utza.

Jopu gaitzuak gofoto biziz
Makil-urtika, jo, bultzaz...
Au ikusirik nori etxako
Garbaiz au.siko bijotza?

GOGARTIA

Ludijan diran
Oben gustijak
Kurtze ofetan
Batuta dagozan afen,
Gu erosi ta
Gaizkatziatik
Bere Gañian
Josu'k artzen dauz pozafen.
Eta guk zerbait
Ez ete dogu
Geure Gaizkale
Maitiagaitik egingo?
Ez ete gara,
Geure bixitza
Deungia itxita,
Bera laguntzen juango?
Jaungoiko-Bildots
Erru-bagia
Kurtzepian ta
Gu obendijok azkerik.
Au lotsarijal! . .
Biurtu gaizan
Zuzen-bidera
Obenen damuz b.eterik.

Oñen ganian egon ezinda
 Josu jausten da lurrera;
 Errukarrikzo zauri bafjak
 Ein yako lenaz gañera.
 "Odol-ixerdiz ta autsez loitzen da
 Bere aurpegi edefa."
 Zigortzalliajuaz dirautse:
 "Jagi, ta zoyaz aurrera."

GOGARTIA

Areyo en poz
 Bafe ta ixekak
 Aundi jak dira,
 Josu jausita ikustian.
 Efukiz lagun
 Ein biafian
 Joka, bultzaka,
 Darue bide gustian.
 Eta guk zenbat
 Bidar eztogu
 Emon lotsage
 Ofetarako bidia,
 Lagun eginiik
 Obendijakin
 Itzez, egitez,
 Goraltzen ludi deungia?
 Indartu gaxuz
 Afen, ba, Josu,
 Jafaitu daigun
 Zintzoro zeure bidian,
 Txefena, ludi,
 Ta aragijari
 Itxi ta Zeugaz
 Donokiratu gaitian.

LAUGAREN NEKE-UNIA

Josu'k bere Ama aurkitu ebanekua

Kurtze aztuna lepuan daula
 Lapur gaizkille bat legez,
 Errailtzalliajuaz darue Josu
 Joka, bultzaka, didafez.
 Golgota'rako bidian Ama
 Urtetan yako negafez,
 Baña Semiaz itzik ezin dau
 Naibagiaren indarrez!

Minberaturik
 Dagoz oñazez
 Lafi ta estu
 Ama-Semien bijotzak;
 Baña geugaitik
 Opaltzen dira
 Igaroteko
 Ain neke-aldi gafatzak.
 Ta guk eztoguz
 Maiteko beti
 Josu ta Miren
 Deun-Deunen Bijotz gozuak ?
 Eurok maitatzen
 Jafaitu biar
 Ez ete doguz
 Gau eta egun osuak?

BOSKAREN NEKE-UNIA

Josu'ri Simon Zirene'tafa laguntzat emon eutsonekua

Josu eraso dabe bultzaka,
 Il-zorijan Josu Deuna;
 Simon Zirene'tafa damotse
 Golgota'rako laguna.
 Eruazoten dautsola onek
 Josu'ri kurutz aztuna;
 "A Simon, Simon! —dirautso Josu'k—,
 Nok leukian zure egunal"

GOGARTIA

Pozez giñakez
 Gu, Efoma'ko
 Doipuru deunak
 Egizko kurutz doatsu
 Ber-beran zati
 Txiki bat baño
 Ixan ezta be
 Guri emongo ba'leusku.
 Naibageren bat
 Dogunian, ba,
 Josu on utzak
 Kurtze orixe damosku.
 Eztogu berau
 Pozik artuko
 Geure zoruntzat
 Berak emoten ba'dausku?

Beronike emakumiak Josu'ri arpegija
garbitu eutsanehua

Begira emen Beronike'ren
Siñismen egijazkua.
Begira ondo Josu Kisto'ri
Dautson maitasun sutsuba:
Zapi zurijaz garbitzen dautso
Aurpegi Jaungoikozkua,
Txistuz, autsez ta odol-ixerdiz
Judar gaitzuak loituba.

GOGARTIA

Au bai egizko
Siñismena ta
Maitetasuna
Jainko-Semia'ganakol
Txistuz, autsez ta
Odol-ixerdiz
Zikinduriko
Arpeya garbitzen dautso;
Garbitu dautson
Zapi zurijan
Geratutene da
Josu aurpegi irudija,
Olan ordaintzen
Dautsola onek
Aren siñesmen
Egizkuaren sarija.
Ikusi daigun
Eztaula ezek
Siñesmen deunai
Geyau eiteko indarrak,
Ta Beronike'n
Antzera geuk be
Autortu daigun
Lotsa ez bildur bagarik.

ZAZPIGAÑEN NEKE-UNIA
Josu bigarrenez jausi zanekua

Jainko-Semia Kurtze aztunak
Bota dau bigarren aldi...
Jagi gura ta ezin lagi da,
Dana da geure efu andiz!
Josu oñazen erdijan eta
Gu atseginetan gabiz;
Gaiztakeririk naikua da-ta,
Damutu gaitezan egiz.

Emen bafiro
Ikbilikadak,
Emen ixeak...
Josu maiteoi zakuskuz
Ofen neketsu
Naibageturik
Kurutzepian...
Ori gustijoi geure efuz!
Eta ikusirik
Daruazuzan
Negargafizko
Nekaldi samin garraztak,
Obenen damuz
Zeuri laguntzen
Ez juateko
Zertako doguz bijotzak?

ZORTZIGA6EN NEKE-UNIA
Josu'k Jerusalen'go alabai itz-egin
eutsenekua

Itz samufakaz dirautse Josu'k
Jerosolin'go alabai;
"Nigaitik ez eiñ negafik, bafia
Zeuen burubak gaitik bai.
Obena gaitik negar eixube,,
Azketsi lagun urkoai:
Jauna'k sarija emongo dautse
Olan egiten dabenai."

GOGARTIA

Obenalc gatik
Negar daigula
Gura dau Josu'k,
Ta gu beti obenian,
Autormen otzak...
Asmo epelak...
Bafiro efez
Jausten garala lenian.
Josu on ofek
Bigundu eta
Samurtu eixuz
Afizko gure bijotzak,
Egizko damuz
Obena itxita
Gaurtik betiko
Ixan gaitezan zeuretzat.

BEDERATZIGAftEN NEKE-UNIA *Josu irugafenez jausi zanekua*

Zaurijen zauriz indargeturik
Irutan kurutz-azpira
Jausten da Josu Jainko-Semia.
Gaxua ezin jagi dal
Tataiez artu dabe jopubak,
Judarrak pozik begira...
Arnas-estuko ilaginian
Eltzen da Koskotegira.

GOGARTIA

Ixanik Josu
Jainko indartsuba,
Ainbeste bidar
Zelan baña jausi zara?
—Ene semia,
Ez al zara zeu
Irutan baño
Jausi ixan oben-lezara?
Iru alditan
Ni jausi ba-naz,
Ixan da zeuri
Zelan jagi irakasteko.
Egizko damuz,
Autormen zindoz
Oben azpitik
Urten dagizun betiko.

AMARGARREN NEKE-UNIA *Josu'ri soñekuak azkenengoz kendu eutsoezeneukua*

Danen aurian erazten dautse
Jantzia jopu zikiñak,
Soñekuagaz batera baita
Bizkar-azal ta mamiñak!
Botaten dabe kurtze ganera,
Untzez josi, esku, oñak;
Txitik ein barik igaroten dauz
Bere oñaze samiñak.

GOGARTIA

Ontasun utza
Zarean gure
Josu maitia,
Zer oldoztutene zenduan

Ain negargafiz
Zaurituriko
Zeure soñari
Gogor inkaurik eguna
Soñeko deuna
Aragi-zatiz
Batera kentzen
Asi yatzuzan orduan?
—Gusti-gustija
Opaltzen neutsan
Neure Aitari,
Zuk ni olan ikusita
Oben-bidetik
Alde egin daizun,
Bein ta betiko
Ekandu txarak utzita.
Jainko-Semia
Billoitzu dabe.
Au lotsarija!
Eta gustijau geure erruz.
Azketzi, Jaunal
Zatiutu bediz
Gure bijotzak,
Negar daigun oben-damuz.

AMAIKAGARREN NEKE-UNIA *Josu kurutzian untzez josi ebenekua*

—Ze pizti dira Jainko-Semia
Orrelan josten dabenak?
—Ai, orrek dira geuk Bere kaltez
Egin doguzan obenak.
Zek dauko Josu orren ixillik?
—Geuganako maitasunak:
Beren burua zelan gaizkatu
Ikasi daijan gixonak!

GOGARTIA

Untze zofotzez
Zulotu dautsez
Goiko Jaunaren
Semiari Esku-oñak;
Eta jakiñik
Geure obenak
Dirala Josu
Olan jmiñi dabenak...
Zelan eztogu
Negar egingo,
Eta betiko
Itxi oben egitia,

Oraintxe bertan
Eragagirik
J i k a iraindu
Ba iltia?

Buru gañetik oñazpiraño
Zati osorik eztauka:
Damuz bijotzak ausi daiguzan,
Geuk olan jarri dogu-ta!

AMABIGAÑEN NEKE-UNIA
Josu kurutzian il zanekua

Ezker-eskuma lapur bi dagoz,
Erdijan Jainl<:o-Biklotas!
Gaudija bete dau kurutz batek...
Ziñopa batek kurutza.
Aitak itxi dau Seme Balcara!
Amak ezer ezin dautsa! ...
Zazpi ezpatak zulatzen dabe
Miren Deunaren bijotza!

GOGARTIA

Ofa or Josu,
Gure oiñ deungak
Ez igesteko
Bere Oiñ deunak josirik.
Ofa or Josu
Gu maitasunez
Besarkatzeko
Bere Bes'oak zabalik,
Bular-zauri ja
Edeirjk daula
Gu maitatzeko
Antxe bafuan sarturik,
Bere burua
Beratzen daula
Guri bakezko
Mosua emon gurarik!
Oi, ene Josu,
Bijotzeko ori!
Noz maite Lxango
Zaitut Zeuk maite nozun lez?
Egizu beti
Bixi nadilla
Oben-garbayaz
Zeu ganako maitasunez.

AMAIRUGAÑEN NEKE-UNIA
*Josu'ren gorputz ilotza bere Amari
alzuau jarri eutsoenekua*

Nikodemus'ek eratsiten dau
Kurtzetik Josu illotza,
Ta bere Ama lafituari
Altuau ipinten dautsa.

GOGARTIA

Ene Ama on
Tamaldu ofek
Laketu dazu
Zeure Semien aufian
Auzpeztu nadin
Parkeskatze
Eta biotzez
Apalki gurtu dagidan.
Arpejja zurbil,
Begijk lauso
Ta zuloturik
Eskuak... Oñak... Bullarra.
Görputz gustijan
Zati osorik
Ez daun Ziñopa
Jaungoiko-Seme Bakafa.
Ofa or nire
Oben lafijen
Aunditasuna.
Ofa Jaunaren zuzentza!
Gaurtik aufera
Obenik egin
Baño lenago
Apurtu bekit bijotza.

, AMALAUZAÑEN NEKE-UNIA
*Josu'ren gorputz ilotza obijan sartu
ebenekua*

Zeru ta lufen Jaun ta Jaubia
Sartu dabe illobijan,
Ama bakafik geratzen dala
Zoritxar itzalenian.
Afen, ba, oni lagun dayogun
Goiko Jauna'n ixenian,
Dima ona lez aurkitu gaizan
Emendik guazenian.

GOGARTIA

Josu gizonen
Maitasun utzez
Eguen guren
Gaubian apal ostian... .

Gure Janari
 Jaungoikozkua
 Egin ziñana
 Vlirariz Eukaristian...
 Geure obenez
 Eraildurik or
 Estaldu zabez
 Arri zabalen azpijan.
 Obi maitati
 Berarizkuak
 Egixuz, afen,
 Zeutzat gure bijotzetan
 Obenen garbaiz
 Negar eginez
 Gurtu zaiguzan
 Geure bixitza gustijan,
 Gero betiko
 Zeure semetzat
 Artu gaizuzan
 Bixitza onen ostian.
(Euzkerea, 1930, 338 of.)

Gexo bazagoz,
 ofa or Josu,
 illak berbizten
 dauzana;
 txiro ba'zagoz,
 ofa or Josu,
 ogasun oro
 daukana.

Espian ba'zauz,
 ofa or Josu,
 azkatasuna
 berbera:
 ziñesmen zindoz
 ta itxopen sendoz
 zuaz, ba, beren
 aufera.

Gexo ta txiro
 espian dago
 geure abefi
 Euzkadi;
 euzkotar orok
 otoi dayogun
 iayo dan Josu
 Deunari.

OBEN-GARBAYAZ

Osalarien
 biafa ei dau
 osatu nai daun
 gexuak,
 ogasundunen
 laguntza baita
 ezer eztauak
 txiruak.

Osasunaz ta
 ogasunakaz
 jafi dayala
 azkerik,
 ama ta seme
 bixi gaitean
 zorun-eskafet
 beterik.

Estuntzaz daunak
 azkatzailia
 biar dau beren
 onduan;
 aukera onek
 nok daukaz, baña,
 biar dituan
 orduan?

Otoyak, baña,
 Alorodunak
 ontzat artuko
 ba'ditu,
 geure biotzak
 aufez bioguz
 Itufi Deunan
 garbitu.

Kistar maiteoi,
 ez bildur iyan,
 bitzu egizko
 ziñesmen,
 ta poztu zaitez:
 Aloroduna
 jayo yaku bart
 Belen'en.

Gauza gustijen
 Jaun ta Jabia
 billioiz ixillik
 Belen'en;
 ta txiro utsak,
 janzki apañez. .
 afo-putz einda
 gu emen?

Jakiturija
bera dan Josu
Belen'en dago
apalik;
ta gu deus-ezak.
arro-putz einda
danen gain jarri
gurarik?

Arrokerija! . .
Luzbel-kumia,
oben gustijen
sustafa,
bota daigun, ba,
bein da betiko,
oraintxe bertan
sutara.

Oben-garbayaz
anai-besarka
emon dayogun
alkafi,
gure otoyak
entzunik Josu'k
azkatu dayan
Euzkadi.

(*Euzkadi*, 1930-XII-25)

GABON-ZUGATZA (*Euzko-emakumiai*)

Mendi gallurrak zuriz jantzirik,
Billoxik barriz zugatzak,
Txorijak itun, muturik dira,
Lore tximurrez baratzak;
Alde gustijak ixoztu ditu
Txingor-nastedun aixotzak.
Zelan alaitu leiz aldi ontan
Txiro diranen bijotzak? . .

Aldi onetan ihan leikenik alaigafirik
[onena
Belen Uriko Josu Aufaren maitasun-
[itxaropena,
Maitasun-itxaropena.

Maitasun utsa Bera da eta Berak nnaite
[dauz txiruak;
Txiroentzako gura-gura dauz jaki ta jahz-
[ki beruak,
Jaki ta janzki beruak.

Berak sortzen dau maitasuna ta maita-
[sunaz efukija:
Ikutu eta edegi. . . emon al daunaren
[itufija,
Al daunaren itufija.

Belen-Uritik ikutu dau *ba*. Euzko-Aben-
[da-biotza,
Emakume Abertzale Batzak sortu be Ga-
[bon-Zugatza,
Sortu be Gabon-Zugatza.

Beste zugatzak biloxik, txiro, negari
[diran aldijan
Orlegi, apain jantzirik bera poz-atsegien
[erdijan,
Poz-atsegien erdijan.

Zugatz onixi deitu legio egizko Gabon-
[zugatza,
Maitasunezko igali eder, ugariz betia
[da-ta,
Ugariz betia da-ta.

Euzko-txiroei dopaltsoe, ba, osuan, zu-
[gatz gustija,
Eurok be pozet ospatu dayen aurtengo
[Gabon-aldiya,
Aurtengo Gabon-aldiya.

Baita Josu'gaz. . . jayoten direan
[umetxubentzat,
Gure emakumak gertau ditubez janzki
[bero, aberatsak,
Janzki bero, aberatsak.

Maitasunezko lan begikuok, Josu'k Be-
[len'dik, poz-pozet
Ikusten dauz-ta, eskar-zorunez, Berak
[ordainduko dautsez,
Berak ordainduko dautsez.

Mendi gallurrak zuriz jantzirik,
Billoxik bafiz zugatzak,
Txorijak itun, muturik dira,
Lore tximufezez baratzak;
Alde gustijak ixoztu ditu
Txingor-nastedun aixotzak.
Zelan alaitu leiz aldi ontan
Txiro diranen bijotzak? . .

(*Euzkadi*, 1931-XII-25)

ENBEITA'TAR EDURNE'RI.

Bakalderitik bera ta bera
Edur-malutak ugari,,
Uso-lumak lez jasten dira-ta,
Emen gustien gelgari,
Soñeko zuri eder bardiña...
Janzten dautsies danari.
Betarak, baña, laster zikintzen
Dabe janzki garbi ori;
Goitarrak, barriz, zuri edebez
Bakanderaren iduri.

Edufa zala, gaurko egunez,
Agertu ziñan ludira,
Ugutz bidez jafi ziñala
Edufa baxen garbia.
Ordutik gero amasei urte
Osuak igazi dira.
Au dala-ta gaur otoika nabil
Edur-mendira begira,
Antxe zoruntu aurkitu nairik
Edurne maitagarria.

Edufa baxen zuri ta garbi,
Egia baxen zintzua,
Beti jel-maitez darabiltzula
Euzkera txukun gozua,
Aldi orotan kistar-eredu,
Euzkeldun egiazkua,
Iraun daizula gura-gura dot,
Edurne biotzekua,
Urtzi'k saritzat emon daizuntzat
Betiko zorun osua.

KARMEN'GO AMARI (Goizero egiten eban otoya)

Karmen'go Andra Maria,
Amatxo maitagarria,
Egizu, afen, ixan nadilla
Ni zeure-zeuria,
Geruago ta obia,
Gorderik Jainko-legia,
Elbururaño jafaitu daidan
Zeruko bidia.

Zaindu nagizu Iudian
Ixango nazan aldian,
Gero be zeukin bixi nadintzat
Zoruntu or goyan;

Urtzi'k onetsi nagian
Zorun gustien erdian,
Gero be zeukin azken zoruntu
Pozkidaz or goyan

JESUS'EN BIOTZARI

Jesus laztan gozo,
Maitale nagusi,
Zeukin gaurtik aufera
Gura dot bixi.
Zeu zara bai neure
Pozezko bixitza,
Zeuri damotzut ba
Neure biotza,
Zeuri, ene Jesus,
Neure biotza.

GOROZIKA'KO ANDRA MARIA'RI

Agur, Andra Maria,
Ama gustiz garbia;
Ospatu nai dogu
Zure jayotz eguna,
Ama gustiz biguna.

Zerutar danak
Alai dagoz,
Geu be olantxerik
Pozafen gagoz
Zeuri agur
Egin nayan,
Gorozika'ko
Txadonian
Zeure jayotz
Egunian.

GOKAXUENILA Doñua: Planu niz.

Nun zare len, gu orain lez,
bizi ziñienak lurrian?
Itaunka gatoz auxe jakin nayan.
—Orain zuben antzian
or nok itandu leikian!...
Emen gagoz su-lexa sakonian,
geure orbanen garbitokijan,
zubei deika gugaz, afen, efukitu zaitian;
baña danok gortu ziñian...
Gu Jexatik, oi! urten ezizñian!

Aizkide ta senidiok,
 zelan gugaz aitzu zare,
 jakinik zuben laguntasun bage
 biar dogula efe?
 Ai ene!! Ai ene!!
 Miseremini mei, gugaz efuki zadi.
 Otoi bat, afen, biotzez Jauna'ri.
 Miseremini mei, negargafi, ail emen
 ezkaizubez itxi Jaunafen.
 Ia, ba, zelan gomutatzen zarenl
 (*kermengo Amaren Egutegia*,
 1954, 80 6r.)

MIREN DEUNA
*(Entzun zeure jayotz-egunean
dopaltzudan otoya)*

Ane ta Jokin senar-emazte
 Guraso deunen umia,
 Gaurko egunez ludiratua
 Ziñean, Miren Donia;
 Zorun gustijen iturburua
 Zu jayo ziñan unia.
 Au dala-ta, gaur, Zeru goyetan
 Eztegu andijk dira.
 Afen, ba, ortik abegi on bat
 Bialdu Euskal-Efira.

 Ortze goyetan izarrak ezta,
 Ez baratzetan lorarik,
 Miren Jayone, Zeruko Ama,
 Zu zaran baxen edefik.
 Sortu ta jayo, bixi ta il
 Ziñean orban bagarik.
 Algustidunak Bere amatzat
 Egiña zarialarik,
 Ezin leiteke beste bat ixan
 Edefago ez obarik.

Argi gustien argija eta
 Lore gustien loria,
 Urtzi Deunaren baratza guren
 Usaintsu bardin bagia,
 Jakindiareni itxaso sakon,
 Onez ona baño obia,
 Eskar gustiak zeugaz dozuzan
 Miren Sorkundez garbia,
 Eusko-abenda sendotu eta
 Jagon gure Abefia.

Agur, Josu'ren ta gure Ama
 Eta Zaindari bakafal
 Agur, Zeruko eguzki eder,
 Agur, goixeko ixafal
 Goi-beyetako Efeginā ta
 Gure Jagola zeu zara;
 Biurtu gaizuz euzkeldun orok
 Zentzundunak ixatera,
 Jainkoarentzat ixan gaitezan
 Euzkel-Efiaz batera.

Aiten alaba, Semien Ama,
 Goteun-emazte doatsu,
 Irukoit Deunak eskar bereziz
 Egiñikua zara zu;
 Izar-burestun, euzki-soñekoz
 Ilargijen gain dizditsu,
 Neskutz orbange zarialarik
 Zeure Semia da Josu.
 Orixegandik guk biar dogun
 Gustia lortu eiguzu.

(Euzkadi, 1932-IX-7)

ZORIONEKO ORRILLA

Ixildu ziran ostots ofuak,
 Amaitu da negu-aldi...
 Ekaitz ta laño baltzok, ipafak
 Bidaldu dituz emendi.
 Eguzkijak be ortzetik alai
 Dagersku beren aurpegie;
 Sastrakaz beteik len zan baratza
 Bigurtu da loretegi...
 Zorioneko geure Omilla
 Auxe dala esan legi.

Aintzaldu daigun Josu-Biotza,
 Aintzaldu Miren Garbia;
 Aintzaldu baita Deun Mikel Gotzon,
 Euzkadi'ren Zaindaria.
 Gure diputau lenguai, agur!...
 Bafijo, on etofia,
 Besarkaturik Araba, Napar,
 Gipuzkua ta Bizkaya.
 Aupa, mutillak! Garbitu daigun
 Lenbaitlen Euzkel-Efia.

ZERUKO AITARI
(*Gexo aldian*)

Zeruko Aita on utza,
Zeuretzat nire biotza,
Euzko-Aberri maite au be bai, Zeuk egifia
[da-ta.]

Auldu da nire gorputza,
Goguak nai dau goirunza;
Zeukin zoruntu or ixteko eidazu lagun-
[tza.]

Zerrek egin ninduzun
Emonaz ainbat ondasun:
Gorputz batian arima, biotz, argia,
[osasun.]

Gero be zenbat maitasun
Agertu ixan deustazun...
Ez dakit orain gustiau zelan ordaindu
[naikezun.]

Jeltzale nazan aldeti
Biotzez maite zaut beti;
Miren Deuna'gaz. ; . opa matxatzu osuan
[apalki.]

Zeuk nai lez gura dot bixi,
Zeuk nai lez bixitz au itxi,
Zeuk gura dozun Donoki-mailla. . . dagi-
[gun jaritxi.]

(*Karmen'go Argia*, 1932, 14 zenb.)

GARBINETXU'REN ZINTZOTASUNA

Ene gotzon jagola
Maite kutuna,
Jauna'k nire zaindari
Egin zaituna.

Goxetik gaberaño,
Gau eta egun,
Izan zakidaz beti
Zu neure lagun.

Afiskuetan jagon,
Ene Gotzona,
Izan nadin euzkelundun
Kistar on-on.

Ikastaldijan eta
Olgaldietan,
Jakin nai dot ikasten
Eta olgetan.

Ikasle-lagun eta
Jolas-lagunak,
Gura dodaz euzkeldun
Bijotz ondunak.

Urtzi maite dogula
Biotz-biotzez,
Jolastu gadixantzat
Bakez ta pozez.

Itzez eta egitez
Noz-nai edonun,
Beti Kistar zintzuak,
Beti euzkeldun!

Kurtziak kendu dabez
Ikastolatik,
Guri Jaun-maitasuna
Kentzia gaitik.

Guk, baña, maite-maite
Dugu Kurutza,
Berau dalako geure
Maitasun utza.

Lora gustien Lora
Miren Neskutzak,
Lora deun biurtu beiz
Gure bijotzak.

Sendi Deunaz aizkide
Izan ezkerro,
Ezkara besteen bildur
Orain ez gero.

Arriskuetan jagon,
Ene Gotzona,
Izan nadin euzkeldun
Kistar on-on.

(*Euzkadi*, 1932-V-7)

GEURE DEUNAREN EGUNA

Au egun alai, zoragarrija, geure Deunaren
[eguna!]

Bijotz oneko euzkotar orok pozez ospa-
[tzen doguna,
Pozez ospatzen doguna.

Eleiz-torrean juale-otsak, biribilketak
[txaidetan;
Euzkel abesti, santzo ta soñu alayak alde
[danetan,
Alayak alde danetan.

Neke ta lanak azturik danak, zar eta
[gaste urduri;
Euzko-abendak gauza andiren bat nabai-
[tzen daula dirudi,
Nabaitzen daula dirudi.

Zer dala, baña, gure abenda ofen pozez
[jarten dauna?...
Bizkai-Gipuzko-Zaindari geure Deun
[Iñaki'ren eguna,
Deun Iñaki'ren eguna.

Josulaundi ja banandubafen gofotoz
[txefen-otseñak,
Ezin banandu maitasunezko euzkotar
[bijotz bikañak,
Euzkotar bijotz bikañak.

Geure bijotzen erdi-erdijan darabilgu
[Deun Iñaki;
Au dala-ta,gaur, euzko-abendak maita-
[sun-sutan diraki,
Maitasun-sutan diraki.

Deuna'n omenez ospatzen dira goxeko
[jai ederrenak;
Gotzon-Ogijaz alikaturik zar eta gaste
[lerdenak,
Zar eta gaste lerdenak.

Arratsaldian makil-dantzari eta gorule
[bikañak.
Garbi jolastu. . . , baztarturik or atzefi-
[jolas zikiñak,
Atzerri-jolas zikiñak.

Iñaki eta Sabin bafeka dirala geuri be-
[gira
Goitar gustijk poz-atsegijñezerik
[aurkitzen dira,
Beterik aurkitzen dira.

Gotzon-aldrak be oftzetik berantz datorz
[Urtzi-ren geznari,

Goi-oneskunak, dakartsezala. . . euzkotar
[zintzo danari,
Euzkotar zintzo danari.

Zutik, ba. danok! Aufera beti! . . . Aufera
[zar ta gastedi! . . .
Itzez garbija, egitez bardin, gure bixitza
[ixan bedi.
Eta orduan —ez ixan bildur—, izkuntz,
[oitura ta lagi,
Bere-beriak dituzalarik, azke ixango da
[Euzkadi!
(*Euzkadi*, 1932-VII-31)

MIREN JAYONE ZERUKO AMARI
(*Beren eguneko maitale hatek*)

Miren Sorkundez Garbija,
Ama on maitagafija:
Egixu, afen, ihan nadilla ni zeure-zeuria,
Geroago ta obia,
Gorderik Jainko-legia,
Jafaitu daidan elbururaño Donoki-bidia.

Exta zeruan ixafik,
Ez baratzetan lorarik;
Ez iñnn ezer-ezertxu bere Zu baxen
[ederrik:
Sortu ta jayo garbirik,
Il be orbandu bagarik.
Augaitik beti. . . zeure-zeuria ihan gura
[dot nik.

Jagon nagixu ludijan
Ixango nazan aldijan,
Nire bijotz au bixi dedintzat zaurien
[erdjian,
Zeuk gura dozun neufijan,
Urtzi'k onetsi nagian...
Gero be Zeukin ihan nadintzat zovuntu
[or goyan!

Neuretzat dasketzudana
Geidentzako be, Ama. . .
Euzko-abenda biurtuxu, ba, osuan Zeu-
[gana.
Lortu goitar onespena,
Jel-aldez egiñik lana,
Gaizkatu daigun Jainkuarentza Euzka-
[di laztana!
(*Euzkadi*, 1932-IX-8)

ALATZ-EGODUN

Goi-beyetako Bakaldun guren
Algustidun aberatsa,
Alatz-egodun Bera-Berenez
Gurendaz dua goirantza,
Beko gudaldi arrigarrijan
Irabazirik garaitzar,
Beren gudari guren danentzat
Zabaltsen Zorun-Baratza.

Agur, ba, Josul Zeure maitale
Bixi nai dogu ludijan,
Zeure ondoren jarraitu nairik
Zeuk gura dozun *neurrigan*,
Alatz-egodun ezkarianok,
Zeuk deritxozun aldiyan...
Eruan gaixuz, Zeukin zoruntsu
Ikan gadintzat or goyan.

Ajgustiduna zaran ezkerro,
Gurekin emki zadi;
Euzko-Abenda menperatu au
Goi-eskafez zutik jarri,
Elbururaño darraikegula
Beti Zeu-aldez gudari,
Azke zoruntsu jafi daiguntzat
Zeure-Zeuretzat Euzkadil

{*Euzkadi*, 1933-V-28}

URKIOLA'N

Axe gozo-usaña
Urkiola'n dago,
Osatuten dauzana
Gorputz eta gogo.

Nor da usain gozo au
Zabaltsen dabena?...
Urtzi'ren banakari
Andoni ain Deuna.

Goi-axe-zabaltzalle
Ain maite dabenak,
Emen gozartzan dabez
Aixerik onenak...

(*Euzkadi*, 1933-VIII-12)

GURENTA-EGUNA

Gurenda gurenera
Eldu gadizantzat,
Gertu daiguzan, gertu,
Gogo ta bijotzak.

Bijotzian kemenia,
Buruban zentzuna,
Gogua Goi-argidun,
Jeltzaletasuna..

Iru baldintza oneik
Geukin diralarik,
Gurenda geuria da,
Ezpairyik bagarik!

{*Euzkadi*, 1933-X1-30}

EUZKO-GASTEDIJA ETA SORTZEZ GARBIKO AMA (*Jayaldi baten*)

Zeu zara, Miren Neskutz Garbijoi,
Ama danetan onena,
Garbitasunen antzikufa ta
Egimenetan gorena.
Altasunian daukozu, bafiz,
Azken bagako almena;
Zeu Zubiru'tar Bernartetxu'ri
Arkaitz-leyotik urtena...
Zeu euzkeldunen bitartekua,
Zeu gure itxaropena.

Maitasunaren maitasun oro,
Zuzentzearen Zuzutza,
Edertasunen Eder gurena,
Sortzez Garbiko Neskutza,
Arren, ba, Euzko-Abenda oni
Eyozu Zeure laguntza,
Maite be maite doguzalarik
Euzkera eta Uzkurtza,
Jel-bide ziar lortu daiguntzat
Abefi-zorun-garaitza.

{*Euzkadi*, 1933-XII-10}

AZKEN-AGUÑA (*Bilbao'tar Kepe zanari*)

Beti zintzo egiñaz
Otoya ta lana,

Sencli abertzalia
Azi eban ama,
Zori onez beteixu,
Zeru-lurren Jauna.
(*Euzkadi*, 1934-IV-8)

"TXERREN-AUSPOA"

Ene gaste maiteok,
Izan zaiz dantzari,
Jaurtirik baña ufin
Maketo-antz ori.

(*Euzkadi*, 1935-V-19)

ARROSPIDE'TAR ZENON IL

Guk maite gendun, baña...
Jauna'k maitiago;
Urtzi'ren besuetan,
Donokijan bego.

Olantxe dopaltsogu
Kistar on erara,
Eta sendikuokin
Tamalkide gara.

(*Euzkadi*, 1935-V-19)

JAYAK JAI

Jolastu, ba, gasteok,
Jolastu garbirik,
Or... txeren-barkilleru...
Biurtu bagarik.

(*Euzkadi*, 1935-VIII-4)

KISTAR TA ABERTZALE

Euzkotar Gastedijk
Kistar iraun dedin,
Josu'k darakuskuna
Ikasi ta egin.

Kistar-bidez eltzeko
Goi-elbururaño,
Egokijakorik bai
Jel-bidia baño?

Kistar ona ixateko
Abertzale ixtan,
"Mercier" gurgafijak
Esan eban gixan.

(*Euzkadi*, 1934-VII-8)

ELGEZABAL-SENDIARI
(*Oka'ko jayetan*)

Senar-emazte, seme-alaba,
Osaba, ixeko ta loba,
Danak mai baten, ija befogei,
Nun sendi edefagua?...
Urtzi'k onetsi begi, ba, zuek
Dozuen euzko-gogua...

(*Euzkadi*, 1935-VIII-11)

BAKERAKO LEGIA

Bakoitzari beria,
Jainkoen Legia,
Jainkua maite daunak
Maite dau geidia.
Maitasuna bakezko
Zorion-bidia
Maitasun bako itzak
Guzur utsak dira.

(*Euzkadi*, 1935-V-19)

ARIATZA'KO IKASTOLA BARIJA
(*Erriak egina: 1935-IX-17*)

Gurasuak ein leiken
Lanik edefena,
Umiai argitzia
Kistar adimena.

Adimena ba'dago
Biszurik Goi-argiz.
Bijotzak beren lanak
Zintzo-zintzo dagiz.

Zintzuak diranian
Bijotzaren lanak,
Zorun-bidetik duaz
Zuzen-zuzen danak.

Goi-zoruna dan lez, ba,
Egizko Elburu,

Bera lortu ezker,
Dana lortu dogu.

(*Euzkadi*, 1935-IX-22)

Urtzi'ren Urtzigille . . .
Zaran Luki jauna,
Dopaltzut zoruna
Betiko aintzaren duin
Egingo zaituna.

(*Euzkadi*, 1935-XII-3)

MIKEL DEUNARI OTOYA

Mikel Gongotzon Euzko-Zaindari,
Zeru-almenez betia,
Goitar Ezpataz ebai zenduna
Luzbel'en gudaroztia:
Aralar-gaindik ikusi ondo
Non-nai sortu dan nastia
Ondamendiko txeren-saretik
Azkatu ludi gustia;
Batez be, baña, Zeure zainpeko
Euzkadi gure maitia!

(*Euzkadi*, 1935-IX-29)

"AGAREL" (G. B.)

On-on a ziñan
Apal-apala,
Argi, langille
Zintza,
Zure inguruban
Nabaitzen zala
Beti Jel-usain
Gozua.

URTEBARIZ

Ederto asi dogu
Aurten Urtebarri
Bijotzak opaldurik
Algustidunari.

Maitaliak maitia
Egiz maite ba'dai,
Berakin bixi nai dau
Astegun eta jai.

Maitalerik Gurena
Zaran Kisto Josu,
Zeu maite-nai orixe
Sortu egiguzu,
Zeukin bixi gadintzat
Beti zoriontsu.

(*Euzkadi*, 1936-I-12)

Euzkadi Amak
Eban unian
Zeugan itxopen
Osua,
Aita Goikuak
Bialdu dautzu
Eske zerutar
Usua . . .

Ludi au txatxar
Ziztriña dozu,
Txatxar ta eskar
Bagia:
Zeuk maite zendun
Algustidunak
Emon nai eutzun
Obia.

Zorun osodun
Bakalderri bat
Autetsijentzat
Gordia.
Atseden zaiz, ba,
Ortxe betiko,
"Agarel" geure
Maitia! . . .

(*Euzkadi*, 1935-XI-14)

URIARTE'TAR LUKI'RI

(*Meza barriz*: 1935-XI-24)

Euzko-Abenda-seme
Zintzo, azkar, ona .
Gurasoen pozkafi,
Abefi kutuna,

EORTZ-EGUNEZ
(Ariatza'ko Bilbao'tar Jon)

Gaste maitiok, jarrai
Oitura onari,
Otoi zintzo egiñaz
Algustidunari.

Zorak ordaindu eta
Arturenak egin ...
Euzkadi, Goi-saridun
Urtzi'k auta dedin.

(*Euzkadi*, 1936-III-26)

NESKATILA BATEN OBIRALTZIAN
(Artetxe'tar Miren: 15 egunekoa)

Mirentxu'k agurtu dauz
Ludi-gurasoak,
Mirentxu artu dabe
Donoki-Usoak .. .
Donokian ospatu
Eztegu osoak ...
Alatzak egunero
Dagiz Jaun-Goikoak.
Jaun-maitale diranak
Zorionekoak!

(*Euzkadi*, 1936-III-26)

GORALPENEZKUAK

Abefi-maitez bixi dan gixona, ez dozu utsaren ufengo, egizkoa baño, Euzkel efiko edozer jazokunek biotz-zifaraz jarten eban gure Txindofaren izate gustia. Aren ardura etzan lau gauzarentzako: oro begi ta biotz genduan,

1913'gko zezellaren lenenguan, "Euzkadi" agertu zan, abertzale gustien asmo edefa garaturik. Laster zari an Kepa olerki bixi ta txanbelin bate-gaz. Gerora, ia eten barik, idatzi eban zerbait eguneroko abertzale ofetan, ogeita lau urte luzetan, Andik iru urtera, 1916'gafenean, efi-maitale mordo andijak "Euzko-Deya" sortzen dau, Jeltzaletasuna garbi ta zindo jaboteko. An dogu Enbeita oleski bikañez, aldizkingi dotore aren ofialdea apainduaz. Ofelaxe "Euzkel-Laguntza"-n, "Jaungoiko-Zale"-n, "Karmen'go Argia"-n eta abar, Danetan idazten eban, eta danentzat eukazan goraJpenezko itz gozo ta samurrik.

Gastiak oso maite dauz, oneik bai dira Abefiaren geroa. Bilbao'ko Euzko-Gastedija goi-goiraño jaso eban bere zantzo ta ifintzi olerki gorietan. Argentina'ko euzkeldun alkartuak be maite-maite ebazan, eta bizitzarte gustian arekaz laztan-ariz lotua egon zan. Lugones ango olerkari jagiak, euzko-enda ta euzko-gauzak goratuaz, neurtitz oskidetsuak zuzendu eutsozan; baita Enbeita'k andikiro erantzun be.

Edonok lez, Enbeita'k ba-eban bere ikufa, jo-bide berezia; "Zeuria zaindu, ta itxi bestenai bakian." Au safi aitatzen dausku bere lanetan, batez be Euzkelefi ta euzkerarearen arerio ta etsaiak txibitotsez astindu nai dabezanian. Bein, 1916'garrenian, onako bat argitaldu eban; eta Kiri-kiño'k onela: "Bejondaizula, Kepa! Ori da, ori, bertsuak botatia, ta egijk esatia, ta euzkeldun jatofa ixatia! Gora zeu! Bertso ofexek irakufita, neuri be alako txingar bixi-bixi batek lez kiskaltzen daust ene kolko-bafuba. Zer da? Bertso bat! Or dua, bestelan estanda egingo neuke:

*Yubanak eta yaban-zaliak
Eztabe nai euzkerarik,
Ernegu baten ipinten ditu
Berau entzunak bakarrik.
Ekin dayogun euzkeraz eiten,
Mutillak!, zintzo-zintzorik
Eta yabanak laster gexotu
Biar dabe gibeletik;
Edo bestelan Pancorbo'rantza
Alde egin biar emendik . . ,
Belarri-motzai alde eraiteko
Etxagok efatz obarik".*

Erriak goraldu ebazan: Gernika, Bermio, Izaro. .. Euzkel idazle ta olerkariak oso aintzat eukozañ, Astarloa, Deba'ko Tene, Afese-Beitia, Kirikiño, Belu-Mendu, Lizardi ta gañerako asko olerldtan goraipatu ta jasorik. Afospide osalariak —aita ta semea— gustiz kutun eta biotzeko ebazan, arein omenez egindariko olerki bioztiak argiro dirauskuenez. Eta edu onetan beste asko.

Ez, gero, etxeak bakafik. Beljika'ko Alberta efegiari olerki bi, gitxienez, esldñi eutsozan, edefak bata zein bestia. 1914'gareneko gudatean otsuak aginka egin eutson, eta lafi aurldtzen zan aren ortzartean, artaldeko aneika ardi eder ondaturik. Eta olerkariak;

Ba'neukaz millo bat egazkari
Eta sei millo gudari,
Gaur bidaldo ko neuskioz pozik
Alberta bakaldunari,
Etsayak jaurti ta beren Ama
Azke dagijantza jarri.

AITATU BIAR DANA

Idazkun auxe burutzat ebala, Urrilla-4'ko "Euzkadi"-n, Kirikiño'k idazten eban, beste gauza batzuen artian, Arrospide'tar Jon Muxika'ko osalarijak ipiñi ebala Kepa, bere gastetan, Jel'entzako bakarrik oleskari ixateko bidian. Eta, Kirikiño'k iñuana egi-egija dan lez, iñok ezpayan euki ez dayan egi uts ori, ementxe "Euzkadi"-n agirijan esan gura dot: Afospide'tar Jon, gure osalari ta jeltzale andiari, Sabin gure irakasle bardin-bagiaren lagun maite ta jarraitzalle zintzoa danari... zor dautsodala (Goikoa'z ufengo) ni Jel'entzako oleskari ixatia,

Nik gastetxutatik neukan zaletasun andija oleskigïnen ekiteko; eta, naiñoz ta naiñun, beti gertu egoten nintzan onetarako. Trabenarik trabena erabilten nenduen; baña nik erabilten neban euzkerea... etzan euzkerea. Eta berbetia be safitan, errezagia ez.

Afospide mutil gasfice bikaña gure efira osalari etofi zan; au nigaz aizkide egin zan, eta neu beragaz bardin. Afospide abertzale andija zan, baña ni... edozer: Euzkelerrri maitia bai, baña enekijan zer zan abertzale ixatia; ta gure abefi bakafa Euzkadi zanik bez. Afospide'k, baña, polito-polito esan eustan gure abefija zein zan, gu len zer giñan, gaur zer garan; zer izateko eskubidua geukan; Sabin nor zan, zelakua zan, zelako asmoak eukazan; euzko-oleskarrijak antziña-antziña zelakuak ixan ziran, orduan zer egiten eben; geruago oleskarrijak oitura onak galdu ebezala, aberri oleskari ixatetik "trabena-oleskari" ixatera biurturik, eta abar.

Oneik gauza gustijok esanda, aurpegira begiratzen eustan; eta azkenik, onela: "Ik, Kepa, eure anayakin eta abar, emetik aurera, euzkera garbijan bertsuak eiten ekin biar dautsek. Lenenguan gatx ixango yak ori eitia, baña bakarrik aguanian-eta, anayakin etxian-eta, olantxe ekijok ilebete inguruen, eta gero, errez-errez eingok edonun."

Esan ta egin! Asi nintzan Afospide'n esana eiten, eta beriala euzkerea efeztu yatan. Eta ikusirik nik beren esana egiten nebala, ordutik aufera, beti leun eta polito, aitak semiari lez, Arrospide'k irakatsi eustan Jel-oles-karija ixaten eta Abefija egiz maite ixaten. Bijok ibili ixan gara, gero uri ta basefi askotan, au itzaldijak egiten (eta ez edozelako itzaldijak) eta ni abestuten. Oneri itanduten neutsan nik zelan abestu biar neban, eta onek poz-pozik esate-eustan zer gaitzaz abestu, eta nik be pozik egiten neban onen esanaz. Eta beti etxeratzen giñan atsegintsu, geure biarkuna, Jaunari eskafak, bete gendualata.

Jazokun au bati baño geyagori esan ixan dautsot, Kirkiño'ri berari be bai. Eta onek "Euzkadi"-n atara daun ezkerro, neuk egiztutia bidezkua dala eretxi dautsot. Eta zuk, Arrospide, nire aberkide ta lagrrn maite ofek, azketsei idazki onegaz zauritu ba'zaitut; ba, alik gitxien zeu legundurik, egi utsak bakafik esaten alegindu naz.

(*Euzkadi*, 1922-X-II)

ETXEBARRIKO NEURE LORIA
(*Bere emaztegi Goiri'tar Benite*)

Ikusirik lora bat
—ez emetik urrin—
neure poz-atsegia
Goiko-Etxebafi'n,
nik bera eskuratu
eztagiclan egin
batek baño geyagok
ein dabe alegin;
baña zirkin andirik
eztautsie eragin.

Ai, neure bijotzekn
lora usaintsue!
zeure gozotasuna
kendu nai dautzue;
bafia zu beti nigaz,
maite indartsue.
Zu zara niretzako
ain atsegintsue,
zaralako lora bat
onoidadetsue.

Bixi ziñian eder
lorategi baten,
ez eutzula ezek be
kalterik egiten;
ta ikusirik nitzala
ni uferatuten,
sasi baltzak albotik
egin eutzun urten,
galazo gurarikan
zu niganatuten.

Alper nekauko dira
arantza ta sasi,
osasun edefian
gu ba'gara bixi.
Lora maitia, safi
eingo zaut ikusi,
ta Zuk maitetasuna
neuri erakutsi
ezkerro, zelan baña
eingo zaitut itxi?

Lirio lora zara,
udabafikua,
egizko euzkeltzale,
biiotz onekua:
ofexegaitik zara
neure gogokua.

Laster luzetuko dot
zeugana esku,
artzeko maite dotan
lora pozezkua.

1903-XII-31

AGUR, MANU!
(*Bere anai Imanol Ameriketara juan zanian*)

Agur, Manu! Ikusi arte;
osasunagaz ibilli zaite.

Neure buruko adiña daukat
biotzagaz indafian,
abefiaren zaletasunaz
maitatzeko su-gafian.

Gaur nago, Manu, agur gozo bat
zeuri egin biafian,
esanaz: Jauna'k lagun daizula
itxasoz eta lurrian!

Baña bixi ta il zaitiala
asaben Lagi Zafian.

(*La Gaceta del Norte*, 1908-XII-2)

. EZKONTZA BATEN URKIOLA'N
(*Jose Fuldmn ta Miren Zabala
ezkondu ziran*)

I

Artu dozu, Joseba,
Miren zeure emazte,
polit bikain zolija,
neskatilla gaste,
zeñek ixango zaitun
beti maite-maite.
Jauna'k zagizala, ba,
zorijonez bete:
gaur nik zer opautzudan
gogoratu zaite.

II

Miren, gaur artu dozu
zeure senav lagun
osalari Joseba,
gixon biotz bigun,
zoli ta jakituna,
ganera euzkeldun,
zeñek maiteko zaitun

beti, gau ta egun.
Jauna'k zaizela bijok
egin zonondun.

(*La Gaceta del Norte*)

GORA "EUZKADI"!

Agur "Euzkadi" eguneroko
jelkiden izparringija!
Pozik ospatzen dogu gaur zeure
lenengo agerraldija;
bete danskuzu aspalditxuon
euki dogun gurarija.
Augaitik, ba, gaur bijotz-bafutik
damotzut on-efofia.

Zatoz, "Euzkadi" zeugan arturik
ardura gustiz andjja,
uri, baserri ta egal askotan
lo dagon euzko-sendija
itxartutera, erakutsirik
zein dan geure Abefija,
jakin-erazten baita be izpar
ugariaen bafija.

Pozik artuko zaituguz, bada,
egunero-egunero,
izpafak ondo jakitafen
zeu irakufi ta gero,
euzko txarrak be oituko dira
zeugaz astiro-astiro,
zoraturik lez baita be jafi
zeu irakufi ezkero.

lagiko ba'litz gaur illarterik
jelkiden aita ihan zana,
norano elduko ete litzake
bere poz eta atsegifia,
ikusirik gaur argitaldurik
berak ainbat nai ebana,
"Euzkadi" geure izpafingija,
kentzen Enzkadi'n gofiña?

Jelkiden aita Sabin ihan zan,
bera abijau zan aufenen,
bere bixixa opaldu eban
Aberri-aldez pozarren;
ak ereindako azi edefak
ofa gaur ze indar dakafen!
Euzkelefija osatzeko duin
jauntzen dauste baño len.

Poztu zaiteze, mendi maitiak,
poztu, zelai ta ibafak;
poztu, itufi, efeka, ibai,
uri ta baso edefak;
poztu zaitez gaur, Euzkelefija,
poztu gaizan euzkotafak.
Aupa, gustijok! Gora Euzkadi,
Jainkua ta Lagi-Zafak!

(*Euzkadi*, 1913-II-3)

GORA EUZKADI!
(*Urrezko dominaz sariztua*)

Urtian irugarren eguna
Egun gomutagafija!
Neugaz izketan aurkitzen dala
Aizkide osalarija,
Bai-diraust onek; Ikusi egik
Daguan egaraldija.
Epeletatik urtenda nago
Orain begira jafija,
O!, mendi, zelai, solo ta danak
Daukie jantzi zurijal

Edufa dago mendi ta baso,
Zelai ta solo danetan;
Egal gustijak lafioz beterik,
Itxas-antzafak goyetan,
Agurka duaz Amerika'ra
Negu txar oni aldetan.
Geuk be bai-dognz anayak andik
Juanak era ofetan,
Edurtzan emen bixi ezinda
Ango lurmenak topetan.

Gosiaz dauzan ardi gaxuak
Nai-nora diran lez sartzan,
Otso ta aizeri artera bardin
Artzañak ez ba'dauz zaintzen,
Gure anayak Iufalde atan
Orrela ziran aurkitzen:
Ban.andurikan or-emen danak
Ez ebela alkar ezautzen;
Anaitasuna zer zan aiztuta
Galdumendijan zebiltzan.

Orain ze tayu ete debillen
Neukala gogamenian,
Ofa nun uso zuri polit bat
Dakustan mendi ganian;

Eta isten daust belauian.
O nire poza beren izparra
Irakurri dodaniaol

Poz eta atsegin andi bat dala
Neure bijotzan erdian,
Irakuri dot izpar eder au
Ekafi daun idazkian:
Itxartu dira euzko-anayak
Nekotxea dan efijan
Alkar maitatzen dabela bixi
Diran batasuu andijan,
Alaitasunet Batzoki eder
"Euzkadi" maitagafijan.

Ezautu dabe zelan txorijk
Izan afen egaztik,
Abendaz bardin eztireala
Usuak eta efoiak,
Ez miru, mike, aitz-afano ta
Txindortxu papar gorrijak,
"Bakotxa beren abendaz Jaunak
Ditubalako jafijak,
Beste abendaz zer ikusirik
Eztaula euzko-sendijak".

Au dok izpafa! Gure anayak
Nai-nun itxartzen ei dozak.
Zeñek azaldu ordu onetan
Nire bijotzeko pozak?
Au poz-atsegin bijotzekua!
Gauzak erara yatozalc.
Igazi dira laño baltz illun
Oñestu eta ostotsak:
*Nekotxea'*ra egaz egin daust
Neure gogo ta bijotzak,

Ikusten nago "Euzkadi" euzko
Batzoki eder apaña,
An bixi diran gure anayak
Alkartuteko egiña,
Jasorik gora iru margodun
Abertzale ikurriña;
Baita ikusten euzkeldun jayak,
—Ori da gauza jakiña—
Eingo diranak gure asabak
Oi ebezan lez antxiña.

*Nekotxea'*n zan etxe bat autu
Batzoki bat zabaltzeko,

Gauzak ondo asmatzeko,
Abefijaren ixen edefa
Batzokijari jarteko,
Beren gomutan, euzko-anayak,
Bata bestia zaintzeko.

Ai, ze pozafeu ikusten dodaz
Neure anaya laztanak,
*Nekotxea'*ko "Euzkadi"-k orain
Dabiltzan biar ta lanak!
Olanik alkar artu balebe
Beti euzkeldun dan-danak,
Ez euken zetan ainbeste negar
Egin semiak ez amak,
Azke bixiko zirealako
Orain estuntzaz diranak.

Urte betia ospatuteko
Euzkotar buru argijk,
Alkar batuta, gertau ditubez
Euzko-jai goragafijak:
Txuntxun soñuan aufeskulari,
Baita makil-dantzarijak,
Pelotari ta ifintzilarri,
Izneurlari ta gustijak
Saritzen dabez berbiztu daizan
Lengo ekandu garbijak.

Anayak gara laburditafak,
Zuberotar ta napafak,
Anayak baita gipuztakafin
Arabar ta bizkaitafak;
Gustijon Ama dogu Euzkadi,
Gu beren seme bakafak:
Au ezauturik alkartu dira
Argentina'n euzkotafak,
Anayak alkar lagundi eta
Jaboteko Lagi-Zafak.

Maite ditubez guraso zafak,
Maite asaben Lagijak;
Uri, basefi, etxetxu zuri,
Zelai, muru ta mendijak;
Maite baratzak, itxaso zabal,
Ibai eta itufijak;
Maite lenauko ekandu onak,
Jantza ta jolas garbijak.
Aupa, mutillak! Gora Euzkadi!
Gora euzkotar gustijak!

/Euzkadi, 1914-IV-6)

GORA GURE OSTIKOLARIJAKI

Azletik baziunako
Gure mutil gordiñ
Euzkotar bulartsuak,
Len eta oragiñ
Erakutsi dozube
Indar, gogo ta adiñ,
Abendarik onena
Dagola Euzkadi'fi.

España'tar artian
Katalanak nausi
Izan dira; baña gaur
Euzko menpe jausi.
Nai zetan be benetan
Eiñ ezkerò asì,
Euzkotajfari baña
Zeñek irabazi?

Azken jokaldirako
Autu eben Irun.
Zein jari España'n
Gustiko *txapeldun*,
Euzkotarrak dira ba
Txapel orren aldun.
Aupa, mutilak! gora!
Gaur ospatu daigunl

(*Euzkadi* 1914-V-II)

"NEKOTXEA"-KO BAZKINTZA ARTEZKARI GURGARRIARI

Bilbao, Kastaños ta Zubillaga,
Galporoso ta Arana,
Ondo dakigu euzkotar zintzo
Benetakuak dir'an;
Euzkel-Efiko inguruetañ
Zuen entzute ain ona
Goraldutene da Nekotxeko
Euzko jayetatik ona.

Buenos Aires'ko probintzijako
Lenengo euzko Batzoki
Eder apaña, zuek egiña
Dala edozeñek daki,
Baita ganera itxartu orko
Euzko semiak lotati;
Gixon jakintsu, onak zarena
Ezagutzen da ortati.

Bilbao'tar Toma, jeltzale ona
Dozubela Lendakari,
Gustijon arte sortu zenduben
Nekoetxea'n "Euzkadi";
Bijotz oneko gixon prestuok
Lagun egiñik alkafi,
Bide onera zenbat euzkotar
Ete dozuez ekarri?

Artzain zintzuak oker lekutik
Ardijkak txabolaratu
Oi dabezan lez, otso gaiztuak
Egin eztaizan ondatu;
Era berian zuek dozubez
Euzko semiak itxartu,
Etsaya nor dan erakusteko . . .
Eta gero "Euzkadi"-n sartu.

Urte ufenan ein zenduezan
Euzko jai edefak *oso*,
Orko euzkotar gastiak azkar
Ainbat jolas-aldi gozo,
Azke ta garbi, eiten ebela
Lenauko geure guraso
Zafen oitura gaur baztartuak
Nai zitubezala jaso.

Izneurketaren sarketa be
Izan zan eder apaaa;
Zeuek gertauta egiñkuia,
Ori da gauza jakiña!
Neuk be bai-daukat zuek saritzat
Emonda ufezko domiña,
Ikurdi eder "Euzkadi"-renaz
Gustiz ederto egiña.

Eskar aundiak damotzubedaz
Sari ain eder augaitik,
Zorun gustijak opaldu be bai . . .
Jafaitu bide onetik.
Asabak legez Jainkua maite
Izan gustijen ganetik,
Ama Euzkadi azkatuteko
Etsai gaiztoen menpetik.

Poztu naulako jun dan urteko
Zuben lan edefak *oso*,
Zorun danakaz opa dautzubet
Urtebafi bigun gozo;
Lo dagozanak, itxartu danak . . .
Jel aldez ekin-eraso,
Zorionian jafi artian
Akze ume ta guraso.

(*Euzkadi*, 1915-I-1)

"Larrazabal'-en jayo zan itzak . ,
Bere Abendae

Zu lako gixonakaz biur lei loratza.

Sukarrieta'n itzali zanak . . .
Berbiztuko dau argija,
Eltzen danian aldija;
Erakusteko azkerik geure
Abefi maitagafija.

ENBEITA'TAB JAGOBA'RI
(*Melila'n*)

Neure bijotz erdiko anai maite Santi,
Artu yuat bidaldu daustean idazki.
Ikusirik beti lez eure idazkera,
Alaitasuna sartu daustak bijotzera;
Baña samindu be bai gauza baten
[utsak . . .]

Kepa'ri zer dala-ta bidaldutenea dautsak
Idazkija erderaz, euzkeldunarentzat,
Onek beren bijotza samintzen

[ba'yetsak?]

Diñok: *hoy no se fia eta mañana si.*
Idazkun ori nundik nora dok ika.si?
Inor gaitik ez adi lar esaten asi,
Lukija zepora lez nai ezpadok jausi.

Nfk agindu gustijak eztuatz bete,
Baña ortan pekatu egiten dok euk be:
Beti ago Kepa'ri zortzikoen eske,
Ta euk ordez eztustak bota bier bape?

Emen osasunagaz etxeko gustijak.
Gustijon ixenian euri gorantzijak,
Besarka maitetsu bat eure aite ta amak,
Bedite koñetiek, lobak eta danak,
Ta bafiz maitasunik aundijenaz yaukak
Iretzako bijotza Enbeita'tar Kepa'k.

(1915-III-31)

ADOLFO URKIJO'RI

(*Diputaziño'ko Lendakaritzatik Piña'k
atarau ebanian*)

Zek galdu ete dausku Bizkai'ko baratza,
Jatofitik ixanik gustiz aberatza?

Egingo eztañik aiñ leku labanian.

Baña baukogu jaun bat gustiz jakituna;
Ondo danian daki tolostzen belauna,
Baita goi-be aundija jarten gustiz leuna.
Ofegaitik dauko gaur "Piña"-ren irauna.

Maite eban bere emija; gaur be
[maitatzen du . . .]
Egijazko biderik eztu nai atzendu.
"Piña"-k jaun on altsuak nai ditu
[zertzendu . . .]

Jauntxukeri ofek, ba, Bizkaya galtzen du.

Doipuruak, zerofen Egiñak neurrtuta,
Konde'aren ixenaz zaukoz sarituta.
Ofek daukoz etsayen bijotzak gaututa,
Baiia euzkeldun zintzo doneak.

[poztuta.]

(1916)

EftAMON SOTA'RI

Eguzkixaren izpiak diz-diz,
Ezta lañorik agiri . . .
Ortzetik berantza aingerutxu bat
Datorkit Jauna'n geznari,
Diraustalarik: "Ez al dakizu
Jazoten danaren bafi?
Gaurko egun au ospatzen dabe
Pozez Donoki ta ludi;
Goralduagaz zeure aizkide
Ramon Sota jaun gurgafi,
Biotzez maite ditualako
Jaungoikua ta Euzkadi".
Au nire poza! Neuk be olantxe
Maite zautan ezaugafi,
Opa dautzutaz zorun utsezko
Urte gozuak ugari,

JELKIDE BATI

Neure bijotz erdiko
Jelkide laguna,

Pozik artu neban zeuk
Bidaldo zenduna.
Anei eskarl Ordaintzat
Dopaltzut zoruna, . . .
Baita be Urte barri
Eztitsu biguna.

BUSTINTZA'TAR EBAISTA'RI
(1917'gn. Jorrailako 29'an autu zan
B. B. B. barrjan Kirikiño ixan zan
Lendakari)

Agur, Jeltzale gurgafi zaren
Neure aizkide kutuna!
Itzez, idatziz, nainoz, edonnn
Euzkera darabilzuna:
Bizkai gustijak maite daulako
Zure Jeltzaletasuna,
Berau izan da baita zeu gure
Burutzat autu zaituna.
Zorun gustijak opautzudaz, ba,
Deun Mikel lagun dozula.

(1917)

LOPEZ-MENDIZABAL'I

Lopez-Mendizabal'tar Ixaka zalduna,
Neure bijotz erdiko Jelkide laguna:
Pozik artu nuan zuk bidaldo zenduna.
Anei eskar. Ordaintzat dopaltzut
[zoruna.

Josu Aufa'n Jayotzaz
Gogoratu zaitez
Nola etorri zaigun
Gizona'ren maitez.
Jai ofek opaizkitzut
Osasun ta pakez,
Urte befi onakin
Nere borondatez.

(1914)

LASKIBAR'TAR KEPA'RI

Neure aizkide Laskibar Kepa
Jelkide lagun zintzuai,
Agur dagitsat, poz-pozik beintzat,
Zorunak opaldu be bai,
Zeure amatxo maite-maitiaz,
Baita be afeba ta anai:

Jakin egixu Josu Aurtxoen
Etoferako Jai alai
Ta Urte befi, zorun danakin
Ospatzia dedala nai.

(1914)

EIZAGIRRE'TAR JOSEBA'RI

Gabon jayetan, atsegijetan,
Baita be Urte barrjan,
Josu Aurtxoak zorun oso bat
Zeugan ezafi dagijan,
Zeu i.xateko euzkotar zintzo
Gaur lez bixitza gustijan,
Otoika nago gurari ori
Dedala bijotz erdijan.

(1914)

LAFTAÑAGA'TAR ERAMUN'I

Atsegijez betiak Gabon-urtebefi
Opaizkitzut, jelkide lagun maite ofi,
Josu'ren onespenaz emazte ta sendi
Bikaïñak alkar maite zarela bafendi,
Zorijon guziakin. Alan izan bedi.

(1915-I-1)

ARANA-GOIRI'TAR KOLDOBIKA'RI

Agur, Arana Goiri, geure Lendakari
Zintzo ta ona zaren jeltzale gurgari!
Neure bijotz erdiko lagun maite ofi
Zorun danakaz opa dautzut Urte bafi.

(1915)

ZORUN-AGUFI'A

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'ko
Lendakari on zintzuai
Agur dagitsat poz-pozik beintzat,
Zorunak opaldu be bai,
Zeu Bizkai-Buru-Batzar kidetzat
Ixan zaitugulako nai.
Auteskun ori gaur ospatzent dot
Atsegintsu, alai-alai.

(1914-XII-14)

AftESE'TAR EMETERI'RI

Tolosar "Txindor" azkar, begiko,
Biotzez maite zaudana,
Eresi-soñ ezti gozuak
Abesten zatoz niganan;
Zeu zariala esango nuke
Abeslaririk gurena,
Nere biotza poz-atsegínez
Gonburu bete dezuna.
Nik ere zerbait abestu naita,
Ezin antz-eman . . . Au lana!!
Buru argi ta biotz xamura
Dituzun txori kutuna,
Eskarrikasko. Jainkuak ordez
Bemoizu zorun-zoruna.

ZORI ONAK (ZALO-ETXEBARIA'TAR KEPA'RI)

Au egun alai zoragarrial
Aixe biguna, ortze argia . . .
Begira nago goirantza.
Gotzon-aldeak Goian dakustaz . . .
Kepa Deuna be ufezko giltzaz . . .
Zabaltzen zorun-baratza.
Au ikusgafi ezti gozoa,
Dakustana da zorun osoa. . .
Norentzat zorion ori?
Geure Deunaren eguna da-ta,
Euzkal-Efiaz batera, Kepa,
Egiz dopaltzut berofio.

(1929-VI-29)

ADRIAN ZELAYA'RI

Zeberio'ko seme jatorra,
Ene Adrian Zelaya;
Gizon dintza, gizon arteza..
Beti euzkeldun garbia,
Maitasunezko biotz edefik
Edefaren jaubia,
Gauza gustien gañetik beti
Zuzentasunen zalia,
Biotz-biotzez opa dautzut ba
Zorion amai bagia.

Zu zelan bixi ete ziñian
Arduraz nenbillan beti,

Eta lenguan itandu neutsan
Orko aingerut, xo bat;
Ta berak alai erantzun eustan:
"Adrian . . . oso ederkil"
Onegaz zenbat poztu ninduan
Neuk baño bestek ez daki.
Jafaitu, bada, elbururaño
Zorioneko bideti.

Ni makal samar . . . Neure urdalau
"Asidos" bete-beteta.
Gafatza dauken gauza gustiak
Daukodaz galerazota.
Gozoki asko biar ei dot nik . . .
Nun dago, baña, gozatz?
Bost astian be gaimel ez gozatz
Ikusi barik nago-ta?
Utsune onek illuntzen daustaz
Urdalla eta biotza.

NEURE ANAYA IMANOL'I (Hale'ra)

Neure anaya maite,
Iraanol Enbeita,
Dautzudan maitasuna
Erakutsi naita,
Antzezki au zeuretzat
Bidaldo nai neuka,
Zeuk be neuri olantxe
Egin daustazu-ta.

"EUZKO-DEYA"-RI AGUR

Zatoz ordu onian,
"Euzko-Deya" maita;
Aspaldijan gagoz
Zeu ikusi naita.
Uri, basefietan
Euzkotafei deika,
Itxartu txiki ta andi,
Ume, ama ta aita.

Aspaldi zeuri deika
Giñan; "Zatoz, zatozl"
Ta izpar polit edefez
Apaindurik zatoz,
Uste genduan baño
Apañago askoz.
Ori dala-ta gagoz
Gustiz alai ta poz.

Idazlerik onenak
Apainduko zabe,
Orok naiko dabela
Egin zeure jabe.
Txiro, etxakin onek
Neuritzak, baita be
Al daben apurtxubaz
Lagunduko dabe.

Uri, baserri, mendi,
Arro eta laño.
Erdera sartu yaku
Azufetaraño.
Ta lotsaz tamaldurik
Euzkereak diño;
"Txafago ete naz ni,
Erderea baiio?"

Eztago erderarik
Eztago latiñik
Guretzako, Euzkera,
Zeu baxen apañik.
Ganera zeu geuria
Zarala jakiñik,
Eztautzugu eraingo
Geyago zotíñik.

Euzkera maite ori,
Izpidian zagoz;
Egiz, erdeltzaliak
Ugaritsu dagoz.
Euzko-Deya'ren bidez,
Baña, gogo ta agoz,
Euzkeldun bigurtuko
Dirala-ta gagoz.

Euzko-Deya, gaur legez,
Gaste ta gordiñā,
orain befogei urte
Agertu ba'ziña,
Lotsatunik antziñā
Ebro'tik atxiña
Juango zan betiko
Erdera zikiñā.

Aupa, zar eta gaste!
Uri ta basefi,
Euzko-Deua'rei gogoz
Begijak ezafi.
Artu ta etxeratu,
Irakufi safi,
Euzkera egin daigun
Bakaulkijan jafi.

(*Euzko-Deya*, 1916, 1 zenb zenb.)

GORA ZUBEKI

Bilbao'ko. "Euzko-Gastedija"-k daun
"Euzkaltzale-Bazkuna"-ko
Gaste aldeak daun maitasuna
Josu-Bijotza'ganako,
Andija baño andijagua
Neufi bagia dalako,
Euren gelako toki gurenan
Jartia gomutau yako.

Donokiko ufezko atiak
Zabalik dire agiri;
Deun Iñaki ta done gustijak
Begira *Euzko-Deya'ri*;
Gotzonak, barriz, pozkiro dabiltz
Izpar gozuen geznari,
Josu-Bijotza jaurestu daben
Tokira Juan-etofi.

Gurtu daigun, ba, Josu-Bijotza
Deun Iñaki'gaz batian;
Onen egunan jaurestutiaz
Euzkeldunak poz gaitian.
Gora zu, *Euzko-Deya* maiteoi,
Zorun gustijen artian!
Josu laztanak lagun daixula
Luzaro bixi zaitian.

Gora Jaun-Goikua ta gora Lagi zarra!
Gora Euzko-Gastedi, Abefi-sustafa!
Zu zara Euzkadi'ren itxaropen utza,
Mingotz gustija kentzen dautsozun
[gozataz.
Nori zor ete yako Bizkai'ko gurenda?
Euzko-Gastedijari; ori ezagun da.

(*Euzko-Deya*, 1917, 36 zenb.)

BILBAO'KO "EUZKO-GASTEDIJA"-n (*Igande gabian*)

Auxe bai dala poza,
Au nire atsegiañ
Alaitasunen andiz
Eztakit zer egin;
Gaurko jai gurgafi au
Zoruntsu izan dedin,
Jaunai otoi dayogun
Bijotz, gogo ta adin.
Gora Euzko-Gastedija
Gurendaz Euzkadi'n!

Dira amaika urte;
Gerua indartsuau
Bai dua gaur arte
Areriyuak eiñ aren
Amaikatxu kalte:
Gastedi zintzu onek
Eztau bildur bape,
Euzkadi dabelako
Bijotzetik maite.

Ama Euzkadi'k baitu
Semiak ugari,
Zoritzarrez diranak
Bere kaltez jarri
Iku.si afen euren
Ama efukafi,
Motzan buztafipian
Estu eta lafi,
Au itxi ta laguntzen
Amordeku.ari.

Etsaya geure kaltez
Jartia lanian
Geuretzat oba ixtan
Oi da geyenian.
Gortazar espetxian
Sartu ebenian,
Befeun bazkide bafi,
Au gitxienian,
Ofa nun geitu ziran
Iru egunian.

Gortazar zintzuori
Zala lendakari
Euzko-Gastedi au zan
Biar legez jafi:
Euzko-abesti zafak
Berbizteria ekafi,
Baita beste gauza asko
Eder ain gurgarri,
Gusti au goraltzeko
Jauna ta Euzkadi.

Gortazar' en ufengo
Egileor zintzo
Auta zan Gastedija'n
Lendakaritzako;
onek bere Sabin'i
Jafaituko dautso,
Mutil gustiz zolija
Ta ona dalako:
Lan asko egingo dau
Jel-en onerako.

Bestiak ondoren,
Gastedi gustijkak lan
Eiten dau pozafen
Gauzak ondo ta eraz
Irakastiafen,
Gaur be geure Eleizalde
Jakintsuak emen,
Ai, ze itzegikizun
Edefa eiñ dabent!

Gixona goraltzia
Bera daun tokian
Egokia eztala
Ori bai-nekian;
Baña Eleizaldegaz
Bardindu leikian
Gixon jakintsu gitxi
Dago gaur Bizkaya'n:
Ez egon itz onerj
Asko eritxian.

Aupa, gora Egileor!
Gortazar baita be!
Gastedi gustiiagaz
Gora Eleizalde
Alper etsai gustijkak
Irikingo dabe;
Geuk lan eiten ba'dogu,
Nagitasun bage,
Zigur egingo gara
Euzkadi'ren jabe.

(*Euzkadi*, 1915-II-17)

AMERIKA'BA
(*Zarandona Otxoa'gaz bagilaren 8'an*)

Amerika'ra zoiaz?
Agur, Zarandona,
Jelkide lagun maite,
Zintzua ta ona.
Ondo ein daizula, ba,
Itxas-ibilguna,
Au da zeure aizkide
Orok nai doguna.

Doistafen itxasperko
Pizti ondagafi
Ofek asko darabilez
Estu eta lafi.
Zuben aurka ez dain, ba,

Bai, zoiaz, zeure lagun
Dozula Otxoa;
Napar euzkeldun jator
Biotz onekoia,
"Greko-romana"-n barriz
Besteik ez lakoa:
Bijoi opa dautzuet
Zorun betikoa.

Euzkadi'n, España'n ta
Europa'n be nausí,
Petersen ez bestiak,
Egin zitun ausí;
Ta beraunek be orain
Eingo ba'litz así,
Otxoa'ri gaur baña
Zelan irabazi?

Zarandona Otxoa'z
Orra morrosko bi,
Amerika'ra doiaz
Itxirik lur oni.
Ondo ibili ortik,
Bikotx eder ori;
Baña, ez aiztu gero
Jauna ta Euzkadi.

(*Euzkadi*, 1915-VI-7)

"BATXI" OSPETSUARI
(Juan Bautista Bilbao, euzkel idazle
bikaña)

Asti obiaz gero eiteko
zeozer isten danian,
eragozpenak geruau geyau
sortzen dira geyenian.
Niri, beintzat, au jazo yatala
nago esan biafian,
Batxi'k bidaldu eustan idazki
onen erantzupenian.

Zeure idazki jakingafija
idatzi zeustan orduan,
itz ain sakonak igartiafen
sarija agintzen zenduan,
amabosteko epiaz . . . Baña,
igaro zan au beinguan;

asti gitxigaz neukazan;
au lortu baño ixentauriko
menia lenau bete zan.
Idazteko bai astiña . . . baña,
zelan eiñ? Au nai dot esan:
euzkeralogoz ba'nintz bai, baña
ni euzkeldun lelua ixan.

Uste al dozu ofetarako
Eleizalde'n bat nazala?
Neu ixanik, ba, sasi arteko
txoritxu ziztrin epela,
uso edefak baxen ederto
egaz egingo dotela?
Ai, Batxi!, Batxi! ez az, ofaitik,
ziri-sartzale motela!

Erantzupenik eztozula-ta,
erdi asafe moduan
neutzat bidaldu dozuz neuritzak
"Napartarra"-n be lenguán.
Zure eskutitza egongo dala
jaurtitza aberen onduan . . .
Ainbestekotzat eukitiagaz
ikaratuta nenguan.

Atseden zaite, aizkide maite;
ezta ofenbestegiño
aiztuta bixi zure gauzakaz
zeure lagun au ondiño,
eta onantza zatozatuan
—jelkide onek bai-diño—
toki obian iku.skozula
zeuk oldozten dozun baño.

Agur, aizkide bijotzekua,
euzkel-idazle ospatsu!
Zorun gustijak opa dautzudaz
Pozkiro eta maitetsu.
Azketsei neure ixiltasunaz
tamala sortu ba'yatzu;
ta ufenguan, al dodantxuaz,
gertu egongo nayatzu.

(*Enzkadi*, 1915-VII-7)

Mutikotxuak jarten diran lez
Poz-pozik, gora-goraka,
Amak emoten dautsezanian
Prakatxuak adabauta,
Neu be olantxe pozkiro nator
Adizkidei eupadaka,
Neure eztarri zar adabau onaz,
Sasoya be bai da-ta.
Kukuak pozik, kuku ta kuku,
Emen Marti-Andra Mariz
Asi zaneko, gexotu yatan
Eztafi au negarfaz.
Orain kukua mututu yaku
Ta ni eupadaka, bafiz:
Len arek eta neraunek orain,
Orra bijok aldiz-aldez.

"Kirikiño" be zirika daukat
Ia noz asteko naizen . . .
Eta neu, bafiz, luze eretxian
Askoz Kirikiño baizen.
Kukua agertu zanetik eztot
Kontixu abesten ixan;
Baña Orozko'n ikusi biot
Arijok zelan dabixen.

Eupa, mutilakl Gora Bilbo'ko
Euzko-Gastedi gurgafi,
Zenbat balijo dozun ondiño
Iñok eztauna igafi!
Gure anaya orozkotafak
Jakin dayen Jel'en bafi,
Iganderako ze jai edefak
Dozubezan iragarri,
Aunek ezautu dabezaneko
Poz-Dozik dirala jafi,
Aspaldiaietan dirian lez an
Batzuk gauz ofen egafi.
Goizan orok, ba, zar eta gaste,
Lagun egiñik alkafi,
Egikerakaz goralduteko
Jaungoikua ta Euzkadi.

(*Euzkadi*, 1915-VII-3)

*Doñua: Nagusi jauna,
auxen da lana. . .*

Nere adiskide ta lagun maite,
lar estutu gabe lasaitu zaite;
nere baimena zurekin dezu,
bañan sasitik urten biezua
zelai garbira,
uxo politen jolastokira,
bestela oneik igazikora.

Efenderi'ko ene zozua,
nigana otoiaka zatoz gaxua
estu la lafi esaten neri
ez bidaltzeko uxoik iñori;
bañan zuk beti
igesten dezu uxotegiti,
nok afayo oneik bakar eduki?

Ez al dezute irakurri iñok
zer idatzi zidan bein Kirikiño'k?
Ezkondu edo lekaide juan,
gogor samartxo esaten zuan;
bestela asafe
ez ixateko, uxorik gabe,
bestek ostuta, geltzen ba'zare.

Ene motellak! auxen bai lana
nerekin oraintxen artu detana!
Ufetxiñolak bidalduzko,
eta xoxuak bertan isteko. . .
Uxoak, befiz,
au jakitzean, urduri dabilz. . .
Agur xoxua, belu ba'zabil!

Nere nava da uxo ta xoxo,
alkarturik ein kabitxo goxo,
euzko zugazti eta zelayak
bete dayezan beren umiak,
orok batera
goralduteko Ama Euzkera,
igesi gabe urez bestera.

(*Euzkadi*, 1915-XI-24)

Afospide ta Basabe'tar Jon,
Aizkide zintzo ta zufa,

Eure guraso ain onak baxen

Euzko-eredu zigurra. . .

Gaur damostakan poz-atsegiña

Eztok ixango labufa.

Artu egik, ba, bijotzez eiten

Deuatan zorun-agufa.

Ikastietan nausi urten dok

Ikaste-sari ta gusti;

Eugaz yalbiltzak Jaungo-eskafa,

Gotzon, ixar ta eguzki;

Goitik datofen itufi deunak

I aun zori onez busti;

Ori dala-ta ikasten dozak

Ain ondo ainbat idazti.

Guraso argi zintzoen seme,

Atite onan lobia,

Ikastun andi, euzkeldun biknin

Ona baño be obia;

Euzko-baratza gurgafi baten

Agertu intzan loria,

Ixango al az zori oneko

Usain gustijen jaubia.

(*Euzkadi*, 1916-VI-15)

ONDOETORRI

Eleizalde'gaz Eizagife ta

Lopez-Mendizabal zintzo,

Suitza'n ixanda, etor dirala

Irakufi neban atzo.

Jakixue, ba, poz-pozik naula

Araso ain andirako

Auturik..., ango lanak eginda

Bigurtu zarielako.

Poz-atsegiñez beterik neban

Izpar au atzo irakufi.

Zorun-agufa dabidaltzuet

Irukoitz gurgarri orri;

Euzkotar bere bost anayekin

Eupadaka dau Aizkofi,

Neuk be ofekin abestu nai dot

Esanaz: Ondo etofi!

Mendi ertzetik, geldi-geldika,

Agertzen dan eguzkijak

Argitu oi dauz gau illunaren

Zokondo itzal gustijak.

Negu ankerrak il daun baratza

Berbixi udabafijak:

Euzkelefijaz berberau egin.

Gura dau Jel-alderdijak.

Ofetarako artu dituez

Asmo edefak ugari,

Baita lanian asi be azkar

Gudalburu ta gudari;

Usteik gitxiен dabenen baten

Euzkelerriko lubaki

Guzufezuak ausiko dautsez

Gure areyo deungari.

Ez bildur ixan; agertuko da

Pozezko eguzki deuna,

Argituteko geure egiazko

Ama'ren biotz illuna.

Nai ta nai ez biarko dabe

Ezagutu gure Ama,

Lenau lez bere buruen jaube

Azkenik bixiko dana.

Atsegin dagoz Bizkaya, Araba,

Gipuzkua ta Napafa;

Zubero eta Laburdi'ri be

Bidaldu dautse izpafa,

Berbiztu dala Euzkelerrija

Gure Abefi bakafa.

Aupa, mutillak! Gora Euzkadi!

Jainkua ta Lagi-Zafal-,

(*Euzkadi*, 1916-VII-12)

AZKENIAN BE ZEURIAZ

("Euzkeltzale-Bazkuna" -ri)

Ainbeste bidar esan dautzut, ba,

"Euzkeltzale-Bazkun" ofi,

Nire argazkiz ez baltzitzeko

"Euzko-Deya"-ren ingofi,

Enazalako duin ortarako;

Jakitun zengozan ori.

Zenbat oldozmen ete dabildaz,

Gautegun, juan-etofil

Zer esango dau ni nazaudanak?

Ta idazkun au irakufi?

Gomuta onek bigurtzen daustaz. .

Ene begijok iturri!

Alde batetik eskar dagitzut

Orren maite nozulako;

Baña argazki au itxi ba'zendu
 N ilt i k
 Ta barrenian idazkun auxe:
 "Kepa Jeltzale zalako
Geure Aita bat bere gogaldez,
 Iñok naimenik ba'dauko,
 Garbitokitik ainbat lasteren
 Atsedenera sartzeko",
 Ordnantxe bai argitzalte au
 Ixango yatan ederto!

(Euzko-Deya, 1916, 4 zenb.)

TXINDOR-ABESA *(Morgola'ko Artzaña"-ri)*

Txindor-abesak entzun eidozuz
 Napar-aldetik goiz bitan;
 Bizkai-koren bat bera ete zan
 Oldozmenetan zenbiltzan,
 Ta baldin ba'zan..., lo egiteko,
 Kayola opaltzen neutsan,
 Gero Vulkano'n efi erditik,
 Anboto ziar Muxrka'n,
 Txifistadaka esan egitzun
 Napafa'tik zer bafí zan.

Ufe-zidafez ornidua da
 Zure kayola bikaña;
 Bedar-odoldiz betia bafiz
 Nire kabitxu ziztrina;
 Zurian askoz dotoriago
 Bixiko nintzake, baña,
 Eskafik asko... Jakin eixu, ba,
 Zuk, "Morgola'ko Artzaña",
 Ni txindor gaxo au ez naizela
 Kayolarako egiña.

(Euzkadi, 1917-VII-9)

ZORIONAK *(Muxika'tik Deba'ra)*

Nire gela-leyora usotxu geznari
 Alai bat etofi da, eta diraust niri:
 "Entzun egixu, Kepa; ezautzen al zeban
 Boneta'tar Laurentzi deritxon bat Deba'n,
 Zintzo, jakintsu, azkar, ona baño obia,
 Biotzez maite dauna Euzko-abefia,
 Itzez eta egitez naiñoz ta edonun,
 Beti agertu dana egizko euzkeldun..

TA samiñez dauzana bota amaika malko
 E k t d k olan eiteztabelako?
 —Arako Laurentzi jaun
 Apaiz agurgafi
 Euzkeldun eredua?
 —Orixe berori.

Larogeta bost urte gaur beteko dira
 Ama laztanak eraon ebala ludira;
 Gaste zanetik gora bere zartzaraño»,
 Eztau besterik egin guztiei on baño;
 Goizparkia zabaldu, kistar txafak ondu,
 Al daun gustiña emón, eztxu bez kendu,

Agur, usotxu maite, ta eskafikasko,
 Neuk nai neban izpafa damostazulako;
 Ta esan Boneta'fi beren Deun-eguna
 Zorunak opalduaz ospatukogula.
 Baita, Jauna'k nai ba'dau, neu ta Kirikiño
 Bera ikustera jungs garala ondiño.

Lañorik ezta agiri, argi dauz goi ta be,
 Ipar-aixe bigunaz itxasua bare;
 Zugatzik-zugatz pozez abeska txorijak
 Laurentzi'ri egiten zorun-abestijk.

Orok, gaur, zure eguna ospatzten baclabe,
 Ni zelan egongo naz ezer esan gabe?

Zorunez oin ta gero
 Gure Goiko Aitak
 Bete zaizala nai dau
 Enbeita'tar Kepa'k.

(Euzkadi, 1917-VII-10)

ZORIONAK *(Muxika'tik Elorrio'ra)*

Egun senti aldian nintzala lo ta putz,
 Gentzari onenian arima ta gorputz,
 Nire gela inguruko durundi alayak
 Itxartu ta zabaldu daustaz begi bijak.
 Zer da, baña, entzuten dodan soñu otsa,
 Gelditu ezin ba'yat pozagaz bijotza?
 Leyora uaten naz, ta dakust ortze urdiña,
 Onek geitutene daula nire atsegina;
 Txori-abesak,, bafiz, eztau ke amairirik,
 Or dabiltz pozen pozaz zoratu biarrik.
 Zer jazoten ete da? diñot neurekauten,
 Ta ofa gotzon batek zer esaten dausten:
 "Ez al dakixu zer dan gaur ospatsoguna?

Zeure bijotz-erdiko jelkide laguna,
Elorrioko seme bijotz andiduna
Ama onak argira emoban eguna.
Jeltzalia dalako —bera dan ain ona—
Bultzaka bere eritik bidaldu ebena,
Esaten eutsoela gofotoz beterik:
Eztozu emen geyau sartuko ankarik.
Baña... gure Jainkuak emonik eskua,
Gixon ori egin dau zorionekua;
Ta, beren sorterrija maite dabelako,
Bertan erosi dituz etxe ta lur asko,
Berenturriean egir "Burdiñola" barri,
Ogija emoteko erritar danari.
Len ejtakfak oni botautsen arrija,
Baña beraunek eurai damotse ogiia.
Dalako abertzale on, euzko-eredu,
Bere jayotz-egun au ospatuten dogu."

Oraintxe, bai, oraintxe jausten naz
[kontuen,
Bakit noren eguna ospatzen dozuen;
Ori da neure lagun Ariño'tar Julen,
Jeltzalia zalako bota ebena len.
Zeukek gogoz ospatzen dozuen lez, neuk
[be,
Maita.sun osuagaz ospatu nai neuke.
Bestelan, zelan ixan Ariño'n laguna,
Ospatuko ezpaneu bere Deun-eguna?

Zeure emazte maitiaz, alaba ta seme,
Jaunak egingo al zau zorun oron jabe;
Emen ondo bixi, ta... gero zoriontsu,
Zeure aizkide onek auxe opa dautzu.

(Euzkadi, 1917-II-4)

GOiMUTAKIAK
(Lopez-Mendizabal'dar Ixaka'ri)

Bidani'n egin ziran
Euzko-jayetako
Gomutaki politak,
Zuk nerontzako
Bidalu zenduzanak,
Sasoiz ta ederto
Artu nitun, Ixaka,
Ta eskafik asko.

Opa dizkitzudaz, ba,
Osasun ta pake,
Zorijon ugariak....
Naigaberik ez bate,
Bixi befiz zerohek

Naiko dezun arte,
Beti lez, Euzkadi'ren
Seme laztan maite.

(Euzkadi, 1917-X-1)

GORA JEL ETA GURE MUTILLAK
(Txomin Epaltza'ri)

Pozaren pozez ezin egonda
Geldirik nire bijotza,
Gora-goraka urten biafik,
Onek darabilen otsa!
Emen narabil batik-bestera,
Emen narabil jo-bultza;
"Zuaz mendira, Kepa neuria,
Ta abestu Jel'en garaitza;
Esan Ama'ri, bifindn dogu
Zure areyo *arrotza*,
Kendurik berai eskuetatik
Zu ilteko eukan ayotza;
Ayotz berberaz emon dautsagu
Zeuri opautzun eyotza.
Jagi zaitez, ba... Gora Euzkadi!
Jel-areyua il da-ta.
Euzko-Gastedi agurgarrija
Daulako zeuri didarka,
Geure gurenda ospatuteko
Zuaz Barakaldo'rantza,
Baten lekuan... bi diralako:
Len Zaballa, oin Epaltaza.

(Euzkadi, 1918-II-3)

URKIOLA'N GAUR ZORTZI

Euzko-Gastedi Bilbao'kuak
Eta durangar jeltzale
Zintzuak, euren anai a.skogaz,
Urkiola'ra jo dabe
Deun Andoni'ri Otoitz eiteko,
Euzkadi'ri atsekabe
Orok kendurik, jafi dayantzat
Azke bere buru jabe.

Eguzkijaren izpirik etzan;
Ortze, mendi ta oyanak
Atzo goixian agertu zuan
Kopetilunak dan-danak;
Etziran, baña, gitxitu bape
Gure goirako joranak:

Igon gifian itxirik beyan
ADAR-JAI... eta yabanak.

Urkiola'ko zelayan giñan
Jelkide asko alkartu,
Bata bestia besarkaturik
Asmo ederra be artu;
Gerotxuago txadonan giñan
Jaupea entzuteu sartu:
Gure bijotzak suntu zirana
Eta goguak indartu.

Ai, ango soñu alayak eta
Ezti gozozko abestil
Gure Jauna'ren Igokundian
Euzko-ahenda-eresi,
Gotzon-aldeak jasten zirala
Ta txafen orok igeri.
Txadon-jai eder gurgafijaurik
Eztot entzun, ez ikusi.

Jaupa-eresi egillia zan
Mingolafa Josemaria,
Durangar abeslari aldarez
Bera zan txauneskindari,
Gustiz atsegin ihan yakela
Ortan aitze eben danari;
Ori dala-ta, zorun-agufak
Artu zituan ugari.

Txadonan egin ziran otoyak
Etziran ihan alpefik.
Lañorik etzan. . . , eguzkija bai
Argitasunez beterik.
Alaitu ziran gure gastiak;
Etzan entzuten besterik:
"Jainkua geugaz daukogu eta
Jolastu gaizan azkerik."

Ori dok, ori, gaste zintzuak,
Ori dok, ori, egija;
Goixian ilun eguan, baña
Gero. . . eguzki argija.
Ori dok, ori! Jainkua geugaz
Daukogun ezaugafija,
Garbitasunaz. . . azke jafiko
Dogula Euzkelefija.

Urkiola'ko zelayan etzan
Yabana antzeko nasterik;
Euzko-abesti, dantza ta jolas
Garbijak baño besterik.
Jel-aldez egun on bat igaro. . .
Etxera pozez beterik,

Gure gastiak eztarabillo
Goguan beste gauzarik.

(*Euzkadi*, 1918-VIII-25)

BELJIKA'KO ALBERTA
BAKALDUNARI

Ortzia dakust baltzez jantzija,
Lotsaz iñeska euzkija,
Ezaugafi da, bafiz, ostots
Ofuaren durundija:
Esan legike amufuz jagi
Dala geitztoki gustija.

Ai, ene ail Beljika, Beljika!
Otsuak dautzu aginka;
Zeure-zeuria zan artaldeko
Ardi edefak aneika
Ondatu dautzuz, txabola aurreko
Esi gustijak ausita.

Zertako dira egijuniak
Ta gixon-itz on argijak,
Nausijak noz-nai apurtzekotan
Txikijen eskubidiak?
Olan ihanik, alpefik dagoz
Gixon arteko legiak.

Lieje ta Loubaine efe dabez,
Ondatu bafiz Anberes,
Ama otzana zapaldu dabe,
Sendi gaxua negarrez. . .
Au ontzat daben uzkurtzaliak
Egiz deitu ete leikez?

Nor da, ba, Judas'en aizkidia?
Ukatzen dauna berbia.
Ezta ofentzat bide ofekik;
Indafa beren legia:
Diñodan onen ziñaldaria
Beljika errubagia.

"Ai, neure Ama biotzekua,
Atsekabez samindual
Ez bildur ihan. Orain arteko
Lanok ezpaira naikua
Zeu azkatzeko, ilgo da Alberto,
Au ba'da biafekua.

"Jungo naiz zeure aldez aurrenen
Eta beste oro ondoren.

Gurago dogu ziñopak lez il
Zatiturik an-or-emen,
Piztitzar ori geure Amatzat
Artuko dogun baño len."

Ba'neukaz millo bat egazkari
Eta sei millo gudari,
Gaur bidaldo du neuskioz pozik
Alberta bakaldunari,
Etsayak jaurli ta beren Ama
Azke dagijantzat jarri.

Beljika Jauna'k eztau aiztuko,
Bere aizkide dalako;
Eskijer nago jariko daula
Azke len baxen ederto;
Jeltzalioi au ospatukogu.
Gpra bakaldun Alberto!

{*Euzkadi*, 1918-X-26)

AINTZA BELJIKA GURGARRIARI! GORA ALBERTA BAKALDUNA!

Udabafijak bifinduko dau
Neguk dakefan ekatxa,
Ta azkatasundun bere eguzkiaz
Berbiztu zorun-baratzia.

Orduan, goyan, agertuko da
Uso txuri bat abeska:
"Aintza Beljika efi gurenai,
Abertzale onoi aintza,
Etsai deungia jaurti ta lortu
Dozubelako garaitza:
Oraintxe dator bake-pizkunde
Ta gorrotoen eyotza."

Abesti onek pozaren pozez
Ipiñi nau didarka:
"Aintza Beljika gurgufiar!

Gora bakaldun Álbertal

(*Euzkadi*, 1918-XI-16)

"EUZKADI"-RI AGURA (*Obeagotu zalako*)

Urte zafa juan zan,
etofi da bafija,
bafiztaurik baita be
gure izparringija.

Len be gustiz edertzat
irakurten genduan;
bafia txatxartxua zan
oraingo onen onduan,

Len zan mutiko zoli
on etorkizun-duna,
gaur gixon argi eder
aundi ta jakituna.

Augaitik biar dogu
euzkotar danok artu,
nai ba'dogu buruan
jakituria sartu.

Onek egingo gaituz
abertzale jakitun,
ta ikasiku etsayei
zer ta zelan erantzun.

"Euzkadi" egunero
irakurten eztauna, .
zelan ixan leiteke
egizko euzkelduna?

Euzkeldun ixan gaixan
biotz, gogo ta adin;
itzez abertzaliak,
egikerakaz bardin.

(*Euzkadi*, 1919-1-3)

GORA "BON"! (*Jose Maria Mateos, Bilbao'ko antzeleri hiufa*)

"Bon" azkar ofek gustiz egoki
Antzetu dozuz gixonj asko,
Baña eztozu antzetu iñor. . ,
Efenteria baixen on-ondo,
Elantxobe'ko andraren batzuk
Zerofen aurka jafi ei dira:
Baña ez nire betaufkuak
Artuta ikusten jafi ba'lira.

Gustiz ederto antzetu dozu
Lau mafakagaz bere ixatia:
Gixon kementsu zindo apala,
Gixon "biribil" abertzalia.
Bere arpegi ta bekokiko
Tximufak dabe oso ezagun,
Euzkadi'gaitik zenbat láztasun
Igaro dabentz gau eta egun,

Sur me luze ta begi zolijak
Darakuskue argi ta garbi,
Ufum-ufundik ezautzen daula
—Nok maite daben egiz Euzkadi.

Ispilu baten argi ikusten da
Aufian jartzen dan arpegija,
Baita Gorgoni'n arpegijan be
Bere barruko bijotz andija.

Gaur zorijonez Euzkelerrijan
Abertzale on asko da aurkitzen;
Baña Gorgoni geuria baño
Obiagorik eztot ezautzen.

Au irakurten daunian berai
Arpeya gofi jafiko yako,
Jeltzale andi dalarik baita
Gustiz apala bera dalako.

Apal-apala zarian legez
Arro-arrua baldin ba'zina,
Zeure ondotik iñe.s-iñeska
Ufin juango giñan antxiña.

Etxat atsegin iñoz-iñoz be
Gixonagaitik lar esaterik;
Azketsi, Gorgoni, eztodalako
Esan egija baño besterik.

Zorion-opaz agur dagitzut, "Bon" antzelari begikuofio.
Aufera beti! Ekin lanari!
Gora "Bon" jauna! Gora Euzkadi!

(Euzkadi, 1919-VII-25)

GORA BERMIO!
Doñua: Nik bai-dot gura legia,
Prantzisko'k baño obia.

Bermio nai dot golraldu
dalako euzko-eredu,
Gixon kementsu ta andra zintzuak
an dira azaldu;
zentzunik eztabe galdu,
naiz-ta odola zabaldzu...
Jel-areyuak ezetava be
ezin dauz zapaldu.

Bermio dala nagusi
orainguan da ikusi.
Txafez ez onez, zemaiz ez diruz.
nok bera erosia?
Merke saltzero aufeti,
Leoya bere ondoti...
Tutuz eperdi bota dituez
Bermio aldeti.

Merke'k lenguan tris-egin,
oinguau afapau arin;
Bermiotafak ei dauke errua...
Ofeek damotse min.
Bafiz ba'dator be bardin,
bialduko dabe arin...
Jeltzale andrai etxakelako
Brekeltxu atsegin.

Goraldu oitura onak,
ezetsi txafak diranak:
Jainko-eskarra jaritxiko dau
au egiten daunak.
Emakume ta gixonak,
Euzkadi'n aldez dan-danak,
Orobak jagi etsayen aurka...
Gora Euzkeldunak!

(Euzkadi, 1919-VII-13)

EUZKEL IXENA

Jose'ren ordez eutsan seme -zafenari
"Joseba" euzkel ixen egokija jafi;
"Imanol" bigafenari, oinguau "Andoni":
Euzkeldun orok jafai dagijogun oni.

Askok esan darua: "Ni euzkeldune
[naz]",
Eta euzkera itxirik, itz egin erderaz;
Umien ixenak be gaztelafen eraz...
Nora juango zara euzkeldun ofekaz?

Aleman bi alkafaz batzen diranian,
Itz-ein oi dabe beti doixtafen elian;
Aur-ixenak be bardin, sasoya danian;
Inglandarrak ingeles, Pantzesak berian.

Eta guk, euzkeldunok, geure Abefian,
Gauza orok geure elez egin biafian,
Jafaitu ba'dagigu afotzarenian,
Ludiko astoenak geu gara ufian.

Itxartu lo txafetik, eta gora jagi;
Ezautu Abefija, bere aldez jafi;
Euzkera beti geugaz naiñun erabilli,
Etsayen gain jarteko Jel-bidez Euzkadi.

(Euzkadi, 1920-II-5)

GORA EUZKERAi

Goiz eder alai dakuskunian
Eguzkijagaz ozkarbi,
Ixaten dira bixirik diran
Geyenentzako pozkarri;
Baña ondoren aixe denngiak
Ekatxa ba'dai ekarri,
Len alai-a!ai ziran bijotzak
Tamalez oi dira jafi.
Aaxe berberau jazoten yako
Euzkera maitaliari.

Euzkerea da euzkeldunentzat
Ozkarbiko eguzkija,
Geure gogua, geure bijotza,
Poz eta atsegin gustija;
Ekatx deungia, gure artera
Sartu dan erdelkerija.
Jaso daigun, ba, ekatx onen gain
Euzkera maitagafija.
Bestela, zelan esango dogu
Au dala Euzkelefija?

(*Euzkadi* 1921-VI-21)

EGIZKO BIOTZ-LOREAK (*Deba'ko "Tene"-ri*)

Udabafijak dagerskunian
Beren aurpegi alai argia,
Negu-lapufak biiloistu dauzan
Baso-baratzak poztutene dira.

Oneik dirautse: "Zuk Orrilean
Emon zeuskuzan janzld edefak,
Lotazilean kendu euskuzan
Zure areyo negu ankefak.

Udabafija, zu zaran ona,
Besteik ez lako aberats ori:
Soñeko bafi apañen ofek,
Bafiro bere, jantzi danori!"

Biotz andidun Udabarrijak
Janzteituz danok apain-apañik,
Gustijok alai jarten dirala
Pozet artiak artu eziñik.

Txorijak bere poztutene dira
Edertasun au bezikustian,
Poz au agertzen asten dirala
Txiroliroka ofi artiañi.

Baso-baratza orobat dago,
Edertasunez bete-beterik;
Udabafijak eztau ekafi
Edertasuna bafio besterik.

Udabafija ezkutatzen da . . .,
Eta or dator Udeazkena,
Arpei baltzian dagerskularik
Beren bafuko biotz zekena.

Nagusitara lagun arturik
Beragaz dakar ego-aixia,
Apur-apurka bellegitzeko
Zuri orlegi dagon gustia.

Azeri onek beren bafutik
Bidaltzen dabent aixe beroaz
Ofi ta lorak zrmeldu daustaz;
Bultzza-bultzaka ortik daroaz.

Zabaldu dira baztar orotan,
Ezkutau dira betiko danak;
Orain "zazkafi" bakafik dira
Len edertasun utsak ziranak.

Egizko biotz-loreak, baña,
Margo bardiñaz uda ta negu,
Beti mardulik agertzen dira,
Lora-mueta dabent eredu.

Maitasunezko putzak bultz einda,
Naiñun zabaltzen direalarik,
Biotz zindoak jafi oi dabez
Beti eurakin bixi gurarik.

Olako loraz ornidutako
Landaratzox bat baukogu Deba'n;
Goiko eskafaz jantzija zala
Antxiñatxutik ezautu geban.

Euzko-aixiak Euzkadi oro
Beren loreak zabaltzen dituz,
Zimeldu barik beti mardulik
Dagozalako atsegin yakuz.

Zein dan landara Goi-erkardunoi?
Zeintzuk zimeltzen eztiran lorak?
Landara ori da gure "Tene",
Euzko-biotzdu emakume bat.

Loreak dira onen idazki
Ta olerkirkik mamintsubenak,
Maitasuneko beren biotzen
Erdi-erditik urten direnak.

"Tene" zindua Jel-maitasunak
Olerkiginen ipini eban;
Idatzi eta zabaltzen be bai,
Nok ete daki zenbat direan?

Irakurleok bakigu, baña,
Egizko biotz-lorak dirala;
Augaitik danak batu bioguz
Eta "Txorta" bat ein beriala.

"Txorta" bikañik bikañena ta
Eder gozua euzkeldunentzat,
Nagikerijaz aizkide diran
Gixa-emien ikasbidetzat.

Au egiteko laguntasuna
Askok agindu ta emon dabe;
Baña euzkotar mordo galanta
Ezer ein barik dau ondiño be.

Ta nik dirautset olako gauzak,
Gero eiteko itxi bagarik,
Oraintxe bertan eitia baño
Eztaguala gauza obarik.

Euzko-endea bixirik dala
Nalñoz ta naiñun egertu dediñ
Aupa, mutillak! danok batera,
"rirra" gauzia esan ta egin.

(*Euzkadi*, 1921-X-23)

GORA EIBAR!

Zure biotza, Eibartafa, da
Euzkeldun biotz samufa;
Zure biotzaz Euzkel-Efian
Egin lezake zer-gura.
Domekan goyan jafi zenduzan
Zeure ixena ta onura.
Eskafik asko, ta artuizu neure
Zorun-opazko agufal

(*Euzkadi*, 1922-X-7)

MAITASUNAREN INDARRAK
(*Bilbao'ko omenaldiz*)

Maitasunaren indafak nau gaur
Toki ontara ekafi,
Anai-besarka bat emotera
Bilbo'n batu zarenori.
Gaur zortzi egun ixan ba'litzta,
Ezingo nintzan etofi;
Baña gaur askoz obeto nago
Eskafak Jaungoikua'ri.
Au batzar eder agurgafia,
Abefiaren pozgafi!
Batzar onixi deritxot euzko
Batasunan zimentafit.
Ondo etofi, anai maiteak,
Neure besarka danori.
Sabin-gogua geukin dogula
Danok bat eginda jafi,
Utzirik uskeriak,
Lagun egiñik alkafi,
Ilarteraño aldeztuteko
Jaun Goikua ta Euzkadi.

Josukisto'ren Berbizkundian
Abefi-berbizkundia;
Orobatasun-jai onek dakar,
Au poz-atsegina aundia!
Negu ondoren udea dator,
Illun ondoren argia,
Naibagearen ondoren poza,
Poza nekien saria:
Negu baltza da Euzkal-Efira
Sartu dan erdalkeria;
Abefi oro-batasuna da
Egizko udabafia:
Euzkadi gure Baratz kutuna,
Euzkera beren loria;
Lora maite au betiko il nairik
Etsayak alper ai dira;
Au ilgo daunik ez da sartuko
Iñundik Euzkal-Errira.
Prakak aldian da'dira,
Zainduko doguz geuriak diran
Euzkera ta Euzkal-Efia.

Euzko mendiak zutik, burutsik,
Begira beko ibafari,
Pozez santzoka dabiz Batzar au
Bilbo'n dogulako jafi,

Euzko-Aberri seme ta alabok
 Jakiñik alkaren barri,
 Nai dogulako euzkera jaso
 Ta azkatasuna ekarri;
 Gauza aundi eder jakingaifiak
 Asko idatzi ta irakufi,
 Jakintza oso zabaldu dedin
 Egiz uri ta basefi,
 Lantegi, ola, lugintza ta abar
 Antolaturik ugari,
 Gauza danakin orniduteko
 Jantzi bat egin Ama'ri,
 Au ein daipun, ta berez yatorku
 Geure azkatasun ori,
 Zntik, ba, danok! Lan egin daigun
 Azkatuteko Euzkadi!

Anayak gara Laburditafak,
 Zuberotar ta napafak,
 Anayak baita gipuzkoafak,
 Arabar ta bizkaitafak.
 Gusion Ama Enzkadi da-ta,
 Gu beren seme bakafak;
 Alpefik ezetz esango dabe
 Gure arerio txafak.
 Nik diñodan au egiztutzen dau
 Gaur emen ein dan Batzafak.
 Aupa! gora anai azkafak!!
 Mugak kendu ta jafi dezagun
 Aberri oso bakar bat.

(Euzkadi, 1923-IV-3)

"IZAR ARGIYA"
(Eleiz-otoitz Idaztiñoa)

Ixen onegaz argitaldu da
 Euzkel idazti bikáña,
 Belaustegi jaun euzkel idazle
 Argi-zintzuak egiña.
 Aundi ez txiki, bien erdiko,
 Azalez polit apaña;
 Osuan, baña, eder ongafi
 Beren barruko mamiña.
 Nik baño lenau irakufirik
 Jaupari eta giza lau,
 Jakutun askok goraldu dabe
 Euzkel idaztiñotxu au.
 Goralpen onei lar eretxian
 Iñok zalantzariak ba'dau,
 Ivakufi bei afetaz eta
 Orduan ziñestuko dau.

Euzkera garbi, txukun argia,
 Otoi-gai samur gozuak,
 Jakingai sakon ulert-evezak,
 On eragille askuak;
 Zerutar aixe ... garbitzallia
 Kentzeko gure lausuak,
 Gusti oneek dauz IZAR ARGIYA
 Euzkel idaztiñotxuak.
 Idazti aunek indartzen dituz
 Euzkerea ta uzkurtza,
 Euzkeldunari erakutsirik
 Kislar zintzoen bixitza,
 Pozez beterik iminten daula
 Irakurlien biotza.
 "Izar Argiya" erosia bei, ba,
 Nai daunak egizko poza.

(Euzkadi, 1928-VII-12)

EGIZKO UDAZALIAK
(Unzalu'tar on jaupariari)

Negu osoa baltz illuna da,
 Gogor ankefa negua,
 Dardar ikarez ipinten dauna
 Izadiaren gogua;
 Udeak oni emoutsan janzki
 Orlegi apain berua
 Kendurik, billos narru gorrijan
 Dollorki jarrí darua.

Udea, bafiz, oso bestera,
 Argi, alai ta biguna,
 Izadiagaz batera guri
 Poza emoten dauskuna.
 Udabafia berbizkundia,
 Zorion etorkizuna,
 Alde gustiei begiraturik
 Dana da edertasuna!

Gogo gayetan jafaitu daigun
 Udabafitik Udara,
 Negu txefena baztarturik or
 Jauna'k nai daben erara;
 Goi-Baratzako lore artian
 Beti . . . onetik obara,
 Eta egizko udazaliak
 Orduan ixango gara.

(Euzkadi, 1927-IV-17)

BIKOITZ BEGIKOA
(Afoside'tar Jon Mari ta Ugalde'tor
Miren'i, euren ezkontz-egunean)

Jonek:

—Sortaldetik datorren
Eguzki argiak,
Pozet zabaltzen dituz
Udako loriak.
Nere biotz au maite
Baten aurpegiak,
Biotzakin gogua
Eta begi biak,
Osuan daramazkit . . .
Mirentxu neriat!

Miren'ek:

—Zorioneko dira
Maite direan bi,
Egiz maite ba'dira
Biotzan bafendi;
Nere biotz au dabil
Uri, baso, mendi,
Beti nere maiteaz . . .
Nor dan maite ori?
Jon Mari begikua ...
Bere maitea ni!

Oleskariuk:

—Lore polit ederrak
Diran baratzian,
Atsegin ixaten da
Bertara eltzian.
Euzko-baratzia bitan
—Egimen utsian—
Sortutako bi lora,
Lorontzi batian
Jartiaz, asmatzen det
Poza biotzian.
Bañan zireanakin
Egiñik bikoitza,
Sorturik loretegi
Maitegafi utsa,
Ugaritzen bai-dala
Euzkeldun baratza!
Onen usain gozauak
Ipiñiko dautsa
Ama Euzkereari
Poz-pozet biotza.
Bikoitz bikain begiko,
Urtzi maitalari,
Goitar iruntz gozotan
Azitakuari,

Gotzonak etofirik
Jauna'ren geznari,
Damotsez goi-eskardun
Bezuzak ugari;
Zoruntsu izateko
Miren ta Jon Mari
Nik, egiz, dopaltuet
Orixo berori.

(*Euzkadi*, 1929-IV-13)

AGUR, "KIRIKIÑO"!
(*Eorts-egunez*)

Euzkeldun jayo zana,
Euzkeldun bixi zan,
Goiko bide zuzenez
Ludiko bixitzan,
Euzkeldun agerturik
Alde guztietan,
Euzkeldun Jainko-zale
Zintzoa benetan.

Mañari'n jayo zana
Il yaku Mañari'n,
Amaikatxu lan eder . . .
Egiñik Euzkadi'n!
Urtzi'ren Besoetan
Atsedendu dedin,
Bere aldez guztiok
Otoi zintzo egin.

Maitatzen zenduguzan
Ezin geiyauraño;
Jainkoak, baña, geiyau
Zenduzan guk baño:
Berak jaso zaizala
Zorun-aulkiraño.
Agur, ba, gero arte . . .
Agur, "Kirikiño"!!

(*Euzkadi*, 1929-II-6)

ZORIONAK
(*Asuero osalariari*)

Izafak baño gorago dago
Argi guztien argia,
Jakinurien Itur-burua
Izatez amai bagia.

Jtuii ofen emaya zuzen
Zure adimen argira
Jausi dalarik, buru ta biotz
Alkarturik jari dira
Eta sorturik maitasunekoz
Osalarri afigafial

Urtzi'k zeurekin jari nai dausku
Goi-goyan Euzkal-Efia:
Jainkua baita —zorunak zuri!—
Gaizoen adizkidia.

Euzkal-Erriaz batera,
Euzkaldun Osalarrial!

(*Euzkadi*, 1929-V-31)

"EUSKALTZALEAK" ETA EMAKUMEA

Jainkuak nai dau
itz ein daigula
guzti-guztiok
bakotxak beren izkeraz;
Doitxe'n doitxeraz
egiten dabe
len eta orain,

baita Pantze'n be pantzeraz;
Gaztela'n, bafiz,
erderaz beti,
beti erdevaz . . .

Guk zegaitik ez euzkeraz,
bardin gabeko
gure ele garbi
onek ezpadau
zer ikusirik bestegaz?

Euzkotar onok
biotz-biotzez
euzkera maite
daigula Jauna'k gura dau,
goi-maitasunez

berau indartzen
alegindurik

uda, negu, egun ta gau.
"Euskaltzaleak"

bazkun zintzoak

au lortuteko

asmo eder bat artu dau;
berau aufera

eruateko,

baña, guztion

laguntasuna biar dau.

Euskal-Efian
bai-doguz ba gaur
biotz oneko
ainbat euzkotar jaupari,
Gora euzkera!
didar egiten
alaitasunez
ibilten diranak safi.
Onek guztiok
Urtzi'ren aldez
etorkoira-ta,
eurok bestiak ekari
Euzkal-Efian
euzkera eta
Uzkurtza'n aldez
lagunduteko alkari.

Arimat,xua
galdu ezkerro,
eztau balio
ezertxu bere gorputzak.
Euzkera garbi
geuria barik
Euzkal-Efian
zer egin daike Uzkurtza'k?
Oldozmen onen
gogapenagaz
jaupari jaunoi
zer dirautzue biotzak?
Algutzidunak
gura dabena
ez dau egingo
zuetariko bakoitzak?

Ez dago emen
andi-txikirik,
zuri ez baltzik,
ez dago "politikarik";
biotz oneko
euzkotar orok
euzkeran aldez

egitia da bakafik.
Ez daigun iñok
o.stikopetu,
ezegaitik be,
Jaun-Goikoaren gurarik!
Euzkeltzaletu
gaitezan, bada,
guzti-guztiok
iñor be geratu barik.

Emakumiak
zori txafian
oben baltzagaz
illundu eban ludia.

zorioneko
Garbitasunaz
biurtu eutsan Argia.
Emakumiak
arrokerizko
erdalkeriaz
loitu daun Euzkal-Erria
Euzkereagaz
garbitu eta
zoriontzeako
biar da emakumia! . . .

(*Euzkadi*, 1930-VIII-19)

IZARO

Izaro ugartea,
Izaro, Izaro!
Laida'tik ur-ufian,
luzaro, luzaro,
itxasoen altzuan
azke ta gozaro,
iñioiz gogaitu barik
beti antxe dago.

Goyan zerua eta
beyan itxasoa,
onek damotsolarik
besarka gozoa;
bera da ugazaba,
bera gurasoa,
beti azke bixi dan
zorionekoa.

Urtiak igaro ta
urtiak igaro,
ez zaartu, ez gaztetu,
sen batian dago,
zirkifiik egin barik . . .
arau ez onago.
Gaurko gixonok baño
zerbait sendoago!

An dago gau ta egun
begira Laida'ri
baita udan Laida'ra
duazan danari:
bera da iaeolia,
bera ziñalda'i.
Nor zelan ibilten dan
itandu berari.

(*Euzkadi*, 1930-VIII-20)

Biotz aundidun olerkaria,
maitasun loraz bete-betia,
Otxandijo'ko seme gurena,
Afese geure maite-maitia.

Euzko-aixiak Euzkadi oro
zure loriak zabaldu dauskuz;
zimeldu barik, beti mardulik,
dagozalako at.segin yakuz.

Askok be askok goraldi dabez
zure almena, zure zentzuna;
nok, baña, ondo neurtu ete dau
zure biotzan aunditasuna!

Euzkelduna zan zure jayotza,
zure bizitza, zure eriotza;
euzko-eredu, aundi gurena,
omengafizko zure biotza.

Biotz orixe gogo garl3ijaz
otoika bego Donoki Goyan.
Euzkera lore jaungoikozkuak
Euzkadi geure Baratz-erdijan
zimeldu barik, ludia ludi,
beti mardulik, iraun dagijan.

(*Euzkadi*, 1930-IX-20)

ZIDAR-EZTEGU-EGUNIAN
(*Barrena, Polikarpa, ene adizkide on
maitiari*)

Eunkida-lauren ga.ste azkerik;
Buztafiz beste ainbeste:
Maitia, zure jaube nintzala
Gaur ogei eta bost urte.

Aldi luze au labur eretxiz
Igazi yaku gaur arte.
Jaunai eska fak beti euzkeldun
Egizko senar-emazte;
Sendi edefen aita eta ama,
Bijotzez gordin zar-gaste.

Ordu onian artu genduban
Guk biiok ezkon-buztafi,
Maite-maiterik eruateko
Lagun egiñik alkarri.

Bideko sasi-arnntza-miñak
Gozatuteko pozkarri,
Aingeru-lora polit-edieiak
Goitik . . . deuskubez ekarri:
Zorijoneko gara gu bijok,
Eskarrak Goiko Jauna'ri.
(*Euzkerea*, 1929, 33 ofi.

ETA JAUNGUAREN BESUETAN
IL ZAN
(*Kirikiño*: 1888-1929)

Bijotz andiko gudalburuba,
Zintzo be zintzo lanian,
Alde danetan beti kementsu
Jaraitu ondorenian,
Gaztelu sendoz inguraturik
Daguan erdi-unian
Algustidunak beskaturik
Jafí dau atsedenian.
Or dau ainbeste maite genduban
"Kirikiño"-ren gorpuá,
Aitaren seme zintznrik ba'zan
Zintzoeneratarikua,
Pantze,skatafen jantzi latzagaz
Deun baten irudikua.

II zarala-ta, zotinka dagoz
Zure aizkide gustiak.
Il zaria? . . . Lo zagoz. ba, ta!
Lo dagoz zure begijk!
Ilda gero be bixi-antzian
Zaukoz Jaun-Goiko andijk,
Zintzua ixaten ikasi davan
Zeugandik Euzkel-efijk.
Deunen bixitzta ein zendun-eta,
Erijotza be deunena;
Zeure bakezko lo gozua da
Ezaugafirik onena.
Aita-Goikuak neke-saritzat
Bemotzu sari gurena.
Zeure gomuta beti ixango da
Geugaz iraungo dabena.

NaibaEeturik gaukozun-afen
Zeu barik geratutiaik,
Poztutene gaitu zeurekin laster
Batuko garan ustiaik.
Artian zintzo bete daiguzan
Geure biarkun gustiak,
Egunen baten arfi-ein daiskun
Betiko zorun-euzkijak.

(*Euzkerea*, 1929, 28 of.)

IKASI DAIGUN
(*Iturraran, Gernika'ko geure jaupalburu agurgafiairi*)

pjfi ospetsu polit edefak
Ludijan ixan afen aneika,
Gustijetatik begikoen
Niretzako zeu zara, Gernika.

Efi polita, efi garbija,
Efi alaya, efi txukuna,
Lau aldetatik begiratuta
Zeru txiki bat dirudizuna.

Zeu zara egiz antziñetatik
Zuzentza-zelai jatofizkua,
Gure asaben Batzar-tokija,
Lagi zuzenen gorde-lekua.

Euzkoen txadon kutuna zara;
Zure ganga ta ortze urdiña,
Eguzki eta izar edefez
Gustiz apainki Urtzi'k egiña.

Zeure ormeak mendijk dira,
Zure arpillac dira zugatzak;
Zure ondija zelai orlegi,
Argija lora zuri-gofizkak.

Zure jaupari euzko-sendija,
Zure idaztija lagi zuzena;
Izki danetan irakurten da:
"Beti ta beti zuzentasuna".

Zure txauneskin bardin bagiak
Dira egizko euzko-txorijak;
Eta ez askok uste daben lez . . .
Mozolo besten lumaz jantzik.

Kistar-ikasti euzkerazkoen
Azterketa ta sariketia
Ospatuteko, egokiiena
Zara, Gernika maite-maitia.

Au dala-ta, gaur zeu autu zabez
"Juangoiko-Zale" Bazkunakuak,
Zeure aurrian aztertuteko
Mutiko eta neskatoxubak.

Gaurko umiok bijar gixadi
Egizkuarentzat oñafijak,
Kistar-bidetik autubak ixan
Dagiazantzat Euzkel-Efijk.

Eztago bide zuzenagorik
Kistar-ikasti bidia baño.

Maite daiguzan, Goi-maitasunez,
Uri, basei'i, baso, mendijkak,
Euzkera eta Euzkel-Erriko
Geure gauza on garbi gustijak.

Ikasi daigun Kistar bidia,
Ikasi ta ihan maite be maite,
Aita Goikuak laztan gurenaz
Besarkatuko gaituzan arte.

(*Euzkerea*, 1930, 429 or.)

ASTARLOA'REN MAITIA
(*"Enekue"* zintzuari; *Euskeltzaindiak*
Durango'ko iayetan saritua: 1921-X-4)

"Negu gofijan biloxik dagon
Zugatzak nai dau orilla;
Maitati batek bere maitia
Nai dau lagun ta ongilla.
Nire maitia Euzkerea da,
Beti nabil bere bila:
Nai dodalarik aldi orotan
Neurekin ihan dedilla.

"Neure maitia nundikua dan,
Noz ta nogandik sortua,
Jakin-nai onek damost aspaldi
Buru-austerik naikua.
Bakafik dakit dala antxiñako
Garbiienetarikua.
Euzkel-Errija baita beretzat
Jauna'k emoutsan lekua.

"Anboto'k bere oñetan daukoz
'Abadiño ta Mañari;
Onek altzuan pozez daukozan
Urijan jayo nintzan ni.
Uri euzkeldun alai begiko
Garbi jaungoikoti oni
Neure bijotza opaldu neutson
Txiki-txikija nintzandi.

"Uri kutunoi, arpeiz arpegia
begitzen neutzun lenago;
Baña sartu zan erdarkerija
Geruago ta geyago.

Eta ordutik, bira emonik,
Mendira begira nago.

"Mendi ganetik ikusten dira
Zugazti, landa, zelayak,
Basetxe zuri, baratza eder,
Efekak eta ibayak;
Mendijan dagoz eguzki argi
Ta aixe osasungafijak,
Euzko-bijotzak atsegintzeko
Iñun baño be obiak.

"Txorijak euren abes edefez
Baso ta mendi, goi ta be,
Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,
Ardi ta bildots baita be,
Euren afan ta txilin-soñuban
Orrua, irrintzi, bee ta bee,
Ludiian danik eresi-soñu
Edefena sortzen dabe.

"Iñora baño len agertzen da
Eguzkija be mendira;
Txori-abesti eztitsubenak
Mendijan entzuten dira:
Euzkera zafa mendijan dago
Jaungoikuari begira,
Bere efuki-zain noz biurtuko
Bafiro lengo tokira.

"Urijetatik bidaldu eben
Euzkerea basafira;
Uri ondoko basefitik be
Bultza-bultzaka mendira . . .
Beerantz jasteko lotsa, bildurrez;
Aspaldi antxe bixi da,
Eta ni emen gau eta egun
Neure maitiai begira.

"Udabarrijak bialtzen daun lez
Bultz-eginda negu baltza,
Zugatz biloxak ofiz jantzirik
Loraz anaindu baratza,
Erdalkerijak zikindu eben
Abefijaren bijotza
Garbitu eta loraz janzteko,
Noz elduko da lagunta? . . .

"Berialaxe usteltzen dan lez
Arima bako gorputza,
Euzkel-Efija be ilgo litzake
Euzkera ilgo ba'litta".

—Astarloa, ez bilcluiik ixan,
Etsayak alper dabilta . . .
Euzkeltzaliok garbitukogu
Zuk dirauskuzun bijotza.

Zure maitiai laguntzen zintzo
Eingo dogu alegiña,
Alde orotan agertu dedin
Indartsu, apain, liraña.
Aldi luzetan, beti arduraz,
Zutik ortxe zagoz, baña
Gaurtik jezarrita naiz etzunda,
Lo egin zein guraña.

(*Euzkerea*, 1929, 182, orr.)

ESKARRIKASKO
(L. Lugones'i erantzuna)

Eguna astean, lotsaturik or,
Eskutaurik gau iluna . . .
Izadi oro barrezka dago,
Dana da edertasuna:
Ortzea garden, euzkia diz-diz,
Ipar aixetxu biguna,
Txindofak pozik abestuteko
Berebiziko egunal

Ufe-arpegi dizdizariaz
Agertu dan eguzkiak
Argitu dituz len illun egon
Diran zokondo guztia.
Argi onexek darakustaz gaur
Amerika'ko anayak,
Agur-olerki edefaz neuri
Opaltzen dira ugariak.

Abestu gura neuke oraintxe
Samur ta maiteki oso;
Biotz-abes au entzun dagien
Ibar, aran, mendi, baso,
Uri, basefi, txiro ta aberats,
Nun-nai jior ta itxaso.
Ene anai maite ongileoi,
Agur! ta eskafik asko!

Nor dala, baña, egiz ezautzen
Dabena Euskal-Efia?
Nor Euzkadi'ko egimen-Iorak
Kutsau dituan erlia
Ta niri opa euren zumoaz
Ein dabent ezti-abia?

Amerikar bat, jakintsu goiar,
Lugones olerkaria.

Zu bai, Lugones, "Ufexinula",
Ta ni, bafiz, "Txindor" utsa;
Zu Argentina auruli zidartsu,
Ta ni baso txiki latza.
Baña gauza bat, Urtzi'k emonik,
Bai dor neuk be aberatasa:
Jaungoiko eta geidearentzat
Maitasunezko biotza.

Biotz auxe zuk egimen-Ioraz
Jantzirik daustazu jafi;
Biotz auxe nik dopaltzut bafiz
Lora ta guzti zerofi.
Artuidazu, ba, begikotasun
Ta maitasun ezaugafi,
Besarkaturik bizi gaitezan
Argentina ta Euzkadi.

(1923-XII-23)

EMAKUME-ABERTZALE BATZA'RÍ

Emakumei autarki-jartia dala-ta,
egunotan bai-dabil mar-marka galanta.
Erkal-zozolistuak artegatxu, bafiz,
intxerik bildurtuta . . . bafiketan dabiz,
España'n autarkidun andrak ez dirala,
au ori ta bestia . . . txor-txor, bala-bala.
Zeuen emakumiak ezpa-dira gauze,
guriakaitik, zetan zabilte min-luze?
Uri eta basefi, etxe ta baratz,
euzko-emakumiak beti bere antza:
lanian, jolasian, itzez ta egitez,
gure emakumak baño zintzoagorik ez.
Uzkurtzaliak, bafiz . . . eta Jeltzaliak? . . .
Neskato onak dira, ba, gure
[emakumiak.

Gure efietako andrazko gustiak
Aberats eta txiro, zar eta gastiak,
Batza ortan sarturik, lan egingo dabe
uri eta basefi, nagitasun bage,
Jeltzaletasunagaz Uzkurtza, Euzkera,
Euzkadi oro, alde batetik bestera,
erakutsiko dabe itzez ta egitez,
dana Jainkoa eta Lagi-Zafan maitez;
eta datozian auteskunde agunak,
nok garaituko dituz euzko-emakumak?

Geuriak ziñegotzi, geuriak aldunak . . .
Euzkadi'n agintzeko beti euzkeldunak.
Eskier daknsgu, ba, geure garaitzia,
zozolistuak be bai . . . or dau ba
[untzial . . .
Eral-zozolistuak augaitik asaie,
Guk barriz geure etxian . . . gurendari
[barre.

Otoi, ba, euzkotafak, danok otoi egin!
Deun Mikel beti geure aldez ixan
[dedin.

(Euzkadi, 1931-X-II)

MAITEARI
(Bareño'tar Juli, "Belu-Mendu'-ri)
Doña: Nik ba-dut maiteño bat . . .

Ibai-ertz Zubiaufe, basetxe-leyuan,
Uso zuri alai bat ikusi nayuan.
Ai, zein polit edefa! Zoratu minduan.
Ordutik ona beti yaukat neure goguan.

Maite yuat biotzez, maite yuat gogoz,
Neure begijok berandik alde eziñik
[dagoz;
Yakustak gau ta egun, nai-nun ta
[edonoz.
Zein poza bijok abitxu baten ba'gengoz.

Josu, Jainko-Semia Miren ta Joseba,
Maitatzen dodan ori emon eidazue, ba,
Bijon gain ezafirik zeuen onespena
Igaro daigun bixitza, laztan zorionduna.

Txori batek yamostak izpar alai gozo,
Entzunagaz batera poztu naula oso:
"Maite diran bijotz bi banan egozanak
Alkartu gura yozak Josu Gure Jaunak;
Juli ta Balerene, bein ta betiko,
Gaur bikoitzuko dozak alkar
[maitatzeko.
Egiz maite diranak pozez bixikoira,
Euren bijotz samufak iasorik goi-goira,
Zorun-itufijari eiten dautsela mun
Ur gozoz asetzeko nai-noz ta edonun.
Gaur bikoitz zoruntsuak, gurasoak
[gero,
Ta bein ixen ofegaz jaubetu ezkerro . . .
Zer esanik bez . . . euren gotzontxu
[kutunak
Ixango direala euzkel-ixendunak".

Txori onek diñona —ez emon, ez
[kendu—,
Oso-osorik nai deuat, . . . Agur,
["Belu-Mendu"]!
(Euzkadi, 1931-V-II)

OTSOAK
("Atarrene" zintzoari)
Doña: Nik maite nuen kutuna .

Otso taldiak or dira;
begira zaitez, begira!
Amufuz agin zofotzak,
jan nairik ardi, bildotsak;
artaldien ur-ur, bañan,
zain dago gure artzaña.

Artzañen txistu laffiak
txabolaratu ardiak.
"Otsoak txalpol aurrian!!" . . .
didafa entzun danielan,
jagirik Efi osoak
uxatu dituz otsoak . . .

Otsoak baso baltzara . . .
azeri zafak lexara . . .
Guk maite daigun Euzkera,
geure Asaben izkera.
Euzkadi eta Uzkurtza,
zeuentzat euzko-biotza!

(Euzkadi, 1931-X-IO)

"PATRIA VASCA"

Eldu da "Patria Vasca", eldu da
[nigana,
gane ta bafu eder, maitegafi dana:
aitz-afanua baxen ego zabalduna,
apaingarri dauzala edozenbat luma.
Jakintzadun buru ta maitasun biotzaz,
gaizkile zintzo baten antz andijk
[dakaz.

Jakin gura ba'dozu euzko edestija,
ondo ezagutzeko geure Abefija,
Sabin'en oldozmenak Abefi-gauzetan,
iakingafi diranak aldi gustietan,
langilleen arazuak, afaintza, lugintza,
irakaskintza taabar, edozenbat gauza,
"Patria Vasca"-n ondo, ziatz irakufi

eta jakingo dozu argi eta garbi,
Erti-lan edeiak be bai-daukaz ugari,
euzko gogua bixi dala ezaugarri.

Gelduta esango dabe ludi zabalian:
"cavernicola"-k lan au eiten
[dabenian .
zozolistuak euren basurdekin neste,
noz eingot euek beste onenbeste? .

Aldizkingi begiko, eder maitagarri,
egiz deitu leikio "Patria Vasca"-ri.
Zorun-agur zintzu onen egilleri;
eta, batez be, zeuri, ene Gallastegi,

(*Euzkadi*, 1932-II-17)

IKURRIN BARRIJA
(*Zornotza'ko emakumei*)

Zer dira nire pozak ta atsegin
[audijak,
Zer ikusten dabe gaur nire begijk?
Zapi gustiz eder bat ondo apainduta,
Niri ekar daustena Asaben gomuta!
Pozturik neure bijotz-gogo ta
[adiña,
Au da Zorrontza'n egin daben *Ikurriña*.
Berak dauko bertako ikurdi edeia,
tdatzirik Jaungua eta Lagi-Zarra;
B. Z., izki onek lorezturik ditu,
Zer esan gura daben efez lei aditu.
Zugatz deunan adafak, ezkur ta

[ofijak,
Bafuban artzen dabez izki eder biiak;
Bizkaitafak baturik zugatzan azpijan
Egiten ebezan lez lagiaiak Bizkayan,
Zorrontza Batzokija irudi batian
Gurari ofekaz dau ofi batviant;
Deun Ander'en gurutza edo ikurdija
Dauko gure Asaben gomutagafia,
Arrai gorri orlegi ta kurtze zurijak
Garbi erakusteitz Euzkadi'ren deyak
Geure Asabak berau oi eben lez maite
Euren bijotz gustijaz jayo ta il arte,
Geuk be maite daigula ezin geyaguan,
Afntzak estuntzakaz ezteyan evuan,
Bizkaya, Gipuzkoa, Araba ta Napar,
Zubero ta Laburdi, sei *anai* euzkntar,
Ama bnten semiak abendaz bardinak,
Seirak garian legez abendaz bardinak,

Lan daigun, ixtan gaizan Euzkadi'ren
[duñak,

Asi ezkerro gauza gustiak begira,
Pozaren pozaz begijk lausotuton dira,
Zornontza'ko alabak Jeltzaletasuna
Ezauturik zelan dan geure osasuna,
Asi dira lanian zintzo, gau ta egun:
Ofa euren sarija nun ikusten dogun!
Neskato zoli oneik pozile eiten dabez
Euron alegin danak Euzkadi'ren

[aldez;

Asaben edestijan irakurten danez,
Lekobide'n alabak egiten eben lez,
Euren semeai aizkorak zofozen
[eutzean,

Esanik: "Jun zaiteze, il edo garaitu;
Afotzik eztaitela lur onetan sartu.
Euzkadi ixtan daitela euzkotafentzako,
Eta ez iñoz bere afotzan menpeko".
Au ein ba'eben alaba Lekobide'renak,
Zornontza'n ikustoguz bardin nai
[dabenak.

Esango dau norbaitek: "Zeintzuk
[ete dira
Ain sutsu dabiltzanak euzko

[alderdira?"

Bakafilc dakidaz nik zortziren ixenak,
Itaunen indar aundiz jakin dodazenak:
Barandika Purtose, Tomase'n aiztea,
Abertzale zintzuak bata zein bestea;
Ugarte'tafak Lune, Liñe ta Gergore,
Jeltzale gustiz onak aiztek onek bere;
Augustiñe Ixar-zelai, Pertika'tar Miren,
Ixusi'tar Irene: zortzi aor nun diren!
Gustijak alkarturik maitasun batian,
Bi autu zitubezan zortziren artian;
Augustiñe zan bata ta bestea Liñe,
Diru batzen juteko neskatilek gañe.
Onek jun ziranian sarija eskatzen,
(Zetako zan esanik) ez eutsen

[ukatzen,
Ezauturik zelau zan gauza egokija
Emakumak eitia ikufin bafija.
Sari-emolle baita andra-gixon batzuk,
Ixn-abixenakaz eztakidaz nortzuk;
Baña iakin ez afen euren. abixenak,
Jel aldekuak dira ortan dabixenak.
Baita Solaguren'tar Pantzeske zolijak
Aztertu dautsez euren egipen gustijak.

Ia, ba, Zornontza'ko neskabillok
[zoli,
Edonozi ta nai-nun, goraldu Euzkadi!
Lelengo Jauna, maite beraz Lagi-Zafa,
Abestu itxarkundia ta goizeko ixafa;

[danetan.
Orduban mutillak be jarririk begira,
Pozafen, zeukana etofiko diva.
Zar, gaste, txiki ta andi, aberats nai
[txiro,
Ta neska ta mutillak alkartu ezkero,
Itxarturik daukogun lo-zofo txafetik,
Atarakogu *Ama* lokarri artetik.

Ta azke jafi ezkero Amatxu geuria,
Emon biarko dabe . . . bakotxai beria!
Ta bakotxai beria emon ezketiño,
Eztau zor-arturenik, danak kitu baño!

(*Euzkadi*, 1933-VI-14)

ABERTZALE-EREDUBA
(*Afospide'tar Jon, ene ndizkide on maitiari*)

Ezagutzen dot gixon zintzo bat,
[lazkafa baxen apala;
Urtiak dira beren bijotza ezagututene
[dotala,
Ezagututene dotala.

Arana-Goiri Sabin'en lagun, beren
[ikastolakua;
Lan egiteko nagitasunik iñoi ezautu
[bakua,
Iñoi ezautu bakua.

Euzko-ekandu, jantza ta kirol garbi
[gustijen zalia;
Mendigoxale bizkor, kementsu,
[Jel-azi-ereitzalia,
Jel-azi-ereitzalia.

Izlari eta olerkarija, bijotz aundiko
[gixona,
Abefijari seme onak lez zintzo lagundu
[dautsona,
Zintzo lagundu dautsona.

Jatofiz bera bizkaitafa da; itzez, egitez,
[leuzkeldun;
Amaren aldez beti kementsu agertu
[dana edonun,
Agevtu dana edonun.

Abertzalia gaur baldin ba'naz, neuk
[be berari zor dautsat,
Neuk be berari zor dautsat.

Len eta orain, abertzalia ezin
[geyagoragiño;
Bixixa lenau emongo dauna Jel ukatuko
[daun baño,
Jel ukatuko daun baño.

Zarata gitxi . . . ta lan askogaz, maitez
[laguntzen Amari,
Aldi orotan euzko-eredeu ikusten dan
[gixon ori . . .
Omengafizko semerik ba'da, ori da
[bat omengafi,
Ori da bat omengafi.

(*Euzkadi*, 1932-VII-24)

AGUR, "LIZARDI"!

Nora zuaz, Apife Joseba Mirena,
"Lizardi" olerkari, jeltzale gurena?
Utzirik zeure sendi maiterik-maitena.
Abefija ta lagun . . . bertan-bera dana?

Negar dagi tamalez zure alargunak,
Berakin baita zeuben gotzontxu kutunak.
Negar Euzkadi'k eta Jeltzale-lagunak,
Igesi dauskulako "Lizardi" ain onak!

"*Uda befi, uste ezik,
arki det basoan:
neskatxa da, ta urdiñez
jantzita ziyoan*".

Irudimen edebez beterik eguan
Olerkari bikaña . . . il yaku beinguan!
Olerkari ziñan, bai, egiz olerkari!
Olerkari kistarra, euzkeldun gurgafi.
Beti ziñan gauza-aundi, edefen egafi,
Gustijak opaltzeko Jel-maitez Amari.

Zure bijotza baratza bat zan,
Maitasun-loraz egiñan;
Zure gogua onoi menezko
Ixardun ortze urdiñan,
Jel-argiz argi egiten zeuskun
Euzko-eredu bikaña.

Urtzi'k deitura egaiz jun zara
Zorun-Egillagana.

Euzkadi'n bai-zan, geuk uste
Ibeintzat,
"Lizardi", zure biarra,
Euzkerak eta oitura onak
Artu dagijan indafa;
Goikua'k, baña, gauza gustijak
Dakus biar dan erara;
Eta gu Berak egiten daunaz
Gogaidetu biar gara.

Zure lofatzai jafaitu nayak
Jafi nau goirantz begira;
Zuk jafi dozun Jel-bide ziar
Argijak dagi ditzira.
Agur, "Lizardi"! Laister naiz
[eldu
Zu juan zeran Efira.
Maite geranok . . . Urtzi-Besotan
Or lazanduko al gara.

(*Euzkadi*, 1933-III-18)

OMENALDIA
(*Arnspide'tar Jon'i*)

Abertzaliok Afospide'kin
Zordun aurkitzen giñian;
Zor au zelanbait ordaindu gendun
Igazi dan igandian.
Maitaliari maitasunagaz
Erantzun yakon unian,
Maite ziranak maite-lokafiz
Betiko lotu zirian.

Aberijaren zorun osua
Gura dabenak aurkitu,
Ezker-eskuma diran etsayak
Garaitu biarko ditu;
Gurenda ori lortu nai daunak
Iñoi ein barik gogaitu . . .
Jel-bide ziar elbururaño
Afospide'ri jafaitu!

8*Euzkadi*, 1933-VII-15

ASTELARA'TAR ANDONI'RI

Euzko-Abenda zar gurenaren
[Batzar-tokiko Zugatza,
Zure kirijo ezilkofakin atonduriko
[kurutza . . .
Jel-maitasunez berton dalarik egillaren
[bijotza,
Maitagafi be maitagafi yat niganatu
[dan bezuza,
Niganatu dan bezuza.

Kurutza'z Josu'k edegi euskun egizko
[Zorun-Baratzaz:
Kurutza geuk be jafaitu daigun, lortu
[daiguntzat garaitza.
Astelafa'tar Andoni maite,
[Aberrijaren arotza . . .
Eskefikasko, ta ordez Urtzi'k bemoxu
[Goiko laguntza,
Bemoxu Goiko laguntza.

(*Euzkadi*, 1933-V-12)

IBARZABAL'GO GARBIÑE

Garbifie "Ibarzabal"-go
Alaba bakafa,
Euzko-emakumien
Eredu zeu zara.

Zeuk dakixuz ibilten
Zentzunaz burua,
Maitasunaz bijotza,
Zuzutzaz gogua.

Lan eta jolas beti
Zintzo ta garbirik . . .
Zugaz iñok eztau ein
Maketo-dantzarik.

Egijaren indafak
Maitasuna sortu;
Egizko maita.sunak
Zorijona lortu.

Zenbat eratara lan
Egin ete leike,
Egiz ixan ezkero
Jel-zoruna maite!

Urtzi'k jagon ba'zengiz
Euzko-Abefijan,

Emakumiak zeugan
Ikasi dagijanl
(*EuzkacU*, 1934-I-2I)

AfiOSPIDE'TAR ARANTZAZU'RI

Euzko-baratz maiteko
loretxu bikaña:
orren zoragarri, nok
egin zaituz baña?

Bilbao uri andijan
Bixi da Arantzazu,
baña euzkeraz gavbi
entzungo dautsazu.

Euzkeldun euzkeltzale
diran gurasuak,
euzkeldunduko dabez
euren ondokuak.

Eta olan egiten
eztaben gustijkak
alperrikuak dabez
guznra-atxakijkak.

(*Euzkadi*, 1934-IV-8)

MAITASUN-ITURI
(*Barrena'tar Polikarpa ta Azkue'tar Dunixa'ri*)

Naiz bide leun naiz aldatz,
Goiz, naiz afatsian . . .
Zuen burpillak beti,
Euzko-ardatzian.

Eta besarkatzian
Ain lagun maite bi,
Biotza biurtzen da
Maitasun-itufi.

(*Euzkadi*, 1935-VII-28)

ANE MIREN'I

Egiz maite dan maite kutunaz
Jaibetu nai dabenentzat,
Eragozpenak eztira ixaten
Bidietako arantzak;

Ane Miren'ek bere egipenez
Olan derflkusku beintzat.
Onen bidetik jafai daigun, ba,
Geuretariko bakoitzak,
Gurenda lortu dayan Euzkadi'n
Euzkereagaz Uzkurtzak.

(*Euzkadi*, 1935-VII-31)

IRUSTA'TAR EUSTAKI'RI
(*Ibahtri'ko Idazkari zan*)

Idazkarijklak, azkafak asko,
Bai-daukoz Euzko-Errrijak;
Langille zintzo, euzko-eredu,
Ez ixan baña gustijkak.

Irusta lako gaste langille,
Azkafa baxen zintzuak
Idazkaritzat daben Udala
Bai dala zoriontsua!

(*Euzkadi*, 1936-III-26)

ZORUN OSUA! . . .
(*Atxuña'tar Zoil jaupariari*)

Ludi zoruan zoro-egiñik
Ibilli dabil gizona,
Billa ta billa beti urduri . . .
Nun aurkituko zoruna.

Al-izatera alduko ba'litz
Gizon afoen almena,
Nun asetuko ete litzake
Bere naimenik gurena?

Ludi gustiko buruzagaitza
Zoruntzat autu ba'legi. . .
Esan al ete legisku egiz:
"Zorun osodun gaur naz ni?" •

Jatmgoiako eta geide-maitale
Zarian biotz gozoa . . .
Zuretzako bai egizko poza!
Zuretzat zorun osoa!

(1940-VI-14)

AMA LOYOLA'RI

Ama Loyola, Lekaime zintzo,
Zeanuri'ko alaba,

Gastetxutatik bere biotza
Jauna'ri opaldua da.
Cjste osuaz etoii yaku
Eibar'tik Urkiola'rak
Gorputz ta arima osasunduten,
Goiko naya oñan ba'da.

Urkiola'ko mendi gañeko
Eleizatzuan daguan
Andoni Deunak ama Loyola
Nai eban bere onduan,
Eta ama onek ezagutuvik
Zer dagon Deunen goguan,
Pozez beterik juaten yako
Berak nai daben orduan.

Biotz garbiak atsegin yakoz
Gure Andoni Deunari,
Ta ama Loyola'k txikitxutatik
Dauko biotz garbi ori:
Goi-maitasunez eztzi gozotan
Aingerutxuen irudi;
Augaitik egaz erungo dautso
Andoni'k Goiko Jauna'ri.

(1926-VII-17)

ZORIONAK (*Enbeita'tar Bingene'n*)

Gaurko egunez ludira ziñan,
Ene alaba kutuna;
Ordutik aldi luzetxua da
Ludijon daruazuna.
Baukozu zeure senar maiteaz
Irukoitz-sendi laztana:
Guraso, aizta, nebak, eta abar...
Gusti oneikin Goi-Jauna,
Izan bedi, ba, zorun-itufi
Orontzat gaurko eguna,
Gaurtik asita izan daiguntzat
Amai bageko zoruna.
Auxe da, ba, nik, danon ixenez,
Biotzez dopaltzudana.

(1938-IV-19)

ALTUBE'TAR SEBER'EK BERE MAITIARI

Baratza baten lora polit bat.
Ai, a zan ikusgafija!

Zuri-gofija, egimen utsa,
Saintsu, bardin bagia!
Une aretan bai-dakit zein zan
Neure biotzen jaubia.
Ordutik, ona maitatzen zaitut,
Ziñez dirautzut egija,
Uda ta negu bardin zakustan
Egizko neure lorial

Len bere maite, oin bere maite
Zaitut geyau ezinian.
Maitakor utsa zarian ori
Neuretzat jayo ziñian:
Neuk gura zaitut, zeuk gura nozu,
Zatoz ba ordu onian,
Ta jafi zaitez zeurea dozun
Neure bijotzan erdian,
Bijok alkarraz bixi gaitezan
Zoruntu Euzkal-Efian.

JEMEIN'EK BERE EMAZTIARI

Uda ta negu, goizero,
Naiz otz egonda, naiz bero,
Soiia jantzita txadonaranza
Astiro-astiro...
Ordu erdi bat an gero
Otoika egin ezkerro,
Neure maitiaz etxeratzen naz
Bakez ta pozkiro.

Gosaltzen yuat ederto,
Jauntxu askok baño obeto;
Gero lanera... ta andik ba-nator
Eguerdirako.
Neure maitiak orduko
Bazkaritxua polito
Gert eukiten yok, zindo, zoli ta
Garbiya dalako.

Jel-aidez ba'nok juaten,
Berau yatorkat laguntzen,
Neuk legez berak ofetantxe be
Ardura yok artzen.
Bijotzez nayok maitatzen,
Ni beraz pozez zoratzen...
Ni baño obeto bixi dan iñor
Etxuat ezautzen.

Daukat emazte maitia
Ekandu onez betia,
Egundo eztau ikasi zer dan
Txarto egitia.

Beren gurari gustia
Dok neu ondo eukitia;
Ori dala-ta daukagu beti
Zorun-bixitzia.

ENBEITA'TAR IMANOL'I
(Bere jayotz-uHeufenian)

GORA "IMANOL"

Gora "Imanol", gixon andijoi,
Agur Aznar-Zubigarail
Zeuk egipiñko lan aiñ sakonak
Dardar erain dautse danai.
Nor ete zan, ba, euren egille
Gustiek eben jakin nai;
Or ebiltzazan bape ziranok
Autuan beti ezta bai,
Ta lañopetik eguzkia lez
Argia gura dabenai,
Ora "Euzkadi"-n nun agertu dan
Aznar Imanol "Gudalgai".

Nik ba-nekijan nor zan "Gudalgai"
Idazten asi zaneti.
Ez esateko agindu eustan,
Ixillik euki dot beti:
Gaur azke nago. Au nire poza!
' Urten dau danen ganeti.
Ortze goiraño jasoko neuke
Zelan goraldu ba'nekil
Poz-agur bero zoruntuena
Artuxu neure aldeti.
Aupa, gora zeu, napar zintzuboil
Ez urten Jel'en bidetikl

Ogetamaika egun il onek
Gaur dagonilan azkena;
Ogeta zazpi urtedun zara
Ene semerik gazteena.

Maite-baratzan gotzon-loriak
Usain gozua inguru...
Zorun osodun nai zaituguz, ba,
Ikusi beti... aingeru,

(1940-VIII-31)

ZORUN-OPEA

(Imanol'i, bere 27'gn jayotz-urteurrenian)

Telatutik berako atsegíñak labur...
Tximistak baizen laster dagiskue agur.

Naiz ikan gaste gordin, naiz ikan zar naiz
[aur,
Pozez atzo ba'giñan... tamalez gara
[gaur

Izarez gañetiko atsegíñak, barriz,
Zorun-egaizkiñetan aldioro dabizl

Egiz dopaltzugu, ba, seme maite orri,
Urtzi'k egin zaizala Goi-egaizkindari.

(1940-VIII-31)

ZORIONAK

Efupiñ'en txitama
Bixenta guria,
Txita-efeskadatxu
Politen jaubia:

Txitak ondo azi ta
Senavai ondo esan,
Jainkuak goi-eskafez
Saritu zagizan,

Orain, gero ta beti
Zorion oso bat
Biotzez dopaltzue
Zeure gurasoak.

URTEBARRION
(Munitxa'tar Bingen apaizari)

Urtien Egillia jayo da Belen'en,
Urte-asiera gaur, urtebafi emen,

Algustidun Umiak geuretzat damosku.
Esker-egiñaz geuk be gurtu daigun Josu.

Josu'renak garala biotzez benetan,
Berak laztagoko gauz aldi gustietan.

Gaur asten dan urte au, zoruntu, zorun-
[tsu,
Zure maitale onek biotzez dopaltzu.

Ene txaunburu e
Urtzi'k bedi zeuo

neuskixu
[nai;
Au lortuteko, baña, ibi! zaitez ernai.

Esanaz izpar onak dirala guretzat,
Esku-mun dagitzue zeuen lagun Kepa'k.
(1941-I-1)

Dantza nasturik, bein be, ez egixu egin;
Goxetik etxeratu, aita poztu dedin.

JAYOTZ-URTEUftENEZ - (Bere seme Imanol'i)

Gaurko egunez, guraso-gelan,
Maitasunaren altzuan . . .
Mutiko gordin potolotxu bat
Billoxik agertu zuan.
Soñeko garbiz apain jantzirik
Zarialarik osuan . . .
Urtzi'k betiko ase bezagiz
Zorun-itufi gozuan.
(1941-Vm-31)

Aiten pozaz batera, poztuko da Josu,
Ta berak egingo zauz betiko zoruntu.

Jainko-legia zuzen gordetan ba'dozu,
Bizi-lagun ona be Berak emongotzu.

Arima garbi eta soin osasuntsuaz
Zorundun urte asko gaurtik dopaltzudaz.

(1942-VI-12)

EUSTASI ABA KARMELEDAÑARI (Aberritik Txile'ra belgundari juan zanian)

ZORIONAK (Arrospide'tar Miren Kuruzne Arantz- zu'ri, bere jayotz-urteurrenian)

Euzko-baratzan sortu ta jayo
Ziñan Aingeru-loria . . .
Beti mardulik usain gozodun
Urtzi'k zaindu ta gordia,

Onoimenezko lore bikañoi,
Guraso deunen inguru . . .
Zorun osodun nai zaituguz, ba,
Ikusi beti Aingeru.
(1942-V-3)

Zern-goyetan ixafik ez da, ez baratzetan
[lorarik,
Miren Karmele Zeruko Ama, Zu zaran
[baizen edefik.
Sortu ta jayo, bixi eta il zintzazan orban
[bagarik;
Algustidunak Bere Amatzat egiña zaria-
[larik,
Ezin leiteke beste bat ixan edefago, ez
[obarik.
Augaitik beti . . . zeure seme on zintzo
[bat ixan nai dot nik.

ENBEITA'TAR ITZIAR'I (Ene hiotzeko alaba maiteari, bere 24'gko. jayotz-urteurrenian)

Gaurko egunez ziñan ludira etofi,
Zu, ene biotzeko kutun maite ori.

Egiz biotz-biotzez zaitulako maite,
Aitak gaur zer dirautzun gogoratu zaite:

Odeyak odoi, lañuak laño, ostots, ekatz
[negargafi,
Lior ta itxaso, eten bagako triskantza bal-
[tzak ugari,
Txefen gustiak iges egiñik euren txalai
[gorijari,
Gixadi-buru egiñik emen dabiltzazala
[dirudi,
Algustidun Jaun Bakafak, baña, zuzentza
[osua dagi;
Nai daunian, ba, eraingo dautso Zorun-
[ezuzkiari argi . . .
Eta orduan ikusikogu Abefi-ortzia garbi.

Irur-ogeitan laurat nijua; urbil emaztea
[ere;
Geureak zazpi seme-alaba, illobatxoak sei
[lore.
Geure zerutar izkuntza, mintzo legunez,
[goxoki mintzatzen dire;
Euren otoitxo xamurren adi Josu zerutik
[begire...
Au ikustean zorun ustea sartzen zait
[biotz-erdire.

(1942-Vm)

ZUGATZ LANDARIA

Landaratxu bat eskatu zeustan
Ta damostazu zugatz aundiña,
Ezker-esknman dauzan adafak
Ofi orlegiz txukun jantzija.

Euzkelduna da
Goiko txorija,

Euzkelduna da
Beko txikija.

Euzkotar txoriz betia dago
Emon daustazun zugatz gustija.
Auxe da egiz neste bagako
Euzko-txorien abi-tokija.

Gusti augaitik eskefik asko,
Gure txaunbnru agurgaiija.

ITXI DOZUZ

Itxi dozuz, Agurne,
Zeure gurasuak,
Neba-afeba, senide,
Ludiko arazuak.

Ori nai ixan ba'dau
Gure Jaungoikuak,
Nai dot efe zaizala
Donokiko suak.

IPIUN ETA ABAR

Nainun ipuñak maite. Ludiko bazter gustietan ipuñak erabñi oi *dira*, bai umiai bai adiñekuai, zerbait garrantzi dana irakasteko; orrela elerti-sail gnstietan, orrela gizadiaren argi dan Irakaslarri guren Kisto'k. Beraz, euzkel errian be orrelaxe; geyago: Euzkelefia'k maite dau irakaspide au, Euzkelerría'k maite dauz ipuin, alegi, esakun zorrotz, izkirimirri ta idurild-zunak.

Gure oleskari andi Enbeita'k ba-eban euzko-goguaren barri; ondo be ba-ekian euzkeldunari zer yakon atsegin, zek zorakortzen dauan. Augaitik, bere olerki ta bertso-mordo artian ainbat ipuiñezko daurkiguz, bata baño bestia eder ta gatzozpinduaguak. Era efez ta txairuan jateko guria emoten dausku.

Sail au, nambahit, gastetatik yakon eder. Bere lenengo bertsuak Azkue jaunak garai atan (1902) sortu ta zuzentzen eban aldizkarian argitara emon ebazan. Eta oneitatik jatofenak, ipuñak doguz: *Bei zarrarenak, Karahiñeruen biximodu, Sakristauaren egikerak*, eta abar.

Bei zarraren bertsuak zazpi-zortzi aldiz argitalduak ihan dixa, gero be, or-emengo aldizkarietan. Enbeitar iru anayak, Kepa, Imanol ta Xanti'k, esne-batzeak dabezan buruko miñak dakarrez gogora, bertso zirtolarietan. Bei batzuk ba-dira otzan samafak, erasterakuan; baita beste batzuk uzkur, dardarati, egon-eziñak be. Edu ontako mafazten dausku Imanol'ek, Kepa'ri erantzunaz, ahapaldi po'lit onetan:

Matusalen baño be
zarrago dan beya,
trabes iminten yaustak
gaur neuri begia.
Askan ixanagaitik
naiko janaria,
atzeko ostikua
dauko dantzaria.

Bertso txukunez, pipermin jarlo, bixi-bixi egiñak ditu danak. Askoren artian, *Sasi-eskola* txit ariña; *Astua ta Erlia ta Matxalen-Kardu*, edozein arrotz-elertitan be, sail ofetan beintzat, burua tente erakutsiko leukienak; *Peru ta Mari sutonduan, Txomin eta Matxalen*, samur gozuak.

Sustefez dazau basefitafen bixitza, bera be ortan jarduna baitogu, eten bagarik. Negu ta uda, udabarri ta udazken, ba-dabe naikua lan; eguraldi

onez, batez be, erle antzera lan dagie. *Lugiñak pozik* deritxonian, lefo lillurakorrak damoskuz:

Burdi-ixintzia babil
Emen inguruan.
Zeñek zimaur geyago
Solora eruan . . .
Arbi-buru ederrak
Artzeko soluan,
Beyak alikaturik
Oneikaz neguan.

Jostun, osalari, politiku ta abar, izkirimiri ta ipuñez astindu izan dabez nainun. Gure Kepa'k be darda gañean darabiltz olakuak. Noberentzat betaufeko batzuk, eta beste batzuk urko lagunarentzat. Au, ostera, ixan ez gauzak egoki atontzeko bide arteza.

PUTZEZKO PELOTEA

Sabin, mutiko azkafa baxen apala, ikastolara dua, Ikastolea elexonduan dago-ta, pelota-lekua be bertan. Ikastolarako ondiñokafen goxa dalako, aldian eruan eban iru margodun putzezko peloteagaz pelotaka diñardu. Gogotsu ekin be! Beste mutiko batzuk be uferatu yakoz, eta peloteari adi-adi jafita, dirautsoe: "Nundik nora zuzendu dok pelota ori, mutil?" Eta Sabin azkafak, arpegi alayaz, darantzutse: "Pelota au aititak emon yaustak, eta ganera esan yeustak auxe dala euzko-pelotarik onena, ta beti onixegaz jolastuteko neu ta neure lagun on gustijak. Beraz, zeuok be, gura ixan ezkero, neugaz batera egin zeinkie." Sabin begikuak zirautsena pozik entzunda, iru mutikuak beren jolas-lagun egin ziran; baita "bik-biri" pelota jokaldi polita egin be.

Beste ikastola-mutillak, baña, Sabin'en putzezko peloteak margo txafa eukola ta abar esanaz, orduban ezeze, ganeko aldi luzetxuan beste pelota nafuzko batzukaz jolastuten ziran; batez be andiki usañeckoak Sabin'en pelotarik ikusi be ez eben egin gura ixaten, "Koxemari Arro"-n semia txafen zala. Sabin, baña, mutiko bizkofa zan-eta, geruago ta lagun geyago beraganatzten yakozan, eta azkenerako aldrarik andijena sabin-dafa ixatera eldu. Sabintxu'k, ganera, aititak irakatsita, iñun diran euzko-abestijak be bai-ekixan eta... abestijok beren lagun gustijak ikasten ebezan. Ikasi ez bakafik, abestu be bai, eta edonun abestu be; ta putzezko peloteaz, barriz, nun-gura jolastu. . .

Mutikoen artian aldرا bi sortu ziran: sabindarrak eta koxemaritarrak. Oneik afoputz andijak ziran-eta, bekaitzez beterik, bestieie nundik kalte

egingo ebiltzan: batez be, putzezko pelotea arapau, apurtu ta betiko ondatzia zan euren asmu nagusia. Sabindarrak, baña, geruago ta azartuagota kementsuago jarkiten yakezan, eta ezin eben gauza onik egin. Koxemaritarrak eriko endoreaganaño be juan ziran; Sabintxu ta bere aldrako gustijak euren putzezko pelotatzafagaz bazter gustijak zikinduten dabilzala esan eutsoen, eta iñori baketan be ez eutsela izten, eta mila ta bosteun guzur eta geyago asmau; pelotea kendu ta eurak pelotadunak ondo zigortu egixala be bai. Endoriak, baña, buruari erain batzuk eginda, zeozer oldoxtuta gero, erantzun eutsien bera ez duala olako biarrik egiten. Eta Koxe-Maritxu'k (au zan buru egiten ebana) jazo zana bere aitari edestu eutsonian, onek esan ei eban, eta indartsu esan be gero: "Neu alkate ba'nintxok, ofatiño. . . ! putzezko pelota orek eleukek denpora andirik aldra orretan egingo; eta aldra ori be neuk astinduko neuke!"

Ludiko gauzak olantxe dira-ta, andik; laster, lengo endoria kendu ta onen lekuaren "Koxemari Afo" markes imiñi eben efiko buru. Onen lengo zemayak erri gustijan zabal ziran, eta laster asi ziran putzezko pelotadunok lafi biarko ebela ta abar esaten. Koxemaritxu, bafiz, beren antzeko lagun batzukin nastian, beriala asi zan iñun diran txakurkerijak esan eta egiten. Bestiak, baña, adorerik galdu barik, euren joJas eta abar, bildufen kimixerik barik, geruago ta kementsuago jarraitzen eben. "Koxemari Afo, endore altsubak" ezin jasan eban jazoten zana: beren txinel eta enparau lagunak artuta, putzezko pelota kontu ori bein eta betiko amaituteko erabagi sendua artu eban. Asi zan, ba, ta gogor asi be, sabindafen aurka, jo batera ta jo bestera. Baña.., beti uts! Onei putzezko pelotea, nok afapau? Ezta. . . ! Olako arrapalada ostietan, abestu bai ederto! Azkenian, burutik eginda lez, amufuaren amufuz, esan eban Koxemari Afo'k: "Edo arrapau... edo enaz Koxemari ixango."

Gure mutikuak, zemai onek gorabera, bai-diñardue jolasian bizkor. Eta olako baten, euren pelotea esku artian erabillela, sartu yakien "Koxemari Afo", endore-makillea eskuan eta bere txinel eta abar lagun ebazaJa. Asten dira danak, putzezko pelotearekin ondoren. . . ! A zan fubolian jokatzia! Pase batera ta pase bestera, jo batak, "txut" bestiak, korne ta morne, igerri barik eldu ziran Pixka'ren andapara-oxin ertzeraño. Ta emen, egingiñean be, endorian anka bitartera zan putzezko pelotea. Orduantxe, seguru eukala uste eban une atantxe, joten dau atzeikara Imanoltxu'k ostiko-puntiaz!, eta an dua pelotea oxiñeko uretara. Eta Koxemari markesak, itxumustuan, oxiña be zelai zalakuan edo, pelotea afapau gura eban eta, uretara salto egin eta, zaust!. . . barrura. Igerijan jakin ba'leu be, gatxerdi; baña onetantxe be, ganorarik ez... Ango esturea! Ango gafasijak!. . . Txinel eta abar, gustijen artian, ito barik nekez atara eben munagenera. Osalari nagusija be ekafi eben; eta onek, ikusi-ikusi egin ondoren, esan eben: "Pronostico grave." Koxemaritafak, orduan, buruari berazkada batzuk eragiñaz, esan eben: "Ontxe onenak ein yok; au gor-

bera, endore bafija laster biarko da." Bitartian, Sabin-aldrakuak, ankarik busti barik, putzezko pelotea, eurekandu eben, eta oxiñaren goyaldeko montofetik, abots edefagaz, danak batera abestu eben: "Jagi, jagi." Eta gero:

Fubolian ederto
Ein dogu jokatu,
Danen goitik baña geu
Txapeldun geratu!

Koxemari markesa
Oxiñera sartu . . .
Putzezko pelotea
Ganian geuk artu.

Beti zarialako
Aioputz setatsu,
Barrabaskeri ori
Ondo jazo yatzu!

(*Euzkadi*, 1932-XII-24)

KEPA'K. — Komedi-tokia da
gure okollua;
beyak adarak dantzan
ta ik akullua.
Bi alditan or abil,
mutil kankallua,
e.snez bete ezinik
eure katillua.

IMANOL'EK. — Ni baño geyago dok
bei zar au indarrez,
ostikoka eiten yok,
ganera adarez;
esnerik ezin kendu,
ta eu ortik barrez. . .
Pazentzirik artzen gaur
etzeukoat efez!

KEPA'K. — Esnia zelan kendu
etxeko danontzat,
eskatzian euki dok
plana bestientzat;
orain, neure ustian,
palta dok euretzat.
Ori dok itxuria
mutil gastientzat!

IMANOL'EK. — Matusalen baño be
zafago dan beya,
trabes iminten yaustak
gaur neurri begia.
Askan ixanagaitik
naiko janaria,
atzeko ostikua
dauko dantzaria.

KEPA'K. — Bi alditan asi az
esnia batzian,
bietan kalillua
dok erdi utsian.
I baño abillaurik
ezpadok eltzian,
dantzan eingo yok ofek
okollu ertzian.

IMANOL'EK. — Argi-mutil on barik
postien onduan,
ator ikusilera
zer moduz naguan;

KEPA'K. — Esne kentzen asi az
afo eta mañez,
iñori burletako
uste ta alegiñez.
I aiz mutil abilla
bakafik mingañez,
bei zafen ostikuak
eraiteko iñes.

IMANOL'EK. — Bafiketia beintzat
ik bai-dok naikua.
Euk eratzi nai ba'dok,
emen yauk lekua;
eruan ezketiñio
efora eskua,
adafak dantzan dabiltz,
zoli ostikua.

KEPA'K. — Nun-nai erakusten dok
abillaren antza;
esnia batzen, bafiz,
aparteko jasa;
bizkor eta garbiro
neufia gorantza:
amak bai yaukak laster
pitxer aberatsa.

IMANOL'EK. — Seguruan auala
gaur edozer diñok;
baña "neuk eratzikot"
alan be eztiñok;
zikintzeko bildurrez
esku guri piñok,
euk adafa jo eta
lana bafiz iñok.

KEPA'K. — Mutilen piñezia
ofaitik audiñi dok
esnez janaritzeko
etxeko gustiok.
Ganezka jarri ditu
dirian ontziok. . .
Lar kendu barik, mutil,
apur bat itxiok!

IMANOL'EK. — Gastiak ezin leike
ezer zafarekin,
ernegau erain daustak
gaur eure koplakin.

Bai-nayuak katilu
ta pitxerrarekin;
or daukok, ba, lekua,
euk nai ba'dok ekin.

(*Xanti anai txikienak eskatzen*):

Lau bertsolari dagoz Jauri'ko etxien,
bat askan ta bi kortan, bestat eskatzien;
bi abillenak dabilitz esnia batzien,
Manu asarraten da golpe bakotxien:
koplak ugari, baña, pitxera utsien.
Esnezko aparirik eztau afatsien!

(*Ibaizabal*, 1903)

Geyenak dira eurak mofosko edefak,
Txanka-me, praka-nasai, sorbalda-beda-
[trak];
Zutunik ibilteko ez dira ain txafak,
Dotore ipinirik surpeko bixafak.

Artez daukie beti euren kontzentzia,
Ta ezer eztan lekuak eskua garbia;
Orren bixi-moduan ispillu argia,
Inok ikus eztayan ixaten nagia.

Arlo luziegira egin naz ni eldu,
Ofen bixi-naodua egiten azaldu;
Birtuterik egundo ez dabe zabaldu,
Ta geyau esan barik biar dot ixildu.

(*Ibaizabal*, 1902)

KARABIÑERUEN BIZIMODUA

Nai det berba gutxitau biar au amaitu,
Jenteak efezago ein dayan aditu:
Zer moduz egiten dan "eguna amaitu
Karabiñeruekin ondo begiratu.

Goizean jagi eta lenengoko lana
Ipintea soñean jantzi eder bana;
Gero soñekoari botaten yakona,
Jira bat eiñ eurakaz, amaitu zan dana.

Itxas-aldean bada portu-eskiñetan,
Osterantzean bafiz estaziñoetan;
Pizka bat geldi ba'dauz, laster pisetan;
Ofela bixi dira egun gustietan.

Etofiten danian portura ontzia,
A efekistaten dauko biar nagusia;
Baña emon ezkerro ixilik saria,
Libre itxiko dautse gauzari pasaia.

Ikusi ezketiño, bafiz, euzkaklunak,
Basefitik noizik-bein etorten diranak,
Eurai ipinten deutsez bekoki ilunak,
EZertako ez diran belafi-mozdunak.

Iñor ez dot ikusi belafi-motzdnak
Gogotik biafean ekiten dautsanik:
Nai-ta sabelerako ez euki zer-janik,
Ibilli gura dabe dotore, zutunik.

Biar-modu batean eztau ke paltarik;
—Oren artean ba-da emazte bakorik?—
Laster topauko dabe, ez artu bildufik
Mutil-zartuko dala karabiñerurik.

SAKRISTAUEN EGIKERAK

Adi-erazoteko neure gurariak,
Bide batez esango ditndaz egiai:
Sakristauak dirade kristiñau zoliak,
Entzungaifiak, bafiz, euren pikardiak.

Sakristauak dirade, beñipein geyenak,
Berera zelan ondo bixi dakienak;
Ziri-sartzallak, bafiz, dira andienak:
Au ipinten dau emen ondo dakienak.

Egun danetan dagoz sarturik eleizan,
Abadien aufean santu baten gisan;
Gero ikusi biar zer moduz dabilztan,
Zintzo asko orain arte beintzat ezta izan.

Orren artean dira txiki eta andiaiak,
Euren egikeretan aingeru argiai;
Galdu eptaizan iaunak edari larreiak,
Eukor artzien dabez ardure andiaiak.

Mezea egin baño len adierazo,
Jarten dabe ontzia beterikan oso,
Ta bafukoa zelan egoten dan gozo,
Safitan oi deutsie eperdia jaso,

Oin denpora zan baten eleiza batean,
Batzafa bik ein dabe alkarran artean;
Abadea etxetik dabent bitartean,
Ontziak garbitzeko diranak betean.

Adi-evazoko dot batek eiña zer dan;
Ardau zuri gozoa botillatik edan,

Ta beren uts-egiña zuzentzeko u.stean,
Trabestatu uragaz beya busti eban.

Ontzia trabestatu mayaren ganean,
Diño abade jaunak, ikus ebanean;
—Nok ari kendu deutso eukana aldean?
—Eztau, jauna, ikusten jausita or beyan?

Ufengo egunian bardin edanuste,
Egingo dabela arek beste orrenbeste;
Atrapetan dau bertan, asten yako auska,
Bellarrondua jari eutsan berotuta,

Asi ziran mezatan betiko antzean,
Baña eskapau eutsan evdiz-erdizenean;
Pelotaka ebilen bere eleizpean,
Abadeari gogait-eragin artean.

Per omnia sekula sekulorunean,
Ezeutsan entzun baten ez bigafenean;
Otseña bakafik zan eleiz-bafenean,
Arek erantzun eutsan irugafenean.

Otseñen erantzunak ba'deutso balio,
Amen esanda berak erantzuten dautso.
Zureak balio ta zureak balio,
Apaizen erantzunak bafe erain lekio.

Sakristauentzako eztai premiarik
Aparte ipinteko altara barririk;
Santu einda an jarteko zarrik ez gasterik,
Izan leiteke baña neuk eztot usterik.

Arlo luziepia nik egin dot artu,
Zefen batak bestea oi deust gogoratu;
Danak esanda iñor eztein asafatu,
Geyago esan barik bear dot amaitu.

{Ibaizabal, 1902)

ESKOLA-MAIXU AfIUA TA MUTIKO AZKAftAK

Maixu batek, bein, eskola umiei
Egin eutsen itzaldian,
Au esan eutsen: Espana zala
Ospetsuena ludian;
Amerika be menpetu eban
Indarrez beingo batian,
Espana'ko bandera jarriaz
Amerika'ko lurrian;

Ta Amerikarren gauzak ziranak
Bandera jafi artian,
Espanafenak izan zirean
Orditik auferantzian.
Eskola umiok poz-atseginez
Itzaldi au entzutian!

Ogei mutiko, azkar gerturik,
An doyaz afatsaldian.
Zapi andi bat eskegi dabe
Makilla baten ganian,
Makilla ori sartutene dabe
Maixuan baratz erdian;
Eta igalidun zugatz ganetan
Azkar asi be lanian,

y|u ikusirik maixu afuak
Dirautse asafe bizian;
"Lapurtzar ofeik, zer dabizue
Iñoren gauzak artzian?"
Mutillak, baña, danak batera,
Gogor erantzun eutsian;
'Txo, maixu oi! Aztu al yatzu
Zer esan dozun goixian?"
Ikurrin ori geuk jafi dogu,
Oin geu nausi baratzian!
Ta gu augaitik lapur ba'gara,
Orain gu garan antzian,
Zuk esandako Espanafak be
Lapufak ixan zirian.

LUGIÑENAK

Lugiña dabilela gogor soloetan,
Aberatsa luzerik oge epeletan;
Jateko eztaben lez artorik errrotan. . .
Alde andia dago biximodueta.

Lugiñak beti dabil basa edo autsa,
Eta sakela bafiz geyenian utsa.
Alangoen arpeya egon oi da motza:
Ufiñetik geyenak igafiten dautsa.

Di'u aitxi daukona safi dago estu,
Egirik be eztautsola iñok nai sinistu.
Izerdiz urtuta be, ezin gberastu,
Eta espoxera biar, eiten ba'dau ostu.

Gitxi baño euk.i ezfk etxian dirurik,
Gauza onari ezia zabaldu agorik.
Lanerako goxetik jagi biar ogetik,
Bafe eiteko eztauila gogo lafegirik.

Biak euki arren be, gaizki bixi leite,
Pozgarria dalako beste daneu aite.

Diruaren indafa ezin leike neurtu,
Baña etxera nekez egiten da lortu.
Ezak egin darua bixia laburtu,
Egiten dabelako edozek bildurtu.

Naiz ian Euzkadi'n ta naiz ian Un-
[gria'n,
Dirurik eztaukana iñoren mendian.
Ondo nekatu afert gau t'egun lanian,
Pozik ogi-zati bat ikusten danian.

Naiz ian Salamanka'n, naiz ian Biz-
[kaya'n,
Gixon ta emakume diruen eskian.
Upela beti estu oi dan lez ustayan,
Eztaukana beti dau ifioren azpian.

Ugazaba ba'dauko etxetik ufian,
Beti bixi biarko beren bildurrian;
Ondo nekatu afen biar gogofian,
Ondasun gitxi artu solo biafian.

Biak bfxi ba'dira, bariz, etxe baten,
Beti egon biar gauzak erara emoten.
Ardo pizka bat ba'dau nozik-bein edaten,
Ugazaba yuako atzetik jagoten.

Urdaletik bete ezik biar lez estia,
Motel ibiliko da zar nai gastia;
Arpeya argitzeo ona da uraz igurztia,
Azala argitzeo gauz onak irustia.

Lugiña nekatzen da ,solo ta basuan;
Aberatsa ibilten da dotore pausuan,
"Txokor" edefa daula biztuta mosuan,
"Txamarra" dotoria soin edo besuan.

Surik barik eiten dau diruak berotu,
Asko daukana iñoz ezin da geratu,
Gaxoren bat ein ezik beragana agertu,
Be ste gauzak eztau ba egiten bildurtu.

Gauza biren ufengo dirua nagusi,
Gauza politagorik neuk be eztot ikusi.
Gauza asko eiten dan lez diruaz erosi,
Ainbarik daguana ezta ondo bizi.

Pozgafi edefa da ludiko nagusi,
Ezer obarik iñoz nik eztot ikusi;

Poz,gafia galdurik jafi 'ezkeru estu,
Orduan bai etsaya eiten dala poztu.
Arek nai leukena da gure arimak ostu:
Eztautsagu emon biav ofenbeste gustu.

Amaiturera nua onenbesterekin,
Beti ixildu barik eztayodan ekin.
Konturatu nai ba'da neure itz-neurtuekin,
Merke jabetuko da txakur baterekin.

(1904)

NIK BASOLUZE'N IKUSIA

Ene mutillakl Nik Basoluzen
Ikusi dodan lakorik...!
Lau milla erle alkarraz dantzan
Alaitasunez beterik.
Ta kurebio-aldra andi batek,
Arein dantzakaz pozturik,
Irautsen; "Danok dantzau gaitezan
Alkarraz maite-maiterik."
Eta erliak erantzun eutsen:
"—EZ esan orrelakorik,
Eztogulako ezetarako
Biar alper-endakorik,"

Alpefa lagun etxok
Gura erliak be.... .
Gure neskatzok be au
Egin biar leuke.
Euron eskuau eske
Motzik... ba-yatorke,
Erantzun: "I lakorik...
Etxuat nai bape."

{Euzko-Deya, 1916)

GURE TXOMIN

Aspaldiko gure Txomin
etofi dok etxera,
guraso ta nebafebak
Gabonez ikevtzera.
Bixigu bi ta lebatza
gabon-mutil antzera,
ijuika ta ikotika
sartu dok eskatzera.

Eztok baña gure Txomin
eskutsian etorri;
aitarentzat ekarri dauz
lau libra tabakorri,
amarentzat gozo-opillak,
jantzi politak guri.
Aupa, gora gure Txomin!
Aupa, ori dok ori!

Apaldu ta gero egin
doguz egitekuak:
aita ta ama dantzan diva,
baita enparaukuak.
Ai, an ziran soñu, abes
eta billintxikuak!
Zoraturik daukoz gure
Txomin aspaldikuak!

(*Euzko-Deya*, 1917, 24 zenb.,

UMEZURTZA

Onen txiki ta enaz geyago,
Ez, eskolara bigurtuko.
Ai, au tamala! ezin bigurtu,
Ene amatxu il dalako.
Onen txatxar ta geratzen naz ez
Arako ta ez onako.
Ez eskolarik, ez amarik be,
Biyetatik umezurtz nago.

Manu txikiren suteira jun naz
Ikasteko efementari,
Auspuai erain, maillubaz tik-tak,
Emen nabil estu ta larri.
Letra bat eztot ezagututenean,
Nago baztefen lotsagafi.
Urdalla, bafiz, kufun ta kofon...
Ta soñeko loya ugari.

Zorijoneko semiak dira
Ama onaz bixi diranak;
Ai, baña niri betiko agur
Egin eustan ama laztanak!
Ain maite neban ikastolea,
Ikaspide ta lagun onak,
Ene amatxu galduitiagaz
Batera galdu dodaz danak.
(*Euzko-Deya*, 1917, 28 zenb.)

SASI-ESKOLA

AMAK. — Ene seme gaiztotxuak,
aita yagok ona,
zein biar egin dozuen
jakin daunik onal
Baztafen lotsagafiok,
or basorik baso,
sasi-eskola eginda
ibil zare atzo.

PKRU'K. — Orain gayagozak onak,
ene anai Pakun!
A, zelako txibit-otsa
atarako dauskun!

PAKUN'EK. — Txibit-otsa diñok, Peru?
Ez bakafik ori.
Atal-danboliñok be...
joko dauskuz guri.

PEEU TA

PAKUN'EK. — Gaurko jaya ospatzeko,
gure aita Praisku'k
Txakafo'ren zortzikoa
eragingo yausukuk.
Txilibitu-soñuetan
arturik zartie,
a ixangok nagi barik...
dantzan eraitie!

Jaunafen, ez egin bein be
sasi-eskolarik.
Bixi etaizezen gero
tamalez beterik.
Eskolara zoli-zoli
juan egunero,
euzkotar on jakintsuak
ixateko gero.

(*Euzko-Deya*, 1917, 21 zenb.)

NIKASI TA MIREN (*Senar-emaztiak*)

NIKASI'K. — Istera nua, Miren,
danai bertan-bera,
eta txin-billa nua
Kalifornia'ra.

Ez olakorik! Berton
atonduko gara.
Lursagar ta babaurrun,
arto eta gari
soloetan ereingo
ditugu ugari;
eurotan artukogu
naikua janari,
ta agur egin betiko
Kalifornia'ri.

{Euzko-Deya, 1916, 10 zenb.)

NIKASI'K.—Gerua ta txafago
guaz urteoro:
sakela utsik eta
burua lar bero.
Ta oin olan ba'gabiltz,
zelan bixi gero,
Kalifornia'ra barik
geratu ezker?

MIREN'EK.—Osasuna baukogu
lan eiteko drai-drai,
gosia kenduteko
arto pizkat be bai;
eta zuk igestiaz
andra ta umiai
negar eragiterik
Jauna'k eztaLLa nai.

NIKASI'K.—Josu, Miren, Joseba!
Josu anei bidar!
Etzendun, emaztia,
ori esan biar,
Ainbat gixon eder
eztira, ba, juaten
emaztia ta umiak
nik lez euki afen?

MIREN'EK.—Juango dira, baña..
nik nai ez ikusi
bixi-alargun neure
bururik itxusí;
Jel-aldez umetxuok
dagiguzan asi.
Euzkadi'n zeugaz bixi
gura dot, Nikasi.
Amari baño aitarri
umiak lotsie
askoz obetuago
artuten dautsie.
Ta zeure efuz Jel-bide,
sendi ta etxie,

ASTUA TA ERLIA
(Jazorikua)

Biztoki biko basefi-etxe tellatu zabaldun
[baten
Jazo da baña jazotekua erle ta astuagaz
[aurten.
Jazokun asko entzuten dira, baña ez
[olako asko;
Olerkitxu bat egin nai dautsot, egi-egija
[dalako.

Basefietan oi diran lez, ba,
Egazti baita aberiak;
Ganera, bafiz, zetan esan bez,
Maite bakotxak beriak.
Alantxe eukezan batak astua
Eta bestiak erliak,
Bitzubok ondo artzebezala
Arduraz euren jaubiak.

Erlauntz-onduan astua lotu
Eban lokafi senduaz;
Au, bafiz, bizkor agin-otsian
Eukan jateko goguaz.
Olako baten joten dau gogor
Erlauntza beren buruaz. . .
Tupuz-eperdi etxe ta gusti
Erle gustijak or duaz.

Bilin-bolaka jausi zanian
Lurrera erle-marrua,
Biztanle barik laster lotu zan
Etxetxu onen bafua.
Uste bakotan egin beban be
Astuana zan efua,
Baña gaxuai berari bere
Konpondu eutsen nafua.

Aufe ta atzetik, gane ta azpitik
Erliaik eldu eutsian. . .
Amaika ezten zofotz sartu zan
Gaxo aren gorputzian!
Ai, ango pufust, ango afantzak
Negargaflzkuak ziranol
Il artegiño putzitu eben
Zaragi baten antzian.

Eztenak sartu eutsezanian
Gorputz gustijan astuia,
Asi zan larri, jausi ta Jagi,
Arrantzaz dei ta dei danai;
Burpilla lez be bai azkenian
Eten artegiño, ai!... ail!...
Il zan gaxua; baña zapaldu
Ebazan erliak be bai.

Asto-jaubialk eskatzen eutson
Erledunari astua;
Erle-jabiak bafiz erliak,
Ofa zelako autua!
Asi zirian auzian gogor
Baña eiñ be bai naikua.
Dantzaldi ori kostau ei yake
Bakotxai *amaseikua*.

(*Euzko-Deya*, 1916, 13-14 zenb.)

MATXALEN-KARDU

Matxalen-Kardu'k asto ganian
Bilbo'ra bosteun afautze
Daruazala, Erletxe'tako
Mutil koskofak dirautse;

—Matxalen-Kardu, Matxalen-Kardu,
Zer daruazu astuan?
—Zera yaruat... asto-korotzak
Zubek joteko lepuan.

"Añaniioen atso zorgiña"
Esanda, danak afika,
Artzen dautsoe asto zar ori
Aufetik arin-arinka.

Alako baten zapalduten dau
Kurebijoen etxie;
Oneik asafez lau aldetatik
Astuai eltzun dautsie.

Ene mutillak! zer zuan ango
Putz, afantza ta dantzie!
Agur, Matxalen, zure astua...
Ta afautzak Bilbo'n saltzie!

(*Euzko-Deya*, 1916, 16 zenb.)

KUKU'AKENAK

Kuku entzun nebala
gaur ogei egun;
baso, baratzak legez,
afapau nindun
txiro ta illun,
ofirik ez lorarik
etzala iñun.

Kukua ixan afen
txori ain zufa,
udabafija zaintzen
gustiz zugurra,
aurten guzuza
dala esan legike
beren aguifa.

Aurten etofi yaku
iñozko goixen,
eztafi edefenaz,
asko ni baxen
alai ta gixen,
baña eztakit lanok
zelan dabixen.

Ni baño askoz zafau
bai-da kukua,
nire aitita baño
lenagokua,
ez ain kokua,
aurten egin dau baña
egitekua.

Usterik orain zala
bai udabafia,
neguan etor dala
oin dau igafi!
Oin dago lafi
loran ordez txingofa
daukala ugari.

Uda-jantzi txairuaz
eldu yakuan,
usterik eguraldi
txar danak juan
ziralakuan;
orain estalgi billa
dabil auzuan.

Kukua, zetan eztok
abes egiten,
lotsaz or egon barik

egun argiten,
txingor-euriten?
Ortako obe dok juan
udabarriten.

Kukuak ustekoban
lenau bezela
negua ta udia
bardin dauzela;
baña bai zera!
Aldatu dira beste
gauzen antzera.

Len Marti-Andra Mariz
elten zaneko
zugatzak oritz janzten
ziran ederto;
oin Jofaleko
azken-aldian baño
askoz obeto.

Gau ta eguna dagoz
lenauko antzez,
euren gora-beratan
orain be artez,
besterik bapez;
enparaukuak goibe
andijkak daukez.

(*Euzkadi*, 1915-IV-13)

GARILA TA GARI-JOTIAK

Gengozan noz etorko
ete zan Garilla,
aspaldi berai deika
etori dedilla. . .
Eldu da gustiz eder.
Ai, au dok mutilla! . .
Jo, garbitu, eyo ta
egiñik opila,
poztuteko tamalez
daguan urdala.

Jaungoikuak gura-ta,
au eguraldije!
Ipar-aixetxugaz
eguzki argije,
Autsak galdu eztaiskun
geuri eztafije,
napar-ardautxu ona
ekafi, Marije;

eta, ez biklur ixe,
jokogu garijel

Etzerik geyenetan
gogoz ekin dautse.
Ai, emengo aupadak! . .
Eta emengo autse,
ixerdiz uyoldurik
goi ta be gorputze:
galtsuari garija
kendu biar butse,
baserritarrak artu
daroe neke utse.

La vida más tranquila
basefitafena;
para ser tmo fuerte
biafa onena,
Au da uritar askok
esan oi dabena,
Baña, orraitik, eurak
etxatozak ona,
jakiñafen biafa
dala osasuna,

Ogi, ardau, igali,
eta ortubari,
okela ta enparau
jan eta edari,
lugiñok damotseguz
uritar danari;
gomutauko ba'lebe
zer dan biar ori,
nbeto begituko
leuskigue guri,

(*Euzkadi*, 1916-VII-30)

LUGIÑAK POZIK

Aurten bauku gariten!,
Edefa ta ugari,
Gitxienez ixe da
Bateko amabi,
Begiratu ezkerro,
Bafiz, artotzari,
Itxaso lez urdin
Baltz eta orlegi,
Lugiñak pozen pozaz
. Dantzan egin legi,

Soloetan artzeko
Arto eta gari,
Lur-sagar, indaba ta
Enparau janari.
Aurten bauku, mutillak!
Eskaralc Jauna'ri,
Zegaz poz emon geure
Mutikotxuari.

Galonduak lantzeko
Aiñ egonda giro.
Autsetan jarri doguz
Astiro-astiro,
Mutiltxuak itaurren
Doguzala txairio,
"Goratuago, Txuri. I
Apala, berago. .!"
Oin be emen lengo sena
Galdu barik dago.

Burdi-irrintzia babil
Emen inguruan,
Zeñek simaur geyago
solora eruan...
Arbi-buru edefak
Artzeko soluan,
Beyak alikaturik
Oneikaz neguan,
Esne edefa (jateko)
Nai dogun orduan;
Txin-truke saltzeko be,
Nai daunari eruan.
Eztarabilgu beste
Gauzarik gognan.

(*Euzkadi*, 1916-VIII-20)

PRAISKU TA TXINDOiftA

*Doñua: Uso polita errazu
nurat juaten zira zu.*

PHAISKU'K. — Txindofa, esan zadak ik
"Tene" zein dan bai al dakik?

TXINDORRAK. — Bai, ba-zekiat ondotxo
[ere;
Gezufak balio eztik,
Uraxen bai uxotxo polita,
Iñun ba'zeok pollitikl

Idazkitxo bat utzi zidan-ta,
Bertan irakufi nuan
Uxo pollit ori bixi dala
D... B... A... ibai onduan.

Ezker aldetik ibaya,
Eskubitikan mendia,
Aufe aldean txadon eder bat,
An dago Miren Garbia.
"Tene"-k oni otoitz eiten dio:
"Gaizkatu Euzkelefia".

Margoz dek txuri-goHa,
Apal, on, pare gabia;
Gogo ta biotz jeltzale utsa,
Euzkeldun olerkaria.
Kayola gertu daukanarentzat,
Uraxen bai dek txorial

(*Euzkadi*, 1917-I-20)

PERU TA MIREN SUTONDUAN

MIRENEK. — Ene Peru maitia,
Au dala bai lofal:
Edufa ta txingofa...
Au negu gogofal
Odeyak baltzak... dagoz;
Ostotsak be ofa,
Beren astrapalakaz
Dantzan dabil lurra.

PERU'K. — Etzaitez ikeratu,
Ene emazte Miren;
Bakigu ofek zelan
Ixaten oi diren;
Sasoyan sasoikua
Beti da onduen,
Udan beruak eta
Edufak neguen.

MIKEN'EK. — Ikusten dan gustija
Lau ikaratan dau,
Ta etzara bildurtzen
Ori baño geyau?
Eten bako ekiña
Dago egun ta gau:
Galduak gara olan
Jafaituten ba'dau.

PER'UK. — Etzaitez, emaztia,
Lafegi estutu,
Emen daukogulako
Epel ta eskutu.
Ortzea argituko dau,
Edufok be urtu;
Bitartian ein daigun
Jaungoikua gurtu.

MIREN'EK. — Naiz-ta ekin gautegun
Edufa egiten,
Zuri eztautzu ezek
Zirkiñik eraiten.
Eztakitz olakua
Zelan ijan leiken;
Zure katxaza orek
Nauko irikiten.

PERU'K. — Otza kentzeko bauku
Mukufe naikua;
Aberientzat, bafiz,
Bedar igertua;
Zezin, urdai, lukainka,
Kaxan labartua . . .
Zeren bildur zara, ba,
Ene andratxua?

(*Euzkadi*, 1917-II-1)

UGALDE 'TAR EUKENI ETA KEPA

EUKENI'K. — Kepa, gaur befi onak
Dituk gurian,
Alabatxo befi bat
Eguberdian,
Zori onian,
Jayo dala esaten
Etofi nian.

KEPA'K. — Len dituk lau seme ta
Oin alabia,
Pozik ago, Eukeni,
Adizkidia.

EUKENI'K. — Ori egia,
Jaunak ba-zekian bai
Nere befia.

KEPA'K. — Besoetan nortzuri
Emoten dautsak?

EUKENI'K. — Autu dizkigu, ba,
Euzkeldun utsak,

Baita izentzat
Euzkeraz . . . "Elene".

KEPA'K. — Ondo deritxat.

EUKENI'K. — Enbeita'tar Jagoba,
Abertzalia,
Ta Uribe Paskale,
Neskatilia,
Ezin obia,
"Elene" jasotzeko
Etorko dia.

KEPA'K. — Erabagi ofegaz
Asko poztzen nok;
Erakutsi edefa
Ofaz emon dok.
Guk euzkeldunok
Olantxerik ein biar
Gendukek danok.

(*Euzkadi*, 1917-II-12)

USO GAXUA

Euzko "Txalai"-rik
edefenian,
azke-azkerik,
alai bixi zan usua,
eragozpenen
apufik barik
aixe zabalan
jolasten zala naikua,
Lapurtzar batzuk
gau ilunian,
anka ta ego
gogor loturik gaxua,
erun eben, ta
gaur basamortu
itxel batian
da beren bixi-lekua.

Lapurtzar arek
uso zurja
ostu ebela
urte asko da igaro.
Gaur bera dagon
toki baltzera
oñez juteko
gustiz bide txafa dago;
aldapa latza,
sasi-sastrakaz

bete-beterik,
gorago eta txarrago.
Bertan uso-zain
azeri zar bi,
erailteko gert,
azke itxi baño lenago.

Euzko mendijak
zutik, burutsik,
artega dagoz,
begira beko ibafai . . .
Afuak beeria,
durundija da . . .
Aldapan gora,
ez al dozue igon nai?
Uso zuririk
maitekofena,
efukafirik
efukofena bere bai,
aldapa goyan
burdin-arizko
kayolan dago,
erosta baten, ail ail ai!

Durundi ori
entzun daunian,
didar egin dau
euzko-gastedi zintzoak:
"Bixixa al dauko
gure "Txalai"-tik
lapurtzar arek
beñola ostarikoak?"
Olan ihanik,
artu korañak,
ebai daiguzan
sasi zori txafeakoak:
azeri bijak
zeporaturik,
kayola apurtu,
egaz ein dayan Usoak.

Igafi dozu,
irakurlia,
zein dan Usoa,
ta zeintzuk diran azeri?
Uste dot bayetz;
bata España,
bestia antze,
Uso zurija Euzkadi;
erdalkeri ta
pantzekerria
lotsagafijak,
bideko sastraka ori;
korain zorrotzak

Jeltzaletasun,
ta euzkereaz
egizko Euzko-Gasledi.

Gora Gastedi
gurgarri ori!
Ebai sasijok,

su-emon, erre, auts-egin!

Au ikusirik

Uso zurijk,

itxopen onez,

artu dagian atsegin.

Antziña zan lez,

azke-azkerik,

pozez beterik,

abesten ibilli dedin.

Euzkelefija

euzkeldunentzat:

onen ganetik

Jauna bakarrik . . . Euzkadi'n.

(*Euzkadi*, 1919-III-6)

ENTZUN, "KIRIKIÑO"!

Ze gixon modu da or
"El hombre Excentrico"?

Arpei zofotz sur-luze,

Ala motz sur bako?

Baukat ba gogua nik

Orike ezautzeko,

Bijar-etzi Bilbo'rantz

Juten naizeneko.

EUZKADI'gaz urtxuan
Bixi zaran lez zu,
Nor ta zelakua dan
Jakin dagikezu;
Ta neurri, ixil-ixilik,
Esaten baustazu,
Ara, milla mesede
Egingo daustazu.

Jakitun jarri naizu,
Eta nik beingoko
Txaka-txaka juanda,
Iñok baño obeto
Neuganatuko neukez
Bosteun lauerleko . . .
Elitxakidazak, ba,
Txarto etorriko!

Ni espetxe baruan
Sartzeko gurariz,
Ta ondo letorkidaz
Olakorik balitz,
Emazte ta umiak
Alikatzeko ogiz.

Bakizu au zegaitik
Esaten dautzudan?
Euzko-batzar bat ein zan
Muxika'n lenguain,
Ta bertan *takigrafo*
Zoli bat eguna
Nire bertsuak sartzen
Bere kuadernuan.

Bat artu dau goguan
Bestiak aztute,
Bakarroi bialtzeko
Pizkat orraztute,
. Jakitun egon daiten
"Liga Piperpote".
Ofen bizkofa zanik
Ezkenduan uste.

(*Takigrafuaren kuadernotik artuta*)

"Lengo gau baten ames ein neban.
A zuan amesetia!
Jakin bat gomutau yakon
Sarijeta bat jartia:
Nok edertoen margotzen eban
España'ren ixatia.
Batek beinguan antzeztu eban:
Bei bat nabar ta luzia.
Euzkadi'n jafi eutson mustufa
Ta Madrid' en efapia:
Emen jan da jan, ta an safasa-safa
Erasten esne gustia . . .
Euzko-gastiak, bere aufian,
Gert apurtzeko askia;
Argi ta garbi agertzebal
Jakinaren ustia.
Ori dala-ta, egile oni
Emoutson sari nausia".

(*Euzkadi* 1919-III-25)

*Doñua: Nik bai dut gura legia
Prantzisko'k bañon obia.*

Guda-santzuak ov dira . . .
Urten, mutilak, zelaira.
Euzkadi-aurka ezker-eskuma
Oro bat ein dira.
Yabanak Euzkelefi'ral
Euzko-mutilak nun dira?
Sartu baxen len jaurti; ez egon
Atzera begira.

Eztou nai piperpoterik,
Ez utsik ta ez beterik,
Euzko-eredu zintzo zolijak
Nai doguz bakafrk;
Agertu bai-dai besterik,
Eztauke ona sartzerik.
Onak yauzak, ba, gure gastiok . . .
Izteko olantxerik.

Gastedijaren bijotza
Euzko-abertzale utza.
Onen aufian zetarako da
Etsayen ayotza?
Euzkadi'ri erijotza
Afapau bai-dai. . . surpekuori
Ofatzuko dautsa.

Karia'z Malparda, Merke,
Madri'ra, *sokorro!-eske*,
Liga-Krutziaz . . . ihan ei dira
Oin dala aste bete.
An bayetz esan ei dautse,
Emen emongo ba'lentse . . .
Esku txafetan etxabilk ofen
Liga piperpote.

Eztau Madrid' en grxonik,
Bixer baltz ez zuridunik,
Liga-kuari botua emon
Eraingo dauskunik.
Efijak diño zutunik:
"Eztok egingo gauzonik;
Eskubidia daukadan lez,
Apurtuko aut nik".

Onez ba'dator, onian. . .
Txafez da'dator, txafian . . .
Zelan datofen alantxe jafi
Etsayen aufian.
Ez bildur ihan arian.

Jakin bei gu nor garian . ,
Jel-areyuak eztau lekurik
Euzko-aberrijan.

(*Euzkaeli*, 1919-V-18)

Ofeik nai-ta-ez, azke ixango da
Euzkotarren Aberrija.

(*Euzhadi*, 1919-IX-11)

NORTZUBENTZAKO?

Nortzubentzako ein ete ziran
Euzkadi'ko espetxiak,
Lixun-sundezko gelatzar illum,
Burnizko leyo ta atiak?
Lapufentzako? Eraillentzako?
Ez, ene anai maitiak.
Ofelaikuak azke dakuskuz,
Espian Jel-zin̄oziak,

Edozer esan naiz egin afen,
Jel-areyuak azkerik;
Ta jeltzaliak "Gora Euzkadi"!
Esanagaitile bakafik,
Espian sartu ta bertan euki
Efuki apur bagarik,
Ementxe baño ezta jazoten
Au lako lotsagafirik.

Naiz-ta jafaitu gure etsai deungak
Nai-noz ta nai-nun didarka,
"Viva que viva bolcheviquismo!"
Revoluciōn socialista!"
"Abajo clero!" ta entzunik be . . .
Konserba, integro, mellista,
Katolikuak diñoe; "Itxi,
Jel-areyuak dira-ta".

Aitzu al yake gixaxuofei
Arako "cria cuervos"?
Esango neuskioe, bada, nik
Neure urtxuban ba'legoz:
"Gertau zaiteze, gertau . . . bestelan
Beloñ noz urtengo dagoz,
Eurak gixendu dabezan jaunai
Begijak kentzeko gogoz".

Erijotzeak erjotzea zor,
Kisto'ren erabagija;
Bide txafetik dabiltzazanai
Elduko yake aldiña.
Gora Isusi eta enparau,
Euzko-sendi gurgafia!
Alper etsayen gure kaltezk
Zemai ta zitalkerija.

EGIZKO LUGIÑARI

Euzkadi gure baratz
arantzaz betian,
gau ta egun lanian
ekatxen artian
Jel-azija ereiten
ainbeste urtian,
iafaitu zan lugina . . . (G. B.)
sarturik lurpiān
orra ixil-ixilik,
baztartxu batian.

Sasi ta bedar txafez
ito biafian,
ikusirik baratz au
ain zori txafian,
garbitzen gau ta egun
guretzat onian
jafaitu zan lugina
sarturik lurpiāu,
orra ixil-ixilik,
haztartxu batian.

Bere gogo ta bijotz
Jauna'gaz batian
josirik eukozala
Euzkadi maitian,
baratzai edefena
au ixtan daitian,
iafaitu zan lugina
sarturik lurpiān,
ofa ixil-ixilik,
baztartxu batian.
Euzkadi gure baratz
arantzaz betian.

Zure Jel-
azijk
emon ditu sustrayak . . .
Bere igali ederraz
gertau dogu ben-benaz
zeuretzat,
lugina,
ustai loraz egiña.

onenaK
aurten jayo diranak;
"Euzko-Deya" poz utza,
eta "Euzkel-Laguntza"
zeuretzat,
lugiña,
ustai loraz egiña.

Zorijon-
opea,
agur, lugin maitial
"Euzkeltzale-Bazkuna"-k
eta beren lagunak
zeuretzat,
lugiña,
Ustai loraz egiña.

Zure Jel-
azijk
emon ditu sustrayakl

(*Euzkadi*, 1919-XI-4)

BETAUREKOAK

Bakotxak bere maillan gustiok
Daukaguz geure akatzak,
Baratz onetan sartzen dirala
Txiroak eta aberatsak.
Zelan dakuskuz geurian lorak
Ta besteenetan arantzak?
Betaurrekoak doguzalako
Zuritxuak eta baltzak.

Zuritxuokin begiraturik
Ikusten doguz geuriak,
Eta baltzakaz begiratuta
Bestien gauza gustiak,
Naste andi bat sortzen dabela
Bardin ez begiratzak.
Auxe dala-ta, yatorkuz gero
Izugarrizko nastiak.

Urko laguna egiz maitatzen
Euki daigun arduria,
Goi-arauz bardin erabilirik
"Zeuria" eta "neuria".
Au eiñ ezkerro, baretuko da
Jainkoaren asafia,
Ta beriala bialdu be bai
Lufak biar daun euria.

Zu obendi, neu donia.
Auxe bai dala Doibatz aurkako
Guzur ontasun dongia.
Uzkurtz ixenez "jauntxu" egifiik
Txiroen eskubidia
Galtzen dabixan "fariseoak"
"Pueblo" ta lagunak dia . . .

Guztontzako lege bardiña
Eiñ euskun Jainko altsuak,
Lege au zuzen bete biafa
Dabe goiko zein bekuak.
Argi dago, ba: Nai ba'dogu ihan
Egizko katolikuak,
Danontzat bardin bioguzala
Koma'ko "Betaufekuak".

(*Euzkadi*, 1926-VIII-29)

UDAZKENA TA BASERITARAK

Uda edefa, uda pozkofa,
Indargetuaz bai-dua,
Au zapaldurik onen leukan
Jarteko pozik negua.
Gomuta onek tamaldu oi dau
Basefitafen gogua;
Baña ofaitik, gertau bagarik,
Nekez arrapau darua.

Sendi osuak alkarren leyan
Zefnek ira geyua ebai,
Eguna baño len junda dabitz
Ijuika, pozkiro, alai.
Bete nai dabez sabai ta korta,
Zelayan metak eiñ be bai,
Gaztelu onek eutsi dagion
Etofiko dan neguai.

Andra ta gfzon, ne.ska ta mutil,
Idi, bei ta burdiak,
Or dabiz danak kuvtzieta
Ekarten azpigafiak.
Etxe onduan egin dituez
Meta ikaragafiak,
Itxumustuan artu ez daizan
Aurtengo negu gofiak.

Girgil arran ta txilin-otsian,
Egal gustiai begira:
"Aurrera, Txuri!", "Aida, TxorduaV",
Eltzen da Praisku raendira.

Burkadiagaz Maipa ta biak
Pozkiro biurtzen dira.
Ai, onelako euzko-eredu
Beste gustiak ba'lira!

Etxera sartzen direaneko
Kortan bei ta txal orruaz;
Ixilduteko janariakaz
Maipa ta Praisku an duaz.
Praisku'k esnia batzen daun arte
Ontzi garbire arduraz,
Maipa'k talo bero ederrak
Apaltzoko eiñ daruaz.

Seme-alaba kutuntxuekin
Maiteki kontu-kontari,
Danaak batera "bake santuan"
Egiten dabe afari.
Afal ondoan, beti gauero,
Agurtxa Miren Deunari.
Gero lotara, biyamonan be
Gogoz eltzeko lanari.

Udea bua, negua bator . . .
Argi ondoren illuna.
Zer da, euzkotar anai maitiok,
Guk egin biar doguna?
Danok bat-egin, gogoak biztu,
Zabaldu argitasuna,
Ikusi dayan ludi gustiak
Jauna'k gutzat emouskuna.

(*EuzkacU*, 1930-X-29)

LUPETZARTIAN EZ SAHTU EGORIK

Udabafiko
euri edefen
ondorenian,
eguzki dizdizariak
zoragafizko
janzki edefezez
aberasturik
jarten dauz baso, zelayak.

Euzki argiak
ortzi garbitik
osasunezko
aixe bigunaz nastian
bialtzen dauskun
laztan gozuaz
iminten gaitu
poz-atsegina erdian.

Baso, zelayak,
baratzta ta abar
aurkitzen diraz
aberasturik ganezka;
txoriak, bafiz,
pozaren pozez
zugaztietan
zoraturik lez abeska.

Euri gozoen
ezkotasunak,
agur egiñik,
igazi dautso lurrai;
euzkiak, baña,
gogaitu barik
ekin ta ekin
dafaitso beren lanari.

Eguzkiaren
beroen beroz
kiskaldurik, or
baztafak ondatu dira;
il ziran lengo
poz-atsegiañak;
orain bakafik
negafa dator begira.

Efi guztia
kiskaltzen dago,
ito biarrik,
au zoritxafen gogofa!
Zegaitik, baña? . . .
Urtzi obenak
asafatu dau . . .
Au obenaren zigofa.

Efi onentzat
azaro eske
otoika dago
aingerutxu bat mendiyan,
egafiz ito
baño lenago
ase dedintzat
ura bialdu dagiyan.

Alguztidunak
aintzat arturik
mendi ganeko
Gotzon maitien otoya,
Laño zuri bat
sortu dau eta
efi gaxoen
gañian zabaltzen doya.

Beingo batian

euzko abenda

k

beren eguzkiari
aurpegia suzkoa;
eta jausten da,
egafi oro
asetuteko,
azaro egiazkoa.

izan dayantza
egizko zorun osoa.

(*Euzkadi*, 1930-VIII-3)

Miragafizko
laño zuriyan
danen gelgafi
egaz ibil dan usoak . . .
efi gaxo oni
lortu nai dautso
nekaldiaren
ondoren zorun oso bat.

Zerutar uso
zoragafiak
ikertu ditu
emengo uso taldia,
baita esan be:
"Jarraitu neuri,
goirantz jasorik
ego, bijotz ta begiak".

Zori onaren
zale dira-ta,
poz-pozik duaz
Goitafen jarrai bekuak.
Askotxu, baña . . .
zoritxafeko
lupetzartian
dagozalako loituak,
Goitafen jafai
bestiak legez
egaz eiteko
eztabelz gauza eguaek.

Ortzitik berantz
zatozanian,
Aita Goikoen
usotegiko usoa,
abiyatxutik
eruateko
bein ta betiko
Zeurekin txindor gaxoa,

otoi dagitzut,
ekardaizula
zeure pikuan
Zerutar ezti gozoa,

MIKEL ETA TXOMIN BILBAO'N
("Belu-Mendu" zIntzuari)

VIKEL'EK. — Kaxio, aspaldiko Txomin,
llagun zafa!
Ofen aldi luzian, nundik ixan
[zara?]

TXOMIN'EK. — Euzkadi'tik ufintxu, sei
[urte t'erdian;
Idaho'n ibili naz, ardi-zain
[mendijan.

MIKEL'EK. — Artzain antzik, gaur
[beintzat, eztozu bat bere.
Zaldunik be, nun gero zeu baxen
[dodore?
Burutik biatzera soñeko edebez
Zu baxen ondo janzen ezta, ba,
[gaur errez.
Idaho'n olan janzen ba'dira
[artzañak,
Antxe bai dirazala menditar
[bikañak!

TXOMIN'EK. — Ango artzain-janzkijak
[(Bilbo'ra) eltzian,
Kilikili egiten eusten gorputzian.
Augaitik erozi dot, biar dodan
[dana;
Ta berau da lenengo egin dodan
[lana.
"Euzkadi"-tik nekijan salokijen
[bafi,
Geutafak zeintzuk diran laster dot
[igarri;
Euretan erozi be janzki-gai
[dan-danak,
Azpiko ta ganeko, biav nebazanak!
Kepa jostunak ein daust dodan
[soñekua,
Zuk diñozzunez beintzat, tayu
[oneku;
Oyal ederrera eta ederto josilia;
Saneufija be, bafiz, ez ain garestija.

[egokijak,
Barainka oskigïñen dendan [erosijk.
Eurokin ain gozatsu dodaz neure [oñak;
Ezagun da dirala... geutarraak [egiñak!
Bide-kutxan dodazan ainbat [gauza be bai,
Erosi dautsiedaz geutafak diranai.
Ederto bota dodaz emen zortzi [legun,
Geutafen ostattuban... aizkide [ta lagun.
Jan ta edan ederto, biar dan [neufijan,
Akeit ederra, barriz... Euzko- [Gastedija'n.

MIKEL'EK.- Zuk eztozu, orduban, [geutar eztiranai,
Jateko, ez janzteko, ezer erosi nai.
Uste dot "bate-batek"... esango [deutzula
Gofoto-usaintxuba agertzen [dozula.

TXOMIN'EK. — Gofotoren pizkarik ez [dot iñorentzat;
Maitasun berezkoa baizik [geutafentzat.
Bakotxak daki zer eiñ beren [txindijagaz,
Gauzak aukeratzeko biar daben [eraz.
Berezkua da, ba, nik egin dodan [lana,
Beti eiñ dodana ta... eiñ gura [dodana.
Gauzak beti be zuzen egin biar [dira,
Egon barik "ze esango dabenen" [begira.

MIKELEK. — Ze asmu dakazu, ba, [Idaho aldeti?

TXOMIN'EK. — Jel-bidez jafaitzeko gaur, [gero ta beti.
Itzez eta egitez, nun-nai bildur [barik,
Zuzenki... jo ta kia!... etxagok [obarik.

[geurial
Zofik ez arturenik... bakotzak [beria!
Belbillan sartuta, oin, ba-nua [etxera,
Ama ta enparaubak besarkatutzera.
Gabon-jayak eurakin, jayak-jai [egiñez,
Ospatu gura neukez poz eta [atsegíñez.
Bostekuori... Mikel, agurtu [zaidazan:
Agur! nai dozun arte, ta... [lesanak esan.

MIKEL'EK. — Agur, ba, ene Txomin! [Agur, lagun maite!
Gorantzijak etxian... [Agur, aurki artel

(*Euzkadi*, 1931-XII-13)

AITARENA

Olakoxiak dira ludiko autuak,
Baña ba'litzaz nire aitita lakuak,
Bixardun jakintsuak, emengo ez ango,
Zeregin lafegirik eleukie ixango.
Aititak esan eustan bein zer egin eben:
Ikasbidetzat jafi gura dot gaur emen.
"Itzain-lagunak giñan ni ta auzoko [Jonpe,
Iñoz ezkendun ixan asafetxu bat be.
Larunbata illuntzian, beste askotan lez,
Bai-gentozan, ta... gure atsuak asafez.
Bateko bafitxua, besteko zorgiña...
Ene mutilak! zer zan ango [izkilimiña?

Aitaten eben baita epaikari ta auzi,
Emen ikusikogu nor garean nausi!
—Zer dala-ta ebiltzan asafez jo ta su?
Zergaitik zan, aitita, esango [daustazu?
—Esan ez, osteral Bai: Jonpe'k eta [atsuak
Eukien astokume gaste indartsu bat.

Ain zan lez mizkia ta ganera gaiztua,
Oinpian zapal eban gure oilaskua.

Izter bijak ausi be . . . A zuan biarra!
Jayetarako geukan sei librako oillarre . . .

—Etziñen aituko, ba, epaikari barik,
—Auzira ni ta Jonpe? . . . Bai-yagok
[obarik!]

"Neuk ekafiko yuат pitxar bete ardaу",
Jonpe'k esan yeustean, eta nik;
["Ondo dau!"

Atso bijeri gafatz, esan geutsen:
["Ixi! . . .

Zetarako da alpefik ainbeste gafaxi?

Ister bijak apurtu ba'dautsoz astuak,
Min ikaragaffijak daukoz oillaskuak.

Ofi eiñ biar yako samia bijortu,
Mutildu ta bijarko kazuelan gertu.

Guk el<afiko dogun napar ardautxuak
Alaituko gaituz ta . . . ixi oin, atsuak!"

Atsuok gertau eben oillarra ederto,
Geuk agindu geutsen lez biya-
[monerako.

Igande-artsaldian gure intxauprian
Jan gendun ollar ori gusion artian.

Ardau be polito edan gendun danok:
Azkenez soñu-joten plautiaz asten
[nok . . .

Asten dok gure Jonpe . . . Ak ebillan
[autse!
Nire atsuak dantzan . . . Altza,
[Marikontze! . . .

Auzira jrm ba'giña, bixardunak
[pozik;
Dirua kastau ta guk . . . urdala
[billoxik!

Euzkeldunok zetako auzi-arazuak?
Baztefak ondatzeko, atan be auzuak?
Auzira zetan juan etxaukok gixonak,
[daukazanak.
Zentzuna eta prakak ondo

Euzkeldunak biar dau entzun
[gustiena,
Gura dauna siñestu . . . , egin biar dana.

Lagikari jaun batzuk esan dautsela-ta,
Dana ziñesten dauna . . . kokua galanta.

Ofeilcin dabillenak ixango dau safi
Sakela tximur eta . . . biotza be larri".

Ona emen aitita maite-maite zanak
Beren loba Kepa'ri esan eutsozanak.

Jakingafija dan lez askontzat ludijan,
Orduan nai dabenak ikasi dagijan.

Eta euzko-eredu on bat ixan zan lez,
Otoi bat daskatzuet beren gogo aldez.

{Euzkadi, 1931-IV-9)

UDABARRI TA NEGUAREN AUZIA

UDABARIAK.—Epallak antxiñetan zitun
[logei ta bi,
Ta or abil ondiño, negu dolar ori,
Lotsa barik botaten txingor, edur,
[leuri?

Olakorik etxakok egiten iñori.
Jorrailak amazazpi gaur daukozan
[afen,
Eure bijotz dollorraz jarraitzen dok
[emen,
Au eztala Jorrilla guri sartu nairik.
Gaitzoz or abil, baña . . . ba-yagok
[obarik!
Lapurtzar andi ofek, ba'eukok
[lotsarik,
Eskutau biar eukek emen egon
[barik.

NEGUAK.—Zer dok izketa ori? Zein
[dok lapurtzafa?
Kontuz . . . ; bestela, laister ua
[espetxera.

UDAHARIAK.—Ziñaldari onena ofa or
[kukua,
Epail-guena zaintzen onenetaikua,
Abesten asten dana
[Marti-Andramariz

Ta Deun Kepa egunan isten dauna
[egiz;
Itandu yok oreri au Jorraila
[danentz,
Ta antzik eztaula, baña esango yok
[bayetz.

Neguak esan dautso Udabarria'ri;
"Neugaz epaitokira biar dok etorri;
Euk nai bok, kukuoi be betor
[ziñaldari,
Esan ditukan itzok an eiteko niri".

Epaikari jaunari kukuak dirautso:
"Neguak izpiderik ezetan be
Leztauko,
Ostutene dautsolako Udabafia'ri
Jaunak laketu eutson eskubide
[ori".

Kukuai urten yakoz
[guzur-zíñaldari
Neguak eruanak an zazpi gautxori;
Oneik aldeztiafen neguaren lanak,
Kuku zigur utsari esan dautsezanak:
"Alperrik etorri az, alpefik, kukua,
Txori guzur-dario lotsa galduka;
Negu au eztok iñoi ezer kentzen
[asi,
Ta oneri lapufa deitzeko nor az i?
Beronek eingo yok, ba, beronek
[nai dauna,
Berau dalako nausi ta emengo
[jauna".

Kukuak esan afen zigur egi utse,
Mozolluak indarrez . . . geyau egin
[dautse,
Neguak biar daula jafaitu aufera
Onen aurka datozañ ofek gorabera.

Zabaldu da beinguan epai onen
[bafi
Zugazti, mendi, zelai, uri ta baserri;
Txori uda-zaliok asafatu dira,
Ta baturik beinguan batzar
[nagusira,
Erabagiten dabe, dan-danen
[eritxiz,
Mozollu orrei lumak kenduteko
[gustiz,
Eta negu dollorrai berotu lepua
Nai daulako berentzat iñoren lekua,

Kukua aufetik dala, zozo,
[birigaflo,
Txindor ta enparauak urten dira
[bero;
Artu dabez erdijan gautxori gazuak,
Neguaren aldezko guzur-dariuak;
Atarau dautsez onei lumiak ugari,
Batez bere oneitan nagusienari,
Pikuka jafi dabe lumage,
[billosik;
Ezautu be ezin leike zein dan, jakin
[ezik.
Zer diran ango txiiioo!. . . Zer ango
[garraxi!. . .
Burua eskutau nai. . . , ta ezin igasi.

Esan dautse zugatz ta landara
[gustijak;
"Austu negu aldezko txori guzurti
[jak,
Ta neguai be kendu bere bizkar
[nafu,
Alde egin nai ez ba'dau egun gitxi
[barra.
Betoz eguzki argi ta ipar-aixe bigun,
Geure janzki orleya erakutsi daigun,
Txori alayak zugatz orrien artian
Abestu dayen kumak azi bitartian."

Ofa Udabafia'k zenbat lagun dau
[kon,
Izpidian dagola ezagun da berton.
Ta, zenbat adizkide daukoz ba
[Neguak?
Epaikarija eta zazpi mozolluak.
Oneik bakafik, zer eiñ beste danen
[aurka?
Neguak . luzaroko bixirik eztauka.

Gaitz da beti ixatia danen jaun ta jabe,
Dollorkeriz ba'dabil, gaitzago atan be. . .
Luzaro bere aldez asko eukita be,
Azkenet ostikoka erabilko dabe.

(Euzkadi, 1932-IV-3)

BURUA BETI BURU

Buruaren esana
Bijotzak ba'dagi,
Indafa ezta ixaten
Iñoiñ be galgafi,

Bijotza jagi ba'dai,
Baña, buru aurka.
Amak seme dolorra
Or dutixik dauka.

(*Euzkadi*, 1935-XI-10)

KUKUA AGERTU DA

Epaillak ogetasei...
Kukuak ku-ku...
Zugaztijan goxetik
Abestu dausku.

Zozo-birigarruak
Txiruliruli...
Udarrija dala
Gaur esan legi.

(*Euzkadi*, 1936-III-28)

UDABARRIJA

Zugatzak jantzi dabe
Soñeko bafija...
Txori alayak autu
Nun egin abiiia...
Lore bikañ politez
Apaindu zelaya...
Zelaira loren billa
Dua gastedia.
Gaste maite Jel-lore!...
Ezari begija!...

(*Euzkadi*, 1936-III-28)

TXOMIN ETA GARBIÑEERRIKO JAYETAN

TXOMIN'EK.— Egizko nere bixi-lagun bat
aukeratu nairik nago;
neure maiterik begikoena
emendik urrin eztago.
Bijotz-bijotzez maite dodana
geruago ta geyago,
dantzara ointve deituko neuke
gerturik baldin ba'lego.

GABBIÑE'K,— Dantza bi dabiltz zelai
[oneta] garbia eta nastua:
garbi ori da euskaldun zafen
kistav-ielas egizkua;
besteoi, bafiz, or erbestetik
lapufa legez sartua.
Txefen jolas zikin ortara
Garbiñe beintzat eztua.

TXOMIN'EK.— Dantza zar ori gitxik nai
[dute,]
geyenak bafiz bestia;
modea da gaur zerbait direnak
baltzeoz jolastutia:
ta zeu izanik neskatillarik
bikañena ta gastia,
tamalgafirik andiena zait
zuk ni ukatzen astia.

GARBIÑE'K.— Modea da bai, zoritzafez
[be,
loikeriz jolastutia;
oraindik, baña, moda zafago
gaiztokira juatia.
Bide bi dagoz: txafa ta ona.
Zein nai zenduke artzia?
Loitik duana ezingo da ihan
egizko nere maitia.
Txomin aizkide, auzokide oi,
aditu zaizu, aditu,
euzkeldun onak iru baldintza
onexek beafak ditu:
Jainkua gurtu ta euskaldunaz
euzkera gozoz mintzatu;
itzez, egitez, lan eta jolas,
beti garbirik agertu.

TXOMIN'EK.— Edefak dira, oso edefak,
Garbiñe, zure baldintzak;
orixe bera darakuskue
Jauna'ren amar agintzak.
Zuk olantxe nai, ene Garbiñe,
zu maite nire bijotzak;
zure nai pri beteko dot, ba,
7.eu ixateko neuretzat.

GARBIÑE'K.— Biok euzkeldun ziñesmen-
[dunak
gerala ezin ukatu,
ta au olart dala, "baltzeo" zikin
ori guk nola dantzatu?
Ezergaitik bez! Eta zuk, Txomin,
itzoi betetzen ba'dezu,

ixango gera ni ta zu,
(*Karmengo Amaren Egutegia,*
1951, 127 or.)

Dabela; baña bai za
Ofetakoak ufatu eta
Buruko miñaz etxera.

(*Karmengo Amaren Egutegia,*
1954, 29 of.)

TXOMIN ETA MATXALEN (*Praiskuren otseñak*)

TXOMIN'EK. — Neure alclian egiten yuat
Ainbat abere jateko,
Asti apur bat ez daukadala
Apur baten be jarteko.
Beti onela ibilli barik
Ixango neuke obeto,
Neure lanetan lagundi daustan
Emazte on bat ba'neuko.

MATXALEN'EK. — Erdi bakarrik zabiltzaz,
[Txomin,
Abere jatekogiñan,
Eta ni barriz oyal garbitzen
Beti al dodan aríñan.
Diñozun lez, ba, emazte billa
Neugana eldu ba'ziñan,
Bata bestiae lagunduteko
Biok buztartuko giñan.

TXOMIN'EK. — Luza begira etzara egon,
Neure lagun, agintzeko;
Baña ez dakit indaiak dozun
Itz eder ori zaintzeko.
Aspalditxoan tentezka nabil
Andra koskor bat artzeko;
Baña biklur naz ixan ez daidan
Neure burua galtzoko.

ATATXALEN'EK. — Zer erantzun be ez
[dakidal
Ipintzen nozu bildurrez.
Zeure burua daukazu aintzat,
Eta besterik iñor bez.
Ezkonduteko bildufa dozu,
Ta eiñ barik egon nai ez.
Baña paltarik iñun bakorik
Ez dozu topauko efez.

PRAISKU'K. — Bat baño geyau ibiltzen
[dira
Gure 'Txomin'en antzera,
Aberats eder onaren billa
Jo batera, jo bestera,

ZAZPI ERRIJANU (*Errijanu oneik zazpi mats-mordo ziran*)

Eibar'tik Muxika'ra lengo barikuán
zazpi efiojanu ekafi niutan.
Nere andreak auek ikusitakuan,
grik-grak txiki eta iruntsi ziluan.

Nere andre maitea ain ona izanik,
nork sinistu gauz ori egingo zuanik.
Etzion itzi azur, azal ez mamiñik:
aspaldi ezta jazo olako krimenik.

Guztiau ein ta ere, biaramonian,
ezeren kezka gabe patxara onian;
ez eguna ar asko bere gibelian.
Ai, zer kristauak diran Muxika-aldeian!

Guztiau ein ta ere kezkarik ez izan!
Eztakit gauzok nola izan litzakezan.
Betiko espetxera eraman ez dezan,
ene Bltor Arana, iñori ez esan!

(*Karmen'go Amaren Egutegia,*
1954, 93 of.)

ERETXI BI

PRAISKU'K. — Neskatxa gazte eta mizkea
eta millo bi laurleko
beraz dituan ne, skatilla bat
nai neukek emaztetzako,
ezeren bere kezkarik barik
oparo bizi izateko.
Baldintza onek dituanagaz
nor, baña, ni baño obeto?
Beti aukeran, an-or naiz emen
nentzakek zorioneko.

PELO'K. — Neskatxa gazte bikain mizkea
eta gañiera millo bi!

baldintza orrek izan oi dozak
askoren atseginarri.
Millo i bidunak... banaka bat bai,
gazte mizkeak ugari...
bana egizko garbi ta onak
non-nai eztozak agiri;
oneitako bat irea baño
atsegiañago yat niri.

Epayo:

Ludi zoroan makiñatxu bat
ba-yabilk diru atzian;
baña zorion osorik ezin
lortu diruaz utsian.
Gure Jainkuak damoskunagaz
pozik ba'daukak biotza,
eu izango az orain ta gero
egiazko aberatsa.
*(Karmen'go Amaren Egutegia,
1953, 82 of.)*

IXATE BI

Beti geure onduan
dabiltz ixate bi;
oik dira zintzotasun
eta nagikeri.
Batzuk jafaitzeiote
lenbizikuari,
bestetzuk bigafenai
euren ondagafi.

Zintzuak jafaitzen dau
maiteki lanian,
nekiak eskiñirik
Jauna'n ixenian.
Nagia zufutera
dua geyenian,
artarako txanponik
aurkitzen daunian.

Zintza ez dau lanak
bein ere aspertzen,
beti dabil maiteki
etxia txukuntzen;
nagija gauz oyekin
ezta oroitutzen,
bere nagikerijak
daulako nazkatzen.

Zintzuak lan eiten dau
ta egin-arazi,
oraingo ta geroko
lanez irabazi.
Etxian danak maite
diralarik bixi.
Nagijk, baña, lanik
ezin dau ikusi.

Zintzuak diranian
seme ta guraso,
uri eta basefi,
aran, mendi, baso,
beti bide zuzenez
lana etxerako
egiñaz bixi dira,
zorijontsu oso.

Euzkel-Efi laztana
euzkoen etxia!
Etxe-zale zintzua,
Jauna'ren maitia,
berton ixan daiguntzat
poza ta bakia,
ama Euzkereari
zabaldu atia.

(Euzkerea, 1929, 94 of.)

ENE JAYOTETXE MAITEA!.

Maite zaitudan jayotetxeoi,
Zugandik urbil bixi nazl
Ni besarkatu ez nadin, baña,
Or neure sendi laztanaz,
Ate zabal bat bitarte jafi
Dauste margorik baltzenaz...
Ezin ikusi, ezin laztanad!
Tamalez ilgo ete naz?

Zure inguruak argitzen didiz
Urtzi'ren zorun-eguzki,
Barru ta kanpo, lan eta jolas,
Bakia zala nagusi.
Goi-maitasunez, sendi-maitale,
Zoruntsu nintzan or bizi;
Ate baltz ori dala-ta, baña,
Ezin zaut orain ikusi!...

Zure bafirik ez dakart iñok.
Zeugana ezin neu juanl

Ene begiok negar-iturri,
Au gogoratu orduan!
Gure izpafolc tinkorik daukez,
Ez ekafi, ez eruan...
Itsu eta gor ba'nengoke lez,
Emen bizi naz "linbuan"...!

Itxaropen bat bai-daukat, baña,
Sifiñismenagaz josita,
Gurekin iñoi ezta aiztuko
Urtzi, euzkotafen Aita;
Eta aldi luzez edo laburrez,
Ze neufiz Berak daki-ta,
Ondiñokafen —goi-maitez— zeukin
Laztanduko dala Kepa.

Ariatza'ko jualetxuen
Durundi alai zolia,
Noiz izango dot jayotetxetik
Zu entzuteko zoria?
Zeuk itxartuta, sendi osuaz,
Txadontxu maitagafia
Ikertu eta gogo garbiz or
Jateko Gotzon-Ogia?
Orduantxe bai egiz niretzat
Zorionaren aundial

(1936, XII)

PELOTA LAKORIK ...!

Buru, anka ta beso,
Bular eta begi,
Osoan indartzeko
Mutil gastiarri,
Pelota lakorik
Ezin topau legi.
"Besagain" ta "Bolera",
Ezker ta eskubi,
Atzean naiz aufean, •
An jausi, or jagi...
Pelotariak oso
Bizkor egin dagi.
Kirol-zale zarian
Mutil azkar ori,
Beste danak utzirik
Izan PELOTARI!

(*Excelsior*, bere araudian)

JOSE ARTABE JAUNARI
(*Ibiltaldi ondoren*)

Don Jose de Artabe,
nuestro señor Pater...
Comerciante de primera
e idem de chofer;
en cuestas y Uanuras
leunkiro ta laster,
or erabili gaituz
uri eta bazter.

Para arreglar el "buche"
hoteles de super...
con un gran apetito,
Jainkuari esker.
En todas partes "trompis"...
marca fina semper.
Y... para retaguardia,
erbi, pernil ta eper.
Artabe'n kontura babil
amaikatxu alper!

(1941, XII)

LEKEITIO'KO ESTROPADAK

Euzko itxas-ertzeko
Efi alai baten,
Estropada ospetsuak
Ixan dozak aurten.
Efifatak garale
Dabelako urten,
Gora gure mutillak!
Dabe abestuten.

Baita gurendearen
Poz ori dala-ta,
Gora! gora Kepa Deuna!
Dabiltzaz didarka.
Itxasuak bere poza
Nozbait emon dau-ta,
Egin kutxaren ganeko
Gure "kaxarranka".

Lau mofosko edefek
Euren sorbaldakin,
Aidian dabille kutxa
Zirkin eta zarkin.
Kutxaren ganean dantzan
Ekin eta ekin,
Dantza'irik bikañena
Gure "Kuskurrunpin".

ZORONTZA'KO PRANTSESARI

Aizak, nere aizkide, Prantses ospetsua,
Txafiak urten deusku txito koipetsua.
Zorionian beraz eiñ gendun tratua,
Dalako txafi oso enda onekua,
 Bizkar zofoztua,
 Gaizki kapatua,
 Mustufez txatua,
 —Au bai neskatal—
Lapikua ontzeko sekulakua,
Prantses ospetsuari artutalcua.

Txarri abilagorik ezin lei billatu,
Gitxi jan ta bear asko egiten deusku.
Askan eukiagaitik arto-baba-zuku,
Onek danak utzirik, lanerako gertu:
 Azpije atxurtu,
 Ornia puskatu,
 Atia apurtu,
 Au lepuan artu,
Eta tximista berak eruten deusku.
Txafi ona nai daunak Prantsesai artu.

GOMUTAKIZUNAK

Bizitzako jazoera, ta ar-emonak gogora ekarri ta auznartzea, eder yaku beti be. Enbeita'k pozaren gogoratzen ditu ainbat jai, naiz Muxika'koak dirala, naiz Oka'koak, naiz Gorozika'koak. Batzoki bat edegitea, naiz beste edozein zertzelada gaitzat artu ta gauza jakingafiak itxi euskuzan oroi-sallean.

Argi nabari da arein arteko anai-maitasuna: Enbeitafak, gastetan naiz zartzarora, bertso sutsuak opaldu eutsoezan alkafi. Kepa'k, ostera, baebazan anai antzera beste batzuk be oso laztanak; baitik bat; "Batzxi", euzkel idazle trebia. Juan Bautista Bilbao eritxon zornotzar au, Bilbao'ko "Bayo" itxas-ontzian ebillen, ara ta ona; itxas ganetik bialtzen ebazan ainbat lan eder, itz lauz naiz neuriaz. Baña Europa'ko gefatian (1916-1-14), Charisson'en ondatu zan miña batek iota Batxi ebillen ontzia.

Kepa'k, galpen ofek minduta, onela idatzi eban: "Irakurri ixango zen-duen "Bayo" lufun-ontzija Parantz'e'n, miña batek iota, ondatu ebala, 25 gixonegaz; euren artian geure Batxi (G.B.), euzkel idazle zindua ta geure lagunik maitiena, oraintxe poz eta etseginiik aundijenaz, bere emazte ta iru alabatxuak eta geu abertzaliok besarkatzeko, beren eta geure Aberri maitera etorrela. Konorte baga geratu nintzan izpar baltz itxal *au* irakurri nebanian, Ai, Batxi gaxoalGuda madarikatuaren sarijak itxi erain dautzuz begijkak betiko! Agur egin dautsozu betiko zeure Abefi ainbeste maite zenduan oni, zeure aizkide gustijak tamalez itxita! Artega dago nire bijotza, ta nigaz beste euzkel idazle-irakurle orok. Baña gomutaurik Jaungoikuak olantxe erabagi daula; "Geure Aita goikua, zeure ixena donetsi bedi, zeure ala belkigu, zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijan be," Otoi auxe dagokigu kistar on gustijoi; eta, batez be, gu euzkeltzale gustijok biartuta gagozala uste dot, Batxi onaren gogo aldez geugan dagon gustija egiteko. Ta gustijon artian eleizkizun eder bat egin biar geunkiola uste dot, Zornotzañ edo danok alkartzeko erosoen dagon elexa edo lekaretxe baten. Ezteritxozube?" Au da adizkidiak benetan maite ixatea.

1919'gafenean, Euzkelerriko lau aldundiak Oñati'n ospatu eben olako Batzar andi aztueziña. Eta Batzar ofetan Euskaltzaindia'k, euzkera utsezko batzar batzuk —*Euskal-egunak*— sortarazo ta ospatzea gogotan artu eban. Durango begiz jo eben ortarako, ots, lenengo euskaleguna egiteko, 1921"garrenean; Tabira zafean, Uribarri'ko Andra Maria'ren magalpian ixañ zan lenengua. Gero Donesteben, Motriku'n, Afasate'n,

Zumarraga'n. . . Zumarraga'kua, 1928-IX-30'an ixan zan. Eta gure Kepa'k be ederto txalotu eban:

"Sorkaldeko euzkiak jaurtirik illuna,
Arpei alayaz dator gaur Eu,skal-Eguna;
Zumarraga'ra juan anai euskelduna,
Besarkatu ama zar Euskera kutuna
Eta zintzoro bete zeure biarkuna."

Batzokijak ziran euzkel-azia ereiten ebenak. Eta onein zabaltze naiz jai bat egitia, gustiz yakon atseginingafi. Etzan oJako egunik Enbeita bakorik. Aren zoruntasunaren eztia! Bat bera aitzatzeko, bein Gorozika'n, ango emakume abertzaliak eratuta, jai edefa osotu zan. Enbeita, gure "Txindofa" zan izlarien aurkezpena egiten ebana. Eta pozez gañezka diñosku: "Lenengo itz egin ebana Munitxa'tar Inese abadifñotar andeaño azkafa baxen Jeltzale zintzua ixan zan; bere itzaldija, euzkera garbiz eta emakume zintzuari dagokijon lako irakaspidez beterikua za-lako, asijeran ta amayeran oso txalotua." Ondoren, Epalta'a tar Joseba Imanol lagikari gazteak itzaldia.

"Gonburu beterik zan
Euzko-Batzokija. . .
An zan alaitasuna!
An bai gastedija!"

KURUTZIA ETA EUZKEREA

Urte biribillaren bafuan ibilgunde bat egiteko ustez urten naz; eta lenengoz jo dot Gaztelu-antzeko atx-tontofez inguraturiko basefitxu begiko batera. Emen dakust, bere jayotetxetik urteieran, Kurutziaren ikufa, "Aitiaren" egiñik ikastolarantza duan mutiko mardo, mazal bat. Ain begiko egin yatan mutiko onek bere ikasaldian ze tayu daukon ikusi gurarik, sartu naz ikastolara; ta, gure mutiko-ereduak. . . zintzo be zintzo diñardu ikasten. Bere aurpegi biribil eta begi zabal bizkofetan argi-argi dirakurt: maite be maitel

Basefitxu onetatik nrtenda, bultziz ba-nua Gastela'ko Efi-burura, ta emengo ikastetxe nagusira bidian ikusten dot mutil gazte lerden osasLTnez beteriko bat. Gazte begiko au ikastetxe nagLTsira sartzen ikusirik, bere ikastaldian beñolako mutiko mazalaren antzekoa ete zan jakin gurarik, sartu naz barrura; ta atsegin be atsegin izan yat bere zintzotasuna. Ikastaldi bitartietan, ostatuan eta abar, berarekin aldi gozoak izan dodaz, Jaunari eskafak. Biolzarren ispilla ziran bere begi zoragafietan argi-argi irakurten izan dot: maite be maite!

Gaztela'ko Efi-burutik urtenda, bultziz ba-nua beste ango Uri andi batera; ta, eldu ta beriala, dakust maitagafizko gizon lerdan bat, ikastetxe nagusira sartzen dala; eta, neu be, ain gizon egokia urtxuagotik ikusi gurarik, sartu naz bafura. Eta emen clakust Irakaslaria, lentxuago bertora sartzen ikusi dodan gizon lerdan egokia, zintzo be zintzo, bere ikaslei irakasten. Irakaslari-eredu onen begietan argi-argi dirakut: maite be maite!

Gaztela'tik urtenda, gure Euskelefi maitera eldu naz; eta afiturik nago Bizkai-Uri-buruko Etxe baten gizon gordin, Irakaslari gorenengoetariko bat, zintzo be zintzo, bere ikaslei irakasten ikusiaz. Irakaslari-eredu onen begietan argi-argi dirakurt; maite be maite!

Ba-nua gure baserri politetako baratza, lorategi, ibar-zelayetatik ziar, zugazti gerizpetsuetatik mendira. Izadiaren edertasunari, Goi-maitasunez, uda-txori abeslariak dagitsoezan txiroliro eztitsuak neLtre biotza pozatsegüñez betetan daustieloa, mendi gañetik alde guztieta begiratzen dautsot. Alguztidunak gure Abefi maiteari emon dautson edertasunaz afituta nagualarik. . . neugandik ur-urrian dakust gizon efime apal bat, Izadiari eta bere Egileari begira, txapela eskuan daula, otoika. . . Bere begi apaletan argi-argi dirakurt; maite be maite!

Ba-nua itxas-ertzerantza. Ta emen, itxaso asafatuak, bere agotik, botaten daben amufuzko bitsez, noizik noizera, burutik oñetaraño estal durik damotsozan zakurdi-joakaz ondatu nairik. . . Baña len baño garbiago ta lerdanago izten daben atx sencloaren ur-ufian dakust zutik. . . biotz aundidun gizon kementsu bat, Afiturik beroni begira ta begira naguala, argi-argi irakurten dot: maite be maite!

Ba-nua, azkenez, atsedenduteko ustez, ibilgunde au asi neban basefitxu maitera. Ona eldu ta egun gitxi bafu, sartu naz obitegira; ta emen, lennengo dakustana da zurezko Kurutze bat obi ganian zutik, bere bularbesoetan idazkun auxe dabela:

"Emen datza Bustintza ta Lasuen
Ebaista yaunaren soña.
Yaunaven besoetan il zan 1929'ko
Urtarrillaren 31'n, 6.3 urtegaz.
Emazte ta enparau senidiak
Bere gogo-aldez arren Yaungoiko'ari
Dagiozula eskatzen dautzue.
Goyan Bego."

Ona emen *Kurutzia eta Euzkeria* alkar laztanduten; ona emen neure ibilgundiaren asieran ikusi neban mutiko mardo mardula, Gaztela'ko Efi-buruko ikastetxe nagusian ezagutu neban mutil gazte lerdan ikasle-eredua, Gastela'ko beste Uri audi bateko Ikastetxe nagusiko Irakaslerdua, Bizkai-Uri-burnko Etxe baten euzkeraz irakasten jarraitu eban Irakaslari gorenatarikua, Euzkel-idazlerik maitegafiena, mendi gañian

Izadiari eta bere Egilliar begira, txapela eskuan ebala, otoika aurkitu neban gizon argi apala, itxas-ertzeko atxonduan, ekatxak. . . atzerantzik erain barik, zutik, kementsu jafaitu eban gizon bulartsua, beti Jel-aklez *Kurutzia* eta *Euzkeria*, maite be maite! izan zituana, bere bular ga-nian *Kurutzia* eta *Euzkeria* alkar besarkatzen dirala.

Ona emen Bustintza ta Lasuen'tar Ebaista, gure "Kirikiño" aundia. . . zanaren gorpua! Aita Goikoari otoi dagiogun beronen gogo-aldez. G. B.

Euzkereari egizko osasuna zelan lortuko ete dautsogun buru-austerik asko dabil. . . Osakairik onena nai izatia da.

"Kkikiiro" euzko-eredu maitagafienetarikua zana ontzarturik, *Kurutzia* eta *Euzkeria* maite be maite doguzala jafaitu daigun uda ta negu . . . Eta Euzkera osasuntsu biziko da.

Maiteak, maite dauna
Maitatzen clau nun-nai. . .
Egizko euzkotafak
Euzkeria be bai.

ENE ANAI UfiETXIÑOLA
(*Muxika'tik Amerika'ra juanari*)

Aspalditxuan, neure barruan
Neukan tamalagaz, estu nenguan
Imanol anai uretxiñola
Hale'ra juan zana beñola
Bixi ete zan!
Arduraz nintzan, ai baña zelan!
Ta bere izpafa, ona nun dodan!

"Euzkadi"-n gaurko "Eguneukua"-n
"Kirikiño"-k jarri dauzan lekuau,
Hale'rik leunki uretxiñolak
Kepa'ri jaurti dautsozan lorak
Bai-dauke usaña!
Tamal gustijk kentzko aña.
Porteu az, mutil, belutxu baña!

Nik etxakiat urte betinn
Ain ixillik zelan egon leikan;
Oldozmenetan safi nenbillan
Abia billa ete enbillan
Usotxo zuri
Politen bataz... Ortan nago ni.
Igafi ete yautsat, ba, oni?

Ni nok txori bat etxe-inguruan
Nabilena udan eta neguan,
Abi ondotik ufiñerako
Nai eztodala egorik jaso.
Naiz-ta ziñopa!!...
Emen ilgo nok txio-txioka,
Afotzen batek afiaz jota.

Ni enok zozo, ez birigafo,
Eztakit, ba, abesten oik baxen afo.
Eztrirudit, ba, kuku ez miku,
Txindor bat baño anka ta piku.
I az, ba, txori,
Ufetxiñol ain ospetsun ori!
Eta ni, bafiz, nok txantxangofi.

Oi, ni ba'nintzok ire antzeko
Txori jakintsua uriratzeko,
An abestuko neukek bai laster
Itxartu daizan efi ta bazter;
Baña nik zelan
Ofi abestu biar dan eran
Oztan ba'dakit ondiño egan?

Ainbat aizkide ba-yaukadaz nik,
Ta bat bez neu baño gitxiau danikl

Geure ele, lagi ta ekanduak,
Txori txar batzuk alper galduak,
Berbizten gabiz.
Au ezin leikek ustelak, bafiz;
Zoli zintzo onak bakafik dagiz.

Erri, baserri, zelai ta mendi,
Gautegun lanian Euzko-gastedi
Bularatsuak lan zintzo egiten,
Euzko-semia itxartu daiten
Ibilten dozak.
Orduan nire barruko pozak
Gustiz audiak ixaten dozak!

Ai, ene Imanol, onek bai abes
Alai eztitsuak egiten dabez!
Eta euzkotar erdel-zalai
Erakutsiak emon bere bai.
Abesti gozo
Gurgafiakaz uri ta baso
Ama gaxua nai dabe jaso.

Dabiltzaz beste zeregin barik,
Amari tamala kendu gurarik.
Onentzat eztau Amerika'rrik
Euzkeleiai baxen obarik,
Bildur, bada, iyan,
Ik neuritz baten diñokan gixan
Ego barik or lotu eztaizan.

Nik biar yuat laguntasuna,
Ene anai maite zintzo kutuna.
Ia, ba, laster etorten aizen,
Aberasago Rrotxil bat baizen!

Orduan anai
Bik abestuko genduke alai;
Ufetxiñolaz Txindofak be bai.

(*Euzkadi*, 1915-IX-4)

UNETXIÑOLARI BERERANTZUNA
(*Muxika'tik Hale'ra*)

Azillan lauko eguberdian
Arizti zafeko gaztañedian,
Zugatz ganian azkar, ortosik,
Bazkarian zain nintzala pozik,
Ofa beinguan
Au eldu yatan bere orduan;
"Euzkadi" be bai bazkalonduan.

Irakurgairik beñenekua
Beti dot Euzkadi-n "Egunekua".
Gaur be olantxe begitu dautsat,
Ta neurtitz-aldi luze bat neutzat.
 Zeñek egiña?
Urretxiñolak, ori jakiña.
Au nire poza eta atsegiria!

Aldika baten bildurrez nintzan
11 edo mututu egin ete intzan;
Orain bakafik negikek esan
Nagia baño etzuala ixan.
 Ire nagiak
Beinguau kendu yozak gustiak
Or agertu dan udabafia.

Emen udazken, or udabafi,
Ufetxiñola poz, txindorra larri;
Alkar ondoren, negu ta uda,
Amaibagia da ofen guda.

 Ta geu be, aldiiz,
Noizik-bein ofen antzera gabiz,
Naita ibilli maitasun garbiz.

Euzkeldun uso samur polit bat
Egaz bidaltzeko agintzen daustak.
Euzkadi'k daukon usotegia
Gurgafia dok, ori egia.
 Baña len zetan,
Oneik itxita, orra juaintzan
Orain neroni eskatzekdtan?

Or uso polit asko ei dira;
I, bafiz, ofei ta onei begira.
Euzko-alabak ofeik ba'dira,
Eruaikek bat eure kabira.
 "—Baña Euzkera?"
—Ori dok, mutil, itza ostera!...
Etxok, ba, ikasko eugaz batera?

Itandu yeutsat nik emen batí,
Igaro danian neure ondoti,
Hale'ra egin nai daben egaz,
Or bixiteko pozkiro eugaz.

 Ta onek diño:
Eu etortia berau jun baño
Askoz obeto dala ondiño.

Aunek emon yok erakutsia,
Eztaula itxi nai Euzkelefia.
Bafia eu onantz ba-intz etofiko,
Laster litzakek eugaz jafiko
 Pozez beterik,
Abia baten maite-maiterik.
Zer gura dok, ba, geiau eiterik?

Ba'ekik zeren bildufe nagon,
Ta nire biotza ze lafi dagon!
Gabiloyen bat usotzat artu
Ta berak euri erpiak sartu,
 Gero iñola
Urten eziñik ortik ifiora
Lotu eztaiten Urretxiñola!

Zetan nago ni? Ai, baña, zetan?
Uste dot nagola gaur amesetan.
Bestela itxafik aurkitu ba'nintz,
Eneban olan egin biar itz!
 Bada, nok iri,
I azan txori ain zoli omi,
Usotzat savtu gabilloi ori?

Eure gogoko maite on bataz
Zoriçm gustiak opa deuadaz;
Bixi, bafiz, euk gura.bestian
Euzkadi, baratz loraz betian,
 Aberri maite
Au dakusgula lenau lez azke,
Garbi ta eder, sendo ta gaste.

Alaitu nayok ire asmuak:
Euzkadi'ra nai yok ire goguak.
Abefi-aldez, batzafik batzar,
Abestuteko zoli eta azkar.
 Ori dok, ori!
Ainbat lenen, ba, etofi adi,
Abestu daigun GORA EUZKADI!

{Euzkadi, I915-XI-8)

ZORIJONEKO "TXOKORRAK"
("Batxi" euzkel-idazole argiari)

Batxi'ren txokor ofek
ogei ta bost gustiz,
eztira eraingiak
neurtitz ta idazkiz,
Kirikiño'k erantzun
dautse bai egokiz;
baña ofaitiño neuk
nun dauzan ba'nekiz,
etxeratuko neukez
ofetako astiz.

Batxi'k emonak dira
igarkixun ordain.
Eibar'en ta Donosti'n
bi ba-dirade zain;

al ba'neu, ba, neuk be eingo
neuke neuretzat lain:
txokortza oren giltza
ba'neuka neuk orain,
jariko nintzateke
igarla bijon gain.

Ni juten naizenian,
bein bere ondiño,
aurkitu barik eztot
itxi Kirikiño
gexorik edo egon
ezik orraitíño;
Centro Vasco-n irutaik
seirak alderao
errezau topeu leike
ZafontzaJe bafio.

Kamamilla maite dot,
aizkide Zargaste,
Kirikiño laguna,
efi eta erbeste
Batxi'gandik dauken lez
ainbat idazte,
txokofak efetako
lauron arte neste,
gertu nau, ba, txistada
egingo ba'leuste.

(*Euzkadi*, 1914-X-II)

GUSTIJOK ZORNOTZA-ALDERA (*Bazkari bat zala-ta*)

Batxi'k itz neurtuz iragarten dauz
Euzkel idazlien ixen
Pillo andi bat, bazkarija nun
Eingo dan ixentau dayen.
Baña "Obendi bat" aitzu yako,
A'tar J. nire efiyen,
Ikusgafizko neuritzilaria
Atsegin yatana geyen.

Batxi zolija euzkel idazle,
Itz-neurlaria ganera,
Bazkavi onen asmatzaTia. . .
Mutila ona dok, ba, bera!
Idazle orok ezautu nai dauz
Baturik toki batera,
Beren arazo gustiak dira
Goralduteko Euzkera.

Baña au eitel<:o, asti bagarik,
Uran ganeko lanera
Juan zan legez lurrun-ontziko
Notiñak alikatzera,
Augaitik bada datofeneko
Gertu egon biar gera,
Aupada bataz batu gaitezan
Gustijok Zornontzaldera,

Gogaldi on bat igaroagaz
Ezautuko dogu alkarr,
Baita yagokon tokian jafi
Euzkotafen ele bakar
Zorijontsua gustijen goitik
Dotore, garbi eta azkar,
Alkartze onen ordez emonik
Jainkua'ri anei eskar.

Batzen garanok jafiko gara,
Pozik, mayan inguruan.
Lendakaritzat —ori jakin!—
Kirikiño maiburuan.
Euzkera maite darabilgula
Adin, miñ eta goguan,
Ze afatsalde zorijontsua
Igarokogun orduan!

Alperrik dan lez ur juanagaz
Ibiltia esigileen,
Damuz on barik gero esaten;
"Ai, geu be juan ba'giñen!"
Alde batera itxirik zeuen
Arazo edo egiñen,
Belu begira on barik emon
I xenok ainbat ariñen.

(*Euzkadi*, 1914-X-5)

BATXI'REN AUPADIARI ERANTZUPENA (*Mariñasi emaztiak ixenpetua*)

Makal samartxu dabil
nire senar Kepa,
aspalditxuon sarr
zeozer dauko-ta.
Euzko-batzafetara
Gustiz dan lez presta,
juan nai leuke. . . , baña,
Batxi, eztakit, ba!. . .

Geure osalarijak
asko daun lez maite,
alegiñak egiten
diñardu-onek be;
Batxi'ren bazkarira
gustiz osatute
juango dala dirautso.
Ai, oba litzakel

Neuk be ikustearren
senar ona sendo,
berau alikatzen dot
alegiñez ondo.
Bazkari ori ba'Iitz
gure etxe aurreko
intxaur nagusipian,
niretzat ederto,
Baña Zornontza nitzat
ufintxu daulako,
ezin nienteke, Batxi,
ta eskefik asko.

[Euzkadi, 1914-X-9]

Opautzut landa zabal
ofeik bare-bare
igaro daizuzala
eragozpen bage...
Euzkadi'ra bigurtu
laster ostera be,
osasunez ta ufez
beterik goi ta be.

(Euzkadi, 1916-V-28)

URKIOLA'TIK

Afospide'tar Jon osatzale,
Zeure emaztia ta sendi,
Maitasunezko agur gozo bat
Artuxue gaur nigandi,
Deun Andoni'ri otoi egiñaz
Bai-nabil mendirik mendi,
Gogo ta goroutz indartziafen
Alde orduko emendi.

BIRITXIÑAGA'TAR JOSEBA'RI

Gabeko amafetan
dirakurt EUZKADI-N
gaur duala Joseba
abefitik ufin.
Idaho'ra txin-billa
nai dau egan egin...
Agur! Ibilli bizkor,
bigurtzeko arin.

Itz neurtu edefakaz
ein dauskuzu agur,
Kirikiño'k nai daun lez
egoki ta labur.
Idaho ori ba'lego
Gernika baxen ur,
zeugaz nintzake... baña,
ni bildur nok, bildur!

Doixtar itxasnekuak,
egunez ta gabez,
aspaldi ainbat ontzi
ondoratu dabez.
Gomuta onek nauko
sarri atsekabez;
zeu, baña, Gongotzonak
jagongo al zabez.

Agindu zeustan aixiak artzen
Ufutxu'n edo Bizkeri'n
Egun batzubek igaroteko,
Pizka bat gogortu nadin.
Bizkeri'k, baña, ostaturik ez,
Ta aixe utsagaz, zer egin?
Ori dala-ta Urkiola'r
Etofi nintzan aurtemin.

Aixe garbijak dagoz Bizkeri'n,
Baña aixiakaz bakafik...
Gorputza zelan indartuko da
Jan-edan egin bagarik,
Urdala beti ba-daukot gorgor
Gauzatxu ona gurarik?
Ofetarako ezin topeu lei
Au baño toki oberik.

Gustiz eder ta egokia da
Ni emen nagonostatu;
Etxe-iaubiak garbi ta onak
Dirala ezin ukatu:
Mavan jafita, zer gura ta axe
Bertora etorten yaku.
Aixiak, bafiz, iviungo onenak...
Geyau zer daiket eskatu?

Deun Andoni'ri otovak egin,
Gosaldu eta mendire;

Aixe bigunak artuaz nabil
Egal gustije begire.. .
Loditutene be pizkat asi naz,
Ene lagun Arrospide.
Emen luzaro nengoke pozik,
Txindigaz ba'nintz. . . aizkide.

(*Euzkadi*, 1916-VI-7))

PERTIKA TA BILBAO'TAR SAMUELTA (*Muxika'ko seme osagilia*)

I lako mutil zintzo azkaiak
Ei'jen aintza oi dozak.
Eztakik ondo zer diran gaurko
Nire bijotzeko pozakl
Itxopenezko lora gustijak
Iri-barreka daukozak. . .
Usain gozozko zorun gustijak
Eugaz ixango al dozak!

(*Euzkadi*, 1916-VI-15)

EUZKEL IXENAK

Euzkel ixena dauken umiaik
Ixena be euzkeraz biar. . .
Abertzaliok esan dogu, ba,
Ori amaikatxu bidar.
Erde] ixenak beyuaz euren
Abixen billa or ziar. . .
Au iaristeko aita-ama bitxi
Eruan Jon ta Itziar.

(*Euzkadi*, 1916-VII-26)

EMEN DOK GURE BIRIGARO AUL (*Bere anai Jagoba'ren olerki bat zala-ta*)

Ortze illuna, zugatzak biloisi,
Bafatzan lorarik ezta. . .
Udia jun zan, udazkena be
Or dua iñes-iñeska. . .
Edur-mendiaik dagozanian
Eta ibayak ganezka,
Emen dok gure birigafo au
Negu-saferan abe.ska.

Ego-aldeko efietatik
Bigurtu intzan etxera,

Euzkera barik, arako txori
Mutilduauren antzera.
Ila bi emen einda, Bilbora
Ogija irabazterra...
Gaur eure "Negu-abe.sti" onaz
Ikaratu nok ostera.

Ameriketan ufetxiiiola,
Eta Bilbo'n birigafo,
Bizkaitar txori olerkarijok
Bixi dozak ondo arro;
Eta ni txindor gaxo au, bafiz,
Beti lez makal ta txiro,
Negu bildurrez basetxetxuan
Lumok astindurik nago.

Buenos Aires'ko Hale'n bixi dan
Ufetxiñolai esayok
Egin dayala egazkada bat
Onantz, iñundik al bayok.
Ai, nire poza! Gabon-Zarretan
Gurera joko balayok,
Jel-abestijak abestuteko
Alkafaz iru anayok,
Gomuta onek, bakar-bakafik,
Pozez zoratutene nayok.

(*Euzkadi*, 1916-XII-27)

MUTILAK, ZER DOK AU!

Geure utsak amar?
"Piña"-kuak dar-dar. . .
Abefiyau pozik. . .
Iltzalliaik, negar. . .

Ogera daustie gaur
"Euzkadi" ekafi,
Diputauzko usthayaz
Txukun, alaigafi.
Erditik eskumarantz
Begira naz jafi:
Bilbao, Ufutia ta
Egileor argi. . .
Zubikarai pozkiro
Daula esan legi,
Elgezabal ta Sota
Gizon agurgarri. . .
Rotaetxe zain dago,
Zintzo adi-adi.
Landaburu'k "eraen gauz"
Diñola dirudi,

Urrengotxea, Torre,
"Piña"-n ondalari.
Ofa jeltzale utsak
Amar ekautari'. . .
Altzaga geuriagaz
Bederatzi ta bi. . .
Au dok mofoskerija
Doguna irafil

Ezpatadun au nor dan
Ezin dot igafi.
Nor al da, ba? Deun Mikel?
Ala "Piña" lafi? . . .
Eztirala sartuko?
Nok esan dau ori?
Sartu ta ixango be
Geure banakari,
Lagunduko dautsenak
Gogoz Bizkayari,
Araba, Gipuzkoa,
Baita Napafari,
Ta eztabez aztuko
Zubero, Laburdi.
Egizko geure Ama
Dalako Euzkadi,
Anai onak lez lagun
Egiñik alkarrí,
Zoruna jaristeko
Euzkelerriari.

Artuxue, amaikok,
Gaur nire opari,
Poz-agur sutsua ta
Zorunak ugari!
Gora gure Jelbatza
Ta Euzko-Gastedi!
Abefi aintzarako
Olantxe iyan bedi.
Agurl ta agindu noz-nai
Zeuen Enbeita'ri.

(Euzkadi, 1917-III-20)

AÑOSPIDE'TAR JON MIRENA'RI
(*Gernika'n Batxiler ikasketak amaitzean*)

Txoritxu batek ekafi yeustak
Gaur izpafik alayena:
"Gustien goitik zuen efitar
Gaste zoli Jon Mirena."
Euzkadi'k beren bijotz erdian
Jdatzi yok ire ixena,

Ezaguturik euzko-eredu
Agurgafi bat aizena.

Sei urteetako ikastaroak
Danen gain. . . dozak igaro,
Urten daula ikasle lagun
Gustijak baño gorago;
Aplikadue baño geyau be
Bai azala ezaun dago.
Gurenda ofek poztu nayok, ba,
Ik uste baño geyago.

Zugatzak beti emon oi daula
Beran antzeko igali,
Esakun zafak olan diño ta
Eztaue txarto igafi.
Buru argi ta biotz apaldun
Aizkide azkar on ofi
Opa deuataz zorun utsezko
Urte gozuak ugari.

(Euzkadi, 1917-VI-15)

MUNGIA'N ARATOSTE EGUNETAN

Ain ziran egokijak, ain ziran alayak,
Mungiar Batzokijan egin ziran jayak!
Aretua gonburuz beterik eguan
Antzerti-jayok asi zirean orduan.,
Lenengoz antzeztu zan "Eskonduko al
[naz",
Gero "Meza barria", egoki ta benaz.
Antzezlarí gustijak ein eben ederto,
Nik uste neban baño askoz be obeto.
Baita onen ondoren eresi-soñuan
Aldi gustiz alai bat igaro genduan;
Ganboa'tar Iñese, neskatxa bikaña,
Asten da pianua joten... zelan baña?
Gabilongo, Afuza, Garabilla, Atxabal,
Au artezkari zala, jezafirk zabal,
Biboliñakin soñu joten asten dira.
Axe bai jotia "Vizcaitik Bizkaira",
"Bide onera" be bai; azkenez, aur-dan-

[tza,

Eresi gustijori atararik autsa!
Ezta efez topetan, ene Kirikifio,
Soñulari oberik mnngiafok baño.
An zan pianu soñu, an bibolin-otsa!
Ango txalo jotia! . . . Zer zan ango poza?
Soñu eztitsu arek entzun ondorian,
Pozez zoratuta lez, antzoki ganian,
Egotxuai erainda, pikua zabalik,
Asi zan txindofa be abestu gurarik.
Txindofan txifistadak amaitu ondoren,

Danok abestu gendun "Euzko-Abenda-[ren]."
Astelen-astarteko gau bietan bardin
Mungiar Batzokijan jayak ziran egin.
Danoi dagitzubedaz eskarak ugari,
Batez be Atxabal'tar Endika jaunari.
Ekin gogor Euzkadi, lenau zan lez azke,
Arrotz-buztarri barik, jarriko dan arte.

(*Euzkadi*, 1917-II-29)

Ta lasai bizi . . . , laister
Buru, ego, anka
Sendaturik, abesten
Alai jungo da-ta.

(*Euzkadi*, 1917-VI-1)

POZ-AGUR SAMUfiA

AZKOITI'KO "ADARKA"-RI

"Piñu-tzar" jauskerako
Poz dardakadiak
Gexotuta kabian . . .
Sei egun aundiak.
Ofilaren batian
Mankau anka biak.
Gurendako bi egun
Gomutagafiaiak
Bai-dauzka Mu,xika'ko
Txindor elbarriak.

Gurenda ospatzeko
Txifist egin nayan,
Gogorik alayenaz
Zeguan garayan,
Ezbiar gaitzak artu
Zuala mendian.
Baña, uste baño len,
Ala biafian,
Makulu biak utzi
Zitun baztafian.

Zure otoitz beruak
Deun Andoni'gana
Egiz ziñestuten dot
Elduko zirana,
Len makulu birekin
Nekez zebilena
Ija sendaturikan
Dagolako dena:
Emendikan sortzen zait
Nere ziñesmena.

Tamal artu zenduan,
Aizkide "Adarka",
Muxika'ko Txindofa
Zauritu zala-ta;
Maitasun origaitik
Eskafak aneika,

Afospide ta Basabe'tar Jon,
Mutiko zoli otzana,
Eure guraso gurgafijak lez
Ain lotsa ona dokana:
Askon aufian erakutsi dok
Buruz argije azana.
Artu egik, ba, neure poz-agur
Bijotz erdiko laztana.

Lau ikastaro igaro dituk,
Lauretan nausi urten dok;
Ik baxen efez garaitza ori
Etxok jaristen edonok,
Bardindu dituk ikastetxian
Egon dirian onenak;
Izpar onegaz ik uste baño
Askoz geyago poztzen nok.

Aita eta ama poztutene dozak
Euri begira jafita,
Ixeko bikain zolijak, baita
Eure arreba polita;
Aitila, bafiz, pozaren pozez
Or yagok ifi-bafeka.
Zorun gustijak euri opaltzen
Eure adizkide Kepa.

Abertzalien semia azan lez
Ba'intz astokrazia'koa,
"Jauntxu"- en batek oingo esan juan:
"Ai . . . ori dok talentoa!"
Igaitik, bafiz, apUkadua,
Itz augaz yoek naikoa.
Baña ofaitik etxaute ardurera.
Aupa, Jon biotzekoa!

Igafi barik ludiko gure
Urtiak aufera duaz;
Gaur mutiko bat az, baña bijar
I gixon andi ixango az:
Buru argidun kistar otzanak
Jauna'k sariztu daruaz . . .

Jafaitu yok, ba, bide onari
Aitak lakoxe goguaz.
(Euzkadi, 1017-VI-16)

"USTEBAKO"-RI

Gertetan naula neure
Abijatxurako,
Dirauste: gaur "Euzkadi"-k
Olerki bat dauko
—Ai, baña zein polita!—
Txindofarentzako,
Beraren egilia
Dala "Ustebako".

Au entzun dodanian
Asi naz begira ...
Ixan bere neuritzok
Neuretzako diva.
Enayoak, ba, orain
Juaten abira
Erantzun barik, eraz
Etorten ba'dira.

Ikaratu al zara,
Ene "Ustebako"
"Karatx" iru efitan
Aurkitu dalako?
Eukirik eun zaldiren
Baño geyagoko
Indardun burtaviña
Gevtu nai-norako?

Ofez ganera, bafiz,
Evi bakotxian
Zer jazoten dan berak
Nai daben gustijan
Jakin gura ba'dau be ...
Eztauko gatxian,
"Telegrafo sin hilos"
Daulako etxian,

Len neu nintzan Karatx'en
Lagun izparkari,
Baña anak zaurituta
Nintzianian jafi,
Jauntxuok lagun egin
Nairik Karatx'eri,
Ta oin eurenaz uvten
Daben ezaugafi,
Tramankuloi dautse
Burgos'tik ekarri.

Diraust bai-dakiala
Baita zure bafi,
Nun da zelan ein dozun
Olerkitxu ori,
Toki ofek inguru
Daukoz iru efi,
Muxiba, Gorozika,
Eta Ibañuri,
Toki ortan neuk bere
Txifist ein dot safi.

(Euzkadi, 1917-VI-25)

EZKONTZA
(Ezkondu: Erkoreka'tar Gotzon eta
Goiria'tar Pidele)

Edavi gafatzena
Ozpiña da berez,
Baña eztijak gozo
Bigurtzen dau efez.
Ezkon-buztarrija be
Ozpin ori legez
Bignrten da egizko
Maitasunan bidez.

Dozuen lez egiko
Maitasun sutsue,
Gustiz bigun, ariña
Ixango yatzue,
Ta Jaunak gotzontxurik
Emoten bautzue,
Euzkel ixen edefez
Ugutzaukozue.

Agur, ta ondo bixi,
Bikoitz edefoi!
Ixango al dozuez
Zovunak ugari.
Aiztuten ez itxi nik
Esaneikuari,
Egipenez goraldu
Daiguntzat Euzkadi.

(Euzkadi, 1917-X-22)

BETI EZTI GOZOTAN

"Balu-mendu"-k esanda
Jakin yuat lendi

Gaur bikoitzuko dala
Gure "Andutz-mendi"

Ollasko dotoriaz
Ollanda polita . . .
Zein bikoitz begikoa
Alkarraz jarrita!

Bata lagunhea zan,
Bestia be bakar. . .
Bijak bat egin yuek
Laguntzeko alkari,

Miketu baño lenau
Ori bai-nekiyan
"Andutz" sartuko zana
Gure kopradijan.

Ondo etorri, bada,
Neure lagun zarra;
Gustientzat etxagok
Emen leku txafa.

Iri nai deuak, bafiz,
Tokirik onena,
Beti eztzi gozotan
Eukiko auena.

Eure kutuntxu ofaz
Nai beste urtian,
Zoruntsu hixiteko
Euzkadi maitian.

{Euzkadi, 1918-I-17)

BERMEO'KO "KRESALA"-RI ERANTZUPENA

Enintzan aiztu, enaiz aiztutene . . .
Agindua zor dala-ta,
Ofako ustez, Gernika'rāño
Eldu nintzan ozta-ozta:
Buruko miñaz lari nenguan
Ta izugafizko marranta;
Zalburdi baten *ieurt* egin neban,
Lagun gustijak laga-ta.
Orditik ona emen bixi nok
Abijatxuan sartuta.

Osalarrijak agindu eustan;
"Ua ta sartu abijan,

Gura ezpadok gexo txar batek
Beingoko artu agijan".
Ganr esan yeustak: "Leku onetik
Iñes dok oingo aldijan . . .
Jakin egik, ba, egon intzala
Gustiz afisku andijan;
Baña etxaukok oin ardurarik,
Jagi adi euberdijan".

Esayoek, ba, zer jazo yatan
Orko abertzaliari;
Ainbat ariñen osatu nadin
Otoitz eiteko Jauna'ri,
Ta ondo jarten naizenerako
Bazkari edo apari
Eder bat gertau, danok batera
Gurenda ospetsu ori
Ospatu daigrrn, poz-atseginez
Esanaz: Gora Euzkadi!!

(Euzkadi, 1918-III-11)

IRUKOITZ BARRIJA

Bixerdoi baten sartzen nok eta
Igaroteko astija,
Artutene yuat "A B C" deitxon
Madriltar izpafingija.
Ene mutillak! Auxe dok auxe!
Auxe bai afigafijal
Geyauko barik sortu yauskuelc
Irukoitz bafi-bafija.

Begira nayauk irukoitz oni . . .
Auxe dok auxe berbera!
—Aita, Semia eta Goteuna?
—Ez, olan barik, bestera.
Esango yatzu zelan dan; ara:
Lotsage, dolor, gangafa,
Iru *bihote* ta iru *kalbogaz* . . .
Egizko afo bakafa.

Azpijan idazkun bat:
"El gran patriota".
Obe onen lekuau
Beste au ba'leuka:
"El gran malas entrañas",
Afo, buru-loka".
Ama il nai daun semiae
Ori yagoko-ta.

Ze ederto daguanl
Gixon bizkorraak dagoz
Lekuan-lekuan".
—Bai; entzun dot, A B C-k
Bosteun laurlekuan . . .

(*Euzkadi*, 1918-IV-25)

IKASLE'RI

Agur, "Ikasle" maite,
Zoli, zintzo, azkarra:
Pozik irakufi dot
Zure gaurko izpafa.

"Kirikiño"-ri agur
Pozez egin dautsozu;
Neu, be, bijotz osuaz
Zeure lagun naukozu.

Gandariasbeitia
Ta bere emazteari,
Euren lau semiakaz,
Zorionak ugari.

Zintzuak ixateko
Bijotz, gogo ta adin,
Itzez abertzaliak,
Eikerakaz be bardin.

Euzkeraz dakigunok,
Edonozi ta nainun,
Itz, idatzí eta abar . . .
Euzkeraz egin daigun.

Euzkel-ixenak jafi
Euzkotar umetxuai,
Etxe, txaide ta beste
Gauza gustiai be bai.

Erdeltzaletasuna
Jaurti bein ta betiko,
Ta asmo sendo bat artu
Euzkeraz eiteko.

Andra erdeltzalen bat
Ba'daukozu, gixona,
Ta nai botso umiai
Jafi erdel-ixena,

Neuriak diralako".

